

DEUSTUKO UNIBERTSITATEA
Filosofi-Letren Fakultatea
Euskal Filologia Saila

FELIPE AGUSTIN OTAEGI

BEIZAMAKO ERRETOREA

O. E.

Francisco Maria Altuna Bengoetxea
Donostia, 1991

BEATRIZ OTAEGI IMAZek

Francisco Maria Altuna Bengoetxea

Doktorearen zuzendaritzapean

burututako DOKTOREGO-TESIA.

Donostian 1991.eko Irailean.

A U R K I B I D E A

TESIAREN AURKEZPENA	1
1. JAIOTERRIA	10
1.1) BEIZAMA: KRISTAU HERRIA	10
1.1.1) Lehen arrastoak	10
1.2) IRUÑEKO ELIZBARRUTIA	14
1.2.1) Joaquín Xavier Uriz (1815-1829)	20
1.2.2) Herriko erretoregoaren etorkia	26
1.3) F.A. OTAEGUIREN AURREKO ETA ONDORENGO ERRETOREAK	36
1.3.1) Erretore guzien auziak	41
1.4) BEIZAMA: EUSKAL HERRIA	50
1.4.1) Beizama Unibertsitatea	50
1.4.2) Herriaren etorkia	52
1.4.3) Udalaren gobernu	65
1.4.4) Udaletxearen eraikitzea	74
1.4.5) Herriko bizitza	77
1.5) BEIZAMA: BORROKA HERRIA	84
1.5.1) Otaeguiaren garaiko gerrateen oihartzuna Beizaman	84
1.5.2) Napoleonen gerla eta lehen karlistada	95
1.5.3) "Konstituzioaren arauzko jaurpide" delakoaren kontrako gerra	111

2. IDAZLEA	138
2.1) IDAZLEA BERA NOR DEN	138
2.2) HAREN GURASO, SENIDE ETA ASABAK	145
2.3) HAREN BIZITZA	155
2.4) OTAEGUI OSABA-ILOBAK	167
2.5) LAGUNTZAILEAK ETA IBERO ETXEGILEAK	186
3. IDAZLANAK	192
3.1) EUSKAL LITERATURAN DAGOKION LEKUA	192
3.2) HAREN ESKU IZKRIBUAK	197
3.3) HAZIBIDEA	208
3.4) GRAFIARI DAGOZKION OHARRAK	223
4. HIZKERAREN BEREIZGARRIEN LABURPENA	228
4.1) MORFOLOGIA	230
4.1.1) Deklinabidea	230
4.1.1.1) Izena	230
4.1.1.2) Izenordainak	237
4.1.1.3) Erakusleak	239
4.1.2) Aditza	242
4.2) SINTAXIA	320
4.2.1) Harridurazko esapideak	320
4.2.2) Lokailuak	322
4.2.3) Juntagailuak (aurkaritzakoak)	338
4.2.4) Mendeko perpausak	343
4.2.4.1) Perpaus konpletiboak	343

4.2.4.1.1)	NAHI IZAN-en	
	konpletiboak	344
	A) Forma ez-	
	jokatuak	344
	B) Forma	
	jokatuak	345
4.2.4.1.2)	Beste zenbait	
	aditzen menpe	
	onduak	347
	A) Forma ez-	
	jokatuak	347
	B) Forma	
	jokatuak	349
4.2.4.1.3)	-(E)NA eta	
	-(E)NIK	352
4.2.4.1.4)	Instrumental	
	kasuaren markaz	
	osaturiko	
	konpletiboak	354
4.2.4.2)	Erlatibozko perpausak	355
4.2.4.3)	-(E)LAKO eta -(E)N -en	
	bidez lorturiko izenlagunak	364
4.2.4.4)	Baldintzazko perpausak	367
4.2.4.5)	Kausazko perpausak	369
4.2.4.6)	Perpaus kontsekutiboak	372
4.2.4.7)	NOLA..... -(e)N	
	HAIN....., ZEIN DA X	376

4.2.4.8) Partizipio perfektoaz baliatuz lor daitezkeen txertakuntzak	379
4.3) HIZTEGIA	381
4.4) ONDORIOAK	403
BIBLIOGRAFIA	409
AURKIBIDEA	

TESIAREN AURKEZPENA

Antzineko zenbait biografori sinetsi behar badiegu, haien liburuetan biografiaturiko pertsonaiak bi eratakoak izan ohi ziren: batzuk etorki gorengoak, jauregi ederrean sortuak; besteak, berriz, gizarteko maila apalenetako lohi artetik atereak. Haien sehasmatik bertatik ziren handikiak eta ospetsuak, eta hala izaten jarraitzen ziren bizi osoan; hauek ezerezetik abiatuak, beren bizitzako sencagailei esker iristen ziren famaren erpinera. Ia inor ez zen izaten, ordea, gehienok caren bezala, erdi-neurrikoa, alegia ez erralcoia eta ez hañoa.

Neure tesigaiari neurri bat eman beharko banio, esancc nuke erralcoia izatera inondik ere iritsi caba, ez cela arrunta ere; erdi-neurrikoa dela, alegia, gorantz cehiago jotzen duena beherantz baino. Neure tesigaiatz ari naiz, noski, gaiatz beratz, ez nik tesiarri erantsi cioan itxuratz eta eiteatz; azken honetatz besteri bait caokio iritzi ematea, ez niri, eta hori egiten ariko banintz, arrazoi osoatz esan bait lezake norbaitek artabero usaia cariocala alde guztietatik, eta ez nuke hori nahi.

Hori ez, baina tesigaiata bera ene ustez baliotsua dela bai, aitor dezakecala uste cut, ez bait da egunoro lan egin ahal izaten inoiz arçitaratu gabeko obraz, inork ezacutzen ez cuen idazleatz, eta cainera ez bart arratsekoatz ez eta herenehungoatz, baizik duela ia berrehun eta berrogeitamar urte jaiotakoatz, beratz klasiko dei

dezakegunaz, Asteasuko Agirre eta Gerriko eta gainerako idazle gipuzkoarren kidekoaz.

Balio horietaz gainera badu niretzat tesigai honek beste bat, hemen ezin isil dezakedana, niri begiak pixka bat agian lausotu dizkidana gure idazle honi gehiegixko ederrestean: haren herri berean sortua naiz, alegia, eta haren deitura berbera daramat. Ez jakin ez ote naizen ere haren odoleko. Hori horrela izanik, nola ez nuen hartaz egingo tesia? Ezagutu nuen bezain laster erantsi nizkion eskuak lanari eta ez zait damutu. Hona nola ezagutu nuen.

Orain dela urte batzuk Hezkuntz Sailak deituriko oposaketak prestatzen ari nintzelarik, nire eskuetan nerabilen Fr. Luis Villasanteren Historia de la Literatura Vasca. Liburu honetan aurkitu nuen lehencabiziko aldiz hauxe zioen alpamena: "Al publicarse los sermonarios clásicos de Juan Bautista Aguirre y de Juan Ignacio de Guerrero, también parece que se hicieron gestiones para la publicación de la obra de tipo similar del Párroco de Beizama (Guipúzcoa) Don Felipe Agustín de Otaegui, muerto en 1840; pero sea por una causa, sea por otra, esta extensa obra no se publicó; y aún hoy permanece inédita. Son cuatro grandes fajos de sermones con sus correspondientes títulos: Sermones morales y panegíricos; Pláticas Doctrinales; Explicación de la Doctrina Cristiana; Homilías." (1).

Instant hartan sorturiko jakinminari jarraitu natzaio orain arte. Oposaketak bukatu eta berehala hasi nintzen esku-izkribu nauen aztarna bilatu nahian.

Ez zen erraza izan aurkitzea. Lehendabizi Beizamako erretoretxera joan nintzen, baina zoritxarrez hutsik zegoen aspalditik eta bertako elizako liburuak Donostiako Elizbarrutiko Artxiboan zeuden. Gainera esku-izkribuak ez zeuden han, baizik beste leku batean. Etsi nuen ez nituela sekulan aurkituko.

Alabaina, Felipe Agustin Otaeguiaren esku-izkribuak ka-sualitatez aurkitu nituen, gutxienean uste nuen garaian: Lazkaoko Benediktinoen Konbentuan zeuden.

Legajoak, paper xortak jakanik askatuak zeuden eta zortzi aletan azaleztatuta. Eenetan lan oparoa iruditu zitzaidan Beizamako erretorearena eta neure iritzi apalean kontutan hartzekoa bere obra guzia.

Halaz guztiz, neure iritzian gehiegizko konfiantzarik ez nuenez gero, gure irakasle izandakoen aburuen bila hasi nintzen.

Aloe batetik, Deustuko eta Donostiako E.U.T.G.-etako Euskal Filologiako Katedradun Patxi Altunarena eskatu nuen. Bere iritzi ona jaso ondoren, Gasteizko Unibertsitateko Katedradun izandako Koldo Mitxelena Jaun agurgarriarengana jo nuen. Bere erantzuna izan zen gipuzkera ez zela gehiegi ezagutzen zen euskalki horietakoa. Honez gain, XVIII eta XIX. gizaldietan zehar Gipuzkoan ez genituela idazle asko esan zuen.

Ez zuen bestelako aipurik egin idazle hau ezagutzean, baina interesgarritzat jo zuen haren ezagutza.

Horrela bada, Aita Altunaren gidaritzapean ekin nion Felipe Agustinen esku-izkribuen ikerketari.

Filosofia eta Letrak karrera bukatu ondoren Lizentzia turako tesina egin nuen. Orduan aukeratu nuen gaia Beizamako euskararen ikerketa fonetikoa izan zen bereziki. Zer esanik ez, Beizamako hizketaren azterketa sinkronikoa izan zen. "Korpus" bat analizatuz egin nuen lana. Herriko zahar eta ez hain zahar zirenen hizketa jaso nuen zuzenean magnetofoi zinta batean eta hizkera honen ikerketa fonetikoa, morfosintaktikoa eta azentoari zehokiona egin nuen. Ez nekien orduan urte batzuen buruan herri bereko seme euskal idazle batez egingo nuela doktore-lana.

Gaur honelako lan bati hasera ematean dudan xedea hau xe jakin eraztea da: Felipe Agustín Otaeguiaren obra bere garaian argitaratu ez baldin bazen ere, ez zela izan, cure uste apalean, bere kalitate edo maila eskasagatik. Tesian adieraziko dudan bezala, Beizamako erretorearen euskarara bere garaiko eta inguruko idazlerik onenena bezain ona da, dotorea haren idazkera. Edozein idazle klasikorekin erkatzeko modukoa dela deritzogu. Bere obraren hedadura handia da, ez zuen txolarte galduetan idatzi horrelako obra. Garbi ikusten da Felipe Agustinen helburua obra argitaratzea zela; horregatik eman zion batasuna, osotasuna bere lanari.

Otaeguiaren lana zortzi tomotan bilcua dago. Guztira 2500 orrialde inguru idatzi zituen lumaz, letra txiki eta txukunaz. Esku-izkribu hauek oso egoera onean iraun dute eta ez dago inolako eragozpenik irakurtzeko momentuan. Nik aurkitu nituenean, guziak fotokopiatzeko eta jasotzeko asmoa izan nuen, eta horrela hasi nintzen noizean behin Lazkaora joaten, xortaka fotokopiatzen eta Donostiara ekartzen. Aurrena lehen tomoa fotokopiatu nuen eta gero seigarrena. Hori egiteko ez nuen arrazoi berezirik izan, ustekabean gertatu zen: Artxibategiko liburu zaintzaileak horiek eskuratu zizkidan eta horiexek kopiatu nituen.

Baina egun haietan Euskal Elkarte Autonomoko Artxibategietako Arduradunek aurrerantzean esku-izkribuak fotokopiatzen ez uzteko erabakia hartu zuten. Eta hala, esku artean bi tomo bakarrik nituela ceratu nintzen. Dena den, Felipe Agustinen obraren erakusgarri gisa nahikoa zela irucitu zitzaidan eta lanean hastea erabaki nuen.

Esku-izkribuen gaia edo muina cidaktikoa da. Alci berean kristau doktrina cute irakasgai: Kreoaren edo fedearren artikuluiak, Jaungoikoaren Legeko Mandamentuak, Eliza Ama Donearenak eta Sakramentuak. Ecileak berak deritze "doktrinak", 6. tomoan, 113. orrian ikus daitekeenez.

Baina ez hori bakarrik, sermoiak edo platicak ere agertzen zaizkigu, abenduko, Garizumako, e.a.-eko ospakizunetarako. Baita sermoi panegiriko edo handiespenezkoak ere, hau da, Ama Birjinaren edo Santu berezien egunak ospatzeko egin zituen sermoiak.

Kristau ikasbide edo doktrinari atal luzea eskaintzen dio. Doktrina igande edo jai egun arratsaldeetan, "bezpe rak" zeritzen elizkizunetan erakusten zuen. Haietarako prestatuak zeuzkala deritzogu.

Sermoiak, berriz, igande eta jai egunetako Meza Santu ko hitzaldietan aditzera ematen zituela dirudi. Sermoi gehienak Beizamako erretoretzetik ekarriak omen dira, baina beste batzuk Tolosako Dona Maria Elizatik. Beraz, inguruko herrietan sermoiak azaltzen ibiltzen zela edo agian beste apaizek haren sermoiak erabiltzen zituztela pentsa dezakegu.

Landu dudan lehendabiziko aleak 200 orrialde ditu. Abenduko lehen igandetik hasi eta Garizuma bitarteko gertakizun liturgikoei dagozkien sermoiak biltzen ditu 35 hitzalcitan.

Aipagarria da tomo honetako 159 eta 160. orrialdeak ez direla Otaeguienak, beste norbaitenak baizik. Deskuidoz josi zituzten bestearen orriak eta Otaeguienak eta berehala antzematen da ez direla bereak. Gainera, 194 orri arte agertzen den "Dominica in Albis" sermoiari bukaera falta zaio; nonbait galdua edo beste libururen batean josia egongo da beharbada.

Beste tomoak, aldiz, 168 orrialde ditu, 134garrena haserarik gabe dagoelarik.

Metocologiari dagokionez, testua hondoraino ikertu eta hustu dugula esan behar dugu. Autorearen hizkuntza ahalik eta zorroztasun eta zehaztasun handienaz aztertu

dugu. Ez bait dago egina, nik dakidanez, ez XVII-XIX garren mendeetako idazle gipuzkoarren baten hizketaren azalpen osorik, ez eta -are gutxiago- orduko gipuzkeraren -gipuzkeren, hobeki esan- deskribapen zehatzik. Eta merezi duela uste dugu batena bederen egina egon dadin, besteenak honetatik zertan bereizten diren gero jakiteko.

Azken batean gure tesiak ikerketa filologiko eta linguistikoa izan nahi du. Felipe Agustin Otaeguiaren mintzaeraren berezitasunak azpimarratzen saiatuko gara. Hizkuntzalaritzaren eta filologiaren arteko harremanak eko interrelazioak estuak direla kontutan hartuz, lehenik oinarri filologiko finkoak jartzen ahalegincuko gara, ondoren linguistiko batzuetara iristeko.

Gure lanean ukitzen diren arazoan irtenbidearen ikuspegi orokor baten gabezia edo eza da beronen akatsa. Hau da, informazio eta dokumentazio urriaren erabilpenak ekar ditzakeen eragozpenak jasan ditugula esan nahi dugu. Aurrerago ikusiko dugun legez, Beizamako gaur egungo euskara ez da Felipe Agustinek erabili zuena bezalakoa. Aldaketa asko aurkitzen ditugu, baina arrazoi linguistikoak ematerakoan hipotesi gehiegi eraikitzeak arriskuan gaude. Informaziorik eza dela eta, egokiago deritzogu eskuetan dugun testuaren ikerketa zehatz eta larderiatsua egiteari. Hau da behintzat gure asmoa lan honi ekitean.

Halaz ere, autorearen obra zuzenean ezagutzen hasi baino lehen, bere garaiko gertakizun eta xehetasun jakingarri batzuren berri ematea bidezko iruditu zaigu.

Idazlea hobeto ezagutzearren, alde batetik Beizamako elizaren sorrera eta bilakaera ikusiko ditugu; aldi berean XVI. gizalditik aurrera eliza honetan erretore izandako apaizen historia labur bat egiten saiatuko gara.

Gizarte mailan, ekonomi mailan, e.a. -etan herrian gertatu ziren aldaketak ere aditzera emango ditugu.

Halaber, urte haietan izandako gerrateak ezagutaraztea interesgarria delakoan gaude, 1767. urtetik 1840. urte arte Euskal Herrian gerrate ugari eta gogorrak izan bait ziren eta Beizamako herritarrek jasan behar izan bait zituzten. Neure jaioterriaren historia koxkor hau hein handi batean inoiz argitara gabeko agiriz hornitua cator. Horien bila ibili izan naiz Donostiako eta Iruñeko Artxi boetan. Hemengoan ezin esan nolako laguntza eskaini dican Jose Goñi Gaztanbide jaunak, Iruñeko Katecraleko Artxibari eta Bibliotekari denak. Bere borondatez lagundu dit, beste inolako arrazoirik gabe. Iruñeko Agiritegian ez nuen eragozpenik izan dokumentuak fotokopiatzean. Erraztasun guziak eman zizkidaten nire lana burutzeko eta hori beti eskertuko diet. Gainera, esku-izkribuetako idazkera zaila zenean eta hura transkribatuko zidan paleograforik aurkitzen ez nuenean, Goñi Gaztanbideren bihotz onak eta jakinduriak izugarri lagundu ninduten.

Aita Altunari gure eskerrik beroenak luzatu nahi dizkiogu bere laguntza eta aholkuengatik. Berari zor diogu Otaeguiaren esku-izkribuen balorazio eta oneritzia. Zer esanik ez, Aita Altunarenak cira tesiaren zuzendaritza

eta gidatze lana eta berari esker burutu ahal izan dut behar bezala.

Donostiako Agiritegiko zuzendari den Jose Luis Garro-ri ere nire eskerrona erakutsi nahi diot eskaini dizki-
dan erraztasunengatik, batez ere Elizbarrutiko Artxiboan Beizamako dokumentu guziak sailkatu gabe zeudela kontutan izanik.

Horrela bada, lehen kapituluetan Felipe Agustin Otae-
gui bere garai eta giroan kokatzen ahalegincuko gara, ge-
ro bera eta bere obra hobeto ezagutzearren.

.....

(1) Villasante, Fray Luis: Historia de la Literatura Vasca, 226. orr. Editorial Aránzazu, 1979.

1. JAIOTERRIA

1.1) BEIZAMA: KRISTAU HERRIA

1.1.1) Lehen arrastoak

Historigileen ustetan, Euskal Herri an Kristautasunaren hedakuntza Hegoaldetik hasi eta Iparre rantz gauzatu zen. Beizamak, gure herri honetako beste herri txo askok bezala, XI. mende arte ez du inolako dokumentu edo agiririk.

1007. urteko agiri bat, eta ez 1027. ekoa, Carmelo Eche garay-k (1) dioen bezala, har dezakegu abiapuntutzat. Eskuz landua da, Santxo Handiak Iruñeko Eliza berriztatu zuela aipatzen duten hiru agirietan onena, eta "Libro Redondo" delakoan (51-52.orr.) (2) agertzen da oso egoera txarrean. Zorionez, "Libro Redondo" hori hondatu aurretik Fr. Prudencio Sandoval-ek argitaratu zuen, nahiz "Seiaz" irakurri beharrean "Seiar" irakurri zuen (52.orr., azkenhirugarren lerroan).

Andres Mañaricua-k (3) zehatz-mehatz aztertu du Kristautasuna Euskalerrian. Berak dioenez, X. mendean artean fedegabetasun aztarnak zeuden Euskalerrian eta ezinbestekoa zen Kristautasunak pausoz-pauso, astiro aurrera egitea, jendeak beste erlijio-sineste sendo batzuk bait zituen. Gainera, erlijio-sineste hauek bazuten eragozpenik: hizkuntza arrotzez jantzirik zetozen Iparraldetik nahiz Hegoaldetik.

Historialari honen esanetan, Calahorra eta Iruñea izan ziren hedadura-guneak, azken honek visigodoen gairako apezpikua zuelarik (4).

Baionari dagokionez, zenbait historialarik aho batez aitortzen dute 587. urtean apezpikua zuela, ordurako "civitas" bait zen.

Kristau-erromatar garaian Penintsula honako eliz-probintziotan banaturik zegoen: Galiziarra, Lusitaniarra, Betikoa, Karthagotarra eta euskaldunok bere barne hartzen gintuena: Tarragonatarra.

Tarragonatar Probintzia Atlantikotik Mediterraneoora hedatzen zen, Eizkaia eta Gipuzkoa barne, eta bertan gotzaindegi hauek sartzen ziren: Tarraco (259. urtea), Caesaragusta (258), Calagurris (457), Barcino (347), Rosas, Ampurias, Tarrasa (450), Lerida (516), Vich (516), Gerona (516), Urgel (527), Osca (527), Tarazona (549), Pampilona (589).

Euskal Apezpikutegirik zaharrena Iruñekoa da. XI eta XII. mendeetan "Iruinea" zeritzan, hauxe bait da jatorrizko izena, euskaraz "hiria" esan nahi duena.

Iruñeko Apezpikutegia agirietan VI. mendetik (589) aurrera bakarrik agertzen delarik ere, "Pampilona"ko lehen gotzaina Jondone Fermin izan bide zen, Amiens-en martiri hil zena, batzuren ustez I. mendean, III.ean beste batzuren eritziz. Dena den, gaur egun Jondone Fermin historia tik at geratzen da eta legenda bilakatu da.

Iruñeko elizbarrutia onik irten zen musulmanen eraso-aldetik eta gotzainak elkarren ondozka, etengabe, jarraian etorri ziren: Jondone Ferminen ondoren (III. mend.), Juan, Atilano, Marciano, Opilano, Wilensindo (849-860), Ximeno (876-914), Basiliano (918-922), Galindo (922-947), Blasco (971), Bibas (979), Julian (983-985), Sisebuto (985-997), Eximeno (1000-1005), Santxo Handia (1015-1024), Santxo Txikia (1025-1051), e.a. ditugu.

Nekez ezagut ditzakegu Iruñeko elizbarrutiaren jatorrizko mugak. Dirudienez, aintzinako Vasconia-ko zatirik handiena hartzen zuen. Gaur egun historialari guztiek Bizkaia eta Gipuzkoaren ebangelizatzea Iruñetik heldu zela uste dute.

Arabiar inbasioak urteen buruan alda erazi egin zituen elizbarrutiaren mugak. XI. mendetik aurrera Gipuzkoa ia oso-osorik Iruñeko elizbarrutiaren barnean agertzen da eta seguraski inoiz ez zen Iruñetik bereizi.

XII. mende bukaeran Iruñeko apezpikuak Gipuzkoako zati txiki bat behin behingoz eman zion Bernardo Lacarra Baionako apezpiku zenari. Iruñeak ez zuen Hondarribiko artzapezpegia 1567. urte arte berreskuratu; urte horretan, Done Pio V. aren erabakiz, Iruñeari atxiki zitzaizkion artzapeztegi hauek: Doneztebe, Baztan, Hondarribia eta Naparroako mendiko Bost Hiribilduak.

Bestalde, 1378tik aurrera Mendebalean bereizketa gertatu zenean Elizan sortu zen eztabaidak ere eragin zigun. Garai honetan Aita Saindu bat baino gehiago izan ziren

aldi berean, bata Erroman bizi zela eta bestea Avignon-en. Orduan Inglaterrak Erromako Aita Saindu zen Urbano VI.aren alde egin zuen, Frantzia, Espainia eta Naparroa, aldiz, Avignon-eko Clemente VII. arengana ierratu ziren bitartean.

Iruñeko apezpikuek ontzat hartu zuten Avignon-eko Aita Saindua.

.....

- (1) ECHEGARAY, Carmelo: Compendio de las Instituciones Forales de Guipúzcoa. San Sebastián, 1925. 6.orr.
- (2) Ikus 1. eranskina.
- (3) MAÑARICUA, Andrés de: La cristianización del País Vasco. San Sebastián, 1978. 7.orr.
- (4) IDEM. Op. cit. 72.orr.

1.2) IRUÑEKO ELIZBARRUTIA

Gorago adierazi dugun legez, latinez Pampilonena eta XI eta XII. mendeetan Iruñea zeritzan apezpikutegia onik irten zen musulmanen erasoaldetik eta apezpikuak erreskadan etorri ziren.

XII. mende bukaeran Iruñea Zaragozaren menpe geratu zen. Pedro París Iruñeko gotzainak Gipuzkoako zati txiki bat eman zion behin behingoan Bernardo Lacarra Baionako apezpikuari.

Alabaina, uste baino denbora luzeagoan geratu zen bertan Celestino III. aren bulda baten bidez baimena eskuraturik, eta 1567. urte arte Hondarribiko artzapeztegia ez zen Iruñera bihurtu. Urte horretan, lehen esan bezala, Baztan, Doneztebe, Hondarribia eta Naparroako mendiko Bost Hiribilduak zeritzen artzapeztegiak Iruñeari eratxi ki zitzaizkion Done Pio V. aren aginduz.

Geroago, 1577 an Gregorio XIII. ak Pio V.a ordezkatu zuenean, Sosiondo Txit Argiak Baionako elizbarrutiari kendutako zatia berreskuratzeko ahaleginak egin zituen, baina gogor saiatu arren, ez zuen egoera aldatzerik izan.

Ondoren, Antonio Zapata Mendoza euskalduna (1596-1600) Iruñeko elizbarrutiko apezpiku zenean, gotzain-ikustaldia eginez Gipuzkoara etorri zen eta bertakoekin oso harreman onak izan zituen. Baina Burgosa bidali zuten artzapezpi-ku. Gipuzkoarrek hara igorri zuten Pedro García Albisu mandataria.

Insaustik bere Obispados en Álava, Guipúzcoa v Vizcaya hasta la erección de la Diócesis de Vitoria liburuan (1) eginbide horren ondorioak jasotzen ditu, oso interes garriztat jotzen bait ditu.

Apezpikuak Gipuzkoan egin zioten harreracatit txit pozik zegoela eta Burgosen zein beste edozein lekutan zegoela ere, gipuzkoarrak gogoan izango zituela acierazi zion arartekoari; halaber, hemengo agintarien nahia, hots, Gipuzkoak bere gotzaina izatea, aintzakotzat hartu zuela eta Erregeri hartaz mintzatu zitzaiola jakinerazi zuen, Iruñera maiz joan behar zuten apaiz gipuzkoarren gastuak gutxitu egin behar bait ziren, apaiz guziak Probintziatik ateratzen zuten diruari esker bizi ziren eta.

Hamar urte beranduago, Probintziako Batzar Nagusiaren ustez, pribilegio edo bereiz-lege zaharrak baieztatzea eskumen berriak ematea baino errazagoa izango litzateke agian, aspaldidanik Donostian Bikari-etxe bat zegoelako. Gai hau aztertu zuen 1614. urtean Hernanin egin zen Batzar Nagusiak. Orduan bezalaxe, Bikario Nagusia donostiarra izan zedin eta maila egokia zuten gipuzkoar guziek kargua erdiesteko aukera berberak izan zitzaten eskatzen zuten.

Luzaroan hinki-hanka ibili ziren. Apezpiku izateko asmorik ez cuen Larramendik herriaren pentsakera jakin erazten du, noski, honako hau dioenean: "Siempre me ha parecido grande el inconveniente que de muchos modos proviene a Guipúzcoa de no tener un Obispo aparte y de

estar sujeta a dos obispos, y ambos distantes. Esta distancia, y el ser montuoso y áspero el terreno, hace que pocas veces bajen los obispos a visita, y teniendo cerca y dentro de Guipúzcoa de asiento el obispo, cesaban estos inconvenientes y con la ventaja de que se quedaría en Guipúzcoa todo el dinero de los gastos precisos y es causa de mucha pobreza en Guipúzcoa". (2)

Bada, hauxe da 1754. urtean bere Corografía idaztean Larramendik uste duena.

107 urte beranduago, 1851 an lortu zuen euskal probintziak bikarietxea.

Azkenik, gauzak erabat konpontzen dira 1861 ean: Gasteizeko, hots, Arabako elizbarrutia eraikitzen da, Gipuzkoa eta Bizkaia bere barne dituela. Euskal Eliza osatzeko aurrerapauso handia da.

Lan honetan interesgarria iruditu zaigu Otaeguirekin harremanak izan zituzten Iruñeko elizbarrutiko gotzainak aipatzea.

Felipe Agustin Otaeguik 1783. urteko irailaren 19 an hartu zuen lehen ordena Iruñeko Apezpiku zen Agustin Lezo Palomeque jaunaren eskuetatik eta mende erdi batean, gutxi gora behera, beste bost gotzain izan ziren:

Agustin Lezo Palomeque 1779-1783

Esteban Antonio Aguado Rojas 1785-1795

Lorenzo Igual Soria 1795-1803

Veremundo Arias Teixeira 1804-1814

Miguel Marco Mateo (Probisore eta Bikario Nagusia eta Eliz-Gobernaria)

1804-1815

Javier Joaquín Uriz Lasaga 1815-1829

Miguel José Irigoyen (Eliz-Gobernaria)

1822 ko irailaren 8 tik-

1823 ko maiatzaren 4 ra

bitartean.

Severo Leonardo Andriani Escofet 1830-1861

Felipe Agustin Otaeguik Iruñeko Katedraleko apaiz kallonjea eta gobernari eta bikario nagusia zen Miguel Marco doktorearen eskuetatik jaso zuen Erretore titulua. Egia esan, Veremundo Arias Teixeira jaunak eman behar zion, berau bait zen orduan Iruñeko Apezpiku, baina jarraian aipatuko ditugun certakari batzuk zirela eta, elizbarrutitik kanpo zegoen.

Jose Goñi Gaztanbide jaunak, Iruñeko Elizbarrutiko Agiritegiko egungo arduradun nagusiak, Historia de los Obispos de Pamplona obra argitaratu zuen, VII eta VIII. tomoak oraintsu atera direlarik. Gainera, ezagunak dira "Hispania Sacra", "Príncipe de Viana", e.a. aldizkarietan argitaraturiko bere hainbat eta hainbat lan. Garai hau zehazkien aztertu duen historialaria dela deritzagunez gero, gure iruzkinetan behin eta berriz baliatuko gara idazle honetaz.

Fray Veremundo Arias Teixeira Orensen jaio zen eta

Corias-eko monastegian (Asturias-en) hartu zuen beneditar abitoa. Santiago de Compostela-n latina eta filosofia ikasi, eta Valladolid, Salamanka eta Iratxeko unibertsitateetan hezi ondoren, arteetan, teologia sakratuan eta eliz-araudian batxiler, lizentziadun eta doktore tituluak eskuratu zituen. (3).

1804. urteko uztailean goratu zuten gotzain-aulkira eta lau urtez eraendu zuen bere elizbarrutia.

Egiteko hau frantziar inbasioak eten zuen, apezpikuari elizbarruti osoan barrena ibiltzeko astirik eman gabe. Gotzaindegiak 900 parroki baino gehiago zituen; horietatik erdiak, gutxi gora behera, Pirineoetan eta beste basoz betetako mendi malkartsu batzuetan zeuden, euri eta elurrengatik urteko sasoi gehienetan erdiestezinak zirelarik.

Horietako bat zen Beizamako eliza, "Corriedo de la Sierra" delakoaren barnean zegoena.

Bertan gorde zen 1806. eko uztailaren 26 an Azpeitian egin zen azken batzarreko aktaren kopia bat. Agiri honek dioenez, Gipuzkoako apaizak oro Frai Veremundo Iruñeko Apezpikuaren menpean ezarri ziren, frantsesei aurre egiten lagunduko ziotela esanez.

Felipe Agustinek beste gotzain batzuren eskuetatik jaso zituen bere titulu guziak, gehienak Esteban Antonio Aguado Rojas apezpikuagandik, eta Erretore kargua, berriz, Miguel Marco Mateo Eikario Nagusiagandik. Azken honek ordezkatu zuen Frai Veremundo Arias Teixeira, berau

frantziar gudaosteak txuliatuz ihesi joan zenean.

1808. go otsailaren 9 an gudaoste frantziarrak Iruñe an sartu eta herriaz jabetu ziren. Hilabete bat berandu-ago, Godoy-ri agintea kendu zion eta Karlos IV. aren erregetza-uztea eragin zuen Aranjuez-eko matxinada gertatu zen. Martxoaren 24 ean Fernando VII.a erregetzat hartu zuten, baina bere agintaldiak oso gutxi iraun zuen, maiatzaren 5 ean Espainiako erregetzari uko egin bait zion. 1808. eko ekainaren 6 an Bonapartek Jose I. a, bere anaia, izendatu zuen Espainiako errege.

Frantsesek apaizen egoitza gehienak hartu zituzten, bai gotzain-etxea ere. Indarrez eta mehatxupear, frantziar gudaosteentzat hiru mila erregeu cari eman ziezazkieten agindu zieten apaizei.

Monastegiei ere era guzietako eskakizunak egin zizkieten; La Oliva-ko monastegiari, 3.000 erregeu cari, 1.500 erregeu garagar, 75 erregeu barazki eta 3.000 pecar ardo kendu zizkioten.

1809. go abuztuaren 18 an Mariano Luis Urquijo ministro frantses-zaleak Espainiako prailego, eske-anaici eta apaiz-taldeak oro ezerezta zitezzen agindu zuen. Gainera, biraoka eta irainka ziharduten. Ondorioz, apezpikuak ihes egin zuen eta apaiz eta praile askok gerriletan esku hartu zuten.

Frai Veremundori Madriletik ceitu zioten, apaiz guzietan Jose I.a sasi-erregeari zor zizkioten fideltasun eta menpekotasunezko aktak ematera joan zedin.

Agindu hau ez betetzeagatik, bere beneditar abito apala jantzi eta Zaragozaruntz ihesi joan zen; handik Leridara eta hemendik Mallorca-ra. Gero Alicante-ko Huer-tas-era aldatu zen eta beranduxeago Naparroako diputadu izendatu zuten Madrileko Gorteetarako. Hemen era guzieta ko irainak pairatu zituen eta 1814. go ekainean Iruñera itzuli zen.

1814. eko azaroaren 13 an Frai Veremundo Arias Teixei rok Iruñeko elizbarrutiaren egoerari buruzko ikuska-txos tena "ad limina" idazten du. Bertan, Independentziako Gerratearen amaieran elizbarrutia zein egoera tamalgarri an zegoen aditzera ematen du.

Gerrate honetan 300 apaiz baino gehiago Frantziara eramán edo gartzelaratu egin zituzten eta haietako batzuk tiroz hil zituzten.

Gotzain honek apaizen ezagupen-maila igo arazi zuen, eliza batzutan parroku-laguntzailea jarri zuen, e.a.

Berak atera zituen Naparroako mendietako zenbait he-rritan bizi ziren agoteak beren gizarte-isolamendutik, berezgotik.

1814 urtean Valentziako gotzain-hiriko apezpiku izen- datu zuten.

1.2.1) Joaquín Xavier Uriz (1815-1829)

Jose Goñi Gaztanbide jaunak honela diosku bere lanean (4): "D. Miguel Marco, provisor y

vicario general de la diócesis de Pamplona, escribía con fidencialmente a su obispo Fray Veremundo Arias y Teixe ro, que el prior de Roncesvalles no tenía, o al menos él no le conocía, el don de acierto y de consejo y sí dispo sición para meter y comprometer al obispo en asuntos y proyectos difíciles sin reparar en los medios...".

Haatik, pixka bat beranduago Orreagako apaiz-burua Iruñeko Elizbarrutiko apezpiku aulkira igo zuten bere me rezimendu eta ongi-nahiagatik; azken hau da bere birtute rik nabarmenena, karitatea, alegia.

Xavier Uriz Lasaga Zangozako Sadan sortu zen 1747 urteko maiatzaren 25 ean. Legegizon izan zen, baina apaiz egin zen. Hamazazpi egunen buruan hartu zituen ordena guziak. Dirudienez ez zuen teologiarik ikasi, zuzenbidez ko ikasketak bakarrik burutu zituen. Anima-zain ere ez zen izan.

1777 an Iruñeko kalonje eta 1815 etik 1829 bitartean gotzain izan zen apezpiku honi "Obispo de la Caridad" de ritzo Jose Goñi Gaztanbidek.

Txirotasunean eta behar gorrian bizi ziren umezurtzek edo kaxako haurrek kezkatzen zuten apaiz hau. Asko eta asko oso gazterik hiltzen ikusi zituen eta haien biziak salbatu eta haiek hezteko egitamu orokor bat eratu zuen. Egitamu honetaz mintzo da eskuz idatzi zuen 598 orrialde ko lan batean.

"Causas prácticas de la muerte de los niños expósitos en sus primeros años: Remedios en su origen de un tan

grave mal y modo de formarlos útiles a la Religión y al Estado con notable aumento de la población, fuerzas y riqueza de España" izenburupean argitaratu zuen, azpian Joaquín Xavier Uriz Iruñeko Katedraleko artzadiakonoak idatzia dela adieraziz.

Haur-etxea 1805 eko ekainaren 11 n ireki zuten, Hospital Nagusian zeuden umezurtzak hara aldatu zirelarik.

Apezpiku egin zutenean, lehen-lehenik erlijio-klastro bilakatu zuen gotzain-etxea. Bere elizbarrutian barrera ibili zen, apaizekin buruz-buruko harremanak izaten saiatu zen eta seguraski halakoxeak izan zituen aztergai dugun Felipe Agustín Otaeguirekin ere.

Otaeguik Joaquín Xavier Uriz jaunari 1829 an bidali zion gutun bakar bat aurkitu ahal izan dugu. Dena den, bere "ad limina" azterketa-txostenean hauxe jakin erazi zion Erromako Aita Sainduari 1821 eko azaroaren 23 an (5): "Tomé especial noción del carácter, conducta y desempeño de las esenciales obligaciones de los párrocos, beneficiados o racioneros y de todos los eclesiásticos, examinando, menos a los primeros, a quienes no se hace desde que sinodalmente son aprobados para curas, a los demás en las materias morales. Debo afirmar por verdad y con singular consuelo, que en lo general los he hallado instruidos, morigerados, aplicados a sus ministerios y a no pocos de una vida ejemplar, con que producen un copioso fruto. Y sí, como no puede menos de suceder en tanto número, resultaron algunos negligentes en el estudio o

descaminados por efecto de la miseria humana, quedaron sin licencia hasta habilitarse los unos y corregí a los otros como pareció lo merecían inclinando....".

Gure ustez, Uriz Lasaga apezpikuak adierazten duen bi zitza jarraigarri edo ereduzkoa zuten apaiz horietako bat izan zen Felipe Agustin.

"Colegio de la Anunciada" zeritzan eskola zaharra berriztatu zuen, Gotzain-Elizbarruti bihurtu zuelarik. Batzar-Elizbarrutia ere berri zuen, hura hancitzearren eta bi Elizbarrutiak batzearren ondoko etxe batzuk erosi zituela.

Jesuitak Iruñera itzul zitezene eta Gotzain-Elizbarrutiaren zuzendaritzaz ardura zitezene nahi zuen, baina jesuitak 1767. urteko otsailaren 27 an egotziak izan ziren Karlos III. aren aginduz.

1820 ko urriaren 11 n etxaguntza edo maiorazko eta el karteak deuseztatzeko legea argitaratu zenean, patronatu eta kaperautzak desagertu egin ziren.

Alabaina, apaizeriari kalterik handiena egin zion legea 1820. eko urriaren 25 ekoa izan zen: lege honek prai le edo monje elkarteak ezereztatu zituen eta Iratxe (bere unibertsitatea barne), Leire, La Oliva, Fitero, Iranzu, Marcilla (Cister-eko Ordenakoa), Urdax, e.a.-eko monastegiek jasan zituzten ondorioak.

1820-1823 Konstituzio hirurtealdian Gobernu liberalak Elizari aurka egin ondoren, apezpiku, apaiz eta praileek Konstituzioa zein bikaina zen aditzera eman zezaten nahi

zuen, baina hauek eskakizunari uko egin zioten.

1822 ko abuztuaren 12 an, elizbarrutian egoteak ekar liezaiokeen edozein lipizta itzurtzearren, Burgosa joan zedila esan zion Barkamen eta Zuzentza Idazguko idazkari ak Iruñeko apezpikuari. Egia esan, gotzaina erbesteratze ko aitzakia besterik ez zen, haien aburuz nahastailea zen eta.

Apezpikua 1822. go irailaren 8 an abiatu zen erbestera, baina Burgosa zihoala, egun erdiko bidea egin ostean, gu dari boluntario talde batek hartu eta Frantziara eramán zuten; han, Baionan, "Los Cien Mil Hijos de San Luis" ze ritzenen zai geratu zen.

Apezpikua kanpoan zela, elizbarrutiko gobernari zen Miguel Jose Irigoyenek berariaz kendu zizkien hamabost apaizi meza eman, konfesatu eta prediku egiteko betebeharrak.

Irigoyenek haien berri izan balu, gauza bera gertatuko zitzaiekeen lehen beste kapitulu batean aipatu ditugun gerrileroei: Francisco Gorostidi Anoetako benefiziatu edo eliz-otseinari, Francisco Eceiza beizamarrari eta Francisco Zulaica Azpeitiko erretor-laguntzaileari.

1823 ko maiatzaren 4 ean bere elizbarrutira bihurtu zen eta Orreagatik gutun bat bidali zuen elizbarrutira liberalentzat barkamena eskatuz.

1823 ko ekainaren 11 n Espainiako erregeak Konstituzioa ezarri aurretik zeuden egoera berean birrezarri zituén erlijio-ordenak eta anaidiak oro.

1824 eko urtarrilaren 11 n Felipe Agustin Otaeguik gu tun bat idazten dio Beizamatik, biziki kezkatzen duen iskanbila baten berri emateko. Gainera zorionak ematen dizkio Fernando VII. ak gotzainari eman bide zion "Gran Cruz de Carlos III" zeritzanagatik. 1822 an Tolosan argitaratu zen Aita Echeverriaren katexismari egin zizkion zuzenketak eta oharrak ere adierazten ditu bertan.

Jose Goñi Gaztanbide artxibariak honela dio 1989. urteko azaroaren 2 an igorri zidan gutunean: "Hoy he presentado sus deseos en el Archivo Diocesano y Don Isidoro Ursua ha encontrado en el fichero la siguiente papeleta: Beizama, 1823. Anotaciones y Corrigenda del Catecismo en vascuence del P. Echeverria. Se transcriben frases en vasco y sus reparos. (Caja 421-n.31)".

Baina 421 zenbakidun kutxa oraingoz ez da azaldu. Jose Luis Sales jaunaren ardura eta laguntzaz noizpait aurkituko ahal dugu!

Oraingoz ez dugu adierazitako gutunaz besterik topatu, baina baziren eskutitz gehiago, antza. Bada, ez dugu gure lana osatzeko agiri gehiago erideiteko itxaropenik galdu.

Halaz guztiz, Uriz Lasaga Apezpiku jaunari bidalitako beste dokumentu batzuk ditugu eskuartean.

Horietako bat, Francisco Eceiza gerrileroak gudu-merezimenduengatik jaso zuen kalonigutza eskertu asmoz, Apezpikuari idatzi zion gutuna da.

Beste eskutitz batean Felipe Agustin Otaeguik gotzainari aipaturiko iskanbila hura nola konpondu zen aipatzen

da. Gai honetan Gipuzkoako Korregidoreak, Joaquín Uriz Lasaga Apezpikuak eta Francisco María Gorostidik esku hartu zuten.

1.2.2) Herriko erretoregoaren etorkia

Gorago esan dugunez, XVI. mende arte Beizaman ez zegoen eliz-libururik. Topatu dugun lehen kuadernotxoak 27 orrialde ditu eta 1585garrengo ekainaren 12koa da.

Halere, Iruñeko eliz-agiritegian badago urte hori baino lehenagoko auzi bat: Pedro Abaurrea prokuradore fiskalak 1519. urtean Beizamako Pedro Legarregui erretorea auzitara eraman zueneko agiria (6). Hauxe da herri txiki honen historiaz orain arte jakin dugun lehen berria. Auzia eskribau batek idatzi zuen paleografo askok ezin transkribatu izan duten hizkiak.

Hogeitazazpi orrialdeko kuadernotxo horretan ederki kostata irakur daitekeen lehen data, oso egoera txarrean bait dago, 1585.go ekainaren 12a da, eta azkena, berriaz, 160leko abenduaren 7a.

Hemen hasten da Beizamako erretoregoaren historia: kuadernotxo zahar honetan bataiatuen izen-abizenak eta bataio egunak agertzen dira. Pedro Otaegui da lehenbizi bataiatu zutena, Yñigo Otaegui eta Maria Ignacia Arreguiaren semea, Juan Ignacio Garagarza batxilerra aitabixi zela.

1585 urteko urtarrilaren 14ean Catalina Olozaga bataiatu zuten, Maria Olozagaren alaba, Rodrigo Olozaga aita bitxi izanik, e.a.

Bigarren liburua 1600. urtean hasten da; idatziz jasotako lehen oharra Iñigo Velamendiarena da. Liburuak 1614 urteaz geroztik izandako hildakoen berri ematen du.

Ezkonduei eta beilatuei buruzkoa 1614ean hasten da. Badira beste liburuki batzuk: Martin Otaeguik utzi zuen miserikordiako kuxari buruzkoa; Errosarioko elkargoaren liburua; Elizako fabrika-liburua; Laguntza-liburua, eta abar.

Donostiako elizbarrutiko agiritegian jarraian aipatuko ditugun eliz-liburuak daude:

Beizama:

Bataiatuak	1586-1716
Hildakoak	1614-1717
Konfirmatuak	1633-1714
Bataiatuak	1717-1752
	1752-1790
	1790-1841
	1841-1876
Ezkonduek	1614-1718
	1717-1819

Beilatuak 1746-1819

1819-1864

Hildakoak 1717-1809

1809-1886

Bataiatuen zerrenda 1585-1841

Ezkonduen zerrenda 1614-1915

Bataiatuen zerrenda 1841-1903

Hildakoen zerrenda 1809-1908

Fabrika kontuak 1598-1683

1681-1762

1764-1886 (gurutzeria
eta sakristiako obra,
166. orr.)

Aditzera eman ditugun eliz-liburuez gainera, "Corriedo de la Sierra" zeritzan Elkargoaren liburu bat ere badago: "Libro de las Constituciones asientos y decretos de la Cofradía de los Señores del Corriedo entero de la Sierra".

Dirudienez, aztergai dugun garaian Iruñeko elizbarrutia haran edo "corriedo"tan banaturik zegoen. "Corriedo de la Sierra" delakoa Goiatz, Bidania, Albiztur, Errexil eta Beizamako parrokiek osatzen zuten.

Konstituzioak 1676. go apirilaren 14 ean dekretoz onartu ziren. Beraz, egun horrez gero, herri horietako

parrokoak urtero herrialde ezberdin batean elkartzen ziren.

Felipe Agustin Otaegui jauna zen Elkargoko diruen gordairuzaina. 1793, 1810, 1823 eta 1836. urteetan Beizaman bildu ziren beharrezko ziren erabakiak hartzearen.

Agidanean, azken bilera 1838. urteko ekainaren 11n Bidanian egin zuten, egun horretan sinatzen bait du Felipe Agustinek azkenekoz bere hizki garbiaz idatzizko ohar bat.

Liburu honetan zehar, behin baino gehiagotan aipatzen da Jose Manuel Guerrico jauna, Apezpikutegetiko Probisore eta Eikario Nagusia.

Felipe Agustin Otaegui jaunak idatzitako gutun asko eta asko galdu egin ditugu, eta galdu ezean, erroldatu gabe egongo dira agiritegiren batean, hau tamalez maiz samar gertatzen bait da gure herrian.

Ez dugu Beizamako elizaren jatorri iluna argituko zuzkeen dokumenturik aurkitu. Egunen batean horri buruzko jakingarriak adierazteko aukera izango ahal dugu!

Oraingoz, bere gaur egungo egoeraren eta eliza zaharrean egin ziren berrikuntzen nahiz bigarren zatiaren, gurtzaduraren, aldare-aurre edo presbiterioaren, sakristiaren, e.a.-en eraikuntzaren berri eman dezakegu, soil-soilik.

Herri-tradizioaren arauera, Beizamako eliza inguru horretako zaharrenetako bat dela dio Gorosabelek. Eta

herritarren sineste honek arrazoibide sendoak ditu seguraski.

Done Laurentiren baseliza izan omen zen jatorrizko herri-eliza. Beizamako eliza zahar-zaharra denez gero, hori argitzea arras zaila da.

Elizan zati hauek nabarmentzen dira: eliz-aurrea, elizaren gerria, sakristia eta arkupeak.

Eliz-aurrea edo portada klasikoa da, goikaldean hiru-ki erako frontoia edo elizgoi-ertza duela, beronen aldeak angelua osatu gabe moztuak geratzen direlarik.

Elizaren gerria, gurutzadura eta aldare-aurrea cituen angelu zuzenezko nabe bakar batek osatzen du. Nabea gurutze-ganga batek estaltzen du, eliza gotikoen antzera, ganga eusteko hormen goikaldetik abiatu eta alde guzietara barra-barra banatzen diren nerbio sortak dituela. Honek ez du esan nahi eliza gotikoa denik, hormen apainduretan antzematen diren Pizkundeko elementuek eraiketa beranduagokoa dela adierazten bait dute.

Ez dute egitura bera gurutzadura estaltzen duen gangaren arkuek, hemen, nabeko parrastada alde batera utziz, zeharrezko bi arku ximple bakarrik agertzen bait dira, igeltsuzkoak diruditen eta apaindu besterik egiten ez duten bi arku ximple.

Aldare-aurre edo presbiterioa oboerdikoa da, sapaitzat maskor-ganga duela, Pizkunde garaiko elizetan ohizko den bezala. Gurutzearen ezker aldean zoko zuzenezko sakristia dago, uxtaiez hornituriko oboerdiko gangaz.

Beizamako eliza Pizkunde estilokoa da, nahiz aro goti-koaren ostean egindako hainbat elementu gotiko dituen.

Pizkunde estiloaren barnean, mendeetan zehar estiloak izan dituen aldaera edo modalitate anitzen ispilu da; on-dorioz, esan daiteke eliza ez zela garai jakin batean oso-osorik eraikia izan, XVI. eta XVII. mendeen bitarteko aro ezberdinetan baizik.

Hala ere, eskubiko arkupearen ertzean barrunbe bat da go, erpin moduko bi arku formero zabalaren barnean sarturik.

Barrunbearen lau angeluek oraindik bertan dauzkate gangatxo baten euskarri diren curutze-arkuen abiaguneak.

Barrunbeak aintzinean kapera izan zela dirudi edo bes-tela, nabe baten ertza ere izan daiteke.

XIV edo XV. mendekoa izan liteke. Orobat esan dezakegu elizan sartu eta eskubitara, elizaren atalondoan dagoen zizkuaz.

Dorrea karratua da eta kupula erdiesferiko batean amaitzen da. 1928 an egin zen. Eraikuntza osoa, eliz-burua ezik, egurrezko sapaia duen arkupe batek inguratzen du; hau eliza osoa estaltzen duen sapaia luze da.

Beizamako elizako fabrika-liburuak ikuskatuz, 1598 eta 1886 urteen bitartean parrokiaren eta basilizetaren aldaketak izan zirela ikusten dugu. Baita protokoloak arakatu ere. Baina xehetasun guztiak jakin eraztea luzea ezezik alperrikakoa ere izango litzatekeenez gero, gertakari garrantzitsuenen azaleko deskribapen bat egin nahi

izan dugu.

Beizamako elizan eginiko obrei buruzko lehen berria 1601. urtekoa da. Iruñeko Katedraleko Artxibategian Pedro Marichalar notariak urte horretan egin tasazio baten egiaztagiria aurkitu dugu. (7).

Tasazioa Domingo Bidarte arkitektoak eta Jeronimo Larrea eskultoreak, biak tolosarrak, egindako erretaulari eta sagrarioari dagokie.

Obra hauek 886 dukatu balio dituzte eta Apezpikutegiko Bikario eta Prokuradore Nagusiaren, hots, Dionisio Fernández-en onespenez egina da tasazioa.

1614. urteko urriaren 5 ean Pedro Otaegui Beizamako erretoreak, Pedro Otaegui Garagarza alkateak, e.a.-ek sakristia eta klaustroa birreraikitze baimena eskatu zioten Iruñeko Apezpikuari.

1625. go abuztuan Beizamako apaiz eta zinegotziak Iruñeko Apezpikutegira joan ziren kapera nagusiko sagrarioa eta erretaula nagusia urreztatu, estofatu eta margotzeko baimen eske, premiazko egoera larrian bait zegoen. Goetzaindegi osoko gobernadore nagusiak, Nebraja doktoreak, baimena eman zien 1626. go otsailaren 22 an.

1676. eko martxoaren 12 an obra berri batzuk egin zituzten, aurrekoak baino garrantzitsuagoak.

Teknikariek obra hauek jo zituzten beharrezkotzat: elizaren sarrerako atea, estalgune baten azpian, txoko itzaltsu eta ilun batean zegoena, handik kendu eta ate nagusia beste leku batean egitea, herriko enparantzara

jotzen zuen erretaula nagusiko atea irekiz; orobat, ordu an korua zegoen tokira leku-aldatzea, hari zegokion horma zati osoa deseginez eta eliza zaharrari ongi egokitu-ko zitzaion gurutze zabal bat erantsiz. Sakristia berri bat ere ezinbestekotzat jo zuten teknikariek.

Enkantea 1679. go uztailaren 2 an egin zen eta obrak 10 urtez luzatu ziren.

1807. urtean Beizamako elizako Zaingo Batzordeak elizan berrikuntza batzuk egitea erabaki zuen, besteren artean, aldare-aurrean eta aldare nagusiko erretaulan.

Erretaula neoklasiko berria moduzkoa eta dotorea da. Alboetako aldareak ere estilo berekoak dira, elementu barroko batzuk dituztela.

Organu berriak 35.375 erreal balio zituen. Hilerrri edo kanposantu berria elizatik kanpo eraiki zen 1809. urtean.

Beren luze-zabalera eta sencotasunagatik aipagarriak dira bi erretoretxe edo bikari-etxeak: bata, berriena, 1836 urtean eraiki zuen Felipe Agustín Otaegui bertako parrokoak (8) eta besteari "Erretore-etxe zaharra" deritza. Biek lorategi edo baratze hesitu bana dute; beroietan paseatzen eta errezatzen zuten otoitz-liburua apaizek.

Baina Beizamako elizaz gainera, herrian baziren gutxienez laburki aipatzea merezi duten hiru basiliza: Done Laurenti, La Soledad eta Santa Agueda. Lehenbiziko biek oraindik zutik dira, baina Santa Agueda basiliza

Felipe Agustin Otaeguiaren erretore aldian desagertu zen, Independentziako gerratean frantsesek narriotu edo profanatu egin bait zuten.

Protokoloetan eskuarki aipatzen dira sapai eta ateen konponketak, berriztatzeak, e.a.

Seroren eta Santa Aguedako baseliz-zainaren kargu-hartzeak, haltzarien, apaingarrien eta edalontzi sakratuen zerrendak, serorek berekin zekartzaten doteak, e.a. ere agertzen dira agirietan.

XVIII. mende arte ez zen aldaketarik jazo. Haatik, 1723, 1725 eta 1740 eko Batzarrek agindutako dekretoen ondorioz, pader edo baseliz-zainak eta serorek ezin zeza keten beren auzunetik kanpo abitorik jantzi, ez eskean ibili ere.

Debeku horiek babesten zituztenek, 1769. go uztailaren haserako Prokuradoreek, Tolosan egitera zihoazen Batzar Nagusietara eraman zuten beren eskea; eskabide honetan ziotenez, Probintzia osoan sakabanaturik zeuden baseliza ugariak Jainkozaletasun zintzoak eraginda eraiki zituzten gure arbasoek, baina urteen buruan ermitetan gehiegi keria nagusitu zen; horregatik, baselizak desager zitezten eta haien ondasunak eritetxe eta erruki-etxeetara bidal zitezten eskatzen zuten.

Prokuradoreen nahia beteaz, Tolosan 1769. eko uztailaren 5 ean egindako Batzar Nagusiek hauxe erabaki zuten: ermita batzuk desagertaraztea komeni zela eta herri ba-koitzak adierazpen-gutun baten bidez jakin eraz ziezaiola

Diputazioari zenbat baseliza kendu nahi zituen. Beizamak ez zuen erantzunik igorri. Dirudienez, ez zuen ermita bakar bat ere desagertzerik nahi.

1769 ko urriaren 13 an Erregeren Batzordeak serorak, baseliz-zainak eta ezinbestekoak ez ziren baselizak eze- rezta zitezen agindu zuen.

.....

- (1) INSAUSTI: Obispos en Álava, Guipúzcoa y Vizcaya hasta la erección de la Diócesis de Vitoria.
Op. Cit. 256.orr.
- (2) LARRAMENDI, Manuel: Corografía o descripción general de la Muy Noble y Muy Leal Provincia de Guipúzcoa.
Barcelona, 1882.
- (3) GOÑI GAZTANBIDE, José: "La Diócesis de Pamplona en 1814, vista por su Obispo". "Príncipe de Viana"n.
33 (1972). 293-422.orr. Op. Cit. 301.orr.
- (4) IDEM, Op. Cit. 353.orr.
- (5) URIZ LASAGA, Joaquín Xavier: "Causas prácticas de la muerte de los niños expósitos en sus primeros años: Remedios en su origen de un tan grave mal y modo de formarlos útiles a la Religión y al Estado con notable aumento de la población, fuerzas y riqueza de España". Op. Cit. 376.orr.
- (6) Ikus 5. eranskina. I.E.A., 437. kartoia, 31. zenbakia.
- (7) Ikus 2. eranskina.
- (8) Ikus 46. eranskina.

1.3) F.A. OTAEGUIREN AURREKO ETA ONDORENGOERRETOREAK

Beizamako elizaz mintzatzean, agian XIV. edo XV. mendeen inguruan eraiki zutela eta beizamarrek diotenez, aintzina ermita izan zela jakin erazi dugu. Be harbada azterketa toponimiko batek ikerketa historikoak baino errazago ikustaraziko liguke hala gertatu zena.

Baselizaren alboan "Eleizalde" izeneko baserria dago, hain zuzen ere "elizaren ondoan" esan nahi duena. Hizkuntzan oinarrituz, hauxe ondoriozta genezake: berau izan zela herrigunea edo biztanle-lekunea eta Done Laurenti bere aintzinako eliza.

Beizamako erretoreen historiari dagokionez, XVI. mende haserakoak dira lehen berriak. Iruñeko Elizbarrutiko Agi ritegian 36 orrialde inguru dituen paper-sorta aurkitu dugu; agiririk zaharrena 1518. go urtarrilaren 13 koa da: bertan, fiskalak eskatuta, Juan Pablo Oliveriok, Amaneo Labrit Kardenalaren bikario nagusiak, Pedro Legarregui Beizamako erretorea eskomikatzen du argibideak ematera ez azaltzeagatik. Auziak 1520 arte iraun zuen.

Hala ere, Beizamako eliz-liburuetan ez da Pedro Legarreguirik aipatzen.

1519 ko uztailaren 15 ean Pedro Amezuak aurkezten du bere burua hautagai. Geroago, Martin Zabala jauna izan zen Beizamako erretore, hau hiltzean erretoregoa hutsik geratu zelarik. Familiek Juan Mendizabal jauna (1559-

1565) erretore izenda zezaten eskatu zuten. Mendizabal aldi berean Alegiako erretore zen. Guk eskuratu dugun au zi batean ikus daitekeenez, Beizamako herritarrek bietatik bat utz zezala eskatu zioten. Baina berak, bi elizak elkarrengandik oso gertu zeudela eta biei bere arreta osoa eskain ziezaiekeela zioen. Halere, galdu egin zuen auzia eta amore eman behar izan zuen.

Herritarrek aukeraturiko Pedro Belamendia izendatu zu ten Beizamako erretore (1565-1584).

Geroago, 1584. urtean Martin Otaegui jauna egin zuten erretore. Apaiz hau, Pedro Legarreguirekin batera, apaiz ik interesgarrienetako bat dugu, ez bakarrik Beizamako etxalar batzuetako kideekin izan zituzten liskar luze eta zakarrengatik, baita beren garaiko gizarte eta erlijio egoera nolakoa zen antzematen laguntzen dīgutelako ere.

Ohi ez bezala, Beizaman bertako biztanleek proposatzen zuten erretorea, hau da, beraiek aukeratzen zuten eta gogo onez ordaintzen zituzten hamarrenak eta hautatu enak.

Haatik, auziek argi eta garbi aditzera ematen dīguten legez, apaizek ez zituzten beti herriaren eskakizunak be tetzen edo asetzen eta herritarrek beren etsairik gogorren bilakatzen ziren.

Auzietan, alde batetik salatzaile eta lekukoen taldea egon ohi da, luzaroan hausnartu gabe erretoreari gezurti eta iruzurti izatea egozten diotenak, eta bestetik,

galdeketetan apaizaren alde hitzegiten duten lekuko gutxi batzuk; honen arauera, auziperaturiko apaizak apika babesgabe zeudela soma daiteke.

Batzutan, herria bere parrokuagatik bitan banaturik dagoela eta hari egiten dizkioten salakuntzak bildurgarriak, ikaragarriak direla iruditzen zaigu. Harri eta zur uzten gaituzte eskomikatuak izan eta gero, Eliza Katolikotik kanpo hil ziren bi apaiz hauei leporatzen dizkieten karguek eta nekez sinets ditzakegu. Gehienek beren eliztarren gogoko ez izateko zoritxarra izan zutela eta itzuri ezinezko iskanbiletan ibili ondoren, seguraski egoera behar bezala neurtzeko urrunegi zeuden agintariak epaitu zituztela esatera ausartuko ginateke.

Beizamako eliz-liburuetan agertzen den lehen sinadura Martin Otaeguirena da. Bataiatuen lehen idatz-oharrak izenpetzen dituen parroku honen sinadura bitxia da benetan, txit apaindua. Bera erretore zela, Beizamako elizako erretaula eta sagraarioa eraiki zituzten.

Martin Otaegui Garagarza jaunak ordezkutzen du (1608-1621), sinatzean "Minor" ezartzen duenak.

Ondoren bataio-oharretako batzuk Andres Almizgui benfiziatu edo eliz-otseinak izenpetzen ditu (1616-1617). Apaiz honek ere kaleko borrokak zirela eta, hainbat lis-kar izan zituen bertako biztanleekin.

Garai honetan azaltzen dira aurreneko aldiz "legezko seme" eta "legezko emazte" esapideak bataio-agirietan.

Haren ondotik Pedro Otaegui dator. Apaiz hau, Pedro

Otaegui Garagarza alkatearen laguntzaz, gogor saiatu zen eliza berriztatzen.

Jarraian Bartolome Ibarzabal dugu eta geroago Juan Martínez Elizalde jauna, "Tolosako Lizentziatua" erantsiz sinatzen duena.

1681 eta 1717 urteen bitartean Eugenio Garagarza Baxilerraren sinadura dakusagu: eliz liburuen arauera, berau urte askotan izan zen Beizamako parroku. Tesian jasotzen dugun auzi batean esku hartu zuen, bere iloba Magdale^{na} Otaegui^k Juan Elustondo senargaiarekiko zuen hirugarren edo laugarren mailako odolkidetasunagatik Aita Sainduak emandako baimenari dagokion auzian, hain zuzen(!).

1677. urteko ezkontz agirietan ere agertzen da. Felipe Agustín Otaegui^{ren} zehar-ahai^{de} da apaiz hau.

Donostiako Elizbarrutiko Agiritegian Eugenio Garagarzaren lau orrialdeko dokumentu bat aurkitu dugu: "Memoria de las loables costumbres que tienen los vecinos de la H.Y.L. Universidad de Beizama en el dezmar, otorgada y reconocida por los dos Cabildos Ecc.^{co} y Secular ante Francisco Ibañez de Herquicia el año 1651" (2).

Agiri hau Juan Francisco Hormaechea Olozaga jaunak jasotzen zuen 1751. urtean, ehun urte beranduago, batzar-lagunen eskakizunari erantzun nahian.

1751. urtean Beizamako Done Pedro elizako lurrean antolatutako zeuden hilobiak, bertako parroku Francisco Hormaechea Olozaga zelarik. Bidezkoa iruditu zaigu kapitulu honetan aipatzea (3).

Eugenio Garagarzaren lekua Antonio Otaegui Garagarza bere ilobak hartu zuen.

Hauexek ditugu hurrenez-hurren Beizamako Done Pedro elizako erretoreak:

Pedro Legarregui	? - 1518	
Pedro Amezua	1518- ?	
Martin Zabala	? - 1559	
Juan Mendizabal	1559-1565	
Pedro Belamendia	1565-1584	
Martin Otaegui	1584-1608	
Martin Otaegui Garagarza	1608-1621	
Juan Martínez Eleizalde	1621-1641	
Pedro Otaegui	1642-1660	
Bartolome Ibarzabal	1661-1680	
Eugenio Garagarza	1681-1717	
Antonio Otaegui	1718-1719	
Felipe Belamendia	1719-1724	
Juan Francisco Hormaechea Olozaga	1726-1761	
Manuel de Larraar	1761-1783	
Felipe Otaegui	1783-1808	
Felipe Agustin Otaegui	1809-1840	
Juan Jose Iriarte	1841-1855	
Manuel Ignacio Odria	1855-1888	
Juan Miguel Orcolaga eta Venancio Arrue	1889-1899	
Luis Maria Ostolaza eta Daniel Irizar	1899-1904	

Angel Plazaola	1905-1907	
Diego Muñagorri	1909-1916	
Francisco Otaño eta Martín Irizar		1916-1942
Roque Urdapilleta	1942-1958	
Juan Jose Garmendia	1958-1963?	
Jose Javier Fortu	1964-1969	
Jose Maria Landa	1969-1974	

Goian aipaturiko parrokuak zein urtetatik zein urte-tara izan ziren erretore ziur jakiterik ez dago, kasu batzuetan izan ezik (izendapenaren agiriak aurkitu ditugunetan). Data gehienak gutxi gora beherakoak cira, bataiatuen liburuetan agertzen diren sinaduren arauerakoak. Hortaz, okerren bat edo beste egon daiteke.

1.3.1) Erretore cuzien auziak

Beizamako elizaren historia egitean, ezin ditugu alde batera utzi bertan erretore eta beneficiatu edo eliz-otsein izan ziren gizonak.

Ez da nahikoa haien izenak ezagutzera ematea; ahal dugun neurrian, agiriei esker erretoreez jakin duguna irakurtzeko aukera eman nahi genioke irakurleari.

Hasera batean, erretoreek beren eliztarrekin izan ziztuzten eztabaidak jakin araztea ez genuen beharrezkotzat jo. Baina erretoreen historia laburra ez litzateke zientifikoa izango agiri batzuk erabili eta beste batzuk alde batera utziko bagenitu. Gure aburuz, Oñatiko Protokolo Agiritegian aurkitutako dokumentuez gainera, Iruñeko arxibategikoak ere ezinbestekoak ditugu erretoreei buruzko historia objetibo eta zientifikoa burutzeko.

Agiri hauetan agertzen diren arazoak objetiboki epaitzeko ikuspegia badugulakoan gaudenez gero, garaian garaiko arazoak zeintzu ziren ezagut araziz garatuko dugu puntu hau.

Beizama herri txikia izan arren, bertako elizaren eta erretoreen historia konplexu samarra da. XVI eta XVII. mendeetan Beizamako erretoreen aurkako hainbat eta hainbat auzi izan ziren; badirudi herritarrek erretoreei aurka egiten zietela behin eta berriz, Iruñeko Apezpikutegi ko fiskalei lan handia emanaz.

Agiririk zaharrena Iruñeko Elizbarrutiko Agiritegian topatu dugu (437 Kartoia, 31 zenbakia) (4). Iruñeko Apezpikutegiko prokuradore fiskalak, Pedro Abaurreak, Beizamako erretore zen Pedro Legarregui auzitara eraman zuen urtekoa da dokumentua, 1.519 koa, alegia.

Auziak normalki eskribau gaztelarrek idatziak dira eta paleografoen laguntzaz transkribatu izan ditut; gaztelar eskribauen idazkiak Simanca-ko Agiritegian ikerketa lanean ari ziren paleografoek transkribatu zizkidaten.

Beste dokumentu batzutan E.U.T.G.-ko irakasleen lagun tza izan dut: paleografiako irakasle den Rosa Ayerberena eta latineko irakasle den Basabe jaunarena.

1.519 ko Legarreguiren aurkako auzi hau, ordea, aragoitar eskribauak egina da. Idazkera zaila, berezia dabil, paleografo askok ezin transkriba zezaketena. Eragozpen handien ondoren, azkenean Jose Goñi Gaztanbidek, Iruñeko Katedraleko artxibari eta bibliotekariak, egin zidan transkribaketa gaitz hau. Beraz, transkribatzaile hoberik ezin aurki nezakeelakoan nago.

Auzian elizaren eta herriaren historia osatzeko zenbait datu jakingarri agertzen dira: herriko eta herriaz kanpoko apaiz ugari, beizamarrak, aurka egiten zuen Kontzejua, notaria, erretorea, eliz-otsein edo benefiziatuak, burdin-oletako lana, e.a. Meza nagusia, eske-otoitzak, koruan erabiltzen ziren liturji-liburuak, elizaren ondasunen administrazioa, Legarreguik gaisoei elizakoak ematea, e.a. ere aipatzen dira.

Auzia ez dago oso-osorik. Akusatuaren artikulatua eta Legarreguiren aldeko lekukoen aitormen edo deklarazioak falta dira. Epaileak ez zuen azken epaia eman, erretoreak bere kargua utzi eta apelatu egin bait zuen, antza. Auziaren 10. puntuan ikus daitekeenez, beraz 1.518. urtean hasi zen. Goñi Gaztanbidek pixka bat laburtzen ditu auziak dituen 36 orrialdeak, garrantzitsuena azalduz. Hemen bertan azaltzeko luzeegia denez gero, eranskinetan tartekatu dugu laburpena, 5.ean hain zuzen ere.

Martin Zabala erretorea hil zenean, Beizamako erretoregoa hutsik geratu zen.

Herritarrek Iruñeko Apezpikuaren aurrean Juan Mendizabal proposatu zuten erretore berri izateko, baina kargua eskuratzeko beste bi lehiatzaile zituen eta auzitan ibili ziren.

Beizamako elizak herritar ugazabak zituen ("patronos legos") zenbait gaiz arduratzeko; hauek, elizaren onerako iharduteaz gain, apaizak aukeratzeko eskubidea zuten, "el más suficiente y el más sano", beraiek ziotenez.

Herriak proposaturiko Juan Mendizabal, aldi berean Alegiako elizako erretore zen eta hori eragozpen handi samarra zen bi parrokien arteko urruntasunagatik eta beste hainbat arazorengatik. Ondorioz, beste bi apaizak gogor aritu ziren leihan erretoregoa bereganatzeko.

Eskuartean dugun auzi honetan, Mendizabal erretore izendatzearen aldekoek galde-sorta bati emandako erantzunak jasotzen dira. 792 orrialde dituenez gero, garrantzitsuena iruditu zaiguna baino ez dugu adieraziko (5).

Juan Mendizabal eta bere lekukoek Johanes Lazcaibar Aita Sainduaren notariaren aurrean deklaratu ondoren, Mendizabalek irabazi zuen auzia eta Beizamako erretore izendatu zuten. Bada, Beizamako eta Alegiako erretore izan zen 1565. urte arte.

Urte horretan Iruñeko Katedralak, Trentoko Kontzilioan erabaki zena bete araziz, manu-agiri bat argitaratu zuen, bi erretorego zituzten apaiz orok hogeit hamar egun barru bietako bat utz zezatela aginduz.

Mendizabalek, aginduari aurka eginez, bi parrokiak ba tera zitezen eskatu zion Apezpikuari (6).

Hala ere, Beizamako elizako ugazabek Oñatiko Done Mikel elizako agizko epaile eta abate zen Andres Hortiz Ydigoias jaunarengana io zuten eta honek Pedro Belamendiari eman zion erretore kargua. Apezpikuak erabakia baieztatu zuen. (7).

Interesgarria deritzogu auzi honen berri emateari, bertan Beizamako elizako buruzagiek lehenbizi Mendizabal en alde egin bait zuten eta gero haren aurka.

Pedro Belamendia hogei urtez Beizamako erretore izan zen; hil zenean, herriko zaindari edo buruzagiek Martin Otaegui aukeratu zuten haren ordeko (8). Otaeguik, hogei talau urtez erretore izan arren (1583-1608), ez zuen herritarren maitasunik lortu. Auzi larriak izan zituen batzu ekin eta besteekin.

Dirudienez, auziak galdu egin zituen eta erretore kar guari uko egin zion edo uko egin arazi zioten. Ez cauku hori jakiterik; bere ondotik datorren erretoreak kar gua hartzerakoan dioena besterik ez dakigu: "Nombramiento de Martín Otaegui Garagarza por óbito o muerte natural de Martín Otaegui fuera de la curia romana".

Hauxe da, gorago esan dugun legez, eliz-liburuetan agertzen den lehendabiziko erretorea, bataiatuen zerrendetan bere sinadura dotorea ipintzen duena.

Berak sortu zuen "Arcón de cien fanegas" zeritzana.

Honen bidez herriko jende behartsuenari laguntzen zitzaien, hazitarako behar zutena emanaz. Ez da ahaztu behar garai hartan diruaz baino gehiago trukeaz baliatzen zirela, trukaketarako batipat garia erabiltzen zutelarik.

Herriko agintariek eta elizako zaindari edo buruzagiek zorrotz jokatzeko zuten beraiek hautaturiko apaizekin. Salaketa gogorak egiten zizkieten ez erretoreei bakarrik, baita eliz-otsein edo benefiziatuei ere (9).

Martin Otaegui izan zituen bi auzi aurkitu ditugu: bata, elizako kanpaia berria ez ordaintzeagatik Juan Villanueva eta Andres Carredano kanpaigileek jarritakoa, eta bestea, fiskalak zenbait arrazoirengatik ipini ziona.

Kanpaiari dagokion auzia 57 orrialdetan biltzen da. Erretoreak, kanpaia gaizki egina zegoela argudiatuz, ez omen zien ordaindu nahi egileei aurrez esandakoa. Kanpaigileak lekuko bidez kanpaia ongi eta materiale onez egina zegoela frogatzen saiatu ziren. Epaietako salaketa eta lekuko adierazpenak agertzen direla ere, auzia osatu gabe dago eta ez dakigu zein izan zen azken epaia (10).

Bigarren auzian fiskalak honako hauek leporatu zituzkion Otaeguiari:

- Eliztar batzuk sendatzeko, deabrukeriak eta aztikeriak erabiltzen zituela.

- Hilzorian zeuden gaisoei ez ziela arretarik eskaintzen.

- Apezpikuari bere agintea kentzen ziola, behar ez

zituen erabakiak hartuz.

- Eliztarrei ez ziela begirunez hitzegiten.

Noski, XVI eta XVII. mendeetan Inkisizioa punturik go renean zegoela kontutan harturik, salaketarik gogorrena lehenengoa da. Irudimen handirik gabe, Beizamako erreto-reek Euskal Herriko Inkisizioarekin edo fede-auzietarako sortu zen erakundearekin zerikusirik izan zutela pentsa dezakegu. Auziak 60 orrialde ditu (11).

Martin Otaegui Elizbarrutitik kanpo hil eta cero, bere iloba, Martin Otaegui Garagarza hautatu zuten Beizamako erretore (12).

Hau ere behin baino gehiagotan auziperatu zuten: go-bernuko fiskalak 1630 eta 1637. urteetan auzitara eramán zuten.

1630 eko auzian, herriko alkate, eskribau, e.a.-ekin izan zituen liskarrak, mozkortuta ibiltzea eta bere bizi tza pribatuari loturiko zenbait salaketa egozten zaizkio (13).

Zazpi urte beranduago, gudaoste baten buruzagiak sa-latu zuen, Frantzian gudan ibili zen buruzagiak, erreto-reak ezpataz eraso egin ziolako. 41 orrialde dituen auzi honetatik laburpena besterik ez dugu aitzera emango (14).

1677. urtean fiskalak Juan Elizalde Beizamako erreto-rea auzitaratu zuen.

Aurreko auzietan ez bezala, orainco honetan apaizari bere zereginetan murgildurik bizitzea egozten diote,

elizako arazoak alde batera utzirik.

Nolako bizimodua zuten orduko apaizek? Ez dakigu. Auzi batean agertzen diren salakuntzak ez dira seguraski XVII. mendeko apaizen ohiturak ezagutzeko informazio-ituririk zuzen eta fidagarrienak.

Dena den, auzian apaizaren jokabidea, emakumeekin harremanak izatea eta morroi lanetan ihardutea dira eztabaida gai eta istilu sortzaile.

Trentoko Kontzilioaren ostean apaizak ezin ziren ezkondu eta lege hau errespetatzea zail egiten zitzaaien apaiz batzuri.

Gainera, Elizalde txerriak hiltzen, erremintari lanean, e.a. ibiltzen zen, antza. Diru-arazoak eta buruhausteak ere ba omen zituen.

Guzti horiengatik auziperatu zuten (15).

1677. urtean bertan, herriko eskribauak salatu zuen Juan Elizalde. Dirudienez, Juan Lopez Aguinaga eskribau beizamarra eta Elizalde erretorea bata bestearekin haserretu ziren, lehen aldiz taberna batean jokuan zebiltzala eta bigarren aldian elizan Ostegun Santu egunean. Ondorioz, lehenak bigarrena auzitara eraman zuen (16).

.....

(1) Ikus 24. eranskina.

- (2) Ikus 3. eranskina.
- (3) Ikus 4. eranskina.
- (4) Ikus 5. eranskina. Legarreguiren aurkako auzia.
- (5) Ikus 6. eranskina. Mendizabalen aldeko lekukoak.
- (6) Ikus 7. eranskina.
- (7) Ikus 8. eranskina.
- (8) Ikus 9. eranskina.
- (9) Ikus 17. eranskina.
- (10) Ikus 10. eranskina.
- (11) Ikus 11. eranskina.
- (12) Ikus 12. eranskina.
- (13) Ikus 13. eranskina.
- (14) Ikus 14. eranskina.
- (15) Ikus 15. eranskina.
- (16) Ikus 16. eranskina.

1.4) BEIZAMA: EUSKAL HERRIA

1.4.1) Beizama Unibertsitatea

Pablo Gorosabel historialari gorenak honela deskribatzen du Beizama 1862. urtean (1): "Beizama: universidad del partido judicial de Azpeitia, union de Sayaz, arciprestazgo mayor, antiguo obispado de Pamplona. Se halla situada en paraje montuoso en la falda meridional del monte de Mauvia; y confina por oriente con Vidania, por poniente con Azpeitia, por sur con Beasain, por norte con Rexii. Su posicion geografica es á los 1 gr. 29 min. 35 seg. de longitud oriental, 43 gr. 9 min. de latitud septentrional. El pueblo se reduce á un grupo de unas pocas casas aisladas y sin orden de calle con una plaza y la iglesia parroquial: el resto se halla esparramado por su término en caseríos de labranza. En todo él hay ochenta y seis casas con 756 habitantes, segun el censo de poblacion formado en el año de 1860. La expresada iglesia es de la advocacion de San Pedro apóstol, una de las mas antiguas del contorno, segun la tradicion vulgar; la cual se halla servida por un rector y dos beneficiados. La presentacion de la rectoría corresponde al ayuntamiento con un voto y á los propietarios de casas de la misma universidad con el suyo respectivo en votacion singular. La de los dos beneficios antes del último concordato se hacía por la corona en las vacantes de los

meses de enero, febrero, abril, mayo, julio, agosto, octubre y noviembre, y por el rector en los otros cuatro. En la actualidad existen en su territorio las ermitas de nominadas San Lorenzo y Nuestra Señora de la Soledad; y hubo otra de la advocacion de Santa Agueda.

Algunos escritores de historia, entre los cuales se encuentran Esteban de Garibay y el P. Juan de Mariana, suponen que Beizama es el antiguo pueblo Segisama, donde el emperador romano Cesar Augusto asentó sus reales y su ejército con el fin de cercar la Cantabria. Semejante opinión en mi concepto es una equivocacion demostrada cumplidamente por la crítica sana é imparcial, y que hoy dia no puede sostenerse sin incurrir en el ridículo. Ninguna circunstancia de localidad, que los historiadores de las cosas romanas señalan respecto de Segisama, convienen en efecto á Beizama, ni á ningun otro pueblo de esta provincia. Así que es una pura ilusion el creer que la guerra cantábrica ocurrió en las inmediaciones del monte Hernio; ilusion, no obstante, que ha sido transmitida entre los habitantes de este pais de uno en otro sin ningun examen, alhagados del deseo de realzar su concepto.

Esta universidad pertenece desde tiempo inmemorial á la alcaldía mayor, hoy union, de Sayaz; y por consiguiente careció de jurisdiccion civil y criminal hasta el año de 1563 en que el rey hizo merced de esta prerogativa á los pueblos de aquella. En virtud de ella su ayuntamiento

se componía de un alcalde ordinario, dos regidores y un síndico procurador; pero en la actualidad, con arreglo á la ley general del reino tiene un alcalde, un teniente de alcalde y cuatro regidores. Beizama se titula NOBLE Y LEAL UNIVERSIDAD; y en su escudo de armas figura un árbol frondoso con una estrella á cada lado y una corona real encima. Sus naturales se emplean generalmente en la agricultura y en la crianza del ganado vacuno y lanar. El terreno produce buenas cosechas de granos, particularmente de trigo, y la de castaña es tambien abundante: sus montes se hallan bastante bien poblados de robles, hayas, fresnos y otros árboles, y tienen buenos pastos. Esta universidad se halla encabezada para los repartimientos foguerales de la provincia en diez fuegos; y tiene una escuela elemental de niños de ambos sexos, dotada con 2000 reales anuales."

1.4.2) Herriaren etorkia

Udalerrietan eta beste erakunde batzutan hiri-bizitzan, administrazio mailan, gaizkileak zigortzean, e.a.-etan erabateko jokabiderik ezarri zeneko, urte asko igaro zen Gipuzkoan.

Herritarrek osatzen zituzten egitura edo eraketa ezberdinak, hots, haranak, alkatetza nagusiak, lurraldeak, udalerriak... izendatzerakoan ere ez zegoen erakidetasunik.

Bailarak ez ziren geografiari begira banatzen, herri-legezko, politikazko edo administraziozko ikuspuntuen arauera baizik. Esate baterako, Iraurgiko Ibarrak Azpeitia eta Azkoitia zituen bere barne. Oiartzungo Ibarraren barruan sartzen ziren Erreterria, Oiartzun, Hondarribia, Irun, Lezo eta Pasaia herriak. Hiru Alkatetza nagusi zeuden: Areria, Aiztondo eta Saiaz. Areriak bere barne zitu en Lazkao, Itxaso eta Olaberria. Aiztondok, berriz, Asteasu, Sorabila eta Larraul. Eta Saiazeko Alkatetzak "Cinco aldeas de la Sierra" izena hartu zuten "Unibertsitateak" deituriko herrialdeak zekartzan bere barne. Elizaz, Bicania, Goiaz, Errezil eta Albizturrekin batera, Beizamak "El Corriedo de la Sierra" delakoa osatzen zuen, aipatu Unibertsitateak Hernio mendiranzko zati menditsuan bait zeuden.

1027. urteko Iruñeko Apezpikutegiko muça-zehaztapenezko agiri batean, Saiazeko Alkatetza "Seyaz" edo "Seaz" izenez eta bizit-haran bezala aipaturik agertzen da.

Erregeak izendatzen zituen alkate nagusiak eta ez ziren beren barrutietan bizi. Esan beharrik ez dago herriak ez zuela gogoko hautabide hori.

Alkateek alkateordeak izendatu ohi zituzten, baina neurri honek ez zituen herritarren nahiak asebetetzen. Foru-liburuko (11 Ag., 37.orr.) Juana Erregiñaren errege-zedula batek hauxe dio: "la merced de la Alcaldía Mayor era contra derecho y leyes pragmáticas de nuestros reinos y gran daño y perjuicio de la Provincia de sus privilegios

y libertades".

Zestoako Batzarretan eskatutakoari on eritziz, 1563. go abenduaren 23 an Saiazeko Alkatetza nagusia osatzen zuten herri guztiei kontzejua bereiz, kutxa eta zigilua edukitzeko eskubidea eta gainera beren alkateak "con me-ro y mixto imperio" urtero hautatzeko eskubidea aitortu edo eman zitzaien. Orduz geroztik eta, batez ere, 1651. urteko urtarrilaren 24 eko eskribau-agiriaren bitartez Albiztur atxiki zitzaenez geroztik, "Saiazeko Alkatetza nagusia" deiturak haxe besterik ez zuen adierazten: zen bait herriren bategitea Gipuzkoako Batzar Nagusi nahiz Berezieta cenen ordezkari izango zen ahaldun bat izenda tzearren.

Honela dio 1563 ko abenduaren 23 ko "Privilegio de la vara de la alcaldía" ri buruzko errege-zedulak (2): "Don Felipe segundo de este nombre por la gracia de Dios, rey de Castilla, etc. Por quanto por parte de vos la junta, procuradores, caballeros, homes hijosdalgo de la muy noble y muy leal provincia de Guipuzcoa, nos ha sido hecha relacion que la católica reina Doña Juana y emperador y rey mis señores abuela y padre, que hayan gloria, por una su carta dada en Valladolid á 2 dias del mes de mayo del año pasado de 1545, hicieron merced á D. Francisco Perez de Idiaquez, vecino de la villa de Azcoitia para en toda su vida de la alcaldia de Sayaz, y sus cinco aldeas en esa dicha provincia, el cual ha puesto y nombrado personas que sirvan las dichas alcaldías en los dichos

lugares, como al presente lo hacen, á cuya causa la nue
tra justicia no es tan bien administrada en ellos, como
en las otras villas y lugares donde se proveen los dichos
oficios por eleccion, y que siendo la alcaldía de los lu
gares de Areria en la dicha provincia de otro particular,
á suplicacion de la dicha provincia el rey D. Enrique IV
mandó por una su carta que de allí adelante se proveyese
aquella por eleccion, como se hizo y se hace al presente,
donde se administra justicia y viven en paz y quietud; y
que el dicho D. Francisco, viendo lo susodicho, y los in
convenientes que suceden en los dichos lugares y suceder
ían adelante, si se proveyese como hasta aquí, ha renun
ciado en los concejos de los dichos lugares la dicha al
caldía, para que la provean segun y de la manera que se
provee en los otros pueblos de esa dicha provincia, su
plicándonos y pidiéndonos por merced que aprobando la di
cha renunciacion y traspasacion tuviésemos por bien de
dar licencia y facultad á los vecinos y moradores de esa
dicha alcaldía de Sayaz, para que de aquí adelante para
siempre jamás tengan y puedan tener por sí y sobre sí ca
beza, y concejo, y arca comun, y sello ó sellos de conce
jo tales cuales quisieren, los cuales hagan fé en todo
tiempo y lugar, y pusiesen y puedan poner alcalde ó al
caldes cadañeros en la dicha alcaldía en cada un año el
dia de San Miguel de setiembre ó otro qualquier dia que
ellos quisiesen, por los cuales y no por otra persona pú
blica ni privada todos ellos y sus bienes y causas fuesen

y sean juzgadas, ó como la nuestra merced fuese. Y nos acatando lo susodicho, y los muchos y buenos servicios que la dicha provincia y los vecinos y moradores de ella y de la dicha alcaldía de Sayaz nos han hecho y esperamos que nos harán, y por que así cumple á nuestro servicio y á la buena administracion de la justicia y paz y quietud de la dicha alcaldía, lo habemos tenido y tenemos por bien; y por la presente de nuestro propio motu y poderío real absoluto de que en esta parte queremos usar y usamos, como rey y señor natural no reconociente superior en lo temporal, es mi merced y voluntad y mandamos que ahora y de aquí adelante la dicha alcaldía de Sayaz y todos los vecinos y moradores de ella sean y tengan por sí y sobre sí cabeza y concejo apartado, y puedan tener y tengan arca comun y sello ó sellos de concejo, que hagan fé y probanza en todo y cualquier tiempo y lugar, para lo cual les doy licencia y facultad. Y advocando á mí la dicha alcaldía y mero mixto imperio y jurisdiccion de ella, quiero y es mi merced que el dicho concejo de la dicha alcaldía y vecinos y moradores de él de aquí adelante para siempre jamás pongan y puedan poner en cada un año el día de San Miguel de setiembre ó otro día cual ellos quisieren alcalde ó alcaldes cadañeros, los cuales tengan mero mixto imperio, y jurisdiccion alta y baja civil y criminal, y que por ellos ó por cualquier de ellos sean todos los vecinos y moradores que ahora son ó serán de aquí adelante de la dicha alcaldía y sus bienes y

pleitos y causas cualesquiera librados y juzgados, y no por el dicho D. Francisco de Idiaquez, ni por otros alcaldes ni justicias ni otra persona alguna pública ni privada, salvo en grado de apelacion ó suplicacion, la cual apelacion ó suplicacion es nuestra voluntad se haga para ante nos ó ante el nuestro presidente y oidores de la nuestra audiencia y chancillería ó ante el nuestro coregidor ó juez de residencia de la dicha provincia y no ante otro lugar alguno ni persona. Otrosí es nuestra merced, y mando que el dicho concejo de la dicha alcaldía, homes hijosdalgo y vecinos de él puedan el dicho día en que así pusieren alcalde ó alcaldes, poner preboste, jurados, regidores y otros oficiales cualesquier cadañeros y en cada un año; por los cuales dichos prebostes y jurados que así eligieren, quiero y es nuestra voluntad que se hagan todos los emplazamientos, y por los dichos prebostes todas las entregas y ejecuciones que se oviesen de hacer y ejecutar por mandamientos de los dichos alcalde ó alcaldes en la dicha alcaldía y sus términos y no por otra persona alguna: y asimismo es nuestra voluntad que el dicho concejo y alcaldía y todos los vecinos y moradores de ella sean aforados y vivan y se rijan por el fuero de la villa de San Sebastian en la dicha provincia. Y por esta nuestra carta ó su traslado signado de escribano público encargamos al serenísimo príncipe D. Carlos nuestro muy caro y muy amado hijo, y mandamos á los infantes, prelados, duques, marqueses, condes

ricos homes, priores de las órdenes, comendadores y subcomendadores, alcaides de los castillos y casas fuertes y llanas y á los del nuestro consejo, presidentes y oidores de las nuestras audiencias, alcaldes y alguaciles de la nuestra casa y córte y chancillerías, y á todos los corregidores, asistente, gobernadores y otras justicias y jueces cualesquiera de los nuestros reinos y señoríos, así á los que agora son como á los que serán de aquí adelante, y á cada uno y cualesquier de ellos, que guarden y hagan guardar y cumplir esta nuestra carta y lo en ella contenido, y contra ella no vayan ni pasen, ni consientan ir ni pasar en tiempo alguno ni por alguna manera, so pena de la nuestra merced y de diez mil maravedís para la nuestra camara á cada uno que lo contrario hiciere, de lo cual mandamos dar y dimos esta nuestra carta firmada de nuestra mano y sellada con el nuestro sello, y que tome la razon de ella Antonio de Arriola nuestro criado. Dada en Monzon de Aragon á 23 dias de diciembre de 1563 años. -Yo el rey.- Yo Francisco Eraso, secretario de su magestad, la fice escribir por su mandado.- Hay un sello.- Registrada Antonio Arriola.- Por chanciller Antonio de Arriola.- El doctor Velasco.- El licenciado Hernando Menchaca.- Tomé la razon Antonio de Arriola."

Lege berezi honen indarrez, agizko alkateak ezarri zituzten bost Unibertsitateetan. Inoiz ez ziren hiribildu bilakatu, unibertsitateak zeritzen soil-soilik.

Acitzera eman dugun burujabetasuna gorabehera, Batzar Nagusietan Prokuradore edo Eskuordeko batenpean elkarturik edo bateginik jarraitu zuten Unibertsitateek.

Gipuzkoako herri guzietan, kontzejuak aukeraturiko Prokuradore bat zela bide, Batzarretara joateko eskubidea eta betebeharra zuten. Aberastasun urriko udalerrri txiki entzat astunegiak, gehiegizkoak ziren eguneko ordainak eta gastuak.

Egoera hau batipat 1615 urteaz gero gaizkitu zen, herri txiki anitzek eskukotasuna eta burujabetasuna iritsi zituztenean. Eta orduantxe erabaki zuten hainbat udalerririk bat egitea, elkartzea, eta denen artean ordezkari bakarra aukeratzea.

Bost Unibertsitateen bateratze-agiria 1651 ko urtarrilaren 23 an burutu zen Jeronimo Goyenetaren aurrean. Unibertsitate hauei Albiztur atxiki zitzaaien urte bereko apirilaren 11 n (3).

Bost Unibertsitateen eta Albizturren elkargoak jatorrizko "Saiazeko Alkatetza" izenari eutsi zion.

Erraz antzeman daitekeenez, zenbait herrialcek elkar harturik Gipuzkoako Batzar Nagusietan eta Berezieta beren ordezkari izan zedin ahalcun bakar bat izendatzea erabaki zutela besterik ez du adierazten bategite honek. Elkartu ezean, herri bakoitzak bere buruz bidali beharko zituzkeen egunsariak edo dietak gutxitzea zen beren helburu nagusia. Bestalde, bat eginagatik, beren eskumenak ez ziren inolaz ere gutxitu, aurrerago ikusiko dugun legez, Foru-biltzarretako erabakiak ez bait ziren

norbanakoen botuen arauera hartzen, Prokuradore bakoitzak ordezkutzen zuen foru kopuruaren arauera baizik.

Batzar Nagusietara joan behar zuen Prokuradore edo Eskuordekoa hautatu asmoz, Unibertsitateak Iturriotzeko Done Jon Bataiatzailearen baselizan biltzen ziren aurrez ezarritako egun batean.

Prokuradorearen aukeraketaz mintzatzeaz gain, era askotako beste gai batzuri ere arreta egiten zitzaien bilkura hauetan. Beizamako Agiri-Liburuan hauxe idatzia dago 1772. go maiatzaren 2 an: gotorlekuak zaintzeko Iturriotzen egin zen gudari-banaketarako zozketan, Beizamari egokitu zitzaiola Juan Otaegui kapitainari lau gudari ematea. Eta kartutxoak, polbora, balak eta baionetak eman ziezazkiela eta gudariak herrira itzultzean armak hondamen eta kalterik gabe bihur zitzatela agintzen da agiri berean.

Prokuradoreak derrigorrez joan behar zuen, Batzarretara joateke geratzen zenari bost mila maravediko isuna ezartzen zitzaiolarik eta ehun maravedikoa bidezko arrazoi barik bilkura huts egiten zuenari.

Bilerak Iturriotzeko Done Jon Bataiatzailearen baselizan egiten ziren. Honelako esapideez baliatzen ziren agiriak egitean: "Dentro de la ermita de San Juan Bautista de Iturriotz, jurisdicción común de la Alcaldía de Sayaz y villa de Albiztur por medio de sus diputados y regidores y jurados procuradores según tienen uso y costumbre de juntar de tiempo inmemorial a esta parte....".

Dirudienez, aginte-eremu eta nagusigoei zegokienean arras punttalakurloak ziren, adibide honek erakutsiko digun bezala: Jaunaren Zeruratzearen aurreko egunetan Gipuzkoako herri askotan prozesioa edo erregu-elizkizunak antolatzeke ohitura zegoen. Aipatu Unibertsitateetako apaiz-taldeak eta udal-batzordeetako partaideak elkartu ohi ziren Iturriotzen. Albiztur agintari-zartaz sartu zen baselizaren barruan. Jokabide honek elkarteko beste ordezkariak haserrerazi zituen eta liskarra sor erazi zuen, bertan Juan Atoño hilik eta Juan Gaiztarro bere herikidea behatza mozturik gertatu zirela. Eztabaidan luzaro ihardun ondoren, hitzarmen baten bidez elkar hartu zuten, berorren txataletako batek hauxe zioelarik: "Que cada alcalde tuviese jurisdicción sobre los vecinos de su respectivo pueblo, y no sobre los demás para conocer de los delitos que se cometiesen en dichos términos."

1817. urtean beste istilu bat jazo zen: Saiazeko elkartea osatzen zuten herrien arteko bakeak eta adiskidetasunak iraun zezaten, 1651 ko urtarrilaren 24 ean Itune-Agiri*a* izenpetu zuten; agiri honen bidez, Probintziako Batzar Nagusi edo Berezieta Alkatetza osoaren izenean herri bakoitzak bere Prokuradorea zein txandatan bidali behar zuen erabaki zen. Itunea zela eta, sei herriak Iturriotzeko Done Jon Bataiatzailearen baselizan bildu ziren 1817. go maiatzaren 26 an, Beizamari zegokion agiria izenpetu zelarik. Eta Beizamak Juan Martin Otaegui hautatu zuen Prokuradore uztailean Zestoan egin behar ziren

Batzar Nagusietarako. Alabaina, Beizamaren arerioek ziotenez, hark aukeratu zuen ordezkariak ez zituen beharrezko baldintzak betetzen eta ez zuen Batzarretan puntu garrantzitsuak ebatzeko adinako buru-argitasunik. Saiazeko Elkarateak uztailaren 7 an Batzar Berezia egiteko deia zabaldu zien sei herriei, Beizamako Kontzejuari beste eskuordeko bat hautatu eta bidali behar zuela oharterazi nahian. Deia jasorik ere, Beizama ez zen esandako egunean Batzarrean azaldu. Horren ondorioz, gainerako herriek, Itune-Agirian gordetako aginte-eskumenaz baliatuz, bere buruz eta Alkatetzaren gehiengoa osatzen zutenenez, Gracian Mario Urteaga jauna aukeratu zuten bigarren Prokuradore, Beizamari lehen emandako eskuak kenduz. Neurri honen birtartez ezer gutxi lortu zuten, Beizamako Kontzejuak aurkezturiko azalpen bati esker Zestoako Batzar Nagusiek Gracian jaunari berauetan esku hartzeko eskubidea ukatu bait zioten. Kalapitan aritu ondoren, arazoa Probintziako auzi-gizonen esku utzi zuten, hauek Beizamaren aurka egin zutelarik.

Gaur egun behar-beharrezkotzat daukagun herritarren hezkuntza edo gaikuntza, gure arbasoen garaian ez zuten ezinbestekotzat jotzen. 1682. urteko Hernaniko Batzar Nagusietan onartu zenez, ezin zitekeen irakurtzen eta idazten ez zekien inor Probintzia honetako udalerrietako agitzko alkate aukeratua izan, dekretu berean adierazitako zigorrenpean. Hurrengo biltzarretan Saiazeko ordezkari batzuek (Juan Alonso Estensorok, Alejandro Albizuk, e.a.-ek)

ohar-agiri bat aurkeztu zuten, dekretua beranduago jar zedin indarrean eskatuz eta herri askotan zuzenbidea eragiteko irakurtzen eta idazten zekien lagun gutxi zegoela adieraziz. Hauek eta beste arrazoi batzuk zirela bide, dekretua zuzen zezan eskatu eta erregutzen zioten Probintziari. Halere, Probintziak ez zituen aintzakotzat hartu haien eskariak eta guztiek bere osotasunean Hernaniko Batzar Nagusian erabaki bezala gorde eta bete zezatela agindu zuten.

Egun hori baino lehenago, Beizamako alkateek batzutan argi eta garbi jakin erazten zuten idazten ez zekitena.

1655 eko urtarrilaren 2 an, zenbait xecapenen azpian Martin Eceizak idazten ez jakiteagatik ez zuela sinatzen aitortu zuen "Auto de Buen Gobierno" batean. (4). Halaz guztiz, Saiazeko Elkarteko herri bakoitzak, Beizama barne zela, txandaka aukeratu behar zuen Prokuradorea izateko, derrigorrezko baldintza zen irakurtzen eta idazten jakitea. Izan ere, 1651. go apirilaren 11 ko Elkartearen itun-atalek hauxe zioten: "Hasta aquíha estilado, usado, costumbrado y guardado en esta Alcaldía de Sayaz....que se elegirá y nombrará al procurador Juntero entre sus vecinos, persona o personas que sepan leer y escribir." (5).

Batzar Nagusiak urtero uztailaren 2 an egiten ziren, sasoi horretako eguraldiari ziurragoa eta lehorragoa bait zeritzoten. Egun hori hautatu zuten 1745. urtean Ordizian bildu ziren Batzar Nagusietan bilkurak egiteko.

Lehen-lehenik Batzarrak hamazortzi lekutan egiten ziren;

hauexek dira tokiak, Foru-liburuan agertzen diren hurrenkeran: Segura, Azpeitia, Zarautz, Ordizia, Azkoitia, Zumaiia, Hondarribia, Bergara, Mutriku, Tolosa, Arrasate, Donostia, Hernani, Elgoibar, Deba, Errenteria, Getaria eta Zestoa. XIX. mende arte ez zen kopuru hau ugaritu, ezta Batzarrak egiteko ezarririko hurrenkera ere.

Dena den, noizean behin lehenbait lehen ebatzi beharreko arazoak sortzen ziren urtean zehar, ezinbestean Batzar Bereziak egin behar izaten zirelarik.

Batzar Berezieta hizpidea eta hautespidea zuten herrialde, alkatetza nahiz haran denei, salbuespenik gabe, egin behar zitzaien berauetara etortzeko deia, Batzar Nagusiak bailiren. Hala ere, Batzar Bereziak bereziki eta zehazki berehalako konponbidea behar zuten arazoak ebazteko egiten zirenez gero, hauetan ezin zitekeen aipatu arazoez landako beste gairik azter. Guztien onari zegozkion arazo guztiez iharduteko egiten ziren bilkurak eta Batzar Bereziak puntu horretan ziren bestelako.

Behiala Batzar Bereziak Usarraga eta Basarten biltzen ziren: biak bazter soilak ziren; lehenengoa Bidaniako Unibertsitatean zegoen, Saiazeko Alkatetza batzarreratzen zen ohizko lekutik, hots, Iturriotzeko Done Jon Bataiatzailearen ermitatik oso gertu; bigarrena, berriz, Azkoitiko aginte-barrutian. 1457 urteko Elkartearen Agintarauen koadernoko 36. atalburuak dioenez, garai hartako jadanik hautatuak zeuden Usarraga eta Basarte berorietan Batzar Bereziak egiteko, "por quanto algunos Concejos e

personas de la dicha provincia suelen facer llamamientos a la dicha provincia desordenadamente, e a ciertos lugares de la dicha provincia, de lo cual se sigue e seguiría en adelante gran daño a la dicha provincia, etc..."

Guztiek ez bide zitzaien hautaketa ongi iruditu, 1461. urtean Donostian bildu ziren Batzar Nagusietan edozein herritan elkar zitezkeela erabaki zuten eta.

Alabaina, erabaki honek oso epe laburrean eragin zuen, bi urtez bakarrik egon bait zen indarrean; 1463 an ontzat eman ziren Agintarauen edo Ordenantzen eragitez, antzina ko ohitura berreskuratu zuten eta Batzar Bereziak derri-gor beti Usarragan edo Basarten egin zitezela agindu zuten. Honela dio Agintarauak 63. atalburuan: "Item estos llamamientos se fagan para Usarraga o Basarte, e non para otro lugar alguno, e si los ficieren para otra parte, que sean ninguno".

Aztura honek aldaketarik gabe iraun zuen XVIII. mende bukaera arte, Bidaniako azken Batzar Berezia 1700. urteko otsailaren 9 an egin bait zen eta Claseko Dona Maria-ko azkena, ostera, 1700 eko urriaren 31 n.

1.4.3) Udalaren gobernua

Erromatarrek Erresumako beste toki guzietan sartu zuten kuriatan oinarrituriko beren gobernu modua, duunbir, dekurioi, edil, kuestore, e.a.-ez.

Herritarren biltzar nagusian alkateak egiten zuen buru,

bere aginduak bete erazten zituen Prebostearen laguntzaz. Ez zegoen erregidorerik, ez zergazain edo fielik, ez artadun edo sindikurik.

XV. mende arte ez zen herri-batzar itxirik izan. Beren herri-ordenantzak antolatu eta Erregeren onespeneren zai geratzen ziren.

Zinegotziak aberats edo milaristen artean hautatzen ziren iraileko Mikel Donearen egunean.

Herri-biltzar zabala izan zen, zalantzarik gabe, Beizama udal-bizitzaren lehen bereizgarrietako bat. "Unibertsitatea" deitu bide zitzaion, eta horren ondorioz, oraindik izen hori gorde dute Eidania, Errezil, Goiaz, Beizama, Aia eta Lezok.

Horri buruz hauxe dio Carmelo Echegaray-k (6): "Hemos identificado la Universidad con el Concejo abierto, porque en un libro que hemos citado antes de ahora, el de Castillo de Boradilla, intitulado Política para corregidores y señores de vasallos en tiempos de paz y de guerra, se lee que "en la Congregación y Universidad de todo el pueblo (que se llama Concejo Abierto) residía la mayoría y superioridad; pero ya por costumbre reside en los Ayuntamientos, los cuales solos pueden lo que todo el pueblo junto".

Biltzar zabala zer zen Espainiako Erret Akademiaren Autoritate-Hiztegiak azaltzen du: "la Junta que se hace en alguna villa o lugar a son de campana tañida para que entren todos los que quisieran del pueblo, por haberse

de tratar alguna cosa de importancia, u de que puede resultar algún gravamen que comprehenda a todos, lo cual se ejecuta a fin de que ninguno pueda reclamar después".

Horrela bada, biltzar zabal hauek herritarren antzina ko batzarrak ziren: behiala, herritarrak aire zabalean edo eliz-hilerrietan biltzen ziren, eta hortik dator "eliz aurre" edo "anteiglesia" izena.

Udal bakoitzak bere Ordenantzaren arauera ziharduen, bai bertako kideak hautatzerakoan, bai haien egitekoei zegokienean ere.

Alderdi honetatik begiratuta, Udalek askatasun handia zuten. Beren beharrak ezagututakoan, beraiek erabakitzen zuten nola ase, esperientziari esker.

Gipuzkoako beste herri anitzek ez bezala, Beizamak ez zuen Errege-zedulen bidez onarturiko Udal-Ordenantzarik. Egoera hau behin baino gehiagotan aditzera ematen du Beizamak agirietan. 1756. go otsailaren 4 ean Gipuzkoako Ko rregidoreak zenbait gairi buruzko galde-sorta egin zuen. Udal-Agintarau edo Ordenantzarik ba al zuen zioen galderari, Beizamak hauxe erantzun zion: ez zuela ekonomi eta politika mailetan eraentzeko edo gobernatzeko Udal-Ordenantzarik, eta zuhaitzak landatu, suztatu eta zaintzeari zegokionean, Gipuzkoako legeen arauera eta Errepublikaren mesedetan jokatzeko zuela.

Gipuzkoako legeetan eskribau aukeraketari buruzko agindu eta arauak bakarrik aurkitu ditugu. Hauteskunde-aktetan beizamarrek "según costumbre usada en esta

república de inmemorial tiempo a esta parte" dihardutela jakin erazten dute.

Kontzejua osatzeko beharrezkoak ziren agizko alkatea, alkateordea, bi zergazain edo erregidore, sindiko prokuradorea, bulda-biltzailea, mendi-ikuskaria eta hiru mendizain edo igurain. Ez da polizi "juradu"rik aipatzen.

Hauteskundeak Urteberri egunean izaten ziren. Hautesle eta hautagai izateko, baldintza bereziak zeuden. Hautagaiek aitorren semeak, euskal etxalarren batean sortuak eta "milare"dunak izan behar zuten. (7).

"Milare"ak zer ziren erabakitzerakoan, eritzi ezberdinak zituzten Gipuzkoako udalerriek. Lege mailan, "milare"aren barnean "casa de derrama entera" sartzen zela zioten Beizaman, hau da, herriko zerga-banaketan etxe baten jabe goari zegokion zerga ordain zezatela.

Era honetan egiten ziren hauteskundeak Beizaman: bertan zeuden hautagaiek paperak behar bezala beteak zeuzkatela ikuskatu ondoren, eskribauak beren boto-txartelak ematen zizkien. Hautesleek txartelak bete eta tolestatu ostean, pitxer batean sartzen zituzten. Hiru umek ateratzen zituzten. Diputadu hautatuak elizara joaten ziren eta han alkatea, alkateordea eta bulda-biltzailea aukeratzten zituzten. Eta hiru hauek, Kontzejura itzuliz, Udaleko beste kideak hautatzen zituzten: erregidoreak, ikuskaria, hiru igurainak eta sindiko prokuradorea. Jarraian, karguazten zuen alkateak Agintari-zarta ematen zion alkate berriari.

Euskaldunak oro, legez, aitorren semeak ziren, baina ohorezko karguak bete ahal izateko ezinbestekoak ziren "milare"ak, hots, ondasunak. Eta bi puntu hauetan oso zuhur jokatzeko zuten, anitz kasutan ikus daitekeenez. Hona hemen adibide bat: 1653. urtean Fermin Oruezabalek hautagai izan nahi zuen hauteskundeetan. Beasaingo Kontzejuak hala eskaturik, bertako Auzitegian buruturiko auzian Fermin jatorriz aitorren seme zela erabaki zen eta Probintziak erabakia egiaztatu zuen. Hortaz, odol garbikoa zela frogatu ahal izan zuen. María Pérez Leundarekin ezkondu zenean, honen gurasoek cotetzat Leunda etxea, auzotasun eta zaindari-eskubideez, eman ziotela esan zuen Oruezabalek; horren lekuko zen Andres Segura, ezkon-agiria idatzi zuen Saiazeko Alkatetzako eskribaua. Bada, Fermin Oruezabalek alkate, erregidore edo Beizamako Kontzejuko gainerako karguetarako hautagai onar zezaten eskatu zuen.

Fermin jatorriz aitorren seme zela ikusirik, Eceiza alkateak onartu egin zuen. Baina eragozpen bat sortu zen: Martin Leundak, María Pérez Leundaren aitak, suhiari eman zion etxea, eta horregatik, ez zuen "milare"rik. Ondorioz, alkateak hautesleen zerrendatik kendu eta bazter zezatela agindu zuen.

Martinek erabakiari aurka egin zion, etxea alabari eman ziola eta Beizaman zeukan "Elormizpinaga" izeneko beste etxean bizi zen bitartean auzotasun-eskubidea bereztzat gorde zuela adieraziz. Halaz guztiz alkateak ez zuten amore eman eta alabari emandako etxean ezin zuela

auzotasun-eskubidea beretzat gorde esan zuen. Eta eskribauari haren izena zerrendatik ken zezala agindu zion.

Horren antzeko zerbait gertatu zen 1724. urteko hauteskundeetan. Beizamako Udaletxean ordenatzeke eta erroldatzeke dauden balio handiko agiri ugariren artean, akta liburu bat aurkitu dugu. Hara zer dioen 1724 ko hauteskudeez:

"En la Universidad de Beizama y en la sala del aiuntamiento de ella aprimero de Henero del año demil setezientos yveinte y quatro por testimonio de mi Antonio del Goenaga escribano de numero de dicha Universidad, se juntaron en Concejo, Justicia, Regimiento y Vecinos Nobles Hijos dalgo de la dicha Universidad seguntienen de uso y costumbre de se juntar en dicho puesto para tratar conferenciar y determinar las cosas y materias tocantes al servicio de Dios nuestro Señor y de su Magestad y conservación y aumento de la Republica, esperamos del Señor Martin de Oruezabal Alcalde Ordinario de la dicha Universidad, Miguel de Barrena y Joan Ignacio de Leunda Dexidores y Francisco de Arregui sindico Personero general del Consejo de dicha Universidad, Marcos de Barrena, Miguel de Eceiza, Domingo Miguel de Eceiza Arreta, Pedro de Otaegui Elustondo, Pedro de Otaegui Garagarza, Francisco de Goenaga, Señor Ignacio de Vitoria, etc.... (sigue doc.) gozar durante su vida sin gravamen de vinculo y que despues quedase agregada al dicho vinculo y que los dichos Marcos y sumuger non diesen gravar con Censos ni otras

obligaciones y para ser admitido por elector y electo, de denotener casapropia que corresponda amillares que ay costumbre por hordenanza a que el dicho Marcos respondió que aunque heraverdad haver donado las dichas casas al dicho Miguel de Barrena su hijo podía ser elector y electo por haber reserva de la dicha Casa de Aguinagalde durante sus dias sin gravamen del () con el daño de Vecindad y demás () la qual era de millares correspondientes a diez y seis ducados según costumbre () de dicha Universidad y en el caso de no ser admitido por elector y electo protestaría y protesto la unidad de la elección de este día y pedía testimonia para acudir adonde le convenía, y sin embargo los dichos carteles de todos los dichos Vecinos el nombre del dicho Marcos de Barrena los revolvieron muy bien habiendo metido en dos xarras los nombres de los dichos vecinos en una y los en blancos y una electores en laotra y así echaron Pedro de Otaegui Joseph de Olazabal y por síndico Personero al dicho Miguel de Eceiza, Arreta por Colector de la Eula al dicho Francisco de Otaegui por veedor de montes al dicho Juan de Elustondo Beroaran, por maiordomo del Rosario al dicho Joan Ignacio de Vitoria, por Guardamontes a los dichos Miguel de Barrena y Joan Ignacio de Leunda a los quales huvieron por elexidos nombrados para los dichos cargos y oficios, menos al dicho Marcos de Barrena que estaba presente y protesto la nulidad de esta elección por haver sido sin admision suia. El dicho Alcalde nuevo y

Regidores juraron en forma debida de que dicho año administrarían Justicia directamente a todos los que ante ellos vinieran a pedirla. Sin pasión alguna y en todo guardarán el Servicio de Dios nuestro Señor y de su Magestad y bien comun de la Republica y alcavo de dicho año () en Residencia conforme a dicho y pagando Juzgado y Sentenciado. Y luego el dicho Señor Alcalde Martin de Oruezabal entregó en nombre de su Magestad la bara Le al que tenia en sus manos al dicho Eugenio de Iturriza Alcalde nuevo y el tomó posesión en forma de su oficio con la Contradición y protesta de la nulidad de esta nueva eleccion que hizo el dicho Marcos de Barrena pidiendo su traslado. La dicha elección de oficio y cargos dijeron harian por tiempo y espacio de un año cumplido...."

Agiri hauetan ikus dezakegunez, alkateak aginte osoa zuen eta bere erabakiak eztabaídaezinak ziren.

Garai ezberdinetako dokumentuak aztertuz gero, urteak joan ahala pixkanaka pixkanaka hautagarritasuna murriztuz zihoala antzeman daiteke. Horren adibide bat, Kontzeju zabalaren ordeiz Kontzeju itxia ezartzea litzateke.

Zenbat eta lagun gutxiago arduratu herriaren administrazio eta gobernuaz, orduan eta berme edo gaudimen handiagoak eskain ziezazkieketen beren auzokideei.

Kontzejuan erreldatuak zeuden, Udal-Ordenantzek agindu bezala "milare"dunak ziren eta Foruarekin bat zetozen herritarrek zuten hautatzeko eskubidea.

Aitorren seme izan gabe, ez zegoen hautatzaile izaterik;

horregatik, aitorren seme zirela frogatu nahi zutenen agiriek izugarrizko garrantzia zuten udal-batzorde guzietan.

Odol-garbitasunarekin zerikusirik zuten kontuei hain garrantzi handia emanaz, gure arbasoek endaren garbitasunari, jatorriari begiratzen zioten eta selekzio edo bereizkuntza egiten zuten.

Aitorren seme eta odolgarbiko izateak sasoi hartan zuen garrantzia kontutan hartzen badugu, ez gaitu harritu behar gipuzkoarrek gai horiei hain arreta handia eskaini izanak, nahiz gaur egun zenbaiti erdeinuzko irribarrea eragiten dion.

Odolgarbitasuna frogatua izatea, egun lege alorrean esan ohi den bezala, antezedente penalik edo zigorpideltzinik ez izatearen antzeko zerbait zen.

Aitorren semeak edonon ateak zabalik zituen eta kargurik goren eta garrantzitsuenak erdiets zitzakeen; nagusi goak oro eskuratzeko aukera zuen; ez zitzaion ohore eta izen onik ukatzen.

Beizamako Udaletxeko Agiritegian "Hidalguías de diferentes años. Escribano Segura. 1761" deritzan XVIII. mendeko orri-sorta bat aurkitu dugu (8), aurrez esandakoaren erakusgarri gisa. Bertan, Miguel Ottaegui eta Pedro Ottaegui anaiak aitorren seme direla aitortzen du Juan Joseph Irureta prokuradoreak, haien amaren eta aitaren aldetikako arbasoak aipatuz eta Ottaegui, Irisarri, Eceiza eta Urquizu etxalarretan sortuak direla jakin eraziz.

1.4.4.) Udaletxearen eraikitzea

Gorago esan dugun bezala, Beizaman kontzeju-biltzarrak urte askotan eliza inguratzen duen egurrezko arkupe zabalaren azpian egiten ziren seguraski.

Badirudi XVII. mende aurretik bilkurak egiteko beste leku bat zutela; 1628. urteko agiri batek dioenez, Elozondo etxeko areto nagusian biltzen ziren, artean udaletxea eraikitzeke bait zegoen (9).

Oñatiko Protokolo Agiritegian (10) aurkituriko datu fidagarri batzuk bakarrik ditugu eskuartean.

1673 ko uztailaren 23 an Beizamako Kontzejua osatzen zutenek herri-etxea erortzear zegoela eta ezin zitezkeela bertan egon acitzera eman zuten.

Eraikitze-lanak inguruko herrietan ipinitako manu-agirien bitartez iragarri zituzten. Enkantea 1673 ko uztailaren 23 an egin zen, 2982 dukatetan. Eraikitzaileek 1674 urteko irailaren 30 ean eskuratu zieten udaletxea eta ordain-agiria urte bereko azaroaren 16 an onartu zuten.

Garai hartako diru-urritasuna zela eta, udaletxe berria egiteak estualdian, premia gorrian utzi zuen Kontzejua.

1846 zenbakidun protokoloan aipatzen denez, idazkariak agintari eta herritarrak bildu zituen eta zenbait gauza adierazi zizkien: udaletxea eraiki zuten hargin eta zurginei diru asko zor zietela zilarretan; Batzar Nagusien dekretu eta aginduak betetzeagatik, obra ugari egin

behar izan zituztela; Azpeitian erreal anitz zituztenez gero, mailegu haiek ordaintzeko adina diru bazegoela, baina Azpeitiak ez zuela zilarretan zorraren erdia baino ordaindu nahi; horregatik zebilela Kontzejua Azpeitiaren aurka auzitan probintziako korrejidorearen aurrean; zor guziak kitatzeko ezinbestekoa zela Beizamaerrotatik Oyan zabalerainoko eta Olazarragako mendietako haritz-motxak saltzea eta salmenta enkante bidez egitea, enkantegileek ordainketa "urre-zuritan", eta ez beste cirutan, egin ze zatela eskatuz, Kontzejua zilarretan pagatu behar zuela ko.

Geroago berriztatze-lan gehiago egin bide zituzten, 1783 ko azaroaren 9 ko akta-liburuak udaletxea egoera txarrean zegoela eta lehenbait lehen konpondu behar zela zioen eta.

Dena den, gaur egungo Udaletxea 1674. urtean bukatu zutena da; beraz, ez dugu besteren berririk.

Herri-etxean eskola, batzar-tokia, taberna, e.a. zeuden, eta baita bertan bizi ziren bi familia ere.

Gainera, pisu eta neurri guzietako eredu edo patrioiak erabili eta gordetzeko "artxiboa" zegoen, hala nola, pisu erromatarrak ardoa eta beste hainbat gauza neurtzeko, 100, 50, 25, 12, 10, 4 eta 2 liberako neurriak eta burdinezko balantzak edo "gurutzeak". Aipaturiko gauzen zerrenda bat ematen zitzaion urtero errendatzaileari (11). Garai hartan hamarka-neurkera artean indarrean ez zegoen ez gero, udal-agintariek ereduazko neurri hauek erkatzen

zituzten.

Azaroaren 11 n, Done Martin egunean, hartu zuten alogeran Udaletxea. Alogeran hartu zuenak udaletxeaz, bere baratzeaz eta gaztainadiaz urtebetez goza zezakeen. Urte horretan ardoa ematera behartua zegoen: "vino navarro bueno y vendible, no haciendo falta alguna".

XVIII. mendeko idaz-agirieki esapide hau erabili ohi zuten: "vinos navarros que tengan buen color y buen picante y buen sabor y que sean de buena bondad".

Baserri, baso eta errotak ziren Beizamako Udalaren ogasun eta errenta guztiak.

Beizamako Udalaren baserriak Etxeberria, Aguinaga Aundia, Oyanzabal, Aguinondo, Beizama-erota eta Venta-berria ziren, beren errotak eta guzti; orobat, udalarenak ziren Olazarrako eta bere aginte-eremuan zeuden beste tokietako mendi, xaradi eta haritz-motxak.

Ez zuen zergarik, ez zizarik biltzen. Sei baserriak alogeran emanaz, bataz beste 5.000 erreal jasotzen zituen.

Errotekin ez zuen sos handirik irabaziko, haiek zaindu eta konpontzeak garesti jotzen zuen eta.

XX. mende haseran honako errota hauek zebiltzan Beizaman: Beizama-erota, Venta-berri, Igaratxo, Etxenagusia, Osinalde eta Sarasola. Egun isil-isilik daude bolu eder hauek, huntz eta sastrakaz josirik.

Irabazkin handienak seguraski basoetan ikatz egiteko mozten ziren zuhaitzen bidez eskuratuko zituen. Izan ere,

harizti, pagadi eta xaradi zabalak zituen.

Hala bada, Beizamako Udala inguruko udaletatik aberats enetakotzat zeukaten denek.

Udaletxeak aurrekaldean Beizamako armarria dauka. Armarriaren erdian zuhaitz hostotsu bat, alboetan izar bana eta gainean koroea dituela. Bertan hauxe irakur daiteke: "Be-" = "abajo"; "-iz-" = "cima"; "-ama" = "madre". Hala ere, herriaren izenaren etimologiak ez dugu uste hitz horiekin zerikusirik duenik, ezta hurrik eman ere. Dirudienez, Beizama, Ultzama eta Zegamak jatorri keltarra dute.

1.4.5) Herriko bizitza

Izenburu honen bidez, aztergai dugun garaian Beizamako herritarrak oro bat eginik, elkarri no la laguntzen zioten azaldu nahiko genuke.

Jaiotza, ezkontza, gaisotasun, heriotza, e.a.-etan ezezik, tartean diru-kontuak dauden arazoetan ere adibide ugari aurki genezake.

Ekintza horietako batzuk agirieta jasoak daude, cero xeago ikusiko dugun legez, baina nekez topatuko ditugu geure arbasoen ahotan entzun ditugun aspaldiko giza-ekin tza anitzi buruzko dokumentuak, bazirela badakigun arren.

Esate baterako, "marto-opila" zeritzana (12) aipa dezakegu: haur bat jaiotzean, Beizamako etxekoandreek oilo, txokolate eta beste jangai batzuk oparitzen zizkioten haurraren amari aurrez erabakitako egun batean.

Etxekoandreen bilera hauek festa giroan ospatzen omen ziren, euskal jaiak bailiren, eta emakumeek beren ume ederrak, etxeak, e.a. ezagutarazten omen zizkioten elkarri.

Ziur gaude agiri zaharretan ez dugula ekintza honen jatorri eta bilakaerari buruzko aztarnarik aurkituko, oso zaharra bait da. Gizabidezko beste sorospen-ekintza asko izan ziren, zalantzarik gabe, eta, agirien bidez frogatzerik ez badaukagu ere, gaur egun oraindik somatzen dugu haien eragina.

Hala da; jarraian aditzera emango dugun bezalako aztura miresgarriak zituzten beizamarrek.

Hainbat familiatan, zoritxarrez, etxeko jauna elbarri geratzen zen ala hil egiten zen istripu edo gaisotasunen baten ondorioz. Orduan, egoera hartan zegoen familiari beren auzotarrek laguntzen zioten, batez ere uzta erein eta biltzeko garaian. Hutsaren truke egiten zuten.

Norbait gaiso egon ondoren hiltzen bazen, Beizamako herritarrek gaitzigitzen zioten apaizari, hots, hildakoa-ren etxetik gertuen bizi zen auzotarrak gogo onez eramaten zuen apaiza haren etxera eta hildakoa jazten, gorpua eramaten, hileta prestatzen... laguntzen zuen.

Hilotza eramateko ere arau bereziak zituzten. Hildakoa aitorren seme milareduna baldin bazen, haren giza-maila berekoek eramanez ohiko bizkarrean. Maizterra izanez gero, gauza bera egiten zuten, hau da, beste maizter batzuek bizkarrean elizara eramaten zuten eta gero elizatik kanposantura.

Lan gogorrak izateagatik edo beste zerbaitegatik denen lankidetza eta partaidetza eskatzen zuten eginbeharrak burutzeko, herri-ekintzak antolatzen ziren. Adibidez, garia erein eta ebakitzeko. Garai hartan garia ereiteko lurra laiez prestatu behar zen eta lan hori ezin zitekeen egin zenbait gizon eta emakume indartsuren laguntzaz baizik. Gauza bera gertatzen zen garia biltzerakoan, ez bait zen lur zati guzietan berdin espaltzen. Iratze eta orbelak biltzeko eta artazuriketarako ere elkarren laguntza behar izaten zuten.

Orobat, lankidetasuna ezinbestekoa zen emakumeek egin ohi zituzten beste era bateko lanetan: linugintzan,...

Parrokuek ez zituzten gogoko neguan gau berandu arte luzatzen ziren bilera haiek.

Herritarrek elkarri lagunduz batean egiten zituzten ekintzak baino askoz garrantzitsuagotzat jotzen zituzten auzolanak ("auzo" = "barrio"; "lan" = "trabajo"). Sistema horretaz maiz baliatzen ziren beizamarrak beraiek erabiliko zituzten eraikuntzak eta herri-lanak egiteko: eliza, eskolak,.....

Ezkontzek bizitzen eta alaitzen zuten herrixketako eguneroko bizitza arrunt aspergarria eta ezkontzetan herri osoa elkartzen zen. Herri-agiri askok ezkongaien doteen eta beren ahaide eta lagunak egindako oparien berri ematen digute.

Hara hemen bitxikeria bat: arrio-egunean, arrioko jantzi eta gauza guzien zerrenda argitara ematen zen herritar

ororen aurrean (13). Gero egiten zen bazkarira ia beizamar guztiak joaten ziren.

Ezkontz-itune horietan ezkonberrien bizitzan zerikusirik izango zuten gauzak azaltzen dira: baserria, lurrak, gizonezkoek egiten zituzten lanetarako tresnak, e.a.

Emakumezkoen bizimoduari loturik zeuden lanabasak ere aipatzen dira: kutxatzarrak, kaizak, irule-ardatzak, gorruak, arradak, itxoroskiak.....

Felipe Agustin Otaeguik, azaletik bada ere, etxeke jaun eta etxeke andreen eguneroko hainbat zereginen berri ematen cigu bere sermoi batzutan.

Honela cio "Dominica in Albis. De la perseverancia" deritzanean: "Bostortzari escua ezartzen dionak soroan bearra eguiteco ez cu atzera beguira ibilli bear, baña bai equin bere lanari. Au bera equin bear da birtuteco lanean..." (14). Eta geroxeago: "Andre batec ariac zuri tu nai dituanean, matazac sartzen ditu lisiban sarritan, ta ez da aspertzen lisibatzeaz zuri zuri equin artean; ez gaitecen bada gu ere aspertu...." (15).

Zenbaitetan neska-mutilak gurasoen baimenik gabe ezkondu ohi ziren. Ondorioz, gurasoek Apezpikutegira jozten zuten beren seme-alabek ematen zizkieten buruhausteak konpontzearren.

Horrela, Sebastian Elustondo beizamarrak Joan Elustondo bere semea eta Magdalena Otaegui honen emaztegaia auziperatu zituen, bien odolkidetasuna zela eta. Semeak gertuko ahaide batekin ezkondu nahi zuen eta aitak ezkontza

galerazi nahi zuen. Auziaren dokumentua Iruñeko Elizbarrutiko Agiritegian dago eta 1676. urteko ekainaren 11-koa da.

Semeak Aita Sainduari ezkontzeko baimena eskatu zion, herrian bere giza-mailako neska gutxi zegoela eta bere lehengusina txikiarekin ezkontzera behartua zegoela adieraziz. Aitak, ordea, Beizaman ezkontzeko prest zeuden beste neska batzuk bazirela zioen eta hori frogatzeko le kukoak aurkeztu zituen. Alabaina, Aita Sainduak ezkontze ko baimena eman zien. Gure ustez izugarritzko garrantzia du agiri honek, garai hartako gizarte eta ekonomi egoera nolakoa zen agerian jartzen bait digu (16).

Ondoren ezkontz-hitzarmena gertatu zen. Ezkongaien guraso eta senideek eman zizkieten ondasunen zerrendak agertzen dira: baserria, lurraldeak, soroak, gaztainadiak, zaindari-eskubideak, sagardo upelak, garia gordetzeko kutxatzar bat, lanerako tresnak, sukaldeko trasteak, abereak... Hitzarmena garaiko ohituren arauera egin zen, legeak errespetatuz.

Urte batzuk beranduago, agiri osagabe batean ikus dezakegunez, Joan Elustondok auzitegira jo zuen berriro, ezkontz-itunean hitz emandako gauzak ez zirelako esan be zala bete (17).

Herritarrak xumeak eta apalak zirela kontutan harturik, ezkontz-hitzarmenak guztiz gogoangarriak eta hots handikoak zirela iruditzen zaigu. Ondasunak oinordekoari eskuratzerakoan zehaztasun handiz ziharduten.

Ez dakigu orduko emakumeek zein eskubide zituzten, ez eta "Las leyes del Belziano Senatus Consulto, Nueva y Vieja Constitucion de Leyes de Toro y Lapartida y las demas que son y hablan en favor de las mujeres" delako legeek zer dioten ere. Halere, agiriak irakurtzean antze man daitekeenez, emakumeek ez zuten norbait salatzen edo babesteko eskumenik, ez lekuko izateko eskubiderik ere, beren senarren baimenik gabe: "con la licencia pedida y auida de los dichos sus maridos".

Beraz, gizabidezko ohitura miresgarriekin batera, era horretako ekintzak eta auziak aurkitzen ditugu, nahiz ez ohizkoak izan. Hala bada, gure aburuz, gizarte zorrotza zen, bere azturak legetzat jotzen zituena eta ohituraren bat hausten zuen edonor berehala auziperatzen zuena, gura soek seme-alabak salatzen bait zituzten, hauek beren gura soak, eliztarrek parrokoa, e.a.

.....

- (1) GOROSABEL: Diccionario Histórico-Geográfico-Descriptivo de los Pueblos, Valles, Partidos, Alcaldías y Uniones de Guipúzcoa con un Apéndice de las Cartas Pueblas y otros Documentos Importantes. 1862. 103.orr.
- (2) IDEM, 717.orr.
- (3) Tolosako Probintzi-Agiritegia, 1 Atala, 18 saila, 39 paper-sorta.

- (4) Oñatiko Protokolo Agiritegia. 1482.zenb.
- (5) Tolosako Probintzi-Agiritegia. 1 Atala, 98 saila,
39 paper-sorta.
- (6) ECHEGARAY, Carmelo: Compendio de las Instituciones
de Guipúzcoa. 118.orr.
- (7) Ikus 20.eranskina. Hauteskundeak.
- (8) Ikus 21.eranskina.
- (9) Ikus 22.eranskina.
- (10) Oñatiko Protokolo Agiritegia. 1485.zenb.
- (11) IDEM, 1522.zenb. 72.orr.
- (12) MITXELENA, Koldo: Fonética Histórica Vasca. 269.orr.
- (13) Ikus 23.eranskina. Arrioa.
- (14) OTAEGUI, Felipe Agustin: "Dominica in Albis. De la
perseverancia". 196.orr.
- (15) IDEM, 199.orr.
- (16) Ikus 24.eranskina.
- (17) Ikus 25.eranskina.

1.5) BEIZAMA: BORROKA HERRIA

1.5.1) Otaequiren garaiko gerrateen oihartzuna Beizaman

Beizamako aurreneko biztanleak zein tzu izan ziren eta noiz kokatu ziren bertan ez badakigu ere, herritar dexente izango zirela iruditzen zaigu, men di eta larre ugariz inguratua bait zegoen.

Zenbait historialari (Zaldivia Batxilerra, Garibay, Baltasar Echave, Aita Mariana, Lope Martínez Isasti...) Kantauriko Gerrateez mintzo dira, haietako batzuk Beizaman gertatu zirela esanez.

Tuy-ko Apezpikutegiko Nigran-eko abate, Tolosa eta Ota duy Gotzainen etxeetako konfessore eta Lezoko itsas-untzi-tegiaren jabe zen Lope Martínez Isasti historialari lezoarrak Compendio Historial de Guipúzcoa liburu interesgarria idatzi zuen 1625 ean. Barojak argitaratu zuen 1850. urtean eta, nahiz erromantiko samarra izan, Gipuzkoako historia ezagutzeko funtsezkoa da. Honela azaltzen dizki gu Isastik gudu-gertakariak: "Siendo tan grande la ambición y potencia de los Emperadores romanos que querían ser señores del mundo, había tenido noticia Augusto César de esta Provincia que nunca había sido conquistada por nadie, y la gente de ella belicosa, fortísima, de sobrado alto y pertinaz ánimo, al tiempo que para corona de su gloria y remate de sus triunfos daba orden de empadronar..". Enperadorea Aldaba inguruetara iritsi omen zen, oso harro

eta handiputz. Bere indar izugarrian uste osoa zuelarik, Kantabria erabat menperatuko zuelakoan omen zegoen.

"Y entrando en la Provincia llegó hasta la jurisdicción de Beizama (llamada por los escritores "Bagasama"), a don de cercaron la montaña "Menduria" que significa lloviosa por los continuos aguaceros que se arman allí, o "Mendioria" por estar cubierta de argomales, cuya flor es perpétua y en todo tiempo amarilla, que es lo que quiere decir "oria". Muchos de nuestros cántabros y los demás estaban recogidos y hechos fuertes en esta montaña, donde resistieron a los romanos con todo ánimo y valor, que los hicieron perder mucho el brío y orgullo con que entraron. Y aunque estaba presente la persona del mismo Emperador, no fueron ponderosos para subir la montaña, juzgando ser imposible. Y así se ordenó un foso muy hondo de quince millas por las partes de su circunferencia, para que no les entrase socorro, ni bastimento, que hasta hoy permanece por la parte de Aldaba." (1).

1635. urtean Espainiako Erregeak Frantziari gudu egitea erabaki zuen. Gipuzkoako gudariak indarrez hartu zuten Lapurdi, Ziburu ingurua, aidanez. Gudari haien aintzindari Zaldun-Elkargoko eta Calatrava-ko Errege zen Diego Isasi izan zen (30 urteko Europako Erlijio-Gudua).

Ekintza hau benetan zorigaiztokoa izan zen, alde guzietatik begiratuta, Gipuzkoak ordurarte harreman onak izan bait zituen Lapurdirekin eta eraso ez bait zen inolaz ere egokia. Gainera, izurriteak harrapatu zituen gudariak, asko eta asko hil egin zirelarik.

Beizamarrek ez zuten garai hartako ezbeharretatik ihes egiterik izan. Herriko gazteek gerrate honetan parte hartu zuten.

Orduan Juan Arregi Obiaga zen Beizamako Udaletxeko sindiku edo diruzain, eta Kontzejuaren izenean mailegu bat eskatu zuen Frantziaren aurkako guduan esku hartzearen (2).

1719 an Bervick Dukeak Gipuzkoa indarrez hartu zuen. Gerra-laguntza gisa, Beizama zilarrezko 1.000 dukat emateko prest zegoen (3). Baina berehala bukatu zen gudua, 1721 eko abuztuaren 12 an pakea sinatu zutelarik.

1793. urteko urtarrilean Luis XVI.a erregetzatik bota zuten eta gilotinan lepoa moztu zioten frantsesek.

Europako Erresuma guziak Frantziako Errepublikaren kontra jarri ziren. Espainiak ere gerla egin zion.

Espainiako Errege Karlos IV.ak hiru gudaloste bidali zituen Nafarroa eta Gipuzkoa defendatzera Caro Ventura buruzagiaren agindupean.

Aldi berean Gipuzkoak eta Nafarroak hiru gudari talde igorri zituzten mugak babestera.

1794 ko abuztuaren lehen egunean Frantziako armada Gipuzkoan sartu zen. Euskal Herriak Espainiaren areriotzat hartu zituen, baina ez bere etsaitzat.

Donostiako alkateak pakea eskaini zien. Baldintza hauek ipini zizkien:

- Erljio Katolikoa errespetatzea.
- Gipuzkoan 1200 urte aurretik zegoen egoerara

itzultzea frantziarren laguntzaz.

- Gipuzkoa armak hartzera ez behartzea.

Akordio hauek Batzar Nagusiak onartu zituen. Diputazioa Donostiatik Getariara aldatu zen eta frantziar arma dari bake-unea eskatzea erabaki zuen bertan eginiko biltzarrean.

Korregidoreak aurka egin zion proposamenari, baina Foruan babesturik, Gipuzkoak bere eritzia nagusitzea lortu zuen, honako erabakiak hartuz:

- Frantziako aginte-batzordea onartzea.
- Frantziarrei bake-unea eskatzea.
- Espainiatik bereiz, Gipuzkoako Errepublika sortzeko laguntza eskatzea Frantziako batzordeari.

Frantsesek ez zuten bakea onartu eta euskaldunak oso gaizki hartu zituzten, herri zapaldua baiiitzen. Donostiako alkatea eta zinegotziak preso hartu zituzten. Ondoren frantsesei aurka egiteko batzorde bat hautatu eta diputazioa osatu zen Deba ibaiatz bestaldean.

1795 ean Madrilgo Gobernuak eta Frantziako Errepublikak hitzarmen bat sinatu zuten Basilean. Hauek ziren bakearen baldintzak:

- Karlos IV.ak bere aurka jaiki ziren euskaldunei zigorrik ez ipintzea.
- Espainiak Karibe itsasoan zuen Santo Domingo uhartea Frantziari ematea.
- Frantziak Penintsulan indarrez hartutako lurralde eta herriak Espainiari itzultzea.

Zergatik jokatu zuten horrela euskaldunek? Alde bate-tik, Karlos IV.ak ez zuen behar bezala eraendu Euskal Herria. Bere erruz galdu zen "Compañía Guipuzcoana de Caracas" zeritzana. Errege honen agintealdian Euskal Herriko ekonomiak izugarritzko beherakada izan zuen. 1793-1794 urteetan erabaki oker askotxo hartu zuen euskaldunen kaltetan, hala nola, merkatal bideak eragoztea eta ixtea.

Bestalde, "Azkoitiko Zalduntxoek" frantses ideiak za-baldu zituztenez gero, euskal jendeak ez zituen frantzi-arrak arbuiatzen.

Gainera, euskaldunek ez zuten gerrate hau beren gerratzat hartzen, Espainia eta Frantziaren arteko gudutzat baizik. Bi estaduak ziren euskaldunentzat foruen etsai eta aurkakoak.

Hala ere, Beizamak gerran parte hartu behar izan zuen. Garai hartan Felipe Agustin Otaegui Beizamako elizako eliz-otsein edo benefiziatu izango zen. 1791. urtean egin zuten apaiz, eta bere osaba Felipe Otaegui erretore zela, hari laguntzen egon zen aldi batean.

Frantziaren aurkako gudua hasi zenean 1793 an, Gipuzkoak Batzar Berezi bat ospatu zuen, bertan Espainiako flotari laguntzeko 4.600 gizon bidaltzea erabaki zelarik. Beizamak 40 gizon bidali behar zituen eta zozketa bidez aukeratu zituzten. Herriko zinegotzien erabakiz, 40 gizon hauei egunero hamar laurdeneko soldata eman zitzaien, erregeak ordaintzen zienaz gain.

Udaletxeko akta-liburuan argi eta garbi ikus daiteke

gudari beizamarrek gerran zenbat egun eman zituzten eta zenbat diru xahutu zuten.

Berehala sortu zen diru premia Herriko Etxean, Elizari hamar mila erreal eskatu behar izan zizkiolarik.

Espainiako Karlos IV.ak Aita Sainduari, Pio VI.ari, diru-laguntza eskatu zion frantziarren aurkako gerraterako gudariak prestatzearren.

Horrela bada, lehenbiziko aldiz Aita Sainduaren baimen arekin erregeak elizaren ondasunak saltzeko eskubidea izan zuen.

Gipuzkoako Artzapeztegi Nagusiak gutun bat bidali zion Beizamako Kabildoari, hauxe esanez: "Para subvenir a los crecidos gastos de la inevitable guerra con la Francia, y contener el furor con que persigue nuestra sagrada Religion, lexmas potestades, vidas y haciendas, acudio el Rey Nro Señor a la Santa Sede pidiendo a Su Santidad se sirviese otorgar los subsidios necesarios para emplearlos en tan justos fines. Penetrado N.M.S.P. Pio 6º de las justas con las que en nombre de S.M. se le expusieron, ha venido su B. en conceder y dar facultad a S.M. en virtud de un Breve para que pueda imponer sobre todos los bienes Eccos del Clero Secular y Regular, fundaciones y obras pias de estos Reynos, la cantidad de siete millones de R.^s y exigirlos todos los años hasta tanto que se verifique la entera extincion de los vales reales y por otro Breve le concede asi mismo la facultad de exigir por una vez de los mismos bñes Eccos la cantidad de

treinta y seis millones de R.^S con que cuenta S.M. para los gastos de dcha Guerra en el presente año." (4).

Ikus daitekeenez, garai hartan Elizari eskatu zitzaion laguntza "Cruzada" zeritzon gerlari aurre egin ahal izateko.

Beizamak eragozpen ugari izan zituen, diru-arazoak batez ere. 1816an Iruñeko Gotzainari gutun hau idatzi zion: "Beizama 9 de Agosto de 1816.

Beizama. Deficit de Capellanias.

Don Felipe Agustin de Otaegui Presbitero propio de la Iglesia Parroquial de esta universidad de Beizama.

Certifico, que por orden del gobierno se enagenaron las fincas de la Capellania denominada de la Escuela o enseñanza de doctrina que en cada año redituaban 898 reales vellon segun parece del Cupo de 1777 y para que conste firmo.

Beizama 9 de Agosto de 1816."

Dirudienez, Elizak larrialdi asko pairatu behar izan zituen Napoleonen garaian ere. Hauxe diosku Felipe Agustín Otaeguik: "Muy Ilustrisimo Señor. La Universidad de Beizama congregada en Ayuntamiento general de su justicia Capitulares y Vecindario Concejal a V.S.I. con la mas profunda veneracion expone: que con previo expreso consentimiento que presto a su instancia en el año de mil setecientos noventa y cuatro el Illmo Señor Don Esteban Antonio Aguado y Roxas predecesor en la silla que hoy dignamente ocupa V.S.I. se valia la exponente con

calidad de reintegro de la cantidad de once mil setecientos cuarenta y dos reales vellon y diez y siete maravedies vellon que varios remanentes de Primicias de su Parroquia estaban debiendo a esta para el desempeño de las ingencias que la rodeaban en aquella actualidad con el motivo de la Guerra entre nro Soberano y la Francia....

.... las turbaciones causadas en esta peninsula por el monstruo sin igual Napoleon con la invasion de sus ejércitos y las contribuciones que como a todas las Republicas de esta provincia se exigieron a la exponente con este motivo en los largos años de la duracion de una guerra tan injusta, le han arruinado hasta el extremo de haber enagenado todas sus cuantiosas propiedades y dejado en la deplorable situacion de no tener con que pagar a sus asalariados dependientes y mucho menos a los asentistas." (5).

Hortaz, estutasunean bizi ziren eta herritarrek nahiz Elizak zerga ikaragarriak ordaindu behar izan zituzten. Askotan ondasunak baino garrantzitsuagoak ziren semeak galtzen zituzten beizamarrek, gerrara joan beharrean aukitu ziren seme gazteak, alegia. Egoera errukarri honetan, arazoak gero eta larriagoak ziren.

Elizak, dirua ezezik, bere bitxiak ere eman zituen. Horrela, 1794 ean gudu-laguntzarako eman zuen zilarrezko kriseilu bat eskatu zuen Felipe Agustin Otaeguik Udaltxean 1797 an egindako bilera batean. Hala dio dokumentuak: "En la Universidad de Veizama a primero de octubre

1797 ante mi el Exmo Real y Numeral de la villa de Tolosa y testigos infraescritos fueron presentes los sres Don Felipe de Otaegui Presbitero Rector propio de la Parroquia.... en el año de 1794 con la correspondiente venia del Illmo Obispo de este Obispado de Pamplona se franqueo a esta M.N. y M.L. Provincia de Guipuzcoa la lampara de plata de la referida iglesia para recurrir con su valor a los exorbitantes gastos de la guerra contra los franceses... pide autorizacion al Obispado para hacerla executar de los mismos fondos presentando para este fin diseño.... del Sr. Lavayen artifice platero... dicha lampara para llevara 352 onzas de plata que a veinte reales vellon la onza importa 7040 reales vellon..."

Beste agiri batzuek ere eliz-ondasunekin zerikusirik cute: "Por mandato de los Sres Patronos de la Iglesia Parroquial de la Universidad de Beizama, yo Juan Ascensio Lavayen artifice platero vecino en la villa de Azpeitia e executado una cruz de plata.... cuyo valor es de 5.588 reales vellon." Dokumentua 1799-1800 bitartekoa da.

Jakina, erretore bakoitzak iagoletzari eta herriari elizako ondasunen berri eman behar zien. Erretore kargua hartzearekin batera egiten zuten beren ondasunen zerrenda eta kontuak zuzen eramaten saiatzen ziren. Otaeguik kontuak txukun eta garbi egiten zituen; elizako liburuak ere kontu handiz sailkatu zituen.

Elizak Gotzainaren baimenarekin zilarrezko kriseilu hura eman zuen arren, beti ez zituen bere ondasunak eman.

Batzutan lapurreten ondorioz galdu zituen balio handiko zenbait gauza. Urte haietan Beizamako elizatik gurutze bat eta kriseilu bat ebatsi zituzten. Artean Felipe Otaegui erretore bazen ere, Felipe Agustin haren ilobak hartu behar izan zuen bere gain erantzukizun osoa.

1819 an Iruñera bidali zuen eskutitz batean zera dio: "Obedece tambien con respeto los encargos que se le dan y en su cumplimiento dice, ha practicado las diligencias que se ordenaron por el digno predecesor de V.I. Don Gabriel Blasquez Prieto en carta siete de Enero de 1801 acerca de la Cruz y Lampara que fueron robadas y lo unico que se ha podido averiguar es que uno de los ladrones de claro al tiempo que le llevaban a Justicia en Oloron de Francia que las dichas alajas se hallaban sepultadas en un monte entre Navarra y Guipuzcoa..."

Baca, ia hogeitau urte beranduago oraindik ez zekiten gertatutakoaren berri zehatzik. Felipe Agustinek auzian esancakoa jakin erazi eta gero, Iruñetik zuzenean erantzun zioten, auzia bukatutzat emanaz (6). Antza denez, gurutzea eta kriseilua betiko galdutzat jo zituzten.

Era askotako salmentak egin ziren gerra-garaian. Batzutan Elizaren ondasun baliotsuak saldu ziren, hots, etxalceak, soroak, mendiak, e.a. Bestetan, aldiz, gauza hutsalagoak: adibidez, 1777. urtean kaperautza bat sortu zen doktrina irakasteko eta garai hartan deuseztatu zuten edo dirua kendu zieten. Honela dio 1816 ko abuztuaren 9an: "Deficit de Capellanias. Don Felipe Agustin de Otaegui

... por orden del gobierno se enagenaron las fincas de la Capellania.... que en cada año redituaban 898 reales vellon...".

Guk dakigunez, Euskal Herrian Pío VI. aren garaian hasi ziren desamortizazioak egiten, hau da, Karlos IV. aren agintaldian.

Beranduago, 1835-1837 bitartean, Juan Álvarez Méndez (Mendizabal)-ek inposatu zuen Espainian desamortizaziorik gogorrena. Honek eman zuen apaizgoak eta praileanaiak desegiteko eta haien ondasunak saltzeko agindua.

Beizamako Udaletxeko akta-liburuan agertzen dira horrelako salmentak "Acuerdos y Enajenacionez. Veizama 1800 a 18.... (irakurtezina)" izenburupean.

1.5.2) Napoleonen gerla eta lehen karlistada

1807. urteko urriaren 19 an sartu ziren Napoleonen gudalosteak Irunen barrena. Agidanean ez zetozen soil-soilik Gipuzkoa eta Euskal Herria menperatzera, Espainiaz jabetzera baizik.

Beren egiteko bakarra "Errege bidean" pasatzea zen, Oiartzun, Hernani, Andoain, Tolosa, Ordizia, Zumarraga, Bergara, Arrasate, Gasteiz eta Miranda zeharkatuz.

1808 an soldadu batzuk Donostian, Tolosan, Eibarren... geratzen hasi ziren. Hauxe izan zen Gipuzkoa indarrez hartzeko lehen pausoa.

Urte bereko apirilean Fernando VII.ak Baionan agintea utzi zuen eta Jose Bonaparte I.a egin zuten Espainiako errege.

Gertaera honen aurrean bi jokabide ezberdin zeuden: gehienek ez zuten Fernando VII.aren erregetza uztea onartu eta Napoleonen aurka asaldatu ziren, Jose I.a sasi-erregetzat bait zeukaten; beste batzuek, aldiz, aberats eta handikiek batez ere, beldurrak eraginca ontzat hartu zuten Jose I.a.

1808 an Napoleonek Konstituzio berri bat ezarri zuen, baina hala eta guztiz ere euskal diputazioek lanean jarraitzen zuten. Bi urte beranduago desegin zituen erakunde hauek, "Bizkaiko Gobernua" sortuz. Honek euskal

askatasunaren hondamendia ekarri zuen.

"Bizkaiko Gobernua"ren buru Gobernu-batzordea zen eta batzordean probintzia bakoitzeko diputatu batek esku hartzen zuen.

Hala ere, guztien gaineratik eta aginte osoa bere esku zuela, bai gizarte arloan, bai gerrate arloan, Thouvenot frantses buruzagia jarri zuen.

Beraz, euskal diputatuen aginte eta eskumenak zeharo murriztuta geratu ziren, frantziar agintariaren menpe zeuden eta.

Francisco Elías de Tejadak (7) oso zorrotz kritikatzeko garai hartako euskal politikoen jokaera, "entreguismo vasco" deritzolarik: "El primer acto de su constitución el 24 de septiembre de 1810 es ya la negación del estilo político de las Españas verdaderas: Diego Muñoz Torrero hizo leer a su amigo Manuel Luján sus proposiciones, por las cuales quedaba definida la nación española como un todo uniforme sin estima de las variedades históricas tradicionales..... ellos se declaraban representantes de la nación española y depositarios de la soberanía nacional". Honek euskaldunen eta Euskal Herriaren bereizgarri guziak apurtu zituen.

1811 ko irailaren 2 an honako erabaki hau hartu zuten politiko euskaldunen izenean: "se hará una división más conveniente del territorio español, a la que se oponen Cataluña y Valencia (Amer y Borrull) pero sin la menor protesta vasca, pese a que quedaba aniquilada la realidad

del cuerpo especial político que era el Señorío".

Hurrengo egunean Konstituzioaren 13. artikulua onartu zen: "la potestad de hacer las leyes reside en las Cortes con el Rey, destruyendo la entera maquinaria legal de las Juntas de Guernica".

Gezurra badirudi ere, hala gertatu zen. Euskal Herri-
an jaiotakoek, euskal semeek lagundu zieten Espainiako
Gorteei beren eskubideak deuseztatzen.

Horren aurka euskaldunek ezer gutxi egin zezaketen;
halere, gerrilari edo basagerlariak sortu ziren. Ospetsu
enak Espoz eta Mina izan ziren Nafarroan, Longa Eizkaian
eta Jauregi Artzaia Urretxun.

Gerrate honek bost urte inguru iraun zuen. Gasteiz
galdu zutenean, 1813ko urriaren 13 an hasi ziren amore
ematen frantziar gudariak.

Kontutan izan behar dugu ez zela Espainiako arazoa ba
karrik izan, Europan ere gorabeherak izan bait ziren na-
gusi.

Leipzig-en galera hanciak izan zituen Napoleonek eta
batipat horrek behartu zuen buruzagi frantziarra Espainia
tik bere gudaosteak ateratzera.

Aldi berean, Konstituzioak zioena beteko zuela zin
egin araziz, Espainiara bidali zuen Fernando VII.a.

Alabaina, iritsi bezain laster alde batera utzi zitu-
en Konstituzioa eta antzeko erabakiak, ejerzitoa, Eliza
eta Euskal Herria absolutismoaren alde jarri bait ziren.
Berriro foruak bereganatu zituzten; epe laburrerako, ordea.

Eta urte horietan zer gertatu zen Beizaman? Ez dugu, tamalez, argibiderik eman diezaguketen agiririk aurkitu. Horrek ez du esan nahi zuzenean ezer jazo ez zenik, alderantziz ere interpreta daitekeelako. Dena den, badira hainbat aztarna eta horietzaz mintzatuko gara jarraian.

Independentziako gerratea hasi eta berehala aukeratu zuten Beizamako erretore Felipe Agustin Otaegui, hau da, 1809ko azaroaren 8an. Gorago aipatu dugunez, ez zuen gotzainak izendatu, erbesteratua bait zegoen, baizik Miguel Marco Gobernadore eta Bikario Nagusiak.

Espania frantsesen eskuetan zegoenez gero, beraiek jartzen zituzten Iruñeko Apezpikuaren ordekoak. Hortaz, garai honetako eskutitzak guztiz interesgarriak dira.

Alde batetik, Frantziako brigadierrak, Thouvenot-ek, eta Gipuzkoako Intendenteak, Dubouzet-ek, bahituran hartzen zituzten garagar, gari, arto, e.a.-en berri ematen dituzten dokumentuak ditugu.

Agiri asko aurkitu ditugu garai hartako Elizako erretorearen egoera larria eta arriskutsua adierazten dituztenak.

Dirudienez, Felipe Agustin Otaeguik herrian gizon talde bat osatu zuen bertako biztanleak defendatzeko.

Beizamako kanposantu berrian ehortzi zuten lehen gorpua kanpotar batena zen, Euskal Herriaz haraindiko

hemeretzi urteko mutil gazte batena zen. 1810 eko urtar-
rrilaren 3 an lurperatu zuten. Antonio Gómez zeritzan
eta Trujillo-koa zen, ez Beizamakoa. Independentziako
gerrateko gudari bat izanik, garai hartan Beizaman zego-
elako susmoa daukagu.

Datu hauen arauera, Beizama ez zen hain herri paketsua
izan.

Felipe Agustinen osabaren helburu nagusia frantses
iraultzaileak menperatzea zen eta eginbehar horretan ez
zuen etsitzen. Beizamarrek diotenez, frantziar soldaduak
herrian zeudela, hauei jaramonik egin gabe elizan bere
errezoak egin eta prozesioan ateratzen zen Felipe Otaegui
erretorea hango benefiziatu, akolito eta herritarrekin
batera. Eta denek errezoak egin eta abestiak kantatu
ahala, soldaduek "Marsellesa" abesten zuten. Baña, benetako
adorearen zuen apaiz honek.

Felipe Agustin Otaegui erretore kargua bereganatu be-
zain sarri, Beizamako erretoregoak zituen ondasunen zerren-
da egin arazi zion eskribauari. 1809 an izendatu zuten
erretore eta hurrengo urtean onartu zuen izendapena. Hone
la dio ondasunen zerrenda horrek: "El infraescrito Ess^{mo}
R^o y Num.^o 1 de la villa de Tolosa he recibido de D.ⁿ Feli-
pe Agustin de Ottaegui Pro. Rector Yntterino de la Pa-
rroquial de esta Univ. de Beyzama quatrocientos sesenta
y ocho r^s de vⁿ por derechos de lo por mi ttravaxado en
los auttos de Ynventtario de los bienes que quedaron por
fallecimiento

de don Felipe de Ottaegui ttambien Pro ulttimo Rector de dicha Parroquia, a saver: ciento y veimte por la confeccion del dicho Ynventtario; sesentta por una copia su ya;...." (8). 1809 ko abenduaren 10 ean sinatua dago agiri hau.

Aldi berean tabernariaren gastuak ere agertzen dira.

Hau horrela izanik, Felipe Agustin urte hauetan Beizama egon zela egiazta dezakegu, nahiz artean arazo ugari izan bertan. Arazoak diogu, agirietan aurkituriko datuek horixe iradokitzen bait digute. Esate baterako, honela dio erreziho batek: "Maria Cathalina de Elustondo comfieso haver recibido tres cientos y trece r^s de vⁿ de manos de d.^ñ Felipe Agustin de Otaegui para final pago de los r^s q^e d.^ñ Felipe de Otaegui estaba deviendo a mi difunto Hijo d.^ñ Manuel Ign.^o de Aranguren por los servicios q^e le presto sirviendole de teniente y para q^e conste ami ruego firmo Juan de Echeverria en Beizama a 25 de Maio de 1809. Juan de Echeverria. Son 313 r^s vⁿ". (9).

Bestalde, urte hauetan Arrasateko kuarteletik zenbait gutun bicaltzen zituzten, bahiturak egiteko aginduz.

1813. urteko martxoaren 13 an A. Dubouzet-ek zerga gehigarria ezarri zien Gipuzkoa, Eizkaia eta Arabari: 17.000 anega gari, 20.600 anega arto eta 25.750 anega caragar(10). Jakina, zerga honek erabat gutxituko zituen Beizamako aberastasun urriak.

Urte berean Felipe Agustin Otaeguik Gobernuari adierazpen-agiri bat bidali zion, baserri bakoitzean zenbat

arto egon zitekeen jakin eraziz. Baserririk aberatsenak 130 anega euki zitzakeen eta txiroenak, berriz, 9 anega. Tarte horretan zebiltzan beste baserri guziak (11).

1812 eta 1813. urteetan Beizaman zegoen biztanle kopuruaren taula konparatzaileak ere agertzen zaizkigu beste dokumentu batean: 1812 an 683 lagun bizi ziren bertan eta hurrengo urtean 678. (12).

1812 an 17 pertsona heldu eta 12 haur hil ziren eta 1813 an, aldiz, 11 pertsona heldu eta 11 haur; baiiteke 1812 an hilcako 17 pertsona horietatik batzuk mutil gazteak izatea, gerratean hildako gazteak, alegia.

Garai hartan zer nolako harremanak izan ote zituen "Corriedo de la Sierra" delakoak orduko agintariekin?

"Instruccion para contestar al segundo alegato de Azpeitia" izenburupean Otaeguik idatzitako agiri batean, Beizama inguruan 1810 eta 1815 urteen bitartean izandako arazorik garrantzitsuenak aditzera ematen dizkigu (13).

1813 ko ekainaren 23 an Independentziako gerratean gudaoste aliatuek Beizamako eta inguruko herrietako garia ebaki zutela eta zuhaitzak bota zituztela cudariei laguntzarren eta Bidania bakarrik utzi zutela zegoen bezala diosku Otaeguik. Horrela lortu zituzten behar zituzten janariak. Datu hauei esker dakigu Beizaman ere zer-bait gertatu zela gerra garaian eta seguraski inoiz jaikingo ez ditugun beste hainbat gauza gertatuko ziren.

1813. urtean Asteasuko Aguirrek diputadu kargua uzteko nahia adierazi zien gutun baten bidez parroku guziei.

Kargua adinagatik eta beste zenbait arrazoirengatik utzi nahi zuela zioen, baina "Corriedo de la Sierra" osatzen zutenek ez zuten inola ere onartu nahi Aguirreren erabakia. Azkenean, Donostiako Dona Maria Elizako Bikarioa, Jose Bernardo Echague, aukeratu zuten aldi baterako haren ordeko. Juan Bautista Aguirrek 1813ko maiatzaren 4ean utzi zion diputadu izateari (14).

Gobernuak "Behin-behingo egitamu" sortu zuen, Felipe Agustinek "Gobierno intruso"tzat zeukana.

Egitamu horretan zerga-bilketan egingo ziren aldaketa eta berrikuntzak adierazten ziren. Diputadu nagusiak bere zerecinak jakin erazi zituen, Donostian bizitzeko asmoa zuela esanez. Gainera, zortzi diputadu gehiago izendatu zituen: Donostiakoa, Hernanikoa, Tolosakoa, Getaria^akoa, Ordiziakoa, Villa Real-ekoa, Irungoa eta Arrasate^akoa (15).

"Corriedo de la Sierra" Tolosako barrutian kokaturik geratu zen eta Jose Francisco Saralegui zen bertako arduradun. Honekin harremanak izan zituen Felipe Agustin Otaegui^k, eta gutunetan ikus daitekeenez, behin baino gehiagotan haserretu ziren bata bestearekin.

Plangintza horren barruan, Agustin Iturriaga zen Hernaniko arduraduna. Agian elkar ezagutu zuten Otaegui^k eta Iturriagak (15).

"Behin-behingo egitamu"ari Felipe Agustinek bere eskuez idatziriko agiri bat eransten dio, "Corriedo"ek eta barruti berriek zenbateko zergak ordaindu behar zituzten

aditzera emanaz.

Napoleonen gerlari eta honek Euskal Herrian eta zehazki Beizaman sortu zituen buruhausteei leku egin ondoren, jarraian lehen karlistadaz zer edo zer esan nahi dugu.

Jakin badakigu gerla hauek anaiartekoak izanik, izugarriko kalteak ekarri zizkiotela Euskal Herriari. Orohar, euskaldunen ondasunak zeharo murriztu, txirotu eta beren haziendak suntsitu zituzten.

"Sendoa" argitaletxeak atera berri duen "Eailarak" bilduman hauxe aipatzen da : "Las guerras civiles de finales de los siglos XVIII y XIX afectaron sobre todo a las haciendas de la Universidad. Así durante las llamacas de las Convencionales y las Carlistas" (16).

Hala gertatu zela egiaztatzeko, Udaletxeko liburu eta aktak irakurri besterik ez dago.

Hamarrenez gain, gudaosteak mantendu ahal izateko beste zerga batzuk ordaindu behar ziren. Honela dio Felipe Agustín Otaegui 1837 urteko eskutitz batean: "Muy Señor mío: Acompañan los mil cuatrocientos diez y nueve reales y dos mrs vellon que a esta Iglesia han correspondido en la contribucion pedida por el Exmo Señor Capitan general de esta provincia para atender a la subsistencia de las tropas de su mando en las monedas siguientes..." (17).

Baserritarrek ordaintzen zituzten zergak, eta gari, arto edo garagarrik ez bazuten, Elizak baserria bahitzen zien (18).

Orain burura datorkigu Fernando Amezketarrari (1764-1823) herriko erretoreak bere "Ixpille-saletxe" baserriari ezarritako zentso edo hipotekak gogora arazi zizkione ko hura.

Hamaika Fernando Amezketar izango zen Beizaman urte horietan!

Orduan Felipe Agustin Otaegui "Corriedo de la Sierra" elkartearen buru zen eta berak eraman behar zituen zerga horien kontuak. Argi eta garbi jasotzen zituen baserri-tar bakoitzak ordaindu behar zituen hamarrenak. Kontuak erdaraz egiten zituen, baita bere gutun guziak ere.

Lehen karlistada baino lehenagotik ere euskaldunak biziki haserre zebiltzan Cádiz-en 1812. urtean hartu ziren erabakiengatik. Haserreak 1875 urte arte iraun zuen.

Hauexek izan ziren Cádiz-eko Konstituzio berrian hartu zituzten erabaki nagusiak:

Erregearekin batera, Gorteak ziren aurrerantzean legeak egingo zituen erakunde bakarra. Erabaki honek Batzar Nagusien egitekorik garrantzitsuena, hots, legegintza, deuseztatu zuen.

Aduanak itsas-bazterrera eta Pirineoetara aldatu ziren. Beraz, Ebroko aduanak kendu egin zituzten, euskaldunek ekonomi mailan zuten burujabetasuna deseginez.

Zerga mota berdinak jarri zituzten Espainia eta Euskal Herrirako, hau da, Erresuma osorako, eta handik aurrera Gorteek ezarriko zituzten bai zergak, bai petxak. Honekin Euskal Herriko zerga-sistema porrokatu zen.

Denentzat justizi lege berak ezarri zituzten, Euskal Herriko zuzengintza edo zuzenzaingoa pikutara bidaliz.

Udal-jaurpidetza ezereztatu zuten; euskal foruen oinarria udala izanik, erabaki honen bidez foruak sustrai-sustraitik erasotu zituzten.

Diputazio Probintzialak ipiniz, buruzagi politiko bat jarri zuten diputazio bakoitzean. Lege honen ondorioz, Foru-diputazioaren jatortasuna eta bere eraentzeko modua galdu ziren.

1814 ean etorri zen Fernando VII.a Frantziatik. Absolutista porrokatua zen eta ez zituen bereak ez Konstituzioa, ez Lege Zaharra.

1820. urtean Riego matxinatu zen eta Euskal Herrian hiru urteko gerratea izan zen. Konstituzio-hirurtealdia igaro ondoren, absolutismoa nagusituko da hurrengo hamar urteetan. Guda honetaz hurrengo atalean mintzatuko gara.

1833 an, Fernando VII.a hil eta gero, piztuko da berriaz gerra Euskal Herrian.

Beizamatik gertu indarrez sortu zen gucua, antza. Hone la dio "Bailarak" bildumak (19): "La primera guerra carlista se inició casualmente con un tiroteo acaecido en la villa el 22 de octubre de 1833".

Herri hori, Tolosa, betikanik "puerto seco" izan da, Donostiako portuaren babesekoa, alegia.

1442. urtetik 1841 urte arte aduana lanak egiten zitu en. Hamarren zaharra, erregearen zergak, e.a. Tolosatik igaro eta ordaintzen ziren. Horrela bada, inguruko

herrixkek bazuten zeresanik aldakuntza hauen aurrean.

Euskaldunak egoera larrian bizi ziren garai hartan, batez ere nekazari, artzain eta herritar behartsuak. Zama guziei herri xeheak egin behar zien aurre, burgesia bere irabazpideez bakarrik arduratzen zen bitartean.

Guduak 1833 ko urritik 1839 ko abuztu arte iraun zuen; "Zazpi urteko gerratea" deritzo. Katalunian urtebete gehiago iraun zuen.

Fernando VII.a hil zenean, Gorteek Isabel II.a hautatu zuten erregin, baina Zegamako Santos Ladron buruzagi ospetsua Nafarroaz jabetu zen eta bertan Euskal Herri osorako gucaletxea eraiki zuen. Nafarroako erregeordearen aginduz, Santos Ladron karlista atxilotu eta tiroz hil zuten.

Gipuzkoan Diputazio, Udal eta hiri handietako alkateek Isabel II.a ontzat hartu zuten; aitzitik, buruzagi batzuek eta herri xehearen gehiengoak hura gaitzetsi eta Karlosen alde asaldatu ziren. Bada agintari gehienak Isabelen aldekoak ziren eta jende xehea Carlosen aldeko.

Euskal Herriak bazituen arrazoi ekonomiko, ideologiko eta erlijiozkoak liberalismoaren aurka egoteko.

Alde batetik, kanpoko produktuei zerga ezartzea ez zuten atsegin, ezta errentak altxatzea edo herrilurrak saltzea ere.

Bestalde, herritarrak kontserbatzaileak ziren, ez zuten liberalismorik, ez zentralismorik onartzen, eta guzien gainetik, foruzale sutsuak ziren. Foruzale izanik, bai

erregezale ere, erregea foruen defendatzailetzat bait zeukaten.

Arrazoi erlijiosoek zerikusi handia izan zuten. Azkoi tiko Zalduntxoen garaia amaitu ostean, haien ideiak zire la eta, erlijioa larrialdian zegoen, krisi gogorrean. Li beralek frantses ideiak bereganatu zituzten eta erlijioa ez zuten apaiz askok bezala ulertzen. Erlijio gaietan ere liberalismoz kutsatuak zeuden.

Apaizek, berriz, oso irizpide eta jokabide estuak, al dakaitzak zituzten.

Estutasun morala politika arlora aldatu zen eta "inte grismoa" sortu zen.

Apaizak, apaiz arruntak behintzat, integrista eta tra diziozale porrokatuak ziren. Agintariak eta haien pentsa kera ezin eraman zituztelarik, apaizek herri xehea beren alde jartzea lortu zuten eta herritarrekin lanean hasi ziren. Herriaren buruzagi bilakatu ziren apaizak.

Euskal Herriak erlijio sen eta fede izugarria zuenez gero, erlijiozko istiluak sortu ziren karlisten eta libe ralen artean.

Gerrate luze honek iraun zuen bitartean, Felipe Agus tin Otaegui Beizamako erretore zen eta bere eliz-lanetan aritu zen. Dirudienez, bere bizitzako azken urteetan gaitzen batek jo zuen, apaiz lagun bati urak hartzen ari zela idatzi zion eta. Ez dakigu, ordea, zein gaitz zuen. 1839 ko ekainean sinatu zuen agiri bat azken aldiz.

Azken urte hauetan eraiki bide zuen erretoretxe berria.

Dokumentuen bitartez egiaztatu dugunez, erretoretxe berriaren idatz-agiri edo eskritura 1936. urtean egin zuen eta testamentua ere bai.

Bere kontu-liburuan xehetasun garrantzitsuak agertzen direnez gero, berau erabiliko dugu gerra-garaian Otaegui nola bizi zen eta zer egin zuen argitzeko. Liburuak hone la dio sarreran: "Libro de Caja de Don Felipe Agustin de Otaegui. Este Libro de Caja de mi Don Felipe Agustin de Otaegui, Rector de Beizama tiene 276 hojas con exclusión del Abecedario y firmo" (20).

Antzaenez, garai hartan Beizamako guraso batek norbaiti bere semearen orde z gerrara joan zedin ordaindu nahi izan zion, Otaegui bien bitarteko izan zelarik: "El día diez y nueve de Febrero de mil ochocientos treinta y cinco Tiburcio de Azpeitia se obligó a ir por sustituto de Juan Francisco de Eceiza y Querejeta entregándole de presente ciento y veinte reales vellón, otros seiscientos reales vellón y dos camisas a la conclusión de la Guerra presente; Martín de Eceiza padre de dicho Juan Francisco y Juan Ignacio de Querejeta tío de dicho Juan Francisco se obligaron a pagar todo lo relacionado y en su falta obligan al citado Juan Francisco y que la paga realizarán por mis manos. Este convenio no tuvo efecto por no haver sido admitido Tiburcio para sustituto".

Saralegui jaunari bidaltzen zizkion eskutitz luze eta zehatzak ere jaso ditugu. Lehen esan bezala, Independentziako guduan erabaki zen "Corriedo de la Sierra" barrutiko

erretoreek Tolosako Diputadu edo haren ordeko zen Saralegui jaunari kontu eman behar ziotena. Beraz, 1835. urteko kaperautzek eta zentsoek ematen zituzten errentak hartu ditugu eredutzat, horien berri zehatza ematen bait dugu Beizamako erretoreak. Hala dio agiriak: "Capitales y reditos de la Capellania de Don Martin, Juan y Iñigo de Otaegui y agregaciones para el año de 1835 y siguientes. Capital 1.210 cucados. Reditos 378 reales vellon. Misas que se deben celebrar en cada año" (21).

Kaperautzak XIV. mendean sortu ziren Gaztelan, baina arrakastarik handiena XV. mendetik XVIII. mende arte izan zuten.

Beizaman XVI. mendean sortu zen lehenbiziko kaperautza. Ynigo eta Joan Otaegui anaiek 300 dukat eman zituzten beren alde mezak eman zitzaten Beizamako Done Pedro elizan eta Done Laurenti baselizan. Gero, ugarituz joan ziren kaperautzak. Batzutan, cirurik ezean, baserritarrek bahiturapean jartzen zuten baserria, beren animen alde mezak eta errezoak egin zitzaten. Honi eliz-errolca eco zentsoa zeritzon. Hortaz, hauxe zen kaperautza: diru kopuru bat kapital modura elizari ematea eta horren errentak bere animaren alde errezatzeko izatea.

Kontutan izan behar dugu XVI, XVII eta XVIII. mendeetan erroldak batik bat gari, arto eta garagarretan ordaintzen zirela, baina XIX. mendean lehen karlistadan hiru txanpon mota ezberdin agertu ziren zergak ordaintzeko.

Felipe Agustin Otaegui gutun batean aipatzen duenez,

Baionan izan zen dirua eskuratzen edo produktuen truke txanponak aldatzen. Bada, arazoak zituzten dirua lortzerakoan. Hiru diru edo txanpon motak, maravediak, dukatak eta errealak ziren. Baina geroago, beste txanpon mota ugari iritsi zitzaizkigun atzerritik: libera esterlina, frankoa, Espainiako zilarrezko pisua, dōbloia, urrezko duro zaharra, urrezko duro berria, ezkutua, zilar-dukak portugesa, taia, lauzurikoa, ontzako urrea, e.a.

Herritarrek eliz-errola, zentso eta hamarrenekin nahikoa eta gehiegi baldin bazuten ere, "subsidio guerrillero" zeritzana ere ordaindu behar izaten zuten basagerlariei laguntzeko. Hona adibide gisa gerrilariei emandako diru-laguntza baten agiria: "Comision de la Muy Noble y Muy Leal Diputacion de Guipuzcoa.

Hemos recibido del Il. Cavildo de la Universidad de Beizama 772 reales vellon pertenecientes a los ramos del subsidio guerrillero y primer plazo de la contribucion de (reintegro) que se cumplio el treinta de Noviembre ultimo con rebaja de lo que toca al Sr. Don Juan Manuel Ezama Beneficiado de la misma y se halla en el Real Servicio.

Cuerpo de Honor a 26 de Diciembre de 1834.

Juan Francisco de Iriarte.

Jose Antonio Urrozola.

Otro recibo en Azpeitia el día 21 de Febrero de 1834. Son 665 reales vellon."

XVIII eta XIX. mendeetan baserritarrek tazmiak edo hamarrenak ordaintzen zituzten. Gainera, gerrateak piztu

ahala gudu-bahikuntza edo zerga berriak ipini zituzten (22). Gorago esan dugun legez, zergak ordaintzeko adina diru ez zutenei, baserria bahiturapean jartzen zien elizak. Horrela, jabeak lehen zituen eskubide batzuk galtzen zituen: adibidez, ezin zuen baserria salcu elizaren baitatik gabe.

Akura guzti hauen ordainketak zehatz-mehatz bildu zituen urte hauetan Felipe Agustín Otaegui agiri ofiziale tan.

Beste errolda batzuk ere egin behar izan zituen: Cá-ciz-eko Konstituzioan hartu zen erabaki baten ondorioz, Gobernu berriak zerga bakarra ezarri nahi izan zuen, pro bintzia bakoitzari bere kupoá ipiniz. Horretarako, 1813. urtean onartu zen legearen arauera, Otaegui behin eta berriz egin zituen prebisióak.

1.5.3) "Konstituzioaren arauzko jaurpide" delakoaren kontrako gerra

Badirudi Independentziako gerrateak ez zuela Beizaman eragin handirik izan, baina Konstituzioaren arauzko jaurpideak iraun zuen bitartean, jende guziak Beizaman ipini zituen buru-belarriak.

Gudian Francisco Eceiza Pagadi Beizamako eliz-otseina eta Francisco Ignacio Gorostegui bertako zirujaua nabarmendu ziren.

Elkar hartutako liberal eta masoiek 1820 ko urtarrila ren 1 a aukeratu zuten Quiroga koronelak zuzenduriko matxinada hasteko, eta egun horretan Asturias-eko batailoiaren gudaiburu edo komandante zen Rafael del Riego-k 1812 ko Konstituzioa alcarrikatu zuen Cabezas de San Juan herrian. Mugimendua beste herri batzutara hedatu zen eta erregeak zin eginez arau-bilduma onartu behar izan zuen 1820 ko martxoaren 9 an.

1820 ko urriaren 1 eko Gorteetan praile-anaidiak deuseztatzea erabaki zen. Erregeak ez zuen deuseztatze-agincua sinatu nahi izan.

Nos el Don Gabriel Rafael Blazquez Prieto Presvitero Abogado de los Reales Concejos Provisor y Vicario General de este Obispado por el Illmo Señor Don Lorenzo Ygual de Jaria obispo de el consejo de S.M.

28 de septiembre de 1802."

Eliza agintarien eta eliztarren laguntzaz berriztatu eta gero, elizaren ondasunak, baliozko gauzak, bitxiak konpontzeko baimena eskatu zuten. 1792. urteko agiri batean ondasun guzti hoeriek zehatz-mehatz agertzen dira. Ordurako Felipe Agustin Otaegui Beizamako elizako elizotsein zen eta seguraski erabiliko zituen bitxi haietako batzuk. Hauxe dio agiriak: "En la sacristia de la Iglesia Parroquial San Pedro Apostol de esta Universidad de Beizama a veinte y tres de Julio de mil setecientos noventa y dos. Ante mi el Essmo. Real y vecino de la Villa

de Azpeitia mediante ano haver Issmo. Numerario en esta dicha Universidad, y testigos infraescriptos parecieron presentes.....

Primeramente un terno de terciopelo carmesi bordado de oro de color rojo.

Itt. otro terno blanco de seda con galon de oro con frontal y sobrepulpito.

Itt. otro terno negro de Damasco con frontal de lo mismo.

Itt. dos casullas negras de Barragan y paño de Segobia.

Itt. otra casulla berde de Damasco.

Itt. otras dos moradas de Damasco.....

Itt. dos cruces de plata, la mayor sobredorada.....

Itt. un Insensario de plata con naveta de metal.....

Itt. quatro calices de plata con sus patenas y cucharas....." (3).

Objektuen zerrenda amaitzean, Felipe Agustin Otaeguirren izena agertzen da, besteren artean, lekuko gisa: "Y asi lo otorgaron ante el presente Ilmo. siendo testigos Don Felipe Agustin de Otaegui, Jose Ignacio de Balzuzqueta y Manuel Maria de Iriarte vecinos de esta dicha Universidad de Beizama. Dichos otorgantes a quienes doy fe conozco y firmaron y doy fe de ello yo el Escribano...".

Beste dokumentu batek 1796 an Beizamako elizaren bitxiak ego ondasunak zein egoeratan zeuden jakin erasten ditu. Garai hartan egor salatu behar izango zuten

dokumentuan aipatzen diren 4.400 errealak lortzeko, onda sunak zaindu eta berritzearren. Agiria luze samarra denez cero, eranskin bezala ipintzea erabaki dugu (4).

Ascensio Labayen zilarginak ikuskatu zituen kalizak, ontziak, goilareak, e.a. Gaur egun ere ezaguna da Beizaman gizon ospetsu hau.

Horretaz gainera, ez cugu ahaztu behar Konbentzioko Gerran objektu horietako batzuk saldu egin zituztela gu-cu-gastuak ordaintzeko, eta beste oncasun batzuk lapurtu ecin zituztela.

.....

(1) Ikus 58. eranskina.

(2) Registro de Miguel ce Segura, 81.orr.

(3) Ikus 59. eranskina.

(4) Ikus 60. eranskina.

3. IDAZLANAK

3.1) EUSKAL LITERATURAN DAGOKION LEKUA

Felipe Agustin Otaeguiaren idazlanak literatur jeneroen arauera sailkatzekotan, Katekesi eta Erlijio sailean sartuko genituzke. Kronologiari begiratuz, berriz, XIX. mende haserako hainbat idazleren artean koka dezakegulakoan gaude.

Gure eritziz, Otaeguiak merezi du leku bat Larramendiren ondorengo idazleen artean. Doktrina eta Morala homilia edo sermoietan erabili dituzten autoreen zerrenda luzean Felipe Agustinek badu zeresanik eta garrantzirik.

Garai hartako idazle askok Mendiburu izan zuten maisu, idazle nahiz sermolari bezala ospe handia lortu bait zuten. Otaeguiak aitortzen duenez, Mendibururen Meditacioneac hiru tomotan ondo irakurriak eta hausnartuak zituen.

Jesuitak 1767. urtean erbesteratu zituzten. Urte berean jaio zen Felipe Agustin Otaegui; beraz, ez zuen Mendiburu ezagutzerik izango. Jesuitak 1815 aldera itzultzen hasi ziren Euskal Herrira, baina Aita Mendiburu Bolonian hil zen 1782. urtean.

Beizamarren siniste eta erlijio zaletasunak ezagutuaz, jesuitek hutsune nabarmena utziko zutela iruditzen zaigu. Aldi berean, Beizama inguruan herritarrek betidanik itzal eta begirure handia erakutsi diete franziskotarrei.

Aita Larramendik bere Corografía-n esaten zuenez,

Zarauzko Konbentuko sermolari edo eliz-hizlariak ziren euskara onargarria zerabilten bakarrak.

Jesuitek alde egin zutenean frantziskotarrak bertan geratu zirenez gero, Otaeguik haien babesa izango zuen seguraski.

Garai hartan Añibarrok, Frai Juan Mateo Zabalak eta Frai Jose Cruz Echeverriak jasan zituzten eragozpenak pairatu behar izango zituen Felipe Agustin Otaeguik bere elizan.

Konbentzioko Guduan, Independentziakoan eta Karlistadetan, bai Arantzazuko Konbentuak, bai Zarauzkoak tinko defendatu zuten Erregea. Baina Cádiz-eko Riegoren matxinadan, 1820. urtean, Konstituzioa onartu zenean, anaidi edo ordena guziak cesegin zituzten eta frantziskotarrak sakabanatuak geratu ziren. Gorabehera hauek denek bat eginda eraman behar izan zituzten.

Hortaz, gure idazlearen aintzindariak Menciburu, Mogel eta Asteasuko Agirre badira ere, Zarauzko frantziskotarrak ere kontutan hartu beharko ditugu Otaegui aztertzerakoan.

Frai Pedro Astarloa ere ezin ahaz dezakegu, beizamarrak ezagutzen bait zituen haren Doktrinak eta behin baino gehiagotan aipatzen bait du eskuzkribuetan. Astarloaren obra 1816 an argitaratu zen Bilbon. Lanak bi tomo ditu, bigarrenean Francisco Longa Anchiari hitz batzuk eskaintzen dizkiolarik, beronen laguntzaz argitaratu bait zuen lana.

Kempis liburua ere ezaguna zuen Otaeguik, agian Aita

Mendibururen bitartez.

Azkenik, 1858 an Tolosan Jose Ignacio Guerricoren obra argitara eman zenean, liburuari sarrera egin zionak aipatu zuen lehenbiziko aldiz Felipe Agustin Otaegui.

Oraingoz ez dakigu nork idatzi zuen Guerricoren Sava-
guera-ren sarrera hori; J.J.I. labur-hizkiez sinatzen du. Bertan dioenez, 1805 ean Guerricok Artzapeztegi Nagusiko apaizei aurkeztu zien bere lana, haiek onar zezaten. Lana Felix Amundarain eta Jose Javier Ayerbek ikuskatu zuten. 1806. urtean Azpeitian egin zen bilerako aktak honela dio: " Se leyó igualmente la censura de la obra bascongada doctrinal de Don Jose Ignacio de Guerrico Beneficiado de la Villa de Mutiloa dada por los Señores d.^o Don Jose Feliz de Amundarain, y Liz.^o Don Jose Xavier de Ayerbe, vicarios de Mutiloa, e Idiazabal. Y reflexionando la utilidad, que de su impresion puede resultar, desea el M.I. Clero, que quanto antes se proceda asu impresion; pero por quanto en la actualidad se ve el M.I. Clero agoviado con mil gravámenes, se dió comision a los Señores Larreañ di, y Sosoaga Prores. congregantes de San Sebastian, y Tolosa, para que hablen con los impresores de dichos pueblos, y vean si quieren hacer dicha impresion asu costa, y riesgo, y en el caso de que no se arrienguen, se espere a tiempo mas oportuno...." (1).

1847, 1848 eta 1849. urteetan Artzapeztegi Nagusiko apaizek berriro eztabaidan aritu ziren Guerricoren eta Asteasuko Agirreren lanak argitaratu ala ez.

Agirrerena harpide edo suskripzio bidez argitara eman zuten; ez, ordea, Guerricorena. Haatik, azkenean hau ere inprima arazi zuten, hitzaurrea idatzi zuenak dioenez, "por el desprendimiento de una respetable Señora".

Otaeguiaren obra beranduagokoa izan arren, agidanean 1847 inguruan egin ziren bilkuretan Gipuzkoako Apaizeriak kontutan hartuko zuen; halere, ezin dezakegu hori frogatu.

Tamalez, Felipe Agustinen lanak ez zuen Agirrererak bezalako zorte onik izan. Beizamako elizako elizainak edo maiordomoak erosi zituen Juan Bautista Agirrererak Flatikak 1851 ko maiatzaren 30 ean. Hiru tomoen truke 97 erreal eta 2 maravedi ordaindu zituen. Ordain-txartela edo erre ziboa Albizturreko eliz-otseinak, Juan Esteban Zelayak, sinatu zuen, Beizamako elizako elizainari saldu zizkiola adieraziz (2).

Garai hartan Juan Bautista Agirre Gipuzkoako Apaizeri edo Klero guziaren Diputatu Nagusia zen. Gipuzkoako Artzapeztegia, Artzapeztegi Nagusiak, bigarren mailako Artzapeztegiak, Lenizekoak, Oñatiko Bikarietxeak eta Elgoibar ekoak osatzen zuten. Azken bilera 1806 ko uztailearen 26 an egin zuten Azpeitian, orduan zituzten arazoak eztabai datzeko.

Felipe Agustin Otaeguiak bazuen Agirrererak berri eta mi retsi egiten zuen.

1813. urtean Juan Bautista Agirrek gutun bat idatzi zien Gipuzkoako erretore guztiei, Diputatu kargua uzteko asmoa adieraziz eta eskaria Gipuzkoako Intendente jaunari

luzatuz.

"Corriedo de la Sierra" osatzen zuten herriek ez zutela kargu uztea onartzen erantzun zioten. Azkenean, ordea, Agirrek lortu zuen bere nahia (3).

.....

(1) Ikus 61. eranskina.

(2) Ikus 62. eranskina.

(3) Ikus 63. eranskina.

3.2) HAREN ESKU IZKRIBUAK

Herritarrek ez badakite ere, Beizama eta bertako eliza dira Felipe Agustin Otaeguiaren eskuzkribuen oinordeko, idazleak hala erabaki bait zuen bere testamentuan.

Gorago aipatu dugunez, Otaeguiak 1836 ko ekainaren 7 an egin zuen testamentua Azpeitian Martin Nicolas Unsain eskribauaren aurrean, eta handik lau urtera eskuz idatziri ko testamentu olografoan aditzera eman zuen bere azken nahia. Hauxe dio bertan: "It. Quedaran para uso de mis sucesores todos los libros grandes y pequeños que se hallen en mi poder en el idioma bascongado, el trilingue de Larramendi en dos tomos, su arte, los sermones, platicas, y doctrinas que tengo compuestos en dicho idioma." (1).

Bere oinordekoak ere aukeratzen ditu: "Nombro por mi Albacea y testamentario a Don Juan Jose de Iriarte Presbítero Beneficiado de esta Parroquial de Beizama, quien a luego que yo fallezca tomara las llaves de mi comoda, estantes, y demas que le parezcan, pagara todas mis deudas, realizara las cobranzas, vendera en publica almoneda o fuera de ella todo lo que hallare vendible, reservando para si la escopeta, fusil, pistolas, la escribania de laton conforme se halla, el belon de laton, la novisima recopitacion de leyes, y los diez tomos de Febrero reformado que se hallan en poder de mi hermano..."

Hortxe dugu beizamar erretorea latoizko idaz-mahaiaren aurrean eserita, krisailuaren argiaz bere obra idazten.

Otaeguik berak dioskunez, inguruko apaletan liburu handi eta txikiak zituen, haietako batzuk euskaraz idatzitziak. Bazuen garai hartako euskal idazleen berri, berak egindako zerrenda batean jakin erazten bait dizkigu haien izenak eta haien obrak. Agiriak "Rolde y nomina de los libros Parroquiales y otros de Beizama hoy dia cinco de Junio de mil ochocientos treinta y dos" izenburua darama eta honela dio: "Obras Bascongadas. Tres tomos de la obra del P. Mendiburu para Meditaciones. Ademas de las obras hasta aqui relacionadas el infraescrito deja para la Iglesia y uso de sus sucesores un tomo que contiene las doctrinas de Don Juan Antonio Moguel sobre Confesion y Comunion en Eascuence. Otro tomo, que contiene Confesio ta Comunioco Sacramentuen eracusaldia por Don Juan Bautista de Aguirre. Dos tomos de las doctrinas del Padre Astarloa. Tres tomos de las doctrinas del Padre Fr. Bartolome Santa Teresa, y todos los demas libros que se hallen en su libreria en idioma Bascongado, con mas los dos tomos del trilingue del P. Larramendi." (2).

Horrela bada, euskarari dagokionez, liburutegia aski ongi hornitua zegoen, garai hartako apaiz arrunt batena zela kontutan hartzen badugu. Maisutzat idazle haiek hartu zituela eta haien antzera idatzi nahiko zuela pentsa dezakegu.

Erabili ditugun dokumentuei esker dakigu Asteasuko

Agirre ezagutzen zuena, beharbada bere gidari eta laguna ere izan zelarik.

Gainera, zerrenda horretan agertzen ez den arren, Axular ezagutzen eta miresten zuen. Izan ere, Otaeguiaren "Garizumako hirugarren iganderako" deritzan sermoiak (135. orrialdean) zerikusia handia du Axularren Gero liburuko 4. kapituluarekin, hots, "Nola eztugun geroko segurantzarik" atalburuarekin. (3).

Gaur egun liburu bezala ezagutzen ditugunak, garai batean esku izkribuak izango ziren eta apika horregatik, argitaratu gabe zeudelako, edo beste arrazoi batzurengatik ez zituen aipatuko Felipe Agustinek.

Gauza bera esan dezakegu Pedro eta Pablo Astarloa anai ez. Seguraski bazekien bien berri eta Astarloatarrek bere lanean eraginik izango zuten. Pedro Astarloa Filosofia eta Teologiako Katedradun izan zen Probintzia osoan. Felipe Agustinen irakasle izan ote zen? Hori ezin dezakegu frogatu.

Eskuzkribuetako zitak edo aipamenak nondik aterak diren jakin erazten digu. Gehienetan Liburu Santuetatik hartzen ditu aipamenak: Testamentu Zaharretik eta Berrietik, Jatorri-liburu edo Genesitik, Apaiz-liburutik....

Baina aldi berean behin P. Astarloaren esanak ere jasotzen ditu, ezaguna bait zuen Bilbon 1816 eta 1818 an bi tomatan argitaraturiko Urteco Domeca cuistijetaraco verbaldi icasbidecuac, ceinzubetan azalcuten dan Erromaco Catecisma liburua.

Fr. Jose Cruz Echeverria frantziskotarra, Pedro Astarloa, Añibarro eta Zabalaren garaikide zen. Zalantzarik gabe, idazle guzti horiek elkar ezagutzen zuten. Aita Jose Cruz Echeverria gipuzkoarra izanik, eta herriz-herriz sermoiak esaten ibiltzen zenez gero, agian beste idazleak baino hobeto ezagutuko zuen hau Otaegui. Felipe Agustinek bazuen Echeverriaren lan joriaren berri eta bereziki Cristau Doctrina Euscaraz zeritzon lanaz arduratu zen(4). Dirudienez, Beizamako erretoreak ez zuen oso gogoko kristau ikasbide hori, hainbat akats aurkitzen zizkion; ondorioz, Apezpikuari gutun bat egin zion hauxe esanaz: "En veinte y nueve de Julio del año ultimo V.S.I. tubo la bondad de acusarme el recibo de la mia sobre reparos al catecismo bascongado del P. Echeverria, y aguardo su resultado para mi gobierno, y el de mis feligreses." (5).

Zuzenketa horiek aurkitzeko ahaleginak egin genituen, baina alperrik; Iruñeko Elizbarrutiko Agiritegiaren arduradunak hauxe adierazi zigun: "En el fichero aparece una papeleta que dice lo siguiente: Beizama 1823. Anotaciones y corrigenda del Catecismo en vascuence del P. Echeverria. Se transcriben frases en vasco y sus reparos. Caja 421, nº 31." Zoritxarrez kaxa hori ez da azaldu.

Itzulpenari zegozkion oharrak edo zuzenketak egingo zizkiola iruditzen zaigu, euskarari zegokionean Echeverria ez bait zen Añibarro eta Zabala bezain arduratsua. Garai hartan garbizalekerian erortzea ala jatortasunari eustea eztabaidatzen zuten idazleek.

Echeverriak hizkuntza gauzak adierazteko tresnatzat jotzen zuen, mamiari begiratzen zion, euskal esakera jatorrei arreta handirik egin gabe. Bere garaiko kritikalariei honela erantzun zien Sales-eko Prantzisko Donearen bizitzaren kontaketa egin zion sarreran: "Utzi bada aurqueriari; Eta begiratu sustanciari".

Lehen esan dugunez, Jose Ignacio Guerricoren Cristau Doctrina Guztiaren Esplicacioaren Savacuera liburuan agertzen da lehendabiziko aldiz Felipe Agustin Otaeguiaren izena (6).

Guerrico eta Felipe Agustin Otaeguiak elkar ezagutzen zuten eta beren gurasoak senitartekoak ziren. Felipe Agustinen kontu-liburuan 1825 eko azaroan agertzen da Jose Manuel Guerricoren izena (1781-1849). Apaiz hau "Corriedo General" delakoaren arduraduna izan bide zen eta Beizamako erretorearekin harremanak izan zituen, liburuak erakusten digun legez. Bere iloba baten berri ematen dio, Jose Ignacio Guerricoren berri, hain zuzen ere, baina ezin daiteke idazlea izan, hau 1824 ean hil zen eta. Iloba hori Beizamako elizako eliz-otsein izan zen 1827 eta 1831 urteen bitartean (7).

Jose Ignacio Guerricoren berri zehatzagoak lortu nahian, Segurako Dona Maria elizako bataio-liburuak arakatze ari ekin genion. Bien arteko ahaidetasun erlazioaren egiaztagiri gisa hauetxek aurkitu genituen: "Juan Angel Otaegui Goya hijo de Francisco de Otaegui Urquiza y Maria Francisca de Goia. Nacido el 1º Marzo de 1738. Padrinos:

Don Juan Antonio Goia, Rector de la Parroquia de Gaviria y Maria Cruz de Olazaran. Abuelos paternos: Domingo de Otaegui Urquiza y Maria Luisa de Goicoechea. Abuelos maternos: Juan de Goia y Maria Antonia de Oñativia, vecinos de Mutiloa." (8).

"Jose Ignacio de Guerrico y Berasategui. Nacido en 26 de Abril de 1796, bautice yo el infraescrito Vicario a un hijo de Francisco Antonio de Guerrico y Maria Rosa de Berasategui su legitima mujer. Nieto lejítimo de Martin de Guerrico ya difunto y Ana Cruz de Goya y de Jose Ignacio de Berasategui y Juana de Luzuriaga. Poniendole por nombre Jose Ignacio. Tubo por padrinos a dichos Jose Ignacio de Berasategui y Ana Cruz de Goya vecinos de esta villa quienes quedaron advertidos de sus obligaciones y por verdad final. Firmo: Jose Francisco Galdos." (9).

Hortaz, Francisco Otaegui Urquiza Felipe Agustin Otaegui ren osaba zen, bere aita zen Tomas Otaegui ren anaia.

"Joseph Ygnacio de Guerrico y Enatarriaga. Dia martes a 5 de Enero 1740 bautice a un hijo nacido la noche antes de Marcos de Guerrico y Anastasia Enatarriaga su legitima mujer, tuvo como padrinos a Jose Ignacio Enatarriaga y Josefa Aleguia y se les advirtio de los impedimentos de consanguinidad espiritual y compadrazgo....

Firmado Don Francisco Xabier de Mendiolaza Vicario Perpetuo de la Parroquia de Santa Maria de la N. y L. Villa de Segura." (10).

Hauxe dio Felipe Agustin Otaeguik Jose Manuel Guerricori egin zion gutun batean: "Señor Don Jose Manuel de Guerrico. Beizama 15 de Enero de 1827.

Mui Señor mio: La concordia de esta dice, que asi el Rector en sus seis meses, como los Beneficiados en los seis restantes respective hayan de dar Misa quotidiana popular; por lo que en la mia de 12 de Noviembre de 1825 decia a V.S. que Don Jose Ygnacio quedaria con todos los frutos con pagar los cuatro reales diarios al Prior.

Por este correo escribo al Señor fiscal y Procurador para que activen el expediente de la Misa popular.

Me es mui sensible la determinacion de su sobrino con quien contava para mi vejez.

Jose Antonio de Olazabal natural de esta, de edad de quince años ha regresado a su casa despues de haver concluido la gramatica latina. Sus padres tratan de enviarle a Santiago de Galicia a la Compañia de un Señor Canonigo a continuar su Carrera literaria. Deseo que vaya tonsurado, y vea si V.S. y el Señor Labayru C.M.B. pueden conseguir el que sea admitido para las primeras con examen para Tolosa, o para esa siendo el examen pocos dias antes de Ordenes por evitar el gasto de dos viajes.

Disponga V.S. de este S.S.S. Amigo y Capp.ⁿ Q.S.M.B. Felipe Agustin de Otaegui." (11).

Garbi dago Jose Ignacio Guerrico Jose Manuel Guerricoren iloba zela. Gure aburuz, Felipe Agustinek Guerricorekin harreman estuak zituen, bien arteko ahaidetasuna zela

medio; gero erlazioak literatur arlora ere hedatuko zitu-
tuzten.

Felipe Agustin Otaeguiaren kontu-liburuan jarraian aipatuko ditugun datuak agertzen dira:

"Su antecesor en el Beneficio Don Francisco Jose de Eceiza habia abandonado Beizama durante las guerras del Trienio Constitucional.

3700. Por carta orden del dicho Señor Provisor Don Jose Manuel de Guerrico, los frutos del beneficio de su sobrino Don Jose Ignacio de Guerrico tocantes al presente año de 1827 he cedido al dicho Don Jose de Vitoria Sarasola en la cantidad de 3.700 reales vellon.

3.622-08. En vista de la carta de Don Jose Ignacio de Guerrico del 6 de este presente mes de Agosto y de conformidad de lo que en 14 de otro mes me dijo su hermano Don Jose Maria los frutos del beneficio del dicho Don Jose Ignacio tocantes al presente año de 1828 he cedido al dicho Jose de Vitoria." (12).

Baina bere garaiko idazleekin zituen harremanak alde batera utziz, demagun orain Beizamako erretorearen literatur lanaren berri.

1817. urtean hasi zen sermoiak idazten, 50 urte zituela, eta hogeitabi urte egin zituen lan horretan, 1839 urte arte.

Otaeguik 2.500 orrialdeko lana idatzi zuen bere hizki txukun eta garbiaz. Esku izkribuak oso egoera onean daude eta erraz irakur daitezke. Lazkaoko Beneditarren liburutegian daude esku-idazki originalak. Aita Villasantek aurkitu zituenean legajo edo xortetan bilduak bazeuden ere, gaur egun zortzi liburuxkatan josiak daude.

Tesiaren aurkezpenean esan bezala, Villasantek honela izendatu zituen Otaeguiaren idazkiak: "Sermones morales y Panegíricos. Pláticas Doctrinales. Explicación de la Doctrina Cristiana. Homilías".

Liturgiako pasarteak eta ospakizunak aintzakotzat hartuz, hala nola, Abendualdia, Eguberrialdia, Garizumaldia, Aste Santua, Pazkoaldia, Pentekostes garaia..., eratzen ditu Beizamako erretoreak sermoi eta doktrinak.

I.alean Abendualditik hasi eta "Dominica in Albis" bitarteko sermoiak daude, guztira 35 sermoi. Haatik, 159 eta 160. orrialdeak ez dira Otaeguik idatziak, beste norbaitek baizik. Agian beste norbaiten idazkiekin nahasi zituzten Lazkaoko Beneditarrek. Felipe Agustinen eta beste ezezagun horren hizki nahiz grafia-ezaugarriak arras bestelakoak dira.

II.alean Liturgiako ospakizunekin jarraitzen du. Pazko igandetik Gorputz Eguna arteko igandeak sartzen ditu bertan.

III.alean Jaungoikoaren legeko Hamar Mandamentu edo Aginduen gaineko Doktrinak irakur daitezke.

IV. alean Elizako Ama Santuari buruzko doktrina adierazten du. Gainera, ale honi josirik daude eskandaloei dagokien sermoi bat eta erruki-ekintzazko beste batzuk.

V. alean Elizako Sakramentuez ari da.

VI. alean Gurutze Santua, Aita gurea, Ave Maria eta Kredoaren 19 artikuluen gainean idazten du doktrina. Azkeneko orrialdeetan zorionbideei buruzko 8 sermoi egiten ditu. Amaierako sermoian ur bedeinkatua, kandela eta ezkilak zertarako diren jakin erazten du.

VII. alean santuren baten eguna ospatzeko idatzi zitu en sermoiak agertzen dira, "sermones panegíricos" deritzenak, gehienetan santua goraipatzen dutelarik. Done Pedro egunerako hiru sermoi ezberdin ditu (apaizei zor zaien errespetoa azpimarratzeko...).

VIII. alea motzena da, 64 orrialde besterik ez bait ditu. Bertan, izenburu batenpean ezin bil daitezkeen sermoi sakabanatu batzuk azaltzen dira, gehienak Garizumari buruzkoak. (13).

Garai hartako beste hainbat idazlek egiten zuten bezala, Felipe Agustin Otaeguik ere erdaraz ipintzen zituen sermoien izenburuak. Eskuarki latinezko esaldi batez hasten zituen, gero euskaraz jarraitzeko. Esate baterako: "Dominica primera de Adviento. Del juicio universal. Tunc videbunt filium hominis venientem in nube cum potestate magna et majestate. Luc. C. 21. V. 27. Eliza Ama Santac gaurco mezan gure beguien aurrean....".

Hala ere, noizean behin euskaraz ere idazten zituen

izenburuak; adibidez, honela hasten da I. aleko amaiera-ko sermoi bat: "Jesu Cristoren Pasio Santuaren gañeco le nengo eracusaldia."

.....

- (1) Oñatiko Protokolo Agiritegia. Sig. II, 2.977, 489-493.orr. Ikus 47. eranskina.
- (2) Ikus 63. eranskina.
- (3) AXULAR, Pedro: Gero. E. Espirituales. Barcelona, 1964.
- (4) ECHEVERRIA, Jose Cruz: Cristau Doctrina Euscaraz, Tolosa, 1822.
- (5) Ikus 64. eranskina.
- (6) Ikus 65. eranskina.
- (7) Libro de Caja de Don Felipe Agustin de Otaegui.
- (8) Libro de Bautizados de Beizama. Desde el día 7 de Marzo de 1717 hasta el 22 de Diciembre de 1752.
- (9) Parroquia de Santa Maria de Segura. Libro de Bautizados 1787-1829.
- (10) Parroquia de Santa Maria de Segura. Libro 5º de Bautizados 1723-1768.
- (11) Ikus 66. eranskina.
- (12) Libro de Caja de Felipe Agustin de Otaegui. 145.orr.
- (13) Ikus 67. eranskina.

3.3) HAZIBIDEA

Argibiderik eza dela eta, gure tesian osagabe geratu da atalburu hau.

Ez dakigu Felipe Agustin Otaeguik bere garaiko apaiz-
eskola edo unibertsitaterean batean ikasi zuen ala ez.
Zenbait unibertsitatetako ikasle zerrendak aztertu ditugun arren, oraingoz ezer gutxi aurreratu dugu.

1779 eta 1845 urteen bitartean Bergarako Erret-Seminarioa maila gorenean egon zela gogoan hartuz, bertako ikasketa agiriak aurkitzen saiatu gara.

Seminarioa Azkoitiko Zalduntxoek sortu zuten 1776-1777 urte inguruan. XVIII. mendeko azken hogeitun urteetan irakaskuntzaren hedagune nagusi izan zen, batez ere natur zientzien eta teknikazko ikasketen alorrean.

1794. urtean frantsesek hartu zuten, bi urte berandua go handik aldegin zutelarik.

Lehen Karlistadan Karlos ^{Ma} Isidro erregegaiaren bizileku izan ondoren, 1845 ean Bigarren Mailako Irakaskuntzako Instituto bilakatu zen. Unibertsitate honetako ikasagiriak oro Donostiako Urdaneta kalera eramane zituzten 1873. urtean. Gaur egun Bergarako Erret-Seminarioko dokumentuak Donostiako Jose Maria Usandizaga Institutoan daude. Zergatik? Ezin jakin.

Anitz idazti ezezik, hainbat aldizkari ere badaude, hauetako batzuk, artxibari adituen ustez, Espainia osoan ezin aurki daitezkeenak, ale bakarrik. Erabat nahaspilatuta,

lardaskatuta daude matrikula liburuak, tituluak, e.a. Beraz, informazio bila dabilenak nekez aurki dezake argi biderik.

Usandizaga Institutoko zuzendari nintzela, utzikeria horren zergatia jakin nahian, gai hau zegokien agintari-engana jo nuen erantzun eske. Ez zuten, ordea, erantzunik eman.

Bergarako Erret-Seminariora egun U.N.E.D. delakoaren egoitza da, Estaduaren menpe dagoen elkartzebidezko ikas tetxea, alegia.

Felipe Agustinek agian Oñatiko Unibertsitatean burutu ko zituen ikasketak, bertan ikasi bait zuten bere garai-kide askok.

"Universidad de Sancti Spiritus" zeritzan unibertsitate hau 1542 an jaso zuen Rodrigo Sáez de Mercado ce Zua zola jaunak.

1807 an Toledo, Oñati, Orihuela, Avila, Iratxe, Baeza, e.a.-eko unibertsitateak desagertarazi zituzten.

Karlos IV.a Napoleon Bonaparteri omenaldia egitera Ba ionarantz zihoanean, hiru probintziek ordezkariak bidali zizkioten unibertsitatea berriz irekitzeko ahaleginetan. Karlosek haien nahia beteko zuela agindu zuen. Baina Independentziako Gerrateak hankaz gora bota zuen egitasmo hura.

Gerra ostean, 1814. urtean, berreskuratu genuen Oñati ko Unibertsitatea; epe laburrerako, alabaina. 1822 ko abenduaren 1 ean, Erregearen Erret-Agindu bat bete eraziz,

behin betirako itxi zuten unibertsitatea, bertako agiriak Valladolid-eko Unibertsitatara aldatu zituztelarik.

Lehen Karlistadan frantziar gudaosteek Unibertsitateko zenbait egongela hondatu zituzten.

1842 tik 1850 urte arte Eigarren Mailako Irakaskuntzako Instituto izan zen; 1850-1869 urteen bitartean, aldiz, Nekazal-eskola.

Serapio Mugica jaunak agiritegi katalogatua eman zion Oñatiko Udalarari idazki baten bidez. Hala dio idazkiak: "... de accidentes de la guerra, en los que soldados desbandados han penetrado en ocasiones en la Secretaría y destruido por consecuencia varios libros y papeles". En efecto, está el Archivo bastante diezmado, pero no tanto como era de temer. A continuación vamos a dar un recuento sumario del estado en que queda después de catalogado.

La Sección A o fundación de la Universidad se conserva casi totalmente íntegra hasta la época de la primera guerra civil del siglo pasado. Podemos asegurarlo con toda verdad, porque se infiere del inventario de papeles que el Rector saliente solía entregar al Rector sucesor, y del inventario hecho aparte en el siglo XVIII, cuyo contenido corresponde aproximadamente a lo que hemos anotado en la dicha Sección A de nuestra catalogación. Mas se encuentra poco menos que desierta en la época referente al Instituto de Segunda Enseñanza, que fue durante los años 1842-50; en la de Escuela Agrícola que fue en los años 1850-69, en la de la Universidad abierta por la

Diputación foral y de la Universidad Carlista durante la última guerra civil; en la del Seminario Menor regentado por los Padres Agustinos. Completándose nuevamente desde el último restablecimiento de la Universidad el año de 1895 hasta 1903, en que se volvió a suprimir.

La Sección B o Conservaduría es la más íntegra y completa. Se conservan las noticias de los censos, hacienda y rentas de que gozó la Universidad, los informes de la vida y pureza de costumbres de los opositores a las cátedras, los procedimientos civiles y criminales. Notándose la falta de bastantes libros de capilla o actas del claustro de profesores.

Y, por último, la Sección C o Cancelaría ha sido la más desdichada en su suerte. Apenas contiene sino los expedientes académicos de los estudiantes del último restablecimiento de la Universidad, y un libro de pergamino del siglo XVII, titulado libro de los graduados. Esta sección, pues, la más numerosa de todas, ha desaparecido casi completamente, lo cual no quiere decir que haya perecido, no hemos de lamentar tamaña pérdida. Afortunadamente se conservan todavía las listas de matrículas, los expedientes académicos, las actas de los graduados en licenciatura y doctorado; se conservan en el Archivo de la Universidad de Valladolid a donde se remitieron en virtud de una Real Orden que, suprimiendo la nuestra, la dejaban agregada a la cicha de Valladolid.

Este es, pues, el estado actual del Archivo, éste el

fondo de papeles que, catalogados como quedan, se trasmiten a la posteridad con garantías de su perfecta conservación.

Tal vez con el tiempo aparezcan algunos papeles más, como han ido apareciendo mientras se estaba procediendo a la catalogación de los existentes. El método arriba expuesto servirá para inventariarlos en el índice y colocarlos en sus respectivas carpetas. Para este menester como también para atender a la guarda del Archivo, nos permitimos suplicar a S.S. tenga a bien designar a algún auxiliar de la Secretaría del Ayuntamiento para el oficio de archivero. A nadie se debe franquear la puerta del Archivo, y menos permitir el manejo de las carpetas; sino que el archivero mismo facilitará el índice del Archivo al investigador que lo pidiere, lo mismo que cualquier expediente solicitado, encargándose el propio archivero de restituir los expedientes extraídos a sus correspondientes carpetas. De lo contrario, corre el riesgo lamentable de que en el espacio de poco tiempo quede trastornado el orden de la catalogación, de que vayan mermándose el número de los expedientes; como la experiencia enseña haber ocurrido con harta frecuencia en semejantes casos.

Por último, tenemos especial satisfacción en ver que nuestra labor haya merecido el dictamen favorable del Sr. Inspector de los archivos municipales de la provincia, como S.S. podrá observar en el adjunto escrito que va firmado por D. Serapio Múgica.

En esta acta de entrega del Archivo catalogado queremos igualmente testimoniar a S.S. nuestros sentimientos de la más distinguida consideración y repetir los pláceres de que es acreedor por la iniciativa tomada de honrar a la memoria de la Universidad de Sancti Spiritus con la ordenación de su Archivo y la redacción de una monografía histórica de la misma.

Dios guarde a S.S. por muchos años.

Muy Ilustre Ayuntamiento de la villa de Oñate." (1).

Valladolid-eko Unibertsitatean ere izan ginen idazle beizamarraren aztarnaren bat topatu asmoz. Bertako Agiri tegian, "Índice de los Papeles de Oñate en Valladolid" delakoa miatu genuen, argibiderik eman liezaguketen paper sorta guziak aztertuz:

- Certificaciones de Estudios (1774-78) y (1781-83).
- Filosofía: Grados, Matrículas y Pruebas (1804-1832).
-12 libros-.
- Leyes: Academias (1836-39), Grados (1628-1842, incompleto), Matrículas (1640-1836) y Pruebas (1786-1840)
-20 libros-.
- Cursos privados de la Universidad de Oñate (1803, 1815 y 1828). Leg.111.
- Expedientes de Lics. y Docts. en Leyes (s. XVII y XVIII). Leg. 102 bis.
- Grados de Bachiller en general (Certificaciones):
1783-84 (Leg.1153); 1785-86 (Leg.1191).

Hala eta guztiz ere, ez genuen ezer lortu, alperrik ahalegindu ginen.

Gauza bera gertatu zitzaigun Simancas-eko Agiritegian, non ez dagoen pertsona zein herri izenen arauerako sailkapenik.

Artxibo honetan Felipe Agustin Otaegui bezalako gizon bati buruzko daturik aurkitu ahal izateko, Gorteak auziperatu egin behar izango zukeen erretorea; aidanez, hori ez zen jazo.

Beizamako erretoreek Iruñeko Apezpikutegiarekin hainbat eta hainbat auzi izan zituztela kontutan hartuz, Felipe Agustin ere noizpait auzitara eramango zutela pentsa genezake; haatik, Otaegui oso gizon paketsua izan bide zen, herritarrekin ongi konpontzen zena. Bide honetatik ez dirudi ezer erdiets daitekeenik.

Nahiz bere garaikide gehienek Oñatiko Unibertsitatean ikasi, ez dugu Felipe Agustinek han ikasi zuen ala ez jakiterik izan.

Beharbada apaiz-eskolaren batean egin zituen ikasketak, Iruñeko Kontzilio-apaizetxean, esate baterako. Jaso zituen ikas-agiri edo tituluek aukera hori aintzakotzat hartzera bultzatzen gaituzte.

Trentoko Kontzilioak sortu zituen apaiz-eskola hauek (hortik datorkie "kontzilioko" deitura): 1563 an, XXIII. batzarrean, Gotzainek bereziki apaizgaiak hezteko ikastetxeak eraiki zitzatela beren elizbarrutietan erabaki zuten Kontzilioak.

Juan Lorenzo Irigoyen Dutari (1768-1778) Apezpiku zela, Kontzilioko apaizetxea eta Gotzainetxea eraiki zituzten Iruñean; Joaquin Javier Uriz Lasagak (1815-1829) berriztatu eta zabaldu zituen bi etxe horiek.

Ordurarte Naparroan ez zegoen apaiz-ikastetxerik; lehen-lehenik, Asuncion (1576) eta San Juan Bautista (1734) apaiz-eskola edo seminario pribatuak sortu ziren Iruñean. Kontzilioko edo Elizbarrutiko seminarioa 1777. urtean jaso zuten.

Felipe Agustin Otaeguiaren hezibideaz zerbait gehiago jakitearren, Iruñeko Elizbarrutiko artxibari arduratsuari bertako Kontzilio-apaizetxean idazleari buruzko xehetasunik ba ote zegoen adieraz ziezadan erreputu nion; hau xe zioen 1989 ko maiatzaren 24 an igorri zidan gutunean: "sobre los estudios de Felipe Agustin espero la respuesta de un amigo mío que está catalogando los documentos del Seminario. Me la dará en el mes de junio. Desde luego no estudió como interno. Queda por aclarar si cursó como externo, al igual que la inmensa mayoría de los seminaristas, ya que la capacidad del edificio era muy reducida."

Baliteke Felipe Agustin Beizamako erretore izandako Ignacio Hernández jaunak 1879 ko gutun batean aipatzen duen "Aguirre" apaiz-eskolan ikasia izatea.

Gasteizko Probisorgotik bidaliriko eskutitz honetan, Hernández-ek seminario horretan ikasten ari zen Jose M^a Ezama apaizgaiari buruzko argibideak eskatzen dizkio

Manuel Ignacio Odria jaunari. Geroxeago erantzuten dio Odriak (2).

"Aguirre" seminarioari dagozkion agiriak arakatu ditugu, apika Asteasuko Aguirrerekin zerikusirik izan zuelako eta Gipuzkoan kokatua egon zitekeelako. Halere, ez da go hori ziurtatzerik.

Bestalde, Andoainen bazen apaiz-eskola bat, bigarren mailakoa; bertan Gipuzkoako apaiz ugarik ikasten zuen Gasteizko Elizbarrutira joan aurretik. Hemen burutu ote zituen ikasketak Felipe Agustinek?

Beste aukera bat, Otaeguik Frantzian ikasi izana izan daiteke. Gaurko eta XVIII. mendeko egoera erlijioso eta politikoa guztiz bestelakoak dira. Historialariak aspaldidanik dabilta eztabaidan, Baionako Apezpikutegiak Gipuzkoan eragin handia izan zuen ala ez; baina, egiaz, Erdi-Aroan Gipuzkoako zati bat (geroago "Hondarribiko Artzapeztegia" deituko dutena, hots, Hondarribia, Oiartzun, Errenteria, Lezo, Pasaia eta Irunek osatutakoa) Baionaren menpe zegoen.

XI. mendean Euskal Herrian eliz-erreforma eta erlijioaren egiazko berpiztea gertatu ziren, Charritton-ek dioskunez.

Gainera, 1378. urteaz geroztik Mendebaleko Zisma edo Bereizteagatik Elizan jazo ziren erlijio-liskarrek ere gugan eragin zuten.

Ipar Euskal Herriko Gotzainek zein Aita Sainduri men egiten zioten azaltzerakoan, Roland Moreau (3) eta

P. Charritton (4) ez datoz bat.

Charritton-en eritziz, Iruñeko Apezpikuak Avignon-eko Aita Sainduaren alde zeuden eta apaiz-buru batzuk Donibane Garazin bizi izan ziren, Baionako Elizbarrutiko napar aldean agintea zutelarik.

Dena den, XVI. mende haseran Gipuzkoa hiru Apezpikute gitan banatua zegoen: Baiona, Calahorra eta Iruñea. Baina Fernando Katolikoa hil ondoren bere iloba Karlos V.ak 1516 an erregetza bereganatu zuenean, berriro aldatu egin zen euskaldunen egoera. 1525 ean, Iruñeko Apezpikutegiaren aginte-eremuan sarturik zeuden herri guziak, aurrerantzean bertan jarrai zitezen erabaki zuten.

XVIII. mendera jauzi eginaz, mende honetan sortu zen Larressore seminaria jo genuen beizamar erretoreari buruzko argibide bila. Felipe Agustinen zenbait garaikidek Larressoren ikasi zutenez gero, hark ere beharbada ikastetxe hori hautatu zuela otu zitzaigun.

Seminario hau D. Daguerrek sortu zuen 1770. urtean, apaiz euskaldunak hobeto eskolatu eta heztearren.

Martin Duhalde apaiz eta idazle uztariztarrak Toulousen ikasi eta bertan erdietsi zuen doktoradutza. Larressoren irakasle izan zen 1781. urtetik Frantziar Erreboluziorarte. Hizlari eta sermolari bikaina zen eta autore klasikoak oso ondo ezagutzen zituen. Seminarioko beste irakasle en antzera, Duhaldek ere uko egin zion Zismari zin egiteari eta Espainiara ihes egin behar izan zuen. Hernanin eta Oiartzunen bizi izan zen. Felipe Agustin Otaeguiaren

irakasle izan ote zen?

Jean Duvoisin idazlearen anaia zen C. Duvoisin abateak, Baionako Katedraleko kalonje eta Larressore seminarioko zuzendari-ohiak, Vie de M. Daguerre, fondateur du Sèminaire de Larressore avec l'histoire du Diocèse de Bayonne liburua idatzi zuen 1865 ean Baionan. Bertan dioen bezala, M. Daguerre Larressore Seminarioko nagusia zen, Juan Lorenzo Irigoyen Iruñeko Gotzainaren lagun eta aholku-emailea. Besteak beste, zera dio Duvoisinek: "M. Daguerre y envoya même quelques écoliers comme l'Évêque de Pampelune lui en avait envoyé plusieurs à Larressore". Eta aurreraxeago: "ces deux saints hommes conviennent ensemble ce se reunir de temp en temps dans un village de la vallé de Baztan, situé à peu près à égale distance de Pampelune et de Larressore. C'est là qu'ils traitaient, dans l'intimité, de divers points d'administration et de matières de spiritualité." (5).

C. Duvoisinen adierazpen hauek kontutan hartuz, baliteke Felipe Agustin Otaeguik urteren bat Frantzian ikasten eman izana. Hipotesi honi eustea arriskutsua bada ere, egia dela frogatzerik balego, eskuzkribuetan agertzen diren puntu ilunak argitu ahal izango genituzke.

Azken posibilitate hau aintzakotzat hartuz, Pabeko Liburutegiko Agiritegia aztertu dugu P. Charrittonen laguntzaz.

Napoleonen gudaosteek Larressore seminarioa larrutu ondoren, bertan geratu ziren agiriak "Catalogue des

Archives Départementales à Pau" deritzanean jasoak daude. Katalogoan ez dugu Otaeguien arrastorik aurkitu. 1772-1790 urteen bitarteko agiriak ikuskatu genituen, Larresse seminarioan egin ziren matrikulen edo eman zituzten tituloen berri emango zigutelakoan, baina hauxe bakarrik aurkitu genuen: "Titres de rentes sur Bretagne, sur les États de Languedoc, sur la (), sur les Aides et Gabelles, sur le clergé de E() au séminaire de Larresse; état du séminaire, dressé par Duhalde, supérieur, etc." (6).

Oloron eta Lescar-eko apaiz-eskoletan ere ez genuen Felipe Agustini buruzko daturik topatu.

Halaz guztiz, Frantziako Hegoaldeko jesuita-etxe edo seminarioren batean ikasketak egin zituelako hipotesia ez dugu erabat baztertzen. Frantziar Erreboluzioa piztean Euskal Herriko alde honetan bizi izan ziren Pascal Darganaratz, Andre Baratciar edo Duhalde idazleak ezagutuko zituen, beharbada.

Hortaz, xehetasun berriak argitara atera arte ezin dezakegu ziurta Felipe Agustín Otaegui non eta zer ikasi zuen.

Iruñeko Elizbarrutiko Agiritegian agertzen den legez, ordena edo eliz-mail hauek hartu zituen apaiz beizamarrak: "FELIPE AGUSTIN DE OTAEGUI.

Su recepción de órdenes sagradas.

PRIMA

En la ciudad de Pamplona, a 19 de septiembre de 1783

don Agustín de Lezo y Palomeque, obispo de Pamplona, confirió la prima clerical tonsura en el oratorio de su palacio episcopal a "Don Felipe Agustín de Otaegui, natural de Beizama, bautizado y confirmado, hijo legítimo de Tomás y Teresa de Mendía, cónyuges".

(Arch. Dioc. Pamplona, Libro de matrículas del obispo lezo, f. 106v).

GRADOS

"Don Felipe Agustín de Otaegui, tonsurado, natural y beneficiado de Beizama", se ordenó de grados en el oratorio del palacio episcopal de Pamplona el 2 de abril de 1790 de manos del obispo Esteban Antonio Aguado y Rojas.

(Arch. Dioc. Pamplona, Libro de matrículas del obispo Aguado, f. 126r).

EPÍSTOLA

"Don Felipe Agustín de Otaegui, acólito, natural y beneficiado de Beizama", se ordenó de epístola el 18 de septiembre de 1790 en la iglesia parroquial de la Asunción de la villa de Los Arcos, de manos del obispo Aguado que se hallaba de visita pastoral (Ib., f. 142).

EVANGELIO

Don Felipe Agustín de Otaegui, subdiácono, natural y beneficiado de Beizama, se ordenó de evangelio en el oratorio del palacio episcopal de Pamplona de manos del obispo Aguado el 23 de abril de 1791, sábado de la Semana Santa (Ib., f. 159).

MISA

"Don Felipe Agustín de Otaegui, diácono, natural de la villa de Beizama, beneficiado de su iglesia", se ordenó de misa en el oratorio del palacio episcopal de Pamplona de manos del obispo Aguado el 24 de septiembre de 1791 (Ib., f. 171)."

Erretore titulua eskuratu zuenean, 1810 eko martxoaren 6 an, hauxe jakin erazten zen: "examinado y aprobado ad curam animarum por los examinadores sinodales de este Obispado..." (7).

Oraingoz horixe besterik ez dugu eskuartean eta ez de zakegu beste ezer aditzera eman.

.....

(1) Ikus 68. eranskina.

(2) Ikus 69. eranskina.

(3) MOREAU, Roland: Histoire de l'âme basque. Burdeos, 1970.

(4) CHARRITTON, P.: Petite histoire religieuse du Pays Basque. Bayone, 1946.

(5) DUVOISIN, C.: Vie de M. Daquerre, fondateur du Séminaire de Larressore avec l'histoire du Diocèse de Bayonne. Bayonne, 1865, 334-335.orr.

(6) Ikus 70. eranskina.

(7) Ikus 55. eranskina.

3.4) GRAFIARI DAGOZKION OHARRAK

Gure korpusa osatzen duten I. eta VI. alee tako doktrinak irakurtzeari ekin bezain laster, egileak grafia guztiz irregularra, era anitzekoa eta gaur egungo az bestelakoa darabilela antzeman dezakegu. Otaeguiaren garaian artean grafia finkatzeke zegoela eta hizkiak nork bere gogara iruditaratzen zituela kontutan hartuz gero, erraz uler daiteke erabatasunik eta berdintasunik eza.

Zenbait adibide ikusi aurretik, esku idazkiak bere horretan ezagutzera ematen eta, grafia gaurkotzeko edo eus kara batura aldatzeko ahaleginik egin gabe, beizamarraren idazkera ahalik eta zorrozkien gordetzen saiatu garela adierazi nahi dugu. Ondorioz, aldaketa askotxo egiten zituela ere, Otaeguiaren erizpideari jarraiki gatzazkio ia beti, kasu bakan batzuetan gureari leku egin diogularik.

Aipa ditzagun lehenik hark bezala idatzi ditugun eta egungo grafiaz aldentzen diren hizkiak:

1. Leherkariei begira, k belare gorra bitara iruditaratzen du:

- c, ondotik a, o, u bokalak edo kontsonanteren bat duenean nahiz hitz amaieran:

escua	cristaua
asco	encarnacioa
onac	gurutzetic

- cu, ondoren i edo e bokalak agertzen badira:

idugui	quendu	quezca
--------	--------	--------

Gauza bera dago g herskari belare ozenarekin:

- g idazten du a, o, u bokalen aurrean:

gu gabiltza gozatzeco

- gu, ordea, e, i bokalen aurrean:

guizon guezur
aragui aingueru

2. Txistukariak eskuarki gure antzera izkiriartzen dituen arren (tz, ts, s), z frikaria bi modutan ematen du:

- z, a, o, u bokalen eta kontsonanteen aurrean, bai hitz amaieran ere:

lezaque ez
guizon guztia

- c, i, e bokalen aurrean:

ciran icen
ceñac gucia

Baina:

zer zituan
izen zuzen

Tx afrikatu sabaikaria aditzera emateko, berriz, ch idazkeraz baliatzen da gehienetan:

char echetic
jechi mancha

Baina:

nescatcha

3. J frikaria ere bitara agertzen da: g eta c. Bata ala bestea erabili, oraingoan ez dute ondorengo bokal-kontsonanteek erabakitzen, baizik eta, g-ez idazten direnak ia beti maileguzko hitzak diren neurrian, hizkuntza emailean duten idazkerak:

g : generacio gende procimoa

i : juicio jan jatorri

Baina:

egercicio egemplo

4. Sudurkarietako gogokienez, p eta b herskarietako aurrean m azaltzen da ia beti, ez n:

barrumbe combeni

amparo cumplitu

Baina:

illunpe

conbeni

ezconberri

Sarri hitz berbera anitz modutan idazten da:

bialdu bidaldu biraldu

hacienda acienda

alava alaba

erabili erabili

egemplo ejemplo

jechi jachi

Modu berean idazten duela ere, batzutan elkaturik, bestetan marratxo batez loturik eta beste zenbaitetan ba naturik edo bereiz iruditaratzen du hitz berbera:

ecereza	ecer-eza	ecer eza
itzeguin	itz-eguin	itz eguin
zorion		zori on

Jarraian, bidezko izango direlakoan burutu ditugun al daketen berri ematera goaz:

1. Puntuazioari begira, orduko eta gaurko erizpideak edo ohiturak berdinak ez direnez gero, pixka bat aldatu eta gaurkotu egin dugu irakurleari ulerterrazago gerta dakion eta mamia behar bezala jasotzeko zailtasunik izan ez dezan.

2. Galderazko eta harridurazko esaldietan Otaeguik galdera eta harridura ikurrak haseran nahiz bukaeran ezartzen baditu ere, guk kendu egin ditugu haserakoak.

3. Ezinbestekoa ez delarik hizki larriak edo maiuskulak darabiltzanean, hizki txikiak, arruntak ipini ditugu haien ordeiz: cristau, ceru, demonio.....

4. Hainbat hitzetako i eta u bokalei gainean bi puntu txo jartzen dizkie idazle beizamarrek. Puntutxo horiek kentzea erabaki dugu bi arrazoi nagusirengatik:

4.1) Ikusi batera u-ren gaineko bi puntuek cue (aingue ru) eta qüe (ezagüera) bereizten dituztela dirudien arren, egiaz ez dutelako bereizte funtzio

hori betetzen:

- ezaguera-ren ondoan, punturik gabe agertzen di
ra:

ezaguera	di(zqui)gue
erreguen	baligue

- inolako bereizte arrazoirik ezean, oau hitza
inoiz caü idatzirik aurkitu dugu.

4.2) Bi puntutxo dituen i-rekin batera, y eta i soila
ere erabiltzen dituelako hitz bera iruditarratze-
ko, bi lehenak azkenaren aldaeratzat har citza
gula eta, hiruretatik edozein erabilia ere, hitz
aren esanahia aldatzen ez dela:

doäi	doai	doay
etsäi	etsai	etsay

4. HIZKERAREN BEREIZGARRIEN LABURPENA

Tesilanaren laugarren zatian Otaeguiaren hizkeraren deskribapen labur bat eskainiko dugu. Aurkezpen le-
 rroetan esan bezala, ez dugu uste inoiz idazle giputz
 baten hizkera zehatz-mehatz aztertu denik. Hala izan ba-
 litz eta guk jakin bagenu, lagungarri izango zatekeen gu
 retzat. Geure kabuz aritu behar izan dugu, ez bait dugu
 Larramendiren ondorengo idazle gipuzkoarren euskararen
 ikerketa zehatzik jaso ahal izan, eta hori gabe ezin ja-
 kin zehazki zeintzu diren gipuzkeraren berezitasunak.
 Erreferentzia gabe mugitu behar izan dugu tesilanean ze-
 har eta arazo horrek dituen eragozpenak denok dakigu
 zein diren.

Diogun, bada, gipuzkera konkretu baten berezitasunak
 eta zertzeladak deskribatzen saiatuko garela. Gipuzkera
 konkretu baten, diogu, eta ez erabat gipuzkeraren, ez
 bait dugu uste Larramendiren eta Otaeguiaren gipuzkeren
 bereizgarriak berdinak direnik.

Lan hau egiterakoan kontuan izan ditugu laurehun orri
 alde inguru horietan aurkitu ditugun ezaugarriarik nagusi
 enak. Agian nabarduraren bat edo beste itzuri zaigu. Agi
 an gabe, zeharo gipuzkera edo gipuzkera soila ez den bat
 baino gehiago bildu dugu, jakina denez, gipuzkerak eta
 bizkaierak zertzelada bat baino gehiago baitute erkide.
 Zernahi gisaz, nahiago genuke gehiegiaz huts egin urrie-
 giaz baino.

Halaz ere garbi utzi nahi dugu gauza bat: ezin geneza keela inondik ere berezitasun bakoitzaren zergatia argitu, edo nahiago bada, bakoitzaren arrazoi linguistikoa eman eta geure iritzia agertu.

Aski da gure ustez taxonomia bat eskain dezagun, hizkeraren radiografia, alegia. Bestea bera bakarrik izango litzateke tesia.

Tesilan honek eta egunen batean egin daitezkeen hau bezalakoek euskalki bereko idazleak zertan diren berdín eta zertan desberdín, areago, euskalkien arteko adostasunak eta berezitasunak zein diren hobeki jakiten lagunduko digu.

Deskribapen honek morfologia, sintaxia eta hiztegia edukiko ditu kontuan. Aise ikusten da zergatik morfologiak, hala izenarenak nola izenordainarenak, eta batez ere aditzarenak aukeratu ditugun.

Beharbada ez hain aise, zergatik sintaxiazkoak, eta arrazoia laburki aurreratuko dugu: ez baitira hain ezagunak gure aburuz duela berrehun urtetik hona sintaxiaren arloan gipuzkerak erabat galdu dituen edo okertu dituen zenbait lokailu eta esapide, eta horien testigantza tesilan batean eman behar zela iruditu zaigu.

Hiztegi arloan ere jasan dugu galera handitxorik ordutik hona, gure hitz altxorak erakusten duenez.

4.1) MORFOLOGIA

4.1.1) Deklinabidea

4.1.1.1) Izena

Izenaren deklinabideko kasu atzizkiak Irazustagandik eta Ochoa de Arinengandik hasita ezagutzen ditugun gipuzkerazko testuetakoak berberak dira gutxi gorabehera.

Beste euskalkietatik bereizten direnak bakarrik aipatuko ditut. Bi dira eta biak pluralari dagozkio, singularrekoetan dena arrunta eta ezaguna bait da. Jakina den ez, -ai da datibo pluraleko atzizkia eta -aguin kasu sozietatiboa.

Bada, haatik, berez kasu atzizkiek sor erazten ez duten beste zenbait puntu edo arazo, baina horiekin zerikusia dutenak.

Mundu guztiak dakien bezala, izen bizidun / bizigabe direlakoen arteko muga ez dago euskaraz batere zehazki argitua. Bizidunek har dezakete inoiz leku kasuetan -ta-, bai eta bizigabeek -ga-. Otaeguigan ere bi eratako adibiak aurkitzen ditugu. Har dezagun, esate baterako, sua. Egungo egunean bizigabetzat jotzen dugu eskuarki eta su(r)-tan, su(r)tara esaten. Otaeguik ere bai:

"... ta gueunden pecatu ciquiñacgatic infernuco atari an ta surtan erretzen daudenen artera erorteco puntuan." (VI, 149.orr.).

Baina horien ondoan lasai-lasai dio suaana eta sua-gandic ere (I, 200.orr.; VI. 32.orr.). Modu berean ura-gandic (VI, 32.orr.).

Harrigarriago dena, soberbia izen abstraktua bera, batean soberbiagandic eta bestean soberbiatic deklinatzen du (I, 17.orr.).

Horrek baino gutxiago harritzen gaitu quizonetara (I, 171.orr.), etsaietara (I, 165.orr.) irakurtzeak.

Horko -gandic atzizkia dela eta, aipa ditzagun Moises-ecan, Adanegandic, Pilatosecandic bezalako formak, non -e- horrek loturazko bokala bait dirudi eta ez genitiboa ren hondarkia. Bukatzeko, erregue izena mugagabe bezala deklinatzen du: Errequec (VI, 15.orr.).

Motibatiboan, hitza plurala denean, berau absoluto pluralean ipintzen du, ondoren gatic eransten diolarik.

Gehienbat fonetikari dagokion arren, diogun -a itsatsia duten izenek e bokalaz hasten den atzizkia hartzera koan, bi bokalek irauten dutela maiz urtu eta gesaldu gabe: Pazcoaetan (I, 177.orr.), amaen (VI, 50.orr.), cam-paen (VI, 153.orr.), gauzaetatic (VI. 103.orr.), socaeta-ra (VI, 87.orr.), e.a.

Ikus ditzagun adibide batzuk:

"San Pedro apostoluac esaten cien lenengo cristauai: zuce cerate generacio auqueratua eta noblea..." (VI. alea, 1.orr.).

"Contu andia ipintzen dezue zuen seme-alabai bicitza ateratzen eracusten, ascoz andiagoa ipini bear dezue bada cerua ta bicitza beticoa nola irabaci bear duen eracusten." (I. alea, 75.orr.).

"... escatu deguiogun gure biotz ta gure anima osoare quin, arren misericordia izan dezala guzaz ta beguiratu deigula piedade ta biguntasuneco bequiaquin." (I. alea, 64.orr.).

"Bucaturic garizuma gogor au, irten zuan gure Salvatzaileac eremu artatic guizonen beguietara, eguzqui eder bat becela, mundua arguitzera bere sermoiakin ta bicitzarequin." (VI. alea, 55.orr.).

"... bada San Pedroc dionez, animac garbitzen dira urrearen eran ta urrea ezda garbitzen surtan urtuaz ta urtuaz baicic." (VI. alea, 161.orr.).

"... ta urrera gaitecen suagana, confesatu gaitecen sarri, cergatic osagarri orrequin garbituco degun gure anima, baita ere eguin aurrerapenac bicitza onean." (I. alea, 200.orr.).

"Bigarrengo, escatzen diogu Jaincoari gorputzeco gaitz etatic libratzea; gosea, egarria, otza ta bero gueieguia gugandic apartatzea; uragandic, suagandic ta trumoietatic seguru egotea; " (VI. alea, 32.orr.).

"... bada virtute onec juntatzen ditu guizonac alcarrequin amoriozco caridade batequin ta iduquitzen ditu paque gozo batean, eta onetan diferenciatzen da soberbiagandic, ceñec paque au galtzen duan. Soberbiatic sortzen dira gu re arteco aserre guciac,..." (I. alea, 17.orr.).

"Au Judasi adieraci ondoan, itzultzen da Jesus Judas-egin cetocen soldadu ta guizonetara ta esaten die: nor billatzen dezue?" (I. alea, 171.orr.).

"Orduraco Judas amabigarren apostolua joana zan Jesus en etsaietara, Jesus nola oriec an artu ta loturic Jerusalem ecarri adiraztera." (I. alea, 165.orr.).

"Adanegandic gugana datorren pecatu au da jatorrizcoa edo originala,..." (VI. alea, 43.orr.).

"Orregatic nai zuen erara erabili zuen. Pilatosecandic Herodesecana, tribunaletic tribunalera, Anas, Caifas ta besteen aurrera..." (VI. alea, 72.orr.).

"... diot guztioc, cergatic Errequec ere escatu bear dion Jaincoari egun oroco oguia;" (VI. alea, 15.orr.).

"San Estevanec bere persequitzalleac gatic bere odola esqueintzen cion Jaincoari." (VI. alea, 22.orr.).

"Emen escatzen diogu Jaincoari barca deguizquigula ez bacarric pecatu chiqui edo venialac, baicic baita ere pecatu andiac edo mortalac, ta pecatuac gatic mundu onetan edo bestean pagatu bear ditugun penac;" (VI. alea, 20.orr.).

"Pazcoaetan arquitzen guera; usatzen da preso bat egun oetan libratzea." (I. alea, 177.orr.).

"Jesu Cristo gure Jauna, guizon eguin ezquero, egon zan bere Amaren sabelean bederatzi illabetean, beste aurrac egon oi diran moduan, bere gorputza acitzen zala beste gorputzac aci oi diran becela beren amaen erraie-tan;" (VI. alea, 50.orr.).

"... aparta ditzagun beguiac castidadearen contraco gauzaetatic;" (VI. alea, 103.orr.).

Aurrean batere determinatzailek edo (ezein, inongo..) ez izan arren, kasu partitiboa (gizonik ez dut ikusi) de ritzoguna ez ezik, beste funtzioaren bat ezezko perpausean betetzen duen izen sintagma ere euskara zaharrean (eta ez hain zaharrean) mugagabe soilaz ematen zen. Esate batera ko:

"gizoni ez diot honelakorik entzun"

Hauetaz Koldo Mitxelenak non edo non idatzia du gaurko euskaldunetan ez daudela honelakoak bizirik. Bada Otaeguirengan bai. Hona hemen exenplu batzuk:

"Ezdu oraiñ-dañocean mundu gucian juezec eman izan Pilatosec becin gaizqui sentenciatic." (I. alea, 178-179.orr.).

"Bai, ezdio oraindic Jesu Cristoc ainqueruri deitu anaiaren icen gozoarequin, guri becela. Ezdio ainqueruri esan iñoiz: zu cera nere semea, guri cure anaia nagusi Jesu Cristogan becela." (VI. alea, 52.orr.).

"Ezdu ceruan dañoanec ara igo neque, lan eta gaitzen bidetic baño." (VI. alea, 58.orr.).

"Ez, ez, nere Salvadorea, ez nic ta ez eliza onetan dañoanec secular orrelaco lanic." (VI. alea, 70.orr.).

"Lan modu berean aritu zan dembora berean gure Jesus ona, munduan zani bidegaberit eguiten etziola;" (VI. alea, 154.orr.).

"Zuc Jesusi zor diozun adiña zor cionec salduco zuan bada Jainco-guizon ori?" (I. alea, 163.orr.).

"Jesu Cristo gure Jauna etzan sortu bere amaren sabel
ean, beste guizonac becela, bada sortze onetan ez zuan
guizonec parteric iduqui; guztia izan zan mirari arriga-
rriz betea eta Espiritu Santuac iñoiz eguin duan obraric
andiena ta Jaincozcoena." (VI, 47.orr.).

4.1.1.2) Izenordainak

Izenordain pertsonalei dagoz kien bi gauzatxo dira agerian jartzea merezi dutenak, eta biek forma indartuekin dute zerikusia. Egungo egunean Beizaman (eta beste leku batzuetan) esan ohi den neronec formaren ordez, neurc darabil, eta horren kide diren gueurgan eta gueurgandic. Zu eta zuek pertsonetzkoetan, aldiz, diptongoa duten formak erabili beharrean, ceregandic eta ceroc bezalakoez baliatzen da.

Hirugarren mailako haiek forma arruntaren indartua Otaeguican ez da beraiek edo berak edo besterik, ezpada erac, eta horren ondoan erai, eretatic, eren. Hona horie tako batzuen adibideak:

"... baña jaten bazuan, bera eta gu guztioac gueratuco guiñan eriotzara eta gueurgan icusten ditugun gaitzetara condenaturic." (VI. alea, 43.orr.).

"Tentacioa dator batzuetan demonioagandic, sarritan gueurgandic ta beste batzuetan Jaincoagandic." (VI. alea, 25.orr.).

"Gugatic, nere cristauac, edocein aldetara beguiratu arren, ezdegu ecer ta eciñ izan ere guentzaque gueurgandic." (I. alea, 16-17.orr.).

"Concienciac esango dizu ceregandic ecer etzerala, pecatua, argaldasuna ta usteldasuna baicic;" (I. alea, 30.orr.).

"Orren gaiztoa bada guizon au, -esan cien Pilatosec-artu zazue ceroc ta juzga zazue zuen leguera." (I. alea, 176.orr.).

"Pecatuac barcatzeco al ta escubidea apostoluetatic igaro zan erac ordendu cituen meza-emalle edo sacerdote-etara, oetatic urrengoetara, ta orrela gugandaño." (VI. alea, 95.orr.).

"Irugarrenean aurqitu zuen temploan, jaquintsuen artean, enzuten cegoala cer cioen, eta erai galdeac eguiten ciztela." (VI. alea, 54.orr.).

"Etzituan urratu, ezta idiqui ere amaren erraiac, eretatic mundu onetara irteteco." (VI. alea, 50.orr.).

"Bere puebloari eren Jaincoa illerazoaz eguiten duen pecatua barcatzeco, esqueintzen diozca Aitari eguiten di ozquen burlac ta isuri-erazotzen dioen odola;" (VI. alea, 21.orr.).

"Onetaraco daude liburucho batzuec eta eraquin balia diteque iracurtzen daquiana." (I. alea, 57.orr.).

4.1.1.3) Erakusleak

Erakusleek, jakina denez, hiru mailatako formak dituzte, hala singularrean nola pluralean.

Singularrekoei buruz ez dugu ezer esateko, gaur egun Gipuzkoan esaten diren berberak bait dira: au, ori, ura.

Aldiz, pluralekoak Larramendik irakatsi eta erabili zituenak dira, urteen joan-etorriak eragindako fonetika aldakuntza txikiak gorabehera. Izan ere, andoaindarrak oiec, (h)oriec, aiec formak carabiltza eta beizamarrak bere aldetik, bigarren mailakoa berbera cuelarik, lehen eta hirugarren mailako hauek: oec (eta gainerako kasuetan oen, oecuin, e.a.) eta aec (aen, aecuin...berekin ci tuelarik). Kasu instrumentalean bigarren mailako erakuslearen atzizkia eskuarki -tzaz bada ere, noizean behin oriez bezalako formak agertzen zaizkigu.

Hona esaldi sorta bat, non aipaturiko formak azaltzen bait dira:

"Gure etsai oec dira demonioa, mundua eta aracua. Oec garaitu cituan Jesucristoc gurutzean illaz." (VI. alea, 3.orr.).

"Oec guztioe, Jaincoac oen pecatuaquin misericordia berezco bat ezpadauca, ezdira iñoiz cristau izango..." (VI. alea, 2.orr.).

"Guc gure gañean gurutzea eguiñaz berritzen degu Salva dorearen goitutze edo triunfo au eta bera icusiarequin gogoratzen zaie etsai oei nola azpiratu ta zapaldueric guelditu ciran;" (VI. alea, 3-4.orr.).

"Lan onetan norc lagundu iduquitzeo, artu cituan icas le edo discipuluac. Oetatic lenen edo principalenac izan ciran amabi..." (VI. alea, 55.orr.).

"Arturic premia ta bear deguna, baliatu bear degu ondasun orietzaz Jaincoari gloria emateco..." (VI. alea, 15.orr.).

"Eguizu bada gu santu eguiteagatic artu dituzun doay oriec gure oneraco izan ditecen gu oriez ondo baliatuaz." (I. alea, 21.orr.).

"Bi ogui oriez gañera, bada irugarren bat..." (VI. alea, 16.orr.).

"Jacob-en semeac ciran beren anaia Joserren etsaiac aitac au aec baño maiteago zualaco." (VI. alea, 21.orr.).

"Erdi-illa bacirudian ere, bere trance gogor artan, etzitziaion ecer gordetzen Jesus onari, ta esan cien andre aeri: Jerusalengo alabac..." (I. alea, 180.orr.).

".... ta puntu artan infernuco leice zulo cabugabe
aetan betico berequin ondatuco due." (VI. alea, 69.orr.).

"Anaiac icusi, ta Josec negar eguiten du, isurtzen di
tuan malcoaquin aen gorroto ta envidiaren manchac garbi-
tu nai balitu becela." (VI. alea, 22.orr.).

4.1.2) Aditza

Gipuzkerazko aditzak hainbat gramatika tan azaltzen dira, hala nola, Campion, Lopez Mendizabal, Intxausti, Irizar, Bähr, Omaechevarria, e.a.-enetan.

Autore hauek erabiltzen dituzten aditzak literarioak dira gehienak, hau da, literatur testuetatik jasoak.

Gerard Bähr-ek (1) Gipuzkoako berrogei herrialdetako adizkiak aztertu zituela esan dezakegu, baina indikatibo an bakarrik, dirudienez. Beraz, oraindik gauza asko dago aztertu gabe.

Larramendi edo bere ondorengo idazle gipuzkoarren azterketa literarioak gutxi gorabehera egin badira ere, guk dakigula bederen, ez du inork oraindik argitaratu au tore horietakoren baten aditz sistematizatuari buruzko estudiorik. Eta hau, noski, ez da guretzat eragozpenik txikiena egin nahi dugun lana burutzeko.

Felipe Agustin Otaegui darabilen euskararen berezitasunak ikusteko, besteak beste, aditz formak aipatuko ditugu; hala ere, aurrez aditzaren osagai nagusiak eta ohar eta bereizgarrien zerrenda eskaini nahiko genuke.

● Indikatiboan IZAN eta *EDUN aditz laguntzaileak izango ditugu, batzuetan horiek aditz nagusi diren arren. NOR sisteman Otaegui forma arruntak eta aski ezagunak erabiltzen ditu: naiz, aiz, da, guera, cera, cerate, dira. Gauza bera gertatzen da lehenaldian: nintzan, zan, ciran, (cidan), ciñaten, e.a.

Iragana adierazten duen -(e)n markaren ordez, gipuzkeraz -an esan ohi dugu, Otaeguik bezalaxe: ciñan, quiñan,....

NOR-NORI zutabean, beste leku askotan gertatzen den legez, Beizaman ere NORI-ren i ezaugarria desagertzen da maiz: zat, zatzu, zagu, e.a.

Aditz iragankorrak ditugunean *EDUN -ez baliatzen gara. NOR-NORK eta NOR-NORI-NORK sistemetan, orainaldian zein lehenaldian, sujetua 3^o pertsona anitza denean, NORK-haiek adierazten duen -te pertsona markak eskuarki -t- galtzen du. Puntu honetaz hauxe dio Omaechevarriak: "En las flexiones activas, el pronominal activo de tercera persona plural puede revestir dos formas: -te y -e. Si se usa -te, a dicho sufijo precede-en el guipuzcoano corriente- el pluralizador pasivo pleonástico -z-. Se dirá, pues, ditu-z-te o ditue, pero no ditute. El vizcaíno hace un uso facultativo más amplio del citado pluralizador pleonástico. Nosotros recomendamos la variante -e-, ya que de este modo se evitan algunos equívocos." (2).

Ikus dezagun eskematxo batean:

<u>NOR-NORK</u>					
(Orainaldia)					
	NI	HURA	GU	ZU	HAI EK
HAI EK	Naue	Due	Gaitue	Zaitue	Ditue
(Lehenaldia)					
	HURA	HAI EK			
HAI EK	Zuen	Cituen			

Dirudienez, ZER pluralean emateak ez du inolako arazo
rik sortzen gaurko aditz batuarekin alderatuta, NORK
hark edo haiek denean izan ezik.

NORI hirugarren pertsona singularra denean (hari), ob-
jektu plurala adierazteko ez du -zki- pluralgilea jar-
tzen (dizkiogu), baizik:

<u>Sing.</u>	<u>Plur.</u>
Diogu	Diozcagu

NORI hirugarren pertsona plurala denean, berriz:

<u>Sing.</u>	<u>Plur.</u>
Diegu	Dieztegu

Orokorrean hala gertatu arren, Otaeguik ez ditu beti
aditz flexio berdinak erabiltzen. Ikus ditzagun adibide
batzuk:

NOR-NORI-NORK

(Orainaldia) (NOR = singularra)

	<u>HARI</u>	<u>HAIEI</u>
<u>HARK</u>	Dio	Die
<u>HAIEK</u>	Dioe	Diocee Dioce Dize

NOR-NORI-NORK

(Orainaldia) (NOR = plurala)

	<u>HARI</u>	<u>HAIEI</u>
<u>HARK</u>	Diozca	Dizte Diezte Diozte
<u>HAIEK</u>	Diozque	Dioztece Diztece Diozcate

NOR-NORI-NORK

(Lehenaldia) (NOR = singularra)

	<u>HARI</u>	<u>HAIEI</u>
<u>HARK</u>	Cion	Cien
<u>HAIEK</u>	Cioen	Ciozaten Ciocen

NOR-NORI-NORK

(Lehenaldia) (NOR = plurala)

	<u>HARI</u>	<u>HAIEI</u>
<u>HARK</u>	Ciozcan	Cizten Ciezten Ciozten
<u>HAIEK</u>	Ciozquen Ciozcaten	Ciozquen

● Alegiazko baldintza aditzera emateko, eskuarki -TZEN aspektu marka eransten dio protasiko aditz nagusiari, beste idazle klasiko askoren antzera. Euskalkien arauera banatuz gero, gaur egun Ekialdean nagusitzen da alegiazko baldintza osatzeko modu hau, Mendebalean -(TU)KO dara bilgularik. Hona exenplu bat edo beste:

"Ortic ezagutzen degu guztioç Jaunaren bear guerala; diot guztioç, cergatic Erreguec ere escatu bear dion Jaincoari egun oroco oquia, eta ematen ezpalio, ezluque batere izango." (VI. alea, 15.orr.).

"Ay, nere erri maitea, ta ay! Ezagutzen bacendu zuc, araguz janciric emen orain aguertzen zaitzun cere Jainco au, etzenduque zuc onequin eguingo eguin uste dezun bidegabe ta lan gogorra." (VI. alea, 132.orr.).

"Bada gauza oec onela guertatzen ezpalira, ezliraque animac contentu gueldituco,..." (VI. alea, 103.orr.).

"Baldin gurequin bici dan guizon batec gu ofenditu ta guri bidebague andiac eguin, ta ondoren ezpalu batere sentimenturic eracusten; gueiago, sentimentua, pena ta naigabea eracutsi ordezt, seguitzen balu bidebague berriac eguiten, ezguenduque esango lembician eguin cigun bidebaguea beti berritzen ari cala?". (I. alea, 45.orr.).

● Iraganaldiko baldintza irrealak osatzean, herri hizkeraren arauera eratzen dituzte apodosiak idazle beizamarrek:

"Au ezagutzen du David erregue santuac esanaz baldin Jaincoaren legue santuan sarri rensatu ezpalu, dembora ascoz lenago bere umillacioan calduco zala, au da, baldin Jaincoaren itzac consolatu, poztu, janaritu ta gorde ezpalu, azturic egongo zala." (VI. alea, 16.orr.).

Noski, herriak tankera horretako apodosi edo ondorioak erabiltzen dituela ere, berez calduko zatekeela legokioke goiko adibideari (halaber, egongo zatekeela).

● Gainera, baldintza hipotetiko edo alegiazkoaren ondorioan NOR-NORI-NORK erako aditza agertzen denean, baldintza ondorioaren -KE marka ez du amaieran jartzen (nioke, liquke), baizik NORI pertsona markaren aurretik: niqueo

(VI. alea, 100.orr.), liqueguna (VI. alea, 26.orr.)...

Ahalezko aditz formetan ere -KE ahalera ezaugarria to kiz aldatzen du NOR-NORI-NORK motako aditzetan, NORI per tsona markaren ondoren ezarri beharrean, aurretik ipintzen duelarik: deiquegun (I. alea, 122.orr.), leiqueguen (VI. alea, 31.orr.).

● Aditz erazle edo faktitiboak ARAZO, ERACI eta ERAZO-ren bidez eratzen ditu: amildarazotzen (VI. alea, 5.orr.), atera eraci (I. alea, 86.orr.), igaro erazo (VI. alea, 57.orr.), e.a.

● Bizkaierazkotzat -eta gipuzkerazkotzat, noski- jo ohi den zenbait aditz (irten, igo, jardun) iragankor bezala jokatzeko usuarioaren aztarrenak Otaeguigan ere agertzen dira; eta jakina, iragangaitz bezala jokatzekoarenak ere bai:

"Cer icustera irten cenduen ermura?" (I. alea, 8.orr.).

"Ezdu ceruan dagoanec ara igo neque, lan eta gaitzen bidetic baño." (VI. alea, 58.orr.).

"Gure bicitzaco egunac gastatzen ditugu armiarmac becela, bada nola armiarmac jarduten duan gau ta egun euliac achitzeco sareac eguiten, ala guc jarduten deou gauta egun euliac achitzen;" (VI. alea, 31.orr.).

● Zenbait gramatikalarik bere burua ikusi esan behar de la eta, txartzat eman izan dituzten ikusi naiz bezalako

esamoldeak aurkitzen ditugu:

"... bere bicitza obra onac eguiten igaro arren, bequiratzen da Jaincoaren aurrean servitzari alperra becela." (I. alea, 17.orr.).

"Jesucristo eracusten da familiarco guraso ordu gucietan languille billa dabillena becela,..." (I. alea, 113.orr.).

● NORK gabeko adizki laguntzailearen formak indikatiboan -za- erroaren inguruan eta beste hiru moduetan -ci- ren inguruan osatzen dira, jakina den bezala. Aldiz, adizki laguntzaile iragankor delakoarenak indikatiboan *-du--ren eta beste hiru moduetan *-za--ren inguruan. Bizkaieraz, osteraz, *EZAN-en ordez EGIN erabili ohi da. Halaber, Otaeguik EGIN erabiltzen du, baina *EZAN ez du erabat baztertzen, ez eta hurrik eman ere. Badirudi NOR-NORK formetan -za- errotikakoak nagusitzen diren bezala, NOR-NORI-NORK-etikakoetan -qi- dela nagusi askozaz. Ikus ditzagun adibide batzuk:

NOR-NORK: aditu ezazu (I. alea, 11.orr.)

icasizazue (I. alea, 15.orr.)

NOR-NORI-NORK: eracutsi equizcuioutzu (I. alea, 21.orr.)

gorde equiquzu (VI. alea, 112.orr.)

● Zenbatzaile zehaztugabe batez osaturiko izen sintagma ren eta aditzaren arteko komunztadura pluralean egiten du eskuarki:

"O lastima! Cristau ascoc esaten ditue itz oec aiñ atencio ta erreberencia guchirequin, non dirudien itzeguiten duela egurrezco Jainco batequin,..." (VI. alea, 9.orr.).

"Ascoc erreputzen dioze santuai munduco ondasunac Jaincoagandic iristeco,..." (VI. alea, 93.orr.).

● Sail hau bukatzeko barka bekigu irakurleak, oker ez bagaude, biziro eskertuko digun ohar praktiko bat, Otaeguirentzat ez ezik, XVIII. eta XIX. mendeetako idazle guztientzat balio duena: batetik, lehen esan bezala haiek due darabilelako beti ezinbestean, eta bestetik, ergatibo plurala -ak delako, gizonak egin duen okerra bezalako esaldia nahitaez sujeto plurala duena da beti, hots, haiek; singularra izatera, duan esango luke. Halaber lehenaldian, zuan / zuen.

OHARRAK

- (1) BAHR, Gerard: "Estudio sobre el verbo guipuzcoano". RIEV. 1926.
- (2) OMAECHEVARRIA, Fray Ignacio: Euskera. Zarautz, 1959.

I N D I K A T I B O ANOR-NORI (Orainaldia)

	NIRI	HIRI	HARI	GURI	ZURI	ZUEI	HAIEI
NI							
HI							
HURA	Zat			Zagu Zacu	Zatzi		
GU							
ZU				Zaitzagu*			
ZUEK							
HAIEK			Zaizca Zaizquio				Zaizte

*Sic.

Adibideak:

"... bere esquerbaguetasunaz lotsa bada ta penitencia eguiazcoa eguiten badu, niri ere damutuco zat,.." (I, 117. orr.).

"Emen bai idiquitzen zagula atsegin ta poz andico iturri bat, ..." (VI, 92.orr.).

"Oraindic bici izateco demboraric guelditzen bazatzu,
-dio San Agustinec- Jainco ontasunez betea prest dago zu
recibitzeco,..." (I, 115.orr.).

"Nere seme maitea, cergatic modu orretan ezcutatu
zaitzaqu?" (VI, 54.orr.).

"... edade orretan bere arrazoiac ere alde eguiten
dio ta guelditzen zaizca bacarric eciñeguiña ta erita-
sunac." (VI, 31.orr.).

"Gauza espiritualac escatzen diozquenai, Jaunac eman-
go dizte munduco gauzac ere, baldin salvacioraco conveni
bazaizte." (VI, 17.orr.).

NOR-NORI (Lehenaldia)

	NIRI	HIRI	HARI	GURI	ZURI	ZUEI	HAIEI
NI							
HI							
HURA	Citzadan		Citzacan				
GU							
ZU							
ZUEK							
HAIEK			Citzaizcan				Citzaiz ten

Adibideak:

"Lotsa ta desbentura au ta andiagoac ondo mereci ditut, bada ordu onetan cer igaroco citzaadan nequiela, orregatic ere eguin nituan onelaco eta alaco pecatu ta gaiztaqueria,..." (VI, 67.orr.).

"Circuncicio au zan oraiñ bataioa becela, eta orduan ipintzen citzaacan aurrari icena." (VI, 53.orr.).

"...Naaman biurtzen zan bere echera, baña bere morroi ac asi citzaizcan itzeguiten,..." (VI, 100.orr.).

"...zori gaiztoco oriec beguien ichi-idiqui batean igaro citzaizten atseguin gaiztoac buruan darabiltzen artean, santuac atseguintasun jaincozco batequin acordatucoco dira..." (VI, 109.orr.).

NOR-NORK (Orainaldia)

	NI	HI	HURA	GU	ZU	ZUEK	HAI EK
NIK			Det				
HIK			Dec				
HARK	Nau				Zaitu		
GUK							
ZUK							
ZUEK							
HAI EK	Naue		Due	Gaitue		Zaitue	Ditue

Adibideak:

"... arritzen nabana da Jaincoac berac pecatari ori
billatzea ta erregutzea aren misericordiaz baliatu dedin."
(I, 116.orr.).

"Gaitz genero asco dira gu mundu onetan bucatu ta gal
tzeco perillean ipintzen gaituenac." (VI, 30.orr.).

"Nola aur oriec, Jaincoaz ostera, zuetatic artu duen
izatea, zuequin bici dira ta ezagutzen due zuetatic ar-
tzen duela premia duen guztia; errespetatzen zaitue, mai-
tatzen zaitue,..." (I, 75.orr.).

NOR-NORK (Lehenaldia)

	NI	HI	HURA	GU	ZU	ZUEK	HAIEK
NIK					Cindudan Cinduztan		
HIK							
HARK							
GUK					Cindugun		
ZUK			Cenduan	Guindu zun			Cinduan
ZUEK	Nindu zuen		Cenduen				Cinduen
HAIEK			Zuen				Cituen

Adibideak:

"Cembat urte eman nizquitzun -dio Jaincoac- zure anima salvatzeko diñaco lanac eguiteco? Cembat bider urte orietan nereganatu nai izan cindudan eta (...) nere justiciaren estutasunetic libratu?" (I, 70.orr.).

"...nic agravio andiagoac errecibitu nituan zugandic; orregatic ere aurea artu nizun ta nere gracia emanaz billatu cinduztan." (VI, 23.orr.).

"Zure gaiztaquerietatic beguiac ichultzzen cinduanean, -esaten dio peccatariari- uste cenduan zurequin alcar artuco nuala,..." (I, 23.orr.).

" Ah tristurac, tristura arrigarriac, onembesteraño gure Jesus amoriotsuaren biotza illundu cenduen tristurac!" (I, 168.orr.).

"Zuec cerengan sartzeco aleguiñic asco eguin det; orretaraco bialdu dizquitzuec* desgraciac, eritasunac ta zuen gauzen atzerapenac. Zuen pecatuaz negar eguin orde, oric alabatzen cinduen." (I, 157.orr.).

"Apostoluac bera iduqui zuen beren armaric seguruenen zat, berarequin garaitu ta menderatu cituen etsai ta peligroric icaragarrienac;" (VI, 3.orr.).

*Sic.

NOR-NORI-NORK

(Orainaldia) (NOR = singularra)

	NIRI	HIRI	HARI	GURI	ZURI	ZUEI	HAIEI
NIK						Dizutet	
HIK							
HARK			Dio				Die
GUK							
ZUK	Dirazu						
ZUEK							
HAIEK	Dide		Dioe	Digue			Dize Dioce Diocee

Adibideak:

"Igarotzen nai^{*} irugarren erregla eguiaz umillac izate
co bear dala esan dizutedana esamiñatzera,.. " (I, 19.orr.).

"Baña esango dirazu: "sarri ciñatzen naiz eta, ala
ere, eztacust oberic nigan;" (VI, 5.orr.).

"Penitencia eguiazcoa eguin zuenen animac beguiratuco
dioe beren gorputzari lenago bere pecaturaco griña ta ma
curtasunai gusto emateagatic salvacioa galdu bazuan, gue
ro pecatuagatic zor ciran penac pagatzera sugetatu zuanari

*Sic.

becela,..." (VI, 105.orr.).

"Jaincoaren legue santuac ipintzen dizquigun irugarren obligacioac beguiratzen dize gueren buruai, ta obligacio orieci cumplitu ditzaquegu..." (I, 100.orr.).

"Ascoc erregutzen dioze santuai munduco ondasunac Jaincoagandic iristeco,..." (VI, 93.orr.).

"Bataioan artu zuen gracia galdu bague bici izan ciran animac beguiratuco dioce beren gorputzai lagun on beti contuan bici izan ciranai becela,..." (VI, 105.orr.).

"Bada guraso batzuec seme-alabai doctrina eracutsi ta egemplo ona eman ordezi, eracusten diocee pecatua eguiten, itz desonestoac esaten,..." (I, 75.orr.).

NOR-NORI-NORK

(Lehenaldia) (NOR = singularra)

	NIRI	HIRI	HARI	GURI	ZURI	ZUEI	HAIEI
NIK							
HIK							
HARK	Ciran		Cion				Cien
GUK			Guiñion		Guiñuzun		
ZUK	Ciñudan						Ceñien
ZUEK							
HAIEK			Cioen				Ciocen Ciozaten

Acibideak:

"Aita nerea, (...) zure onrari beguiratu diot nere onra ta bicitzaren costuan. Acabatu det eman ciñudan obra, demonioa arquitzen da loturic,..." (VI, 60.orr.).

"Dan becin gaitzguille andia ori ez izatera, ezquiñu-zun ecarrico." (I, 176.orr.).

"Berebat iricitzen quiñion guc ere, (...) gueren atseguin loien ondoren ta bidegabeco gauzetan guembiltzanean." (I, 177.orr.).

"Zorionecoa bada frutu bedeincatu ori erabili zuan sa bela ta zorionecoac orri titia eman cioen bularrac." (VI, 38.orr.).

"Apostoluac bera iduqui zuen beren armaric seguruenen zat, (...) eta berac eracutsi ciocen lenengo cristauai ciñatzen, beren etsaiac menderatzeco;" (VI, 3.orr.).

"Oroitu zan bere etsai berac ta oriei laguntzen ciocen gentillac utzico cioela bere buru gucia arantzazco coroe arrigarri batequin dana josia,..." (I, 167.orr.).

"Beren concienciaren aranza, quezca ta arraz, ceñac esaten ciozaten cein gaizqui eguiten zuen..." (I, 27.orr.).

NOR-NORI-NORK

(Orainaldia) (NOR = plurala)

	NIRI	HIRI	HARI	GURI	ZURI	ZUEI	HAIEI
NIK			Diozcat				
HIK							
HARK			Diozca	Dizquigu			Dizte Diezte Diozte
GUK			Diozcagu				Dieztegu
ZUK			Diozcatzu				Diztetzu Dieztetzu
ZUEK							Diozcatzue
HAIEK			Diozque				Diztece Dioztece Diozcate

Adibideak:

"Nic ceruco bidean ibili cedin, zure mandatu gozo ta
aviso santuac eman diozcat." (VI, 67.orr.).

"Gauza espiritualac escatzen diozouenai, Jaunac eman-
go dizte munduco gauzac ere, baldin salvacioraco conveni
bazaizte." (VI, 17.orr.).

"... orren anima icaraz betetzen du, orren pecatuai quentzen diezte pasioac ipini ciozten mascarac;" (I, 114.orr.).

"San Pedroc Jerusalengo fielai aditzera ematen diozte Salvadorearen milagro ta mirariac;" (I, 44.orr.).

"Barca zaizquigutzu gure zorrac, guc gueren zordunai barcatzen dieztegun becela." (VI, 23.orr.).

"Zuc cere beste pecatu ecin esan ditutzunai gueizten* diztetzu confesio ta comunio gaiztoac,..." (I, 132.orr.).

"Baldin guizonai barcatzen badiozcatzue eguindaco bi-debagueac, -dio Jesu Cristoc- zuen Aita ceruetacoac barcatuco dizquitzue zuen pecatuac." (VI, 22.orr.).

"...bear dan baño gueiagorequin arquitzen diranac, ibili ote ditezque Jesusen ondoren ta gogozco pobre zori onecoen artean? Nai badue, bai, ta arin ala ere. Nola ori? Batzuetan prestatuz dituen ondasunetatic escatzen diztecenai. " (VI, 119.orr.).

".... ta elizan badira cristau on asco beren zordunai emen esaten diran zorrac barcatu dioztecenac." (VI, 23.orr.).

"... pensamentu bear becelacoac dira gure biotzai ama tu bear dituen gauzac aguertzen diozcaten izarrac.." (VI, 85.orr.).

*Sic.

NOR-NORI-NORK

(Lehenaldia) (NOR = plurala)

	NIRI	HIRI	HARI	GURI	ZURI	ZUEI	HAIEI
NIK							
HIK							
HARK			Ciozcan				Cizten Ciezten Ciozten
GUK							
ZUK							
ZUEK							
HAIEK			Ciozquen Ciozcaten				Ciozquen

Adibideak:

"Jesu Cristoc bere misericordia andiarequin utzi ciozcan elizari erremedio onac...." (VI, 95.orr.).

"Irugarrenean aurquitu zuen temploan, jaquintsuen arte an, enzuten cegoala cer cioen eta erai galdeac eguiten ciztela." (VI, 54.orr.).

"Icusten cituan Jesusec lurreco gendeac, baita berac eguiten cituen ta besteai eraguiten ciozquen gauzac ere;" (VI, 86.orr.).

"... eta oriec ciran Jesus galtzeco bideen billa cebiltzan guizonac. Baña cergatic ote edo ceri cegocala? (...) Ceren debecatzen ta eragozten ciezten ondo etziran cembait gauza ta eguiteco." (I, 162.orr.).

"Icusi zuan (...) gauzac erracena ezagutu citzaqueenac cirala Jesus berari ez icusi ta ez aditu eguiten cioenac, ta oriec cirala, cerren Jesusec gauzac aguertu ciozten, Jesus gueiena beguitan artu zuenac,..." (I, 167.orr.).

"... eta aintzacotzat ezaguturic, adoratu zuen eta es cueñi ciozquen urrea, incensoa eta mirra;" (VI, 53.orr.).

"Oroitu zan judu berac ta gentill arroac arrats berean berari eguingo ciozcaten ista, parre, zaplada, illeti raca, carcaisez arpeguia ciquintze ta gañeraco charqueria guciatz." (I, 167.orr.).

"Lege Zarrean Jaincoac eguin cizten ontarte ta mesede andiac Salomoni ta Zorobabeli;" (I, 92.orr.).

"... orren anima icaraz betetzen du, orren pecatuai quentzen diezte pasioac ipini ciozten mascarac;" (I, 114.orr.). (Dudazko pasartea: "pasioac" singularra ala plurala?).

"Ecarri zuen gurutzearen gañean, iltze gogorraquin oñac ta escuac josi ciozcaten,..." (I, 181.orr.).

BALDINTZA

Baldintza errealean edo orainaldikoan lehentxeago iku si ditugun aditz forma berberak agertzen zaizkigu, BA-aurrean dutela: bazaqu (VI, 41.orr.), bazaizte (VI, 22.orr.), badiozcatzue (VI, 95.orr.), bazatzu (I, 115.orr.), e.a. Beraz, hauek ez ditugu kuadrotan azalduko.

*EDIN aditz laguntzaileaz osaturiko baldintza gertagari bat ere topatu dugu Otaeguiaren obran:

"... ta escatzen cio, baldin al badedi quendu deguiola bere biotzeco tristura ta illuntasuna,..." (I, 165.orr.).

Baldintza irrealaren eta alegiazkoaren protasiko aditz laguntzailea berbera denez gero (erosiko banu; erosi (izan) banu) eta irrealaren apodosia ia beti indikatiboko aditzez eratzen duenez gero (behin bakarrik dabil zucuean forma: "... cergatic aditzen zuan Jesusec eguiten cituala gauza andi ta arrigarri asco, ta icusi nai zucuean orietatic bat edo beste eguiten." (I, 176.orr.)), alegiazko baldintzaz soilik arduratuko gara jarraian.

ALEGIAZKO BALDINTZA (NOR)

	<u>AURREKOA</u>	<u>ONDORIOA</u>
<u>NI</u>	Banintz	Nintza(ite)que
<u>HI</u>		
<u>HURA</u>	Bali(t)z	Litza(te)que
<u>GU</u>	Baguiña	Guiñaque
<u>ZU</u>	Baciña	
<u>ZUEK</u>		Ciñazquee
<u>HAIEK</u>	Balira	Lira(te)que

Adibideak:

"Ah! Baldin onelacorembat eliza onetan arquitzen baliz, erriertan ta lotsaguerian eman ordez, contentatuco ninzaitegue Naaman sorayo edo leprosoari bere morroiac esan ci ozquen itz amoriotsuac esatearequin." (VI, 99.orr.).

"Eci citezquean seme-alaba oriec -dio Santiagoc- gana duac ecitzen diran becela, ganaduaquin ipintzen dan ardu ra ta contua ipini balitz." (I, 77.orr.).

"... ispillu ori arqitu albaliteque, Jaincoa Jainco danetic, eta zu egon bere aurean, orduticanche icusico litzatecue zure iduri ori." (VI, 42.orr.).

"Desafio modu ori edo peaturic eguin ezdegula esatea ezlitzaque ondo etorrigo gu becelaco peatarien aoan; eta baldin atrebituco baquiña peaturic eguin ezdegula esaten, criatura guztiac aserretasunez beteric jaiquico liraque gure contra." (I, 151.orr.).

"Atrebituco quiñaque gure guraso edo gure nagusiac icusten gaituela eguiten araco lotsaz betetzen gaituen pecatu aec?" (I, 12.orr.).

"... ta gaur ere ni gabe itzulico ciñazquee ceren echeetara, nic neronec zuei nerau artzen ta lotzen ez uz tera." (I, 172.orr.).

ALEGIAZKO BALDINTZANOR-NORK (Bald. Aurrekoa)

	NI	HI	HURA	GU	ZU	ZUEK	HAI EK
NIK							
HIK							
HARK							Balitu
GUK			Baguendu				Baguindu
ZUK							
ZUEK			Bacendue				
HAI EK				Baguindue			Balitue

NOR-NORK (Bald. Ondorioa)

	NI	HI	HURA	GU	ZU	ZUEK	HAI EK
NIK							
HIK							
HARK			Luque		Zinduꝯꝯue		Lituque
GUK			Guenduꝯꝯue				Guinduꝯꝯue
ZUK							
ZUEK			Zenduꝯꝯuee				
HAI EK			Luquee				

Adibideak:

"Milla bicitza baquindu ere, eman bear quinduzque sen tencia gozo ori Jesu Cristoren aotic aditzeagatic." (I, 5.orr.).

"Baldin zuen seme-alabac beguien aurrean ceuden artean ezpacendue ecer utzi castigu bague, (...) etzenduquee gaurco egunean daducazuen adimbat quezca ta damu iduquico." (I, 77.orr.).

"Jaincoaren tribunalera aguertu bear degun unean biur tuco baquindue orain arquitzen gueran estadura, (...) cer eguingo quenduque?" (I, 69-70.orr.).

"... amatu cinduan arrigarri; nola bada orain amatuco etzinduzque, orain penitencia eguiazcoarequin beragana biurtzeco asmo eguiazcoa artu dezunean,..." (I, 116.orr.).

"Baldin ondo pensatu ta benetan sinisten baquendu ver turaz^{*} confesio ori izango dala gure azquenengo confesioa, confesorearen esana obeto adituco quenduque." (I, 154.orr.).

"Gure nai, deseo ta ansia guztiac bear luquee izan ce ruraco." (VI, 12.orr.).

"Biotz orrec gordetzen ditu iñorc asmatuco ezlituguean ta iñorc contatu ere ecin litzaquean adiña gaitz, malicia ta engaño." (I, 2.orr.).

*Sic.

Adibideak:

"Ninivec icusico cituan bere erritar guztiac egun batean iltzen, misericordiac berroquei egun alcanzatu ez paliozca." (I, 115.orr.).

"Bada Jesus guc onela saldu ta ere, dago gaizqui bat guc eguin ezpaquiñaca becin isill ta gueldi,..." (I, 164.orr.).

"... ta baldin ill edo difuntu batec esango balie, eguingo luquee penitencia." (I, 121.orr.).

"... baldin orien gaitzeraco griña ta inclinacioai batere amparoric eman ezpaciendue zuen ez icusi, ez jaquin ta ez adituaquin, etzenduquee gaurco egunean daduca zuen adimbat quezca ta damu iduquico." (I, 77.orr.).

"Orobat esango niqueo bada nic deabruac engañaturic daduran anima triste orri;" (VI, 100.orr.).

"Orra gure desdicha guztien sustraia ta asiera, ta fe de pisca bat baguendu, negarra pranco eraguin bear liqueguna." (VI, 26.orr.).

"Cer contuac emango quiñiozque guc orain bertatic guri gure Jaincoac deitzera bere tribunalera?" (VI, 144.orr.).

"Dichosoac ta zorionecoac izango guiñaque, pecatuarequin gure inocencia edo bataioco gracia galdu, eta ondoren, berriz graciara biurtzen baguiña damutasun ta dolore eguiazcoarequin, eta elizac penitencian esqueintzen digun bigarren bataioac biurtzen balicu lenengoac bere ur santuaquin eman cigun gracia." (I, 151.orr.).

"Baña ala ere gaitz nai bacidazuen ta artu preso, nola ezninduzuen artu ta loturic eraman, ceren gogoac ematen cizuen presondeguira?" (I, 172.orr.).

"...emango balique orduan urte bat cueiago gure salvacion pensatzeco eta cerua irabazteco, cer eguingo guendu que?" (I, 70.orr.).

"Au da utseguiteco bideric batiere eman nai ezlicueona;" (VI, 150.orr.).

"Cer guertatuco litzaque? Galcuco luque guizon onec erreinuco andi izatea, guertatuco litzateque ondasun, diru ta hacienda bague eta izango litzaque billaua eta men decoa; eta ez bacarric berari, baita bere seme, semen seme eta ondorengoai jarraituco liouee gaitz ta zorigaizto oec,..." (VI, 43.orr.).

A H A L E R ANOR

	<u>ORAINA</u>	<u>IRAGANA</u>	<u>ALEGIAZKOA</u>
NI		Nindequean	Nindeque
HI			
HURA	Diteque	Citequean	L(e)iteque
GU	Gaitezque		
ZU	Zaitezque	Cindezquean	Cindezque
ZUEK	Zaitezque(e)		
HAIEK	Ditezque	Citezquean	Litezque

Adibideak:

"Ah! Añ erraz salva nindequean ta añ aisa condenatu naiz! (VI, 116.orr.).

"Araco ceru zabalac estu dituan anditasun guztia ichi ta estututzen da ozta ozta icusi al leitequean gorputz chiqui *betean." (VI, 52.orr.).

"Bada, guraso onac, ezdezazuela uste izan gauza onen gañean escusatu zaitezquela;" (I, 77.orr.).

"Eci citezquean seme-alaba oriec -dio Santiagoc- gana duac ecitzen diran becela." (I, 77.orr.).

*Sic.

"... zure icenac aditzera ematen du Jaincoa dezula zu re zorduna, bada esan ditegue Jaincoac zor dizula izatea, ..." (VI, 36.orr.).

"...genio gogorra ta gaiztoa bazuen ere, demboraz ta contuz artu ta mudatu citequean." (I, 77.orr.).

"Peligro onetan gaude, gure culpaz betico condenagai-tezgue ta Jaincoa galdu dezaquegu." (VI, 117.orr.).

"... Jaincoac bialtzen dizquitzu aranza, quezca ta ar oriec beragana biurtzeco, eta bici ceran arte gucian ba-
lia zaitezoue aranza oriez zure salvacioraco." (I, 28.orr.).

"Izan cindezcuean, ta nic nere amorioz nere alaba ta biotzeco esposa maite nai cindudan eguin, betico glorian ceruco erreguiña izateco." (VI, 68.orr.).

"Berequin daduzca icen orrec pensatu ta izan al ditez-
guean anditasun guztiac,..." (VI, 45.orr.).

"An arguituco dira culpa loi gaizto ezcutuan eguiñac. An arguituco dira aberequin ta bazterretan bacarric eguindaco aitatu ecin litezquean pecatu nazcagarriac." (I, 4.orr.).

NOR-NORI

	<u>ORAINA</u>	<u>ALEGIAZKOA</u>	<u>IRAGANA</u>
<u>HURA-HARI</u>	Deiqueo	Leiqueo	Ceiqueon
		Leiquio	

Adibideak:

"... baldin gaztetanic ondo icasten badira, bein ere ezdira aztutzen, alaco moduz, non edadean aurreratzen danean, profeta Erreguerequin esan deiqueo* Jaincoari: asieratic,..." (I, 74.orr.).

"... eta jaioco lirateque billau eta mendeco, ez berac eguin duen pecatu edo salduqueriaren bategatic, ezpada beren anchiñaco edo asaba arc eguin zuanagatic; eta ala, aren pecatuari moduren batean deitu leiqueo pecatu jatorrizcoa edo originala." (VI, 44.orr.).

"Venialac esan nai du barcagarria, eta deitzen zaio icen onequin erraz guizona pecatu onetan erorten dalaco eta erraz barcatu leiquiolaco." (VI, 44.orr.).

"Nor azartu edo atrebituco zan uste izaten munduaren Jabea onelaco amorio baten goenera alchatuco zala? Ala ere, guizonari gogoratu ere ecin ceiqueon umiltasunera jachi zan gure Jaun ta Jaincoa." (I, 128.orr.).

"Aitortzen du bein, berriz ta artaraco bideac dacarren gucian ez duala Jesusec culparic, ezduala eguin utseguiteric, ecin emango diola sententia gaiztoric, eta ala ere, ematen dio gurutzeco sententia ta eman al ceiqueon* sentenciariic gaiztoena." (I, 179.orr.).

(*) Deicueo eta ceiqueon aditz formak bi eratara uler daitezke: NOR-NORI sistemako aditz bezala edo NOR-NORI-NORK sistemakoak bezala.

Lehenengo adibidean ez da sujeto garbirik agertzen; hortaz, dakioke-ren parekotzat jo genezake. Baina "norbaitek" sujetoa suposatuz gero, NOR-NORI-NORK erakoa izango litzateke (diezaioke).

Azken adibidean, berriz, Pilatos da perpaus nagusiaren sujetoa, zalantzarik gabe; hala ere, perpaus horrek txertaturik duen erlatibozko perpausaren sujetoa -hots, ceiqueon-i dagokiona- ez dago batere garbi: sujeto ezeza guna duela, zekiokeen dela esan genezake; Pilatos sujeto tzat hartuko bagenu, ordea, ziezaiokeen izango litzateke.

NOR-NORK (Oraina)

	NI	HI	HURA	GU	ZU	ZUEK	HAIEK
NIK						Zaitzaquet	
HIK							
HARK			Dezaque				
GUK			Dezaquegu				
ZUK	Nazaquezu						
ZUEK			Dezaquezue				
HAIEK							

NOR-NORK (Alegiazkoa)

	NI	HI	HURA	GU	ZU	ZUEK	HAIEK
NIK			Nezaque				Nitzaque*
HIK							
HARK			Lezaque Leique				Litzaque Leguizque
GUK			Guentzaque Guiñaique Leiquegu				Guintzaque*
ZUK			Cenzaque				
ZUEK							
HAIEK			Lezaque				Litzaquee

(*) Ikus hauek ere: "aditzera eman al banintza" (I, 53.orr.)
eta "urra al baquintza" (VI, 130.orr.).

NOR-NORK (Iragana)

	NI	HI	HURA	GU	ZU	ZUEK	HAIEK
NIK			Nezaquean				
HIK							
HARK			Cezaquean				Citzaquean
GUK							Guintzaqueen
ZUK			Zenzaquean				
ZUEK							Cintzaquetzuen
HAIEK							

Adibideak:

"Jauna, nai izate utsarequin sendanazaquezu." (I, 91. orr.).

"Equin eznitzaque oriec guciac baño aguitz gaiztoagoac ere?" (VI, 160.orr.).

"Cer icheden lezaque Jaincoaren aurrean gloria, atseguin eta ondasunez alde gucietatic inguraturic dagoan aingueruac, lur eta auts pusca bategandic?" (I, 12.orr.).

"... gure aingueru zaitzalle edo guardacoagan iduqui bear degu uste edo confianza oso bat, ezdagoalaco ez mundu an ta ez infernuan bere contra al leiquean indarric." (I, 12.orr.).

"Biotz orrec gordetzen ditu iñorc asmatuco ezlituque-
an ta iñorc contatu ere ecin litzaquean adiña gaitz, ma-
licia ta engaño." (I, 2.orr.).

"Jainco-guizon batec baicic ecin eraman leguizquean
nequez itotzen dauquee Jesus bere etsaiac,..." (I, 186.
orr.).

"Modu onetanche esan quentzaque edo adierazo quentza-
que datorrela Seme Jaincoa bere Aita beticoagandic,..."
(VI, 42.orr.).

"Ainguerua da gure adisquidea, baña ez edocein moduta
coa, ezpada arqitu al guiñaiquean leial ta cinzoena."
(I, 12.orr.).

"...ezdaucagu cer joan Jerusalengo afalteguira, ez cal
varioco mendira, mirari oec icusteco: orche, aldare orre-
tanche icusi quintzaque mirari arrigarri oec guztiac."
(I, 60.orr.).

"Gurasoac ecin maitatu litzaquee beren seme-alabac on
do nai izan gabe;" (I, 74.orr.).

"... zuen escuan cegoan ta erraz guelditu ta erremedia
tu cintzaquetzuen zuen seme-alabaen pecatu ta desordena
lotsagarri oriec;" (I, 77.orr.).

"Emen aitortzen det ecin bein ere gueiegui erruquitu leiguequla peccatari ascoren ichutasuna,..." (I, 47.orr.).

"Badaquizu Jesus ecin icusiz ta naigabez dirala judu-
en erausi guztiac, ta eguia baliz ere oriec dioen gucia
ecin eguin cenzaqueala Jesusequin eguiten dezuna baño
gauza itsusiagoric." (I, 177.orr.).

"Ezdue meza enzuten beren naiez edo culpaz gueratzan
diranac meza esaten duan sacerdotea icusi ecin lezacuen
lecuan edo elizatic campora." (I, 56.orr.).

"Ay! Besteac becela, gucia confesio on batequin erre-
media nezacuean, ta ori eguin nezacueala, eguin eznuan!"
(VI, 116.orr.).

"Mirari arrigarri oequin ezagutu erazotzen cien guizon
ai Jaincoac biraldua zana, bada ecin inorc gauza aec
eguin citzaquean, Jauna berarequin ezegotera." (VI, 56.orr.).

"Orretan jardun ote guera gu gure echecoquin, gure
auzoquin, gure contura ceuden guciaquin ta zucendu
quintzaqueen gañeraco animaquin?" (VI, 144.orr.).

"Bada nola zure indar utsaquin Jaincoagana biurtzeco
ecer ere ecin eguin zenzaquean, aurrea artu dizu ta bial
du dizquitzu..." (I, 24.orr.).

NOR-NORI-NORK (Oraina)

(NOR = singularra)

	NIRI	HIRI	HARI	GURI	ZURI	ZUEI	HAI EI
NIK							
HIK							
HARK	Deiquet		Deiqueo Daguioque	Deiquegu	Deiquezu		
GUK			Deiqueogu Deguioquegu				
ZUK							
ZUEK							
HAI EK							

NOR-NORI-NORK (Alegiazkoa)

(NOR = singularra, plurala)

	NIRI	HIRI	HARI	GURI	ZURI	ZUEI	HAI EI
NIK					Neiquezu		
HIK							
HARK			Leiqueo Leizqueo	Leiquegu			Leioquee
GUK			Guiñaiqueo				Guiñaique Guiñaiqueo
ZUK							
ZUEK							
HAI EK				Leiquegue			Leizequee

NOR-NORI-NORK (Iragana)

(NOR = singularra)

HARK-HAIEI-HURA: CeiqueenAdibideak:

"Ni naiz erregue guciz poderoso baten ta ceruaren ta lurraren eguillearen etsaia, ta une edo instante onetan bertan erregue onec eman deicuet castigu izugarri bat." (I, 94.orr.).

"... eta guci guciac eguiten ditu bere Jaincoari atse^u guin ta gusto emateagatic ta bere lagun progimoari aserre-erazo deiqueon gauzaric ez eguiteagatic." (VI, 86.orr.).

"Gauza edo virtute onec bi aldetatic beguiratzen dio lagun progimoari, bada beguiratzen dio al cuan on gucia eguin naiez, ta ta^a ongui eguin daquiocue lagun progimoari bi aldetara." (VI, 139.orr.).

"Baña, norc eracutsi aldeicuegu ori bear becela eguiteco modua, munduan umillatu ta cerura igo dan Jesu Cristoc baicic?" (VI, 64.orr.).

*Sic.

"Cerc eragotzi al deiquezu Jaincoaren aurrean ta zure biotzaren erdian umillatzea?" (I, 21.orr.).

"Jesucristoc eracusten digu Aitagurearen zazpi escari**i** bacarretan Jaincoari aren onra ta doalesqueñiraco ta gure oneraco ta probechuraco escatu al deiqueogun guztia." (VI, 9.orr.).

"Orra Jesusec aldi onetan esaten edo adirazten duana ta orra guc ere gure neque ta bearretan gure Jaincoari esan deuioqueguna." (VI, 121.orr.).

"... eta esan ere neiquezu arrazoiarequin San Estevan ec juduai esaten cien:guizon biotz gaiztocola,.." (I, 27.orr.).

"Aditzera emateco Jaincoac cristauari bein ere amorio gueiago eracusten ezdiola ta mesede andiagoric ecin eguin leiqueola pecatuan dabillenean concienciaco aranza, quezca ta arraquin estutzea baño,..." (I, 23.orr.).

"munduan iñori eguin al leizqueon^{*} calteric andienac eguin arren, ezda batere icaratzen,..." (I, 17.orr.).

"Ez urac, ez suac, ez euriac, ez ecaitzac, ez leoe, ez artz, ez beste gauzac gaitz eguin leiquegu." (I, 13.orr.).

"... emen esan leioquee* cer uste dezue zuequin gertatuco dala?" (I, 47.orr.).

"Cer mesede eguin quiñaiqueo guc aingueruari? Gueitu quiñaiqueo dauca gloria?" (I, 12.orr.).

"... eta ala, batzuec besteai lagundu quiñaiqueo. Lurre an gaudenoc lagundu quiñaique garbitegui edo purgatorioan caudenai andic irten ta cerura joaten,..." (VI, 91.orr.).

"... emen escatzen deguna da gure salvacioa galdu era zo leicuequen animaco ta gorputzeco gaitz ta perilletatic libratzea." (VI, 31.orr.).

"Gurasoac ecin maitatu litzaquee beren seme-alabac ondo nai izan gabe, eta ecin ondo nai izan leizequee aleguiña eguin gabe alcanzatzeco betico zoriona..." (I, 74.orr.).

"Erraz principe onec eranzun ceiqueen* eman cioen erregetzaren ondoren etzala ibilli,..." (I, 194.orr.).

(*) Leizqueon, leioquee aditz formak NOR-NORI sistemakoak izango balira bezala ere har daitezke (dakizkioke, dakieke). Ikus aurreraxeago idatzi dugun oharra.

(*) Ceiqueen-ek pasarte honetan bi interpretazio onartzen ditu: erantzun ziezaiekeen edo erantzun zezakeen.

S U B J U N T I B O ANOR

	ORAINA	IRAGANA	ALEGIASKOA
NI	Nadin		
HI			
HURA	Dedin	Cedin	Ledin
GU	Gaitean Gaitecen	Guindean	
ZU	Zaitean		
ZUEK			
HAI EK	Ditean Ditecen	Citean Citezen	

Adibideak:

"Beren Jainco ona biotz osotic amatzen duenac ezlu-
quee nai iñorc eguin lequion^{*} berari bidegaberac batere,
ez eta bere gaiztaqueria ta bidegabeac gatic iñor galdu
ledin ere." (VI, 131.orr.).

"Ezagutu dezagun, bada, Jaincoaren misericordia eta
orretzaz balia gaitecen." (I, 157.orr.).

"Bat eguin nazazu zurequin, gueiago bici eznadin ni,
ezpada zu bacarric bici zaitean nigan." (VI, 17.orr.).

*Sic.

NOR-NORI (Oraina)

	NIRI	HIRI	HARI	GURI	ZURI	ZUEI	HAIEI
NI							
HI							
HURA			Daquion				Daquien/-la
GU							Gaguizquiela
ZU							
ZUEK							
HAIEK			Daquizquion				

NOR-NORI (Iragana)HURA-HARI

Cequion

Adibideak:

"Dei-eguiten die eta convidatzen ditu beste aingueru-
ac eta esaten die: "poztu gaitean guztioc, bada arqutu
edo eido det galdu citzadan anima. Nolaco contua ipintzen
ezdu berriz galdu ezdaquion? (I, 10.orr.).

"Jainco-guizon batec baicic ecin eraman leguizquean
nequez itotzen dauquee Jesus bere etsaiac, eta bereaz az
turic, erreguca dagoquoio bere Aita beticoari erruqui
daquiela era onetan daducaten bere etsaiari;" (I, 186.orr.).

"Eta ah cer eracustea! Bada eracusten digu guri gueren lagunac eguiten badigue nai ezguenduquen gaizquiren bat, orien gaizquiari gaizquiz eranzun lecuan, erruquitu gaizquiela beren animai orretan eguiten dioen calteagatic;" (I, 186.orr.).

"... ecin igaro du baraua, gaueco lo galtzea, gosea, egarria, oracioa eta pecatuac barcatu daquizquion egin bear duana. (VI, 57.orr.).

"Baceaquian Judasec non arçuituco zan Jesus, garai ar tan oracioan lecu jaquiñean egoten zalaco. Baña gorde cecuion bildurrez, esan cien berequin ceramazquienai: ..." (I, 170.orr.).

NOR-NORK (Oraina)

	NI	HI	HURA	GU	ZU	ZUEK	HAI EK
NIK			Dezadan		Zaitzadan		Ditzadan
HIK							
HARK							Ditzala
GUK			Dezagun				Ditzagun
ZUK							
ZUEK			Deguizuen Dezazuen				
HAI EK			Dezaen Dezen	Gaitzen	Zaitzen		

NOR-NORK (Iragana)

	NI	HI	HURA	GU	ZU	ZUEK	HAIEK
NIK							
HIK							
HARK			Cezan				
GUK			Guentzan				
			Guenezan				
ZUK							
ZUEK							
HAIEK			Cezen				Citzaten

Adibiceak:

"Garbitu ezazu, bada, nere biotza, gogoz bada ere errecibitu zaitzadan ta fede, confianza ta caridadeare-quin zurequin juntatu nadin." (VI, 17.orr.).

"Ara irudi edo comparacio bat, obeto aditu dezazuen." (VI, 48.orr.).

"... baña gaitz bada ere nola can adierazotzea, ipini co dizuet iduri bat, cerbait aditu cecuizuen." (VI, 49.orr.).

"Bai, peccatariac peccatuan arquitzen duan gustoagatic galtzen du berez betico bere Jesus ta uzten du Jesus bere pasio gaiztoen atzaparretan, orieci eguin dezaen berac nai duena,..." (I, 164.orr.).

"Orduan Jesusec esan cion: "beguira, ez iñori esan, baña zoaz sacerdoteagana cere burua eracustera eta Moises ec aguindu zuan ofrenda edo emaitza esqueintzera, jaquin dezen nola leguea gordetzen oedan." (I, 91.orr.).

"Erregutu cequiegun, bada, santuai (...) ampara caitzen gure etsai gucien contra, libra caitzen peccatuco perill gucietatic,..." (VI, 94.orr.).

"Aita nerea, eguin det aleguñña guizon guztia lurrean zu adonatu zaitzen...." (VI, 60.orr.).

"Elizaco jaquintsuac eracusten digue Jesu Cristo ceru ra igotzea zala gauza bearra (...) bere odolarequin iri-chi zuan gloria ta erreinoaz goza cezan." (VI, 60.orr.).

"Nai izan zuan iru aldiz tentatu cezan deabruac, berac venzuturic gure etsai au eta argalduric bere indarrac, guc ere errazago azpiratu quentzan gure tentatzalle au." (VI, 55.orr.).

"Obeto bete cezen beren officioa, eman cien escubidea demonioac gorputzetatic botatzeco..." (VI, 55.orr.).

NOR-NORI-NORK (Oraina)
(NOR - singularra, plurala)

	NIRI	HIRI	HARI	GURI	ZURI	ZUEI	HATSI
K			Degulion/-1a Deguliozcan	Deigun/-1a Degulizquigula Deizquigula			Degulztela
			Deguiogun Deguloguzcan Deguliozcagula				Degulegun/-1a
K	Degulrazuela			Deiguzula			
EK			Deguloela	Deiguen/-1a			

NOR-NORI-NORK (Alegiazkoa)HARK-HARI-HURA Lequion*NOR-NORI-NORK (Iragana)HARK-HARI-HURA CeguiolaHAIEK-HAIEI-HURA CiocenAdibideak:

"... asitzen da bere Aitari erregutzen, ta escatzen dio balcin al badedi, quendu deguiola bere biotzeco trisura ta illuntasuna; baita ere orien ondoren bere Pasio-co neque arrigarria ere." (I, 165.orr.).

"Jainco bat dago negarrez inoren pecatuacgatic; orien barcacioagatic dijoa ermu eta mendietara, non igarotzen dituan egunac eta gauac oracioan, gose egarritan eta gau logalduen artean, bere Aitari escatzen diola barcatu dequiztela guizonai beren pecatu guztiac; eta guizon pecatuz beteac ezdu ecer eguin nai bere pecatuac barcatu dequiozcan;" (VI, 57.orr.).

*Sic.

"... baña escatzen degu orrela -dio San Juan Crisosto-
moc- Jaincoac bere graciarequin lagundu deicun,.." (VI,
13.orr.).

"... orregatic umiltasun andiarequin Jaincoari erregu
tu bear diogu barca dequizcuigula gure zorrac." (VI, 19.orr.).

"Pretenditzea, bada, Jaincoac pecatuac barcatu ceizcui-
cula penitenciaric equin gabe da aif. eroqueria andia,
nola can gauza bat erosi nai izatea batere ciruric eman
gabe." (I, 45.orr.).

"Ezagutu ditzagun, bada, gure premia Jaincoaren aurre
an, batez ere gure animaren premia espirituaia, ta es-
catu cecuioGUN orien erremedioa ta arintasuna." (VI, 17.orr.):

"Cer aleguiñac eguiten ezditu ambat lasterren irten
dezagun pecatutic? Cer deiac, cer deacarrac gure biotzera,
caucagun io gogorretic esnatzeco? Cer otsac gure animaco
atetan, idiqui dequioGuzcan Jaunari bertan sartu deñin?"
(I, 10.orr.).

"Jaincoac ezdigu aguintzen escatu dequiozcaGula acien
da andiac, aberastasun asco ta soñeco ederrac, baña ba-
carric oguia." (VI, 15.orr.).

"Erregutu dequiegun, bada, santuai, lagundu deiquen gure animaco ta gorputzeco premia, neque ta estutasun guztietan,..." (VI, 94.orr.).

"... ezdeicuzula, Jauna, eman mundu onetan atsedeen edo descansuric ta gustoric;" (VI, 112.orr.).

"Ofenditu nauzue, -esaten digu- ez bein bacarric, ezpada ascotan ta ascotan. (...) Ezdequirazuela emendic aurrera beguiratu zuen pecatuen castigatzalleari becela;" (I, 157.orr.).

"Esaten die oei Jesusec Getsemanico baratzara orduco, beguira duela, daudela contuz, esnai ta erregutu dequioela Jaincoari,..." (I, 170-171.orr.).

"Demonioac sarri libratzen dizquigun tentacio andiac ta ematen dizquigun eraso portitzac, desea erazo deicuela gure libertadea;" (VI, 33.orr.).

"Beren Jainco ona biotz osotic amatzen duenac ezluquee nai inorc eguin lequion^{*} berari bidegaberico batere,..." (VI, 131.orr.).

"... agundu cion San Gabriel aingueruari jaitsi cedi illa cerutic Maria ceritzon virginiagana eta esan cegiola beragan sortu eta beragandic jaio nai zuala Jaincoaren semeac." (VI, 47.orr.).

*Sic.

"Merecimentu ta gracia andiac iduqui arren, beguira-
tzen ciran eza becela ta nai zuen besteac orobat beguira
tu ciocen." (I, 18.orr.).

A G I N T E K E R A

NOR

NI

HI

HURA Bedi

GU

ZU Zaitez

ZUEK Zaitezte

HAIEK Bite(z)

Adibideak:

"Gure egonlecua izan bedi cerutarren artean;" (VI,
112.orr.).

"Jaunac esan cion nere Jaunari: "eseri zaitez nere es
cuico aldetic..." (VI, 61.orr.).

"Acorda zaitezte zuen Jaincoa, zuen Salvadorea ta zu-
en aitaric onena naizala;" (I, 157.orr.).

"Ea, bein edo bein acababite gure gaitzac..." (VI, 76.
orr.).

NOR-NORIZU-GURI

Zaquizquigu

Adibidea:

"Lagun zaquizcuigu, bada, gure Jesus ona, lagun zaquizcuigu zure graciarequin emendic aurrera pecatutic alde-
guiten ta zu bear becela amatzen,..." (I, 184.orr.).

NOR-NORK

	NI	HI	HURA	GU	ZU	ZUEK	HAI EK
N [~] K							
HIK							
HARK			Beza				Bitza
GUK							
ZUK	Nazazu		Ezazu	Gaitzatzu			Itzatzu
			Eguizu				
ZUEK			(E)zazue				Itzatzue
HAI EK			Bezae				Bitzae

Adibideak:

"O Jauna ta Jaincoa, alchatu ta goratu zaitez ceru gu
cien gañera ta zure gloriac mundu gucian distia-beza."
(VI, 61.orr.).

"... eguizu bere agindua eta ez ecuizu guchitan idu-
gui edo despreciatu." (I, 12.orr.).

"Munduaz usatzen duenac -dio oraindic apostoluac- usa
bezae usatzen ezpalue becela." (I, 84.orr.).

"Batu bitez mundu onetaco guztiac infernuco demonio
guztien aleguñaquin; artu bitzae daquizquien eta al ci-
tuen asmo guztiac;" (I, 12-13.orr.).

NOR-NORI-NORK

(NOR = singularra, plurala)

	NIRI	HIRI HARI	GURI	ZURI ZUEI HAIEI
NIK				
HIK				
HARK				
GUK				
ZUK	Eguidazu Iztatzu	Eguiozu	Eguiguzu Zaguzu Eguizquigu- tzu Zaizquigutzu	Eguiezu
ZUEK	(E)guida- zue	Eguiozue Itzgatze		Eguiezue
HAIEK				

*Oraindik bizirik dirau (e)izkotzue formak Beizama inguruan.

Adibideak:

"Esan equidazu, bada, orain cristau: sinisten dituzu orain aditu dituzun eguia bildurgarriac?" (I, 6.orr.).

"San Pabloc esaten digu: "barca itzgatzue batac beste ari eguindaco bidebageac, Jaincoac barcatu dizquitzen becela." (VI, 21.orr.).

"Esaten degu "barca zaizcuigutzu", ta ez "barca iztatzu", cergatic guizon guztia alcarrequin juntatu ta bat eguiten gaituan caridadeac,..." (VI, 21.orr.).

"Zu cera eguia; eracutsi equizcuigutzu, bada, eguia jaquin bear munduco jaquindunai ezcutatu diztetzun oriec." (I, 21.orr.).

"... gure animai graciazco bicitza eman equiezu;" (VI, 18.orr.).

"...ezdeiguzula, Jauna, eman mundu onetan atsedean edo descansuric ta gustoric; guztia gorde equiquzu ceruraco." (VI, 112.orr.).

"Esan quidazue, bada: nequea arindu badezaquegu, (...) cergatic ugaritu nai degu gure nequea eta barrungo samin tasuna?" (I, 143.orr.).

"Jesec^{*} eranzun cien: "esan equiozue Juani enzun ta icusi dezuena;" (I, 8.orr.).

"Biurtu itzatzue bide onera ta sartu equiezue muñeta-raño pecatuaren bildurra;" (I, 78.orr.).

"... ta zu ofenditua camu badu, barca equiozu, ta egunean zazpi bider ofenditzen bazaitu ta zazpiretan zu gana etortzen bada barcacio esque, barca ecuiozu." (VI, 21.orr.).

*Sic.

ADIZKI TRINKOAK

Aditz trinkoen formen artean neke da, pentsa daitekeenez, adizki ezezagun multzo handirik aurkitzea. Ia guztiak ezagunak, are egungo egunean hizketan ez bada, idaztean bederen erabiltzen ditugunak dira. Jaso ditugun batzuk bazter genitzakeen, egia esan, baina besterik ez bazen ere, ager zedin zenbat aditz trinko zerabilen Otaeguik, nahiago izan dugu gehiegiaz egin bekatu. Gainera han-hemenka badira pitxi polit batzuk ere, hala nola letozcuie- (guk (?) letozkieke- esango genukeena), datorcuioz, samazgui (hots, zaramatza), darame edo caramee (gure daramate), dabiltzatzue (alegia, darabiltzazue), eta abar.

A D I Z K I T R I N K O A KE G O NINDIKATIBOANOR

	<u>ORAINA</u>	<u>IRAGANA</u>
NI	Nago	
HI		
HURA	Dago	Cegoan
GU	Gaude	Gueunden
ZU	Zaude	
ZUEK	Zaudete	
HAI EK	Daude	Ceuden

NOR-NORI (Oraina)

	<u>HURA</u>	<u>HAI EK</u>
NIRI	Dagoquit	Dagozquit
HIRI		
HARI	Dagoquio	Dagozquio
	Dagoca	Dagozca
GURI	Dagoquigu	
ZURI	Dagoquizu	Dagozquizu
ZUEI		
HAI EI	Dagoquie	
	Dagote	

NOR-NORI (Iragana)

	<u>HURA</u>	<u>HAI EK</u>
HARI	Cegoquion	Cegozquion Cegozcan
HAI EI	Cegoten	

BALDINTZANOR

	<u>Bal. Aurrekoa</u>	<u>Bal. Ondorioa</u>
GU	Bagueunde	
ZUEK	Baceundete	Ceundezqueen
HAI EK	Baleude	

MENTURAZKOA (-KE orain puntuala)

HURA	Dagoque
------	---------

Adibideak:

"Au da bereac ta besteren gauza guciac bear dan eran zucentzen dituana edo berari ezdagocanic artzen ezduana,.."
(VI, :50.orr.).

"Beguiratze amoriozcoric ez dagote era orretacoai;"
(VI, :26.orr.).

"Confesioac barcatzen du pecatuai cegoten betico pena, ..." (I, 198.orr.).

"Jerusalengo alabac, negarrez zaudete nigatic, ecin bestez eriotzara daramen guizon baten gain ceundezcuen becela." (I, 180.orr.).

"Bitartean pobre bat gure ondotic igarotzen da, ta ceren arlotea datorren, orri ez casoric; eta orren anima Jaincoaren gracion çagoque." (VI, 74.orr.).

E T O R R I

INDIKATIBOA

NOR

	<u>ORAINA</u>	<u>IRAGANA</u>
NI		
HI		
HURA	Dator	
ZU		
ZUEK	Zatozte	
HAIEK	Datoz	Cetocen

NOR-NORI (Alegiazkoa)

HAIEK-HAIEI Letozquie

NOR-NORI (Oraina)

	<u>HURA</u>	<u>HAIEK</u>
NIRI		
HIRI		
HARI	Datorquio	Datorquioz
GURI	Datorquigu	Datozquigu
ZURI	Datorquizu	Datozquitzu
ZUEI		
HAIEI	Datorquie	

NOR-NORI (Iragana)

	<u>HURA</u>	<u>HAIEK</u>
HARI		Cetozquion
ZURI	Cetorquizun	
HAIEI	Cetorquien	

AGINTEKERANOR

NI	
HI	
HURA	Betor
GU	
ZU	Atoz
ZUEK	Atozte
HAIEK	Betoz

Adibideak:

"Icen au irabaci naiez dabiltzan animen bigarren etsai ac dira beren lagun artetic etortzen zaizten edo letoz-cuien naigabeac eta charqueriac." (VI, 152.orr.).

"Baña pensamentu oec badatorquioz berac nai ezduala eta eguiten badu aleguiña quentzeco ta al çuan devocio-ric andienarequin egoteco, ezdu eguingo peaturic ta en-zungo du meza." (I, 57.orr.).

"Orretaraco zure borondatea bada, betoz orain, Jauna, betoz lenago emen zure aserre justuaren castiguac;" (VI, 76.orr.).

I B I L IINDIKATIBOANOR

	<u>ORAINA</u>	<u>IRAGANA</u>
NI	Nabil	Nembillen
HI		
HURA	Dabil	Cebillen
GU	Gabiltza	Guembiltzan
ZU	Zabiltza	Cembiltzan
ZUEK	Zabiltzate	
HAIEK	Dabiltza	Cebiltzan

J O A NINDIKATIBOANOR

	<u>ORAINA</u>	<u>IRAGANA</u>
NI		
HI		
HURA	Dijoa	Cijoan
GU	Goaz	
ZU	Zoaz	
ZUEK	Zoazte	
HAIEK	Dijoaz	Cijoacen

NOR-NORI (Oraina)

	<u>NI</u>	<u>HURA</u>	<u>HAIEK</u>
NIRI		Dijoaquit	
HIRI			
HARI		Dijoaquio	Dijoazquio
GURI		Dijoaquigu	
ZURI		Dijoaquizu	
ZUEI	Noaquizue		
HAIEI			

Adibideak:

".... gaur noaquizue aditzera ematera cergatic Jaunac azquen juicioco egun au eguin nai duan,.." (VI, 71.orr.)

J A R R A I K IINDIKATIBOANOR-NORI (Oraina)

	<u>HURA</u>	<u>HAI EK</u>
HARI	Darraico	Darraizco
	Darraica	

NOR-NORI (Iragana)

HAI EK-HARI Cerraizcan

Adibideak:

"Quendu ote dizu Jesusec cueroz orduan emandaco lecu
edo lecu orri darraican escua?" (I, 162.orr.).

"Gorputzaren aldetic progimoari datozcuion premiac
eta bearrac dira, edo beraren bicitzacoac, edo berari
bere ill-ondoan darraizconac." (VI, 139.orr.).

"Nola Jesu Cristoc mundu gucia ceucan arrituric egui-
ten cituan gauza andiaquin ta guciac cerraizcan nora nai,
escriba ta fariseo ondasun zale, andinai ta arroac, (...)
beguitan artu zuen..." (I, 110.orr.).

"... orien azquen atseguñari darraico betico dolorea,
betico negarra ta tormentua." (VI, 130.orr.).

E R I O NINDIKATIBOANOR-NORI (Oraina)

HURA-HARI Dario

HURA-HAIEI Darie

NOR-NORI (Iragana)

HURA-HARI Cerion

HURA-ZURI Ceriezun* (ez ote cerizun?)Adibideak:

"... eraman zuen Jesus bere gurutzepean, indarric ga-
bez, sarri belaunaquin lurreratzen zala ta erdi arrastan
becela, ta darion odolarequin bideac bustitzen dituala."
(I, 180.orr.).

"Bacenequian au zuc, beartsu gaisoa, nequepean ta icerg
dia ceriezula bici ciñanean, ta ala ere cere burua ta fa-
milia mantentzeco diña ecin bilduz cembiltzanean?" (VI,
121.orr.).

"An arguituco dira pobre triste bearraren odola dari-
ela, epetan ematen duelaco, balioa baño gueiagoan gauza
emanaz eguindaco interesa ta irabaci gaiztoac." (I, 4.orr.).

*Sic.

E T Z A NINDIKATIBOANOR

	<u>ORAINA</u>	<u>IRAGANA</u>
HAI EK	Dautza	Ceutzan
HURA	Datza	

Adibideak:

"Au aditzean erotzen^{*} dira cuciac lurrera ta an dautza ill otzen eran. Oriec orrela ceutzan artean, Jesus atera citequean andic, baita ere joan nai zuan lecura." (I, 171.orr.).

E R A M A NINDIKATIBOANOR-NORK (Oraina)

	<u>HURA</u>	<u>GU</u>	<u>ZU</u>	<u>HAI EK</u>
NIK	Daramat			
HIK				
HARK	Darama	Garamazqui	Zamazqui	Daramazqui
GUK	Daramagu			Daramazcuicu
ZUK	Daramazu			
ZUEK				
HAI EK	Daramate			Daramazte
	Darame(e)			

*Sic.

NOR-NORK (Iragana)

HAIEK-HURA	Ceramaten
HARK-HAIEK	Ceramazquian

Adibideak:

"Modu onetan qaramazqui gure aingueruac Jaincoac es-queñi digun cerura." (I, 10.orr.).

"... cere erreinuco jarlecu zorionecora zamazqui eriotzac,..." (I, 187.orr.).

"Jerusalengo alabac, negarrez zaudete nigatic, ecin bestez eriotzara daramen guizon baten gain ceundezqueen becela;" (I, 180.orr.).

E R A B I L IINDIKATIBOANOR-NORK (Oraina)

	<u>HURA</u>	<u>HAIEK</u>
HARK	Darabill	
GUK		Darabiltzagu
ZUK	Darabiltzu	
ZUEK		Dabiltzatzue*
<u>HAIEK</u>		Darabiltze

*Sic.

NOR-NORK (Iragana)

HARK-HURA

Cerabilien

ZUK-HURA

Cenerabilien

Adibideak:

"Ah borrheroac! Baciñaquizue charchoac dirudien ta odol ez beteac dauden Jesusen señeco* oriec balio duena, etzi ñuzquee erabilico dabiltzatzuen* eran." (I, 181-182.orr.).

"... zori gaiztoco oriec beguien ichi-idiq̄i batean igaro citzaizten atsequin gaiztoac buruan darabiltzen artean, santuac atseguintasun jaincozco batequin acorcatico dira..." (VI, 109.orr.).

"... ibillico ciñan alabaña cere gogoa gueroco gauzetan ondo sartua cenerabillela,..." (VI, 137.orr.).

I R A U NINDIKATIBOANOR-NORK

HARK

Dirau

Adibidea:

"... bada Adan eta Evagandic asi zan izaten, eta iraugo du munduac dirauen* artean." (VI, 90.orr.).

*Sic.

E D U K IINDIKATIBOANOR-NORK (Oraina)

	<u>NI</u>	<u>HURA</u>	<u>GU</u>	<u>ZU</u>	<u>HAIEK</u>
NIK					Daduzcat
HIK					
HARK		Daduca	Gaduzca		Daduzca
		Dauca			Dauzca
GUK		Daucagu			Dauzcagu
					Daduzcagu
ZUK	Naucazu	Daducazu			Dauzcatzu
ZUEK		Daducazue			
HAIEK		Daducate	Gaduzque	Zauzque	Dauzquee
		Dauquee			

NOR-NORK (Iragana)

	<u>HURA</u>	<u>HAIEK</u>
HARK	Ceucan	Ceduzcan
	Ceducan	
GUK	Guenducan	
ZUK	Ceneucan	
HAIEK	Ceducaten	
	Ceuquen	

BALDINTZA

NIK-HURA

Baneuca

NIK-HAIEK

Baneuzca

Adibideak:

"Ezpanequi daquidan becin ongui cein maite nauzun ta ezpanequi nor ceran, usteco nuque beguitan arturic nauczula ta arquitzen cerala..." (VI, 121.orr.).

"Ah! Ezditugu gueurc gueren buruac galdu ta su onetara bota; gure gurasoen desleialtasun ta gogortasunac caduzca emen;" (I, 77.orr.).

"Beste aurren animac ezdaucuee arguituric arrazoia edo ezdaucuee arrazoiaren usoric beren amaen sabelean cauden artean;" (VI, 50.orr.).

"... eta ondatu quinduan inguraturic caduzcuen zori gaitz, naigabe, suspirio eta negarretara." (VI, 43.orr.).

"Zure etsai ta guizon gaiztoac, zure echeoac, zure familiacoac beguitan arturic zauzcue?" (I, 63.orr.).

"Oec gueienean pecatu mortal eguiten due, bada eguia esan nai badue, baceuquen irichico etziran bildurra." (I, 58.orr.).

J A K I NINDIKATIBOANOR-NORK (Oraina)

	<u>HURA</u>	<u>HAIEK</u>
NIK	Daquit	
HIK		
HARK	Daqui	Daquizqui
GUK	Daquigu	
ZUK	Daquizu	Daquizquitzu
ZUEK	Daquizue	
HAIEK	Daquie	Daquizquie

NOR-NORK (Iragana)

	<u>HURA</u>
NIK	Nequian
HIK	
HARK	Cequian-Ciaquian
GUK	Guiñaquigun
ZUK	Cenequian-Ziñaquizun
ZUEK	Ziñaquizuen
HAIEK	Cequien

BALDINTZA

NIK	Banequi
GUK	Baguiñaquigu
ZUEK	Baciñaquizue

AGINTEKERA

ZUK	Jaquizu
ZUEK	Jaquizue

Adibideak:

"Baciaquian Jesusec neque berri baten beguira cegoala, ..." (I, 188.orr.).

"Orduan ofenditzen cenduan gogoz, oarrarequin ta mali*ci*arequin, ta ala ere, amaten cinduan; zuc etziñacuizula, on eguiñez betetzen cinduan,.." (I, 116.orr.).

"... beraz, badaquigu ezdala arteraño izango, bitarte an echongo zacula edo beintzat esaten ta eguiten degu baquiñaquigu becela." (I, 139.orr.).

"... jaquizue eznaizala fiatzen orrelaco umiltasunaz.." (I, 19.orr.).

I R U D IINDIKATIBOANOR-NORK (Oraina)

	<u>HURA</u>
HARK	Dirudi
ZUK	Dirudizu
HAI EK	Dirudie

NOR-NORK (Iragana)

HARK-HURA

Cirudian

Adibideak:

"... ta icasbide santu orretan dirudizu ipintzen dezula zure legue gucia." (I, 21.orr.).

"Erdi-illa bacirudian ere bere trance gogor artan, etzitzaion ecer gordetzen Jesus onari,..." (I, 180.orr.).

I K U S IINDIKATIBOANOR-NORK (Oraina)

	<u>HURA</u>	<u>HAI EK</u>
NIK	Dacus(a)t	
HARK	Dacus	
GUK	Dacusgu	
	Dacuscu	
ZUK		Dacutsu

NOR-NORK (Iragana)

HARK-HURA

Cecusan

(*) Dirudizu hori gaur egun dirudi esango genuke.

Dacutsu: dacus + -tzu?

Adibideak:

"Baña esango dirazu: "sarri ciñatzen naiz, eta ala ere, eztacust oberic nigan;" (VI, 5.orr.).

"... ta argatic illunpean beatz topa, utseguiten ta cenzu gabe gabiltza; dacusgunaz pagatzen guera, irudiaz, ta ez eguiaz." (VI, 73.orr.).

"Nola, Jauna, zure etsai gaiztoac ta zu ofenditzen zaituenac beren erara bici dira, eta justuac, zure adis-
cuide maiteac nequez ta dolorez? Ori ta orrelaco asco dacutsula, nola zaude orren isilic?" (VI, 73.orr.).

E R I T Z IINDIKATIBOANOR-NORI-NORK (Oraina)HARI-HURA

NIK	Deritzat
HIK	
HARK	Deritza-Deritzo
GUK	Deritzagu
ZUK	Deritzatzu
ZUEK	Deritzotzue
HAIEK	Deritzoe

NOR-NORI-NORK (Iragana)HARI-HURA

HARK Ceritzon-Ceritzan

GUK Gueritzon

Adibideak:

"... ta au oriec alcanzaten ezpadue, ez onic izaten due ta ez ondasunic beren biotzetan. Ambat nai dioe zori oneco paqueosoac beren lagun progimoari! Aiñ ongui deritzoe oriec cure legue garbian bici diranen paqueari,..." (VI, 155-156.orr.).

"Gaizqui gueritzon Judasec aiñ merque Jesus saltzeari, ta ala ere, saldu degu guc Jesus bera aguitz guchiagoan, ..." (VI, 164.orr.).

*I OINDIKATIBOANOR-NORK (Oraina)HURA

NIK Diot

HARK Dio

GUK Diogu

ZUK Diozu

ZUEK Diozue

NOR-NORK (Iragana)

HARK-HURA Cion

E G I NAHALERANOR-NORK (Oraina)HURA

NIK Daguiquet
 HARK Daguique
 GUK Daguiquegu
 HAIEK Daguiquee

NOR-NORK (Iragana)

HARK-HAIEK Ceguiqueen

SUBJUNTIBOANOR-NORK (Oraina)

HARK-HURA Daguian-Daguiala
 GUK-HURA DaguiGUN

NOR-NORK (alegiakoa)

HAIEK-HURA Leguiqueen

AGINTEKERANOR-NORK

ZUK-HURA Eguizu
 ZUEK-HURA Eguizue

Adibideak:

"Irugarrenge, gose-egarriti zorionecoetatic dira nai luqueenac berac ez-ecic gañeraco guciac ere lequiqueen beti ta beiñ ere utseguiten ezduela beren Jaunaren legue ac aguintzen ta aguertzen diena." (VI, 134.orr.).

"Daquiqun contu erregue batec eguiten duala norbait bere urrenge guizon eta bere erreinuco andi." (VI, 43.orr.).

"... equizu bere aguindua eta ez equizu guchitan idu-qui edo despreciatu." (I, 12.orr.).

*I(N)AGINTEKERANOR-NORI-NORK

ZUK-NIRI-HURA	Indazu
ZUK-GURI-HURA	Iguzu

Adibideak:

"Ah! Oraindic etzaitut bear becela amatzen; indazu gracia gueiago amatzeco." (VI, 17.orr.).

"Iguzu zure laguntasuna, nequeac zure icenean eramate co." (I, 142.orr.).

E C A F P IINDIKATIBOANOR-NORK (Oraina)

	<u>HURA</u>	<u>HAIEK</u>
NIK	Dacart	
HARK	Dacar	Dacarci
GUK	Dacargu	
HAIEK	Dacarde	Dacazte

NOR-NORK (Iragana)

HARK-HURA Cecarren

AGINTEKERANOR-NORK

ZUK-HURA Ecarzu
 ZUEK-HURA Ecarzue

Adibideak:

"... ceruraco onac diran ondasunic ez dacarden biotz-lurrac dira; ta ondasun orien Iecuan gaiztaqueria andiac eta desdicha gaiztoac edo pecatu ta culpac dacazten biotz-lurrac dira." (VI, 126.orr.).

"Ezcontzen diran gueienac beguiratzen dioe eguiteco orri azaletic ta araguiaren ta lurraren aldetic; ezdue casoric eguiten berequin dacarcian obligacioaz..." (I, 82.orr.)

E R A U T S IINDIKATIBOANOR-NORK (Oraina)

ZUK-HURA

Darautsasu*

SUBJUNTIBOANOR-NORK (Oraina)

HARK-HURA

Darausala

Adibideak:

"Guizona, cer darautsasu? Ezdaqizu nor heran ta ezda guizquitzu cerorrec eguin dituzun gauzac?" (I, 186.orr.).

"Escatzen dizquitzut, bai, nere Jainco ona, ta escatzen dizquitzut bene benetan, ezdehadala nic, nere Jainco ona, orrelaco gauzaric beiñ ere eguin, ta darausala mundu eroac nai duana." (VI, 160.orr.).

E M A NSUBJUNTIBOANOR-NORK (Oraina)

GUK-HURA

Demagun

*Sic.

I H A R D U NINDIKATIBOANOR-NORK (Iragana)

HARK Ciarduquen

BALDINTZANOR-NORK (Oraina)

NIK Badiardut

Adibideak:

"Etzan ez orrela caltear guelditu Tobias gaztea era bereco ezdun beartsu gaisoaquin ciarduquen aldietan."
(VI, 141.orr.).

"... lanean badiardut, Jesusec erabilico ditu nere es cuac;" (VI, 46.orr.).

4.2) SINTAXIA4.2.1) Harridurazko esapideak

Perpaus bakunari dagokionez, perpausen antzeko zerbait diren -nahiz ezin ditugun kategoria horretan sartu- harridurazko esapide hauek bakarrik merezi zutela aipamen bat iruditu zaigu.

E.G.L.U. I* liburuari jarraikiz, bi ataletan sailkatu ditugu:

A) Esaldi zatiak, gainerakoa isilpean uzten dutenak.

Esate baterako:

"Guizon itsuac!" (VI, 6.orr.)

"Cristau sorrac!" (VI, 6.orr.)

"Ay cer buca!" (VI, 75.orr.)

"Otsemazu!" (I, 171.orr.)

"Alde bat!" (I, 171.orr.)

"Salva eguin!" (I, 190.orr.)

"Diosal eguin!" (I, 192.orr.)

B) Genitiboa - izenondo mugatua-z osatuak.

Ikus dezagun klasikoek nola erabiltzen zuten molde hau:

"Elas amoros gaixoa hire enganatuya"

(Etxepare. II, 64)

Otaeguiaren sermoietan horrelako esapide ugari aurkitu ditugu. Interesgarrienak bakarrik jaso ditugu:

"O gure desdichaduac!" (I, 47.orr.)

"O gure errucuienac!" (I, 47.orr.)

"O gure fedearen otza edo cuciz illa!" (VI, 116.orr.)

"Bicitzaren gaiztoa!" (VI, 126.orr.)

"Bucaeraren charra!" (VI, 126.orr.)

"Egoeraren arricarria!" (VI, 126.orr.)

"Eracustearen ederra, aldi onetaco Jesusen eracustea!"

(VI, 148.orr.)

"Ah, nere eroequia!" (VI, 161.orr.)

"Ah, cere calgarri caldua!" (VI, 141.orr.)

"Zure zoricaitzocoa.....!" (I, 7.orr.)

"Zuen dichabaqueac.....!" (VI, 58.orr.)

"Zuen zori gaitzococ.....!" (VI, 58.orr.)

"Zure zoricaitzocoa eta erruquiena.....!" (VI, 82.orr.)

.....

(*) EUSKALTZAINDIA: E.G.L.U. I. Iruñea, 1985. 512.orr.

4.2.2) Lokailuak

Gure tesilanean lekutxo bat egitea erabaki dugu Euskaltzaindiak orain dela denbora gutxi ar gitara eman duen liburu batean agertzen den ikuspegi berri bati.

Euskal Gramatika Lehen Urratsak III. Lokailuak, deritzon liburuak orain arteko gramatiketan juntagailu bezala agertzen ziren hitz guziak ez ditu halakotzat ezagutzen, ez bait dira juntagailu bezala sailkatu izan diren guziak berdinak.

Horrenbestez, Euskal Gramatika Batzordeak sail berri bat irekitzeari bidezko iritzi dio, lokailuen sailari, hain zuzen.

Guk landu dugun testuan agertzen diren lokailu gehienek ez dute ardura berezirik, oraingoxe erabilera berbera baitute. Denen artetik batzuk aukeratu ditugu, hauek iru ditu zaizkigulako bereizgarrienak edo garrantzizkoenak, egungo egunean ez bezalako erabilera erakusten dutelako.

Horrela bada, lokailu hauek hautatu ditugu: BADA, ALABAINA, ZER(R)EN, ZERGATIK, ORDEA, HORREGATIK, ERE, e.a.

Aukera hau egin dugunean kontuan izan dugun arrazoia izan da, beste guzien gainera, bere interesa edo bereizgarritasuna. Lokailu batzuk oso arruntak dira, bai egunero hizketan eta bai literaturan, orduan eta orain.

Otaeguik erabili ohi dituen ondoriozko lokailuak, esate baterako, gure bada eta beraz berberak dira eta ez

dugu aurkitu horien erabileran ezer berezirik.

Alabaina, ezin esango dugu gauza bera bada kausazkoari dagokionez, ez eta zer(r)en edo alabaina-ri buruz ere. Hauek garai batean, Otaeguiaren izkribuetan ikusten denez, erabilera normala zuten.

Gero, denok dakigun bezala, Azkuek, Altubek eta gaine rakoek gaitzetsi zituzten eta piskanaka desagertuz joan ziren, liburuetatik bederen. Gaur egun ez da batere ohizkoa euskaldun arrunten ahotik bada kausazko esanahi edo funtzioarekin entzutea; ez eta kausazko zer(r)en edo kausazko zein aurkaritzako alabaina ere. Gure guraso zaharrek ez dute horrelakorik erabiltzen, nahiz horrelakoak entzun ohi ditugun orain gure arteko euskaldun berrien ahotan. Baina aldi berean, zercatik lokailuak iraundu euskaldun zaharren eguneroko hizkeran, eta gaur egun oraindik bizirik dago.

Besterik gabe, ikus dezagun lokailu hauen erabilera Otaeguiaren esku izkribuetan.

BADA

Gorago aipatu dugun Lokailuak izeneko liburu horretan esaten zaigun bezala, Hegoaldean bada kausazkoaren testi gantzak bertako literaturaren sorreran daude; Ochoa de Arin-ek eta Irazustak maiz erabilite; gero Larramendik eta Kardaberazek ere bai; baita bizkaitarrek ere, Frai Bartolomek eta bestek.

Eta lokailu horrek perpausean hartzen duen lekuari da gokionez, hor bertan esaten zaigu bada kausazkoaren lekua bigarren perpausaren -arrazoia ematen duenaren- hasiera edo lehen-lehena dela, eta horretan bereizten dela bada ondoriozkotik, hau maiz perpausean barrentzen baita. Orain bada, hau guztia halaxe da gure idazlearengan. Ikus ditzagun pasarte batzuk:

"Bildur izan zaitezte, bada, ta bildur izan gaitecen guztio, bada baldin ainqueruac ceruan bildurrac ta icaraz itzeguiten badioe Jaincoari, arrazoi gueiagorequin guc icaratu bear degu..." (VI, 9.orr.).

"... poztu zaitez orren icen jaincozcoaz, bada gu guztioac izanic gueran becela Jaincoaren zordunac, (...) zure icenac aditzera ematen du Jaincoa dezula zure zorduna..." (VI, 36.orr.).

"...etzaitecela bildurtu Maria, bada arqitu dezu gracia Jaincoagan." (I, 61.orr.).

"Bart nic zuen escuetara noan* Jesus, baña ala gaizgui ta zorigaiztoan, bada ecin eguin nezaquean eguin nuan baño gauza gaiztoagoric, ta nator au zucentzera, bada badaquizue ezduela balio saldu-erosi charrac." (I, 175.orr.).

*Sic.

ALABAINA

Alabaina kausazkoaren edo kausal esplikatiboaren exen plurik zaharrenak Hegoaldeko literaturan aurki omen daitezke.

Larramendi eta Mendiburu omen dira lokailu honen erabilera zabaldu dutenak. Geroago Ubillos eta J.B. Aguirrek ere bereganatuko dute.

Lokailu honen tokia desberdina izan da autoreen arauera. Batzuek (Larramendik eta J. Hiriart-Urruty-k) bigarren perpausaren buruan jartzen omen zuten (!); besteek perpaus hasieran.

Otaeguik ere badirudi alabaina kausazkoa ez duela perpaus hasieran kokatzen, beti barnean baizik. Areago, oso oker ez bagaude, alabaina ez da inoiz agertzen perpausaren hasieran, beti barnean baizik, eta orduan, esan bezaia, beti kausazkoa da gure ustez.

Ikus ditzagun zenbait adibide:

"Baña nola ote ceducan gure pecatu sail orren carga izugarri au gure Jesusec? Au guztia ceducan bere gain artua; Jesus alabaña eguin zan guizon bere pasio santuco neque guciaquin..." (I, 166.orr.).

"... eta bere Amaren neque oriec, bere neque guciac baño ere aguitz gueiago illuntzen cioen bere biotza; maite zuan alabaña ecin gueiagoraño bere Ama maitagarria..." (I, 168.orr.).

"Bada Jaun onec bicitu zan dembora gucian beti iduqui zuan garbia bere biotz amoriotsua; etzuan alabaña eguin bein ere uts andi edo chiquiric batere eta ecin eguin ere cezaquean." (VI, 86.orr.).

"... eta ala ibilli zan berac berariaz arturicaco bear tasunarequin; bacituquean alabaña Jesus maitagarriac, nai izatera, nai adiña ondasun ta gauza, ta guciac nai becelacoac;" (VI, 120.orr.).

"... bada zuc au lenagotic ongui jaquitera, eguin izan cu dezunetic beste bicitzaric eguingo cenduan, bai; ibilli ceranetic beste moduz ibillico ciñan; ibillico ciñan alabaña cere gogoa gueroco gauzetan ondo sartua cenerabilela..." (VI, 137.orr.).

"Jaincoaren semeen icen au irabacico duenac garaitu bearco ditue beren etsaiac; guerra da alabaña, Job santu ac dionez, lurreco gure gucien bicitza;" (VI, 151.orr.).

ZER(R)EN

Lokailu hau Iparraldean betidanik bizirik egon da, eguneroko hizkeran nahiz literaturan, lehen aipaturiko E.G.L.U. III.ean esaten zaigunez.

Hegoaldeari begira, ezin dezakegu beste hainbeste esan. Arestian esan dugunez, ehun urtez edo literaturan ia

batere erabiltzen ez zelarik, euskara batuarekin batera hasi zen berriz indarra hartzen. Gauza bera errepikatzea baldin bada ere, esango dugu zeren Gipuzkoan XVIII. eta XIX. mendeetan bizi-bizirik egon zela, ia idazle guztiek, Otaegui barruan dela, zerren forma erabiltzen zutelarik.

Gehienetan menderagailu gisa erabiltzen da, eta orduan bait- aurrizkia nahiz -en atzizkia har ditzake adizkiak, euskalkien arauera. Hemen lokailu soila deneko erabilera aztertuko dugu gure idazlearengan. Aurrera gabe aitortu behar dugu lokailu deneko adibideak guztiz bakanak direla, menderagailu denekoak baino askoz urriagoak. Hona exenpluak:

"... Jesu Cristoren legue santuaren contra alchatzen gueranean estutzen gaituen concienciaco aranza, quezca ta ar oriec dira gracia ciertoac ta engañatzen ezgaituenac, cerren gu tragatzeco gure inguruan dabillen demonioa ecin, Escritura Santuac dion becela, arguiaren aingueru biurte liteque gu engañatzeco..." (I, 25.orr.).

"Ichasoz dijoana jaten, edaten, lo datzanean ere, badijoa, ezda orduan ere guelditzen, ceren, nai ezpadu ere, ontziac berequin carama." (I, 138.orr.).

"Itz guchian: asitzen dira ongui, jarraitzen due gaiz qui ta beren bicitza bucatzen due eriotza gaizto batequin, cerren gaitzera biurtzearequin eguiten zaio Jesu Cristori bidegabe gucz andi bat,....." (I, 196.orr.).

Beste pasarte bat aipatu gabe ez dugu utzi nahi, hala ere; ceren-i dagokion adizkia lehenaldian dagoenez gero, eta horrenbestez, lokailu ala menderagailu den ezin jakin dezakegun arren, oso pasarte polita da, zeren batera edo segidan agertzen bait zaizkigu zeren eta bada:

"Oraindañoocoan beti au ez eguiñaz degu damu, ta benetan ala ere; bada ceren* au bear becela eguiten ezgencuan, galtzear quinduan* gure biotzaren paque ta ondasun aquin batean, zure emengo laguntza ta gure seculaco gloria." (VI, 127.orr.).

.....

(*) bada ceren: bi kausal segidan. Biak menderagailuak?
Biak lokailuak?

(*) galtzear quinduan: galtzear genituen ala genuen?

ZERGATIK

Batez ere Hegoaldeko literaturan agertzen omen da; baina, hala ere, ez omen dago orokorki zabaldua. XVIII. mendearen hasieran Ochoa de Arin ordiziarrek (1713) ez omen darabil eta Juan de Irazusta hernialdetarrek (1739) bai.

Otaegui usuenik menderagailu bezala badarabil ere, alegia, adizkiari -en erantsiz, lokailu gisa ere agertzen da bere izkribuetan.

Ikus ditzagun aurkitu ditugun adibideak:

"Nere cristauac -esten* cion San Juan Crisostomoc bere puebloari- nere salvacioaz bildurrac nago, cercatic nola nagoan obligatua zuen pecatuaz negar ta penitencia eguitera, bildurrac nago, cein ez malcoric ta ez demboraric izan ezdezadan nereaz negar eguiteco." (I, 47.orr.).

"Baña janariac on eguiteco oraindic gueiago bear ca, bada ezda asco deseatzeta ta jatea, baicic bear da estomagoan edo egostoguian iduqui, cercatic iduquitzen ezpada ecin digeritu liteque...." (I, 121.orr.).

*Sic.

Urritasun honek ez gaitu harritu behar, adizkia ia be ti iraganean agertzen delarik, ezin jakin bait dezakegu, lehen ceren-i buruz esan bezala, lokailuari ala zeri zor zaion -en atzizkia.

ORDEA

Ordea eskuarki agertzen da perpausaren buru-buruan, Axularrengan bezala eta gaurko gipuzkera bizi, kalekoan ez bezala. Hara hainbat adibide:

"Venturaz arrotzen da gaizqui eguiñaz ta pecatuaz? Ordea pecatuan ezdago desonra baño." (I, 16.orr.).

"... jazten du cilicioa, mortificatzen du bere araguaia, bere oia bere negarraquin betetzen du. Ordea, ezdira ori-ec Jaincoari esqueintzen diozcanac aren aserretasuna bi-guntzeco ta misericordia bere alde ipintzeco." (I, 38.orr.).

"Esan bai, naidegun becin bat, "menturaz eznaiz zartu co, menturaz biar ta menturaz gaur illico naiz. Ordea, zartuco baguiña becela gure gauza guztiac eguin." (I, 138.orr.).

"Baña zuc confesatzera zoacenean esaten dezu: "bota dezadan (...); berriz ere pecatuan erorico naiz, cergatic berriz ere confesatu uste dedan. Ordea, esan bear cenduque:" (I, 155.orr.).

HORREGATIK

Gauza jakina da idazle klasikoetan bi balio dituela: kausala eta kontzesiboa. Ikus ditzagun biak Otaeguigan.

Balio kausalaz:

"Jaquizu gure araguaia dala macurtua gaitzeraco ta venganzaraco, ta espiritua beti dago jarria oneguitera ta barcatzera, ta emendic dator orien arteco betico guerra; orregatic vengatzeco pensamentu ta deseo oriec buru ra etorri arren, ezdezu pecaturic eguiten, aleguiña eguiten badezu oriec burutic quentzeco..." (VI, 22-23.orr.).

"Ondorengo itzac, ceñac diran: "Santa Maria, Jaincoaren Ama, erregutu ezazu gu pecatarioc gatic oraiñ ta gure eriotzaco orduan, Amen" esan cituan gure Ama Eliza Santac Efesoco Concilioan Nestorio eregearen contra eraba qui zuanean Maria Virgiña zala ta deitu bear zala Jaincoaren Ama; orregatic esan dezaquegu, Aita gureaz ostera, (...), Ave Maria dala oracioric onena,..." (VI, 36.orr.).

"Orobat bada Jesu Cristoc ere igaro zuan bere Ama guztiz doatsuaren erraietaco araguaia, ez bacarric urratu edo idiqui bague, bere osotasuna galdu bague, ezpada garbiago, ederrago eta miragarriago largatzen zuala. Orregatic diogu Maria Jaincoaren Ama beti beti izan zala virgiña...." (VI, 50-51.orr.).

"Lenengo demonioa, nori deitzen zaion gaiztoa guizon-
en pecatuaren eraguillea dalaco, dabill gu bere mendean
paratzeco. (...) dabill gu tentatzen ta guri cerua gal-
erazteco aleguiñac eguiten, ta orregatic esaten diogu
Jaincoari: "libra gaitzatzu gaitzetic"." (VI, 30.orr.).

Balio kontzesiboaz:

"Pensa dezagun cembatec asitzen duen urte au edadea-
ren lorean, osasuna onarequin ta urte ascoan bici izate
co ichurarequin, eta orreoatic ezdira urte onen azquene-
co egunera irichico." (I, 68.orr.).

"Gucia usteldu, quirestu ta arrez betetaco gorputz
illa baño aguitz ichusiago eta fin gabe icaragarriagoa
da anima bat pecatu mortaleco estaduan. Mundu gucico abe
rastasun guciac, munduco gucién anditasun, onra ta mundu
gucico diversioac ezdioe quenduco, Jaincoaren beguetan
guztiz beltz, nazcagarri eta beraren gorrotoric andienaren
gai izatea; eta orregatic bici soseguz, parre equin ta
poztutzen da, eta jan ta lo eguiten da estadu guztiz izu
garri onetan!" (I, 146.orr.).

"Zuc gorputza ta anima dauzcatzu; gorputza ezda anima,
ezda anima ere gorputza; animac bere izate edo naturaleza
dauca eta gorputzac berea; eta ala, zure anima ta gorputza
gauza bi dira. Orregatic ere, zu etzera guizon bi, baicic
bat bacarra,..." (VI, 48.orr.).

"Eta Jaincoaren paciencia ta echedeteaz gaizqui balia tzen diran peccatarien castigua luzatze onec, gure iritzi an, Jaincoa orren erraz peccatuac barcatzetic atzeratu be ar balu ere, nai du orregatic orren erraz ta orren merque peccataria argana biurtzen dan guztian peccatuen barca cio osoa orri ematea." (VI, 99.orr.).

.....

(1) EUSKALTZAINDIA: Euskal Gramatika Lehen Urratsak III.
Lokailuak. 1990. 185-186.orr.

...GABEZ / BAGEZ

Berez lokailu ez den arren, balioz kausala delako sar-
tzen dugu hemen honako hau. Baiezko kausalitatea ("por")
-gatik-en bidez adierazten dugun bezala, ezezkoa ("por
no") gabez edo bagez-en bidez egiten zuten gure idazle
klasikoek. Hona Otaeguiaren esenplu batzuk:

"Gucien aurrean an irtengo dirala dio San Vicente Fe-
rrier-ec deseo guciac, itz guciac, ala esanac nola aditu-
ac, pauso guciac, eguindaco obra guciac ta eguin bear
eguin gabe utzitacoac edo norc bere obligacioac cumplitu
gabez eguin diran utseguiteac." (I, 3.orr.).

"An arguituco dira ardo gueiegui edanda ta vigiliac
gorde gabez eguiten diran gaiztaqueriac." (I, 4.orr.).

"Juicioco egunean Jaincoaren tribunalean icusico due
familiaco buruac eta gurasoac orain cer galtzen duen ta
besteai galerezotzen diocen Jaincoaren itza aditu gabez
edo beren carguacoac aditzera bialdu baquez." (I, 123.
orr.).

"Siñale oec dira oquer ta gaizqui ibilli arren, Jain-
coac aviso ta arguiric ez ematea, concienciaren quezca
ta arrac ez sentitzea ta quezca ta arr oriec sentitu
baquez, nola nai ta ardura bague pecatu eguitea." (I,
104.orr.).

ERE

Gehiagotan ere aipatu dugun E.G.L.U. III. Lokailuak (1) liburukia luzaki mintzo da ere lokailuaz. Hemen ez dugu horretaz ezer esango. Bai jasoko, ordea, aldi guzti etako literaturan, hain Iparraldekoan noia Hegoaldekoan, agertzen den eta egungo egunean ia erabat galdua den ere horren erabileraren kasu berezi bat; alegia, aditz nagusiaren eta laguntzailearen artean kokatzen denekoa. Honako hauek irakurtzen ditugu Otaeguigan:

"Aurreco doctrinan aditzera eman nizuen (...). Aditze ra eman ere nizuen berretan bear degula izan juzcatuac, ..." (VI, 71.orr.).

"Espiritu Santua pintatu oi da uso baten idurian (...). Ipintzen da iduri onetan ala aguertu zalaco Jordango ibaian Jesu Cristoren gañean; (...) Ipintzen ere da apos toluen gañean susco* mien idurian, ala aguertu zalaco beren gañera etorri zanean Pazcoa Maiatzecoetan. (...) Irudi onetan esan nai ere da Espiritu Santuac eguiten du ala bera artzen duenetan suac eguiten duana." (VI, 84. orr.).

*Sic.

(1) EUSKALTZAINDIA: E.G.L.U. III. Lokailuak. 1990. 35.orr.

.... HALA ERE

Esapide honek ere multzo honetan aipatzea merezi du. Ez da, noski, hala ere aurkaria; gaur gero esan ohi dugu askok horren lekuan. Esate baterako:

"Nekatua iritxi zen etxera, oso nekatua gero!"

Etxeparek ere soilaz adierazten du hori bera:

"Ieinkoak zuri eman dizi potestate handia,
Haren ama ciren guero ama ere maytia
Ceru eta lur orotan duçun hanbat valia
Cer çuc galde baytaquiçu den conplitu gucia."

(Etxepare, I, 413-417)

Ikus Felipe Agustin Otaeguioren pasarte batzuk:

"... ibili ote ditezque Jesusen ondoren ta gogozco po
bre zorionecoen artean? Nai badue, bai; ta arin ala ere."
(VI, 119.orr.).

"Gabetu ta usttu nai-det, eta bertatic ala ere, nere
biotz char au era orretaco ecer-ez edo gauza galgarri
gucietatic, zure amorez dana beteric guero uzteco." (VI,
121.orr.).

"Oraindañoan beti au ez eguiñaz degu damu, ta bene-
tan ala ere;" (VI, 127.orr.).

"Orain nic caguiquedana ca, lenagoco utsaz damuturic,
uts berriric ez eguiteco asmo on bat artzea. Artzen cét,
bada, bai gaur bertatic, eta pocic ala ere;" (VI, 161.
orr.).

"Ote zuan Judasec Jesusen etsai orien berriric? Bai,
ta asco ala ere; bada bacequian arazo andian cebiltzala
Jesus ill erazo naiez;" (I, 162.orr.).

4.2.3) Juntagailuak (aurkaritzakoak)

Bi perpausen artean gerta daitekeen kontrakotasuna edo aurkaritza aditzera emateko erabiltzen dira, jakina denez, BAINO / EZPADA / BAIZIK juntagailuak.

Hauek ez ditugu lokailuen artean sartu; alde batetik, baina lokailu ere izan daitekeen arren, beste hirurak be ti juntagailu direlako, eta bestetik, baina bera ez dugu lako hemen aztertuko, lokailu izan nahiz juntagailu izan, ez bait du Otaeguigan ezer berezirik esateko.

BAINO

Juntagailu hau ia beti bizkaitartzat jo ohi da gramatiketan. Ikus dezagun, esate baterako, Frai Bartolome de Santa Teresaren liburutik hartutako adibide bat:

"Nori Jauna, ceuri baino besteri esquinu neguijo nic, cartilla, edo liburu chiqui honetan lagunai opa deutse-dan prutu guichija?" (1).

Orain ikus ditzagun Otaeguiaren eskuzkribuetan agertzen diren esenplu batzuk:

"Zure zorigaiztoea ta erruquiena, bada ezdezu betico condenatzea baño beste erremedioric izango!" (VI, 82.orr.).

"Nola eguingo ezdezu bada orain, zure pecatuen barca-
cinoa irichitzeco (...) zu becela peccataria dan guizon
confesore bati esatea baño aguintzen ezdizunean?" (VI,
100.orr.).

"Erregue onec afal-ondoan maian cegoala, divertiten
ta peccatuan baño pensatzen etzuan demboran, icusi zuan
paretean...." (I, 105.orr.).

"Jaincoac eranzun cion: "an dauzque Moises ta beste
profetac, eta aec esaten duena eguitea baño ezdue"."
(I, 121.orr.).

BAINO esaldiaren amaieran:

"Venturaz arrotzen da gaizqui eguiñaz ta peccatuaz?
Ordea peccatuan ezdago desonra baño." (I, 16.orr.).

"... esaten badio Jauna arequin dala ta andre gucien
artean bedeincatua dala, Mariac eranzuten dio ezduala
beste anditasunic Jaunaren servitzariarena baño." (I,
18.orr.).

"Zure zorigaiztoea ta erruquiena, bada ezdezu betico
condenatzea baño beste erremedioric izango!" (VI, 82.orr.)

Bi azken aipamenetan beste agertzen zaigu baño indar-
tuz, hor goian kopiatu dugun Frai Bartolomeren pasartean
bezalaxe.

BAIZIK

"Badaquizue ta bein baño gueiagotan aditu dezue infer-
nuco tormentuetatic libratzeco bide bi baicic ezdala,
edo inocencia, edo penitencia;" (I, 47.orr.).

"... ta ezdira asmo orretatic apartatzen leice batean
goseac illerazteco ezpada, ta ezdue ortic ateratzen fede-
ric ezduenai saltzeco baicic." (VI, 22.orr.).

"Baña, norc eracutsi aldeiquegu ori bear becela egui-
teco modua, munduan umillatu ta cerura igo dan Jesu Cris-
toc baicic?" (VI, 64.orr.).

"Emendic ezagutu ezazu, bada, cristaua, (...) aranza,
quezca ta ar oriec ecin etorri litezqueala Jaincoagandic
baicic." (I, 25.orr.).

"Iñorc charqueriaric eguiten badie, ezdioela gorde
bear gorrotoric, baicic barcatu bear dioela biotz osotic
eguindaco gaitza." (I, 75.orr.).

Ikusten denez, azken exenplu honetan aurkako bigarren perpausaren buru-buruan agertzen da juntagailua, aurreko etan ez bezala, "baizikan libra gaitzazu gaitzetik" diogunean bezalaxe.

EZPADA

"... Evangelioac ezdigu esaten beragatic beste gauzaric, ezpada cijoala aciaz, ala urteetan nola jaquincurian Jainco ta guizonen beguetan." (VI, 54.orr.).

"Infernua da lecu guciz icaragarri bat, ceñean ezdago an beste gauzaric, ezpada sua, garra ta quea;" (VI, 113.orr.).

"Noizbait azpiratu edo garaitzen bagaitu tentacioac ezda aingueruaren faltaz, ezpada guc erori nai izan degu laco." (I, 13.orr.).

"Orain bada, balego zorra pagatzeco dirua artu nai ez duan bat, onec ezluque pagatuco bere zorra, ez guizon aberats aren faltaz, ezpada bere culpaz." (I, 127.orr.).

"Bada cerc aibeste bider paquea ecarri du aserre ta gorroto orien artean, umiltasunez eman diran pausoac ezpada?" (I, 17.orr.).

(*) ezpada (ezpadira?).

Ikusi batera eta azterketa sakonago baten faltan, esan behar guztiz balio berdinekoak direla hiru juntagailu hau ek Otaeguirengan eta bata dioenean bestea esan zezakeela.

Bestalde, azken adibidea oso interesgarria da: bate-tik, ezpada ez dago, gainerako exenplu guztietan bezala, aurkaritzako perpausaren hasieran, baizik amaieran; eta horrenbestez, duda du batek hor juntagailua den; beste-tik, adizkia ere ez da bete-betean, ezpadira esan behar-ko bait zukeen.

.....

- (1) FRAI BARTOLOME DE SANTA TERESA: Euscal-errijetaco ol-queeta ta dantzen neurrico-gatz-ozpinduba. "Jesu-Cristo Geure Jaun Gurutzean Josijari". Hordago, Donostia 1978.

4.2.4) Mendeko perpausak

4.2.4.1) Perpaus konpletiboak

Gramatika tradizionaletan agertzen zaizkigun perpausaren sailkapenak denok ezagutzen ditugu eta konpletiboak izenaz deitzen direnak zein diren ez dago azaldu beharrik.

Alabaina, konpletibo mota guziak ez dira berdinak guretzat; batzuk gaurkotasan handia dute eta beste batzuk, berriz, ia izkutatuak edo izkutatzear daude.

Horrela bada, -(e)la atzizkiaz bukatutako perpausak egun maiztasun handia dute eta, zer esanik ez, Felipe Agustin Otaeguiaren izkribuetan ere sarritan agertzen dira. Beste hainbeste esan dezakegu -teko / -tzeko-z amaitzen diren menpeko esaldiei buruz eta -tea / -tzea-z bukatutako gehienei buruz. Horregatik, gure tesilanean lan duko ditugun konpletiboak ez dira izango eguneroko hizkeraren arruntean eskuarki entzun ditzakegun erakoak, baizik gaur egun oso gutxi erabiltzen direnekoak.

Egungo egunean euskaldun zaharrek hitzetik hortzera darabiltzaten perpaus konpletiboak ez dute gure ikerlanerako interesik.

Ikus ditzagun, beraz, Otaeguiaren eskuzkribuetan agertzen zaizkigun konpletibo mota batzuk.

4.2.4.1.1) NAHI_IZAN-en_konple-
tiboak

A) Forma ez-jokatuak

Gaurko gazteei

askotan aditu ohi dizkiegu honelako perpausak:

"Mikelek kalera ateratzea nahi du"

Ez da erraza izaten askotan irakasleontzat horrelako bitxikeriak zuzentzea. Baina argi dagoena da NAHI IZAN aditzak bere errejimen propioa duela, hots, bi aditzen sujetoa (perpaus nagusiko eta perpaus konpletiboko aditz ena, noski) berbera denean, lehen partizipioa erabili be har dela; alegia, "Mikelek kalera atera nahi du".

Ikus ditzagun Otaeguik idatzitako pasarte batzuk:

"... naico luque pecatariac pecatu ori bere buruari ezcutatu, naico luque gaitzic eguin ezduala sinistu,..." (I, 24.orr.).

"... baña nai dezu ez galdu, naidez icaragarritzco ichaso onetan ez ondatu? Beguira eguiozu beti izar arguita eder oni." (I, 62.orr.).

Perpauis nagusiaren aditza NAHI IZAN ez, baizik NAHIAGO IZAN denean, ez da hain baterakoa idazle zaharren usarioa; esan nahi bait da, bi aditzen sujetoa berbera izanik ere, lehen partizipioa nahiz aditz izena aurkitzen ditugula maiz autoreetan. Hona pasarte polit bat, non Otaeguiak biak nahasi bait ditu elkarren segidan:

"Bada, -dio San Gregorioc- pasatu alic Cristotzat, naia-go izan zuan quelditu zan becela, guizonen aurrean andia gotzat iduquia izatea baño." (I, 15.orr.).

B) Forma iokatuak

Gaur egun Mendebaldeko hizkeran galduz doaz era honetako perpauis konpletiboak, hau da, NAHI IZAN-en perpauis konpletiboaren aditza subjuntiboan eramatenak. Hona hemen adibide batzuk:

"Elizac (...) icen santu orretan iduqui du beti bere confianza guztia ta icen santu orretan nai du ipini deza-
ten bere seme-alabac berena." (I, 88.orr.).

"... ta gauza orien bearra edo gabea duanari cerbait ematea da al duenac eguin bear duena, baldin nai badue
querta dacuien zorioneco erruquitsu emalle onetatic izatea." (VI, 140.orr.).

"Gabiltzan beti gure buruac ontzen ta ontzen ta lan orretan lagun deguegun al-degun lagun progimo guciai, baldin nai badequ eman daquigun emen atseguin andi garbi eder bat, eta guero bein ere bucatzen ezdan ta aguitz an di ederragoa dan ceruco gloria. Amen." (VI, 138.orr.).

"Beren Jainco ona biotz osotic amatzen duenac ezluquee nai iñorc eguin lequion* berari bidegaberico batere, ez eta bere gaiztaqueria ta bidegabeac gatic iñor galdu le- din ere." (VI, 131.orr.).

"Ah gogor charra! Eta naico cenduan zuc eguin cezaten zurequin besteac beste orrembeste, zu arquitzera oriec aldi orietan becin beartsu ta gabe?" (VI, 141.orr.).

Ohar gaitezen zein poliki gordetzen duen azken hiru adibideotan aditz moduaren komunztadura:

Oraina: "nai badequ....eman daquigun"

Alegiazkoa: "ezluquee nai...eguin lequion*"

Iragana: "naico cenduan....eguin cezaten"

*Sic.

4.2.4.1.2) Beste zenbait aditzen menpe
onduak

A) Forma ez-jokatuak

Zenbait aditzek zalantza agertzen dute euskalkien arabera, konpletiboaren aditza aditz izenaz moldatzerakoan zein kasu marka erantsi aditz izen horri. Hala dio kantuak:

"... zurekin ezkontzera
cudarik ez nuke."

Baina, hori Hegoaldean "zurekin ezkontzeko" kantatu ohi dugu.

Zalantza hori ikusten dugu konpletiboa txertaturik daraman perpaus nagusiaren aditza saiatu, belcur izan, icarra izan, e.a. denean:

-T(Z)EN

Belcur izan, lotsa izan, saiatu, animatu....-T(Z)EKO

-T(Z)ERA

-T(Z)EA

Ikus adibide batzuk:

"... baña enzunic Herodesen semea erregue sartu zala bere aitaren ordezt Judeaco errietan, bildur izan zan arajoaten." (VI, 54.orr.).

"Orobat anima ascoc, pecatu mortal edo larria animaren iltzallea dalaco igues eguiten badue ere, venial edo chiquiaz guchi bildurtzen dira; ala, animaco eriotza, ceñean pauso batean edo beingoan erortea chit bildur diran, guchi bana edo pausoric pauso vorondatez artu edo errecibitzera datoz." (I, 109.orr.).

"Lotsa izan zaite, bada, berriz pecatuaren bitartez demonioaren mendera biurtutzen; bildur izan zaitez zure anaia nagusi Jesu Cristoc zuretzat gorderic daduzcan ondasun ugariac caltzen;" (VI, 52.orr.).

"Lotsa baquera eguia eranzuten, San Pabloc eranzuten du gugatic;" (VI, 11.orr.).

"Baña saiatzen bacera besten aurrean ceran baño obertzat iduquia izateco, ezagutu ezazu etzerala eguiatz umilla." (I, 18.orr.).

"... saiatzen badira guri gorputzeco ondasunac iristeco eta gugandic gaitzaren perillac apartatzeco, cembat obeto saiatuco dira animaren oneraco ta ceruraco be- ar ditugun ondasunac iristeco?" (VI, 93.orr.).

"Onela elizaren asieraco cristauac cerua deseatz- zuen ta saiatzen ciran ori irabaztera betico ondasunen esperanzarequin." (VI, 111.orr.).

"Nere aleguiña guciac savatuco citut bigundu ta mugit-
tzera peccatariac dicha ta bendicio guciac oso ecarrico
dizten penitencia eguiazcora;" (I, 2.orr.).

"Ipintzen digu poz eta atseguin andi bat modu onetan
animatu gaitcan artu degun gracian egotera, icusiric pe-
catuaren mingoitztasuna eta graciaren atseguia." (I,
10.orr.).

"Anima gaitcan, bada, orrembeste ondasun ecarri bear
digan birtuteari equitera." (I, 34.orr.).

B) Forma jokatuak

Lehen aipatu ditugun
aditz horietako batek, beldur izan-ek, duen berezitasun
aipagarri bat aditzera emango dugu orain. Adizki horren
menpe dagoen konpletiboan, cein agertzen da aditz jokatu
aren aurretik. Hona hemen hainbat esenplu:

"Castigatzen det -dio- nere gorputza, cergatic nagoan
bildurrac cein besteai Jaincoaren itz santua aditzera
eman, ta ondoren neur condenatu nadin." (I, 47.orr.).

"...bildurrac nago, cergatic nola nagoan obligatua zu
en peccatuaz negar ta penitencia equitera, bildurrac naco
cein ez malcoric ta ez demboraric izan ezdezan nereaz
negar eguiteco." (I, 47.orr.).

"Contrara, chit bildur izateco da cein Jaincoac, norc eguin guinduan bera amatzeco ta servitzeco, gure pecatuen ta gure lotsagabetasunaren penan, beste edoceñi baño lenago bere gracia ucatu deguigun." (VI, 26.orr.).

"... ta icusi zuenean berariazco isilera, bildurtu ciran guciac, cein utzi cezan biciric Herodesec;" (I, 176.orr.).

Beldurrac econ eta beldur izan -ek duten bereizgarri berbera du icara econ adizkiak:

"... trumoia canean, icara dago cein, mereci duan becela, oñazcarrac bicitza cuendu ta infernura bota dezan;" (I, 192.orr.).

Garbi dago batetic cein horiek ez direla azentodunak. Laugarren adibidean irudi dakiok norbaiti hori ez dagoela hain garbi eta idazleak agian esan nahi izan duela cein (alegia, Jesus ala Barrabas) bizirik utziko zuen Herodesek, bildur izan zirela han zeudenak. Baina zalan-tza hori burutik uxatuko du ohartu bezain laster Pilatosek, ez Herodesek, izan zuela gehienez ere duda hori. Pasarte horietan cein inongo dudarik gabe atonoa da eta juntagailua, konpletiboa noski, bildur izan aditzaren konpletiboa, eta balioz Lapurdiko idazle klasikoen

"(erran zuen) ecen"-en parekoa. Ohar, gainera, bere erre
jimena duen adizkia subjuntiboan (condenatu nadin, izan
ezdezadan, ucatu dequidun, utzi cezan, bota dezan) dara
mala.

4.2.4.1.3) -(E)NA eta -(E)NIK

-(E)NA-z osaturiko perpaus konpletiboak, Azkuek bere hiztegian dioenez, esaldi nagusiaren aditza jakin, baieztatu, ezeztatu, uste ukan, sinistu, ikusi edo esan denean erabiltzen dira.

Otaeguik ere askotan erabiltzen du -(e)na; ez, ordea, -(e)nik, honetaz baliatzen deneko adibide bakarra aurkitu dugu eta.

Hortaz, idazle beizamarraren izkribuetan hauek topatu ditugu:

- -(e)na-z ondutako menpeko perpaus konpletiboak.
- -(e)la-z ondurikoak (esaldi nagusia ezezkoa nahiz baiezkoa izan).
- -(e)nik-ez osaturiko perpaus konpletiboa (jakina, aditz nagusia ezezkoa da hemen).

Hara zenbait pasarte:

"... ta juicioo egunean conciencia ori izango da zure contrario ta testigoric oquerrena ta aitor erazoco di zu pecatu eguin dezuna ta pecatutic irteteco izan dituzun avisoai eranzun ezdiezuna." (I, 28.orr.).

"Gure bicitza gucian acordatu gaitecen pecatu eguin deguna, baita ere penitencia gabe ceruan sartuco ezguerna." (I, 41.orr.).

"Job santuac esaten du: "badaquit nere Erredentorea bici dana ta juicioco egunean piztuco naizana; badaquit nere araguan ta orain daduzcadan beguiaguin nere Jaincoa icusico dedana."" (VI, 102.orr.).

"... anche igarri zuen jaio berri abereche edo portale zatar artan aiñ pobre cegoana guizona eta Jaincoazana;" (VI, 53.orr.).

"Jesusec eranzun cion: "certaco ibilli cerate nere on doren? Etziñaquizuen nere Aitaren cereguiñetan ibilli be ar dedana?" (VI, 54.orr.).

"Ez iñoiz bilcurric iduqui aingueru guardacoaren alce tic utsune edo faltaric izango dala;" (I, 13.orr.).

Bi azken exenpluok perpaus nagusia ezezkoa dute eta, halaz ere, batak -(e)na eta besteak -(e)la erantsi cio mendeko perpausaren adizkiari.

Beste ezezko perpaus honetan, aldiz, -(e)nik hautatu du Otaeguik:

"... ta esan cion itz oriec Erregueren contra ceuquen eriotzaco sententia gogorra. Baña etzion esan arrats artan bertan ill bear zuanic." (I, 105.orr.).

4.2.4.1.4) Instrumental_kasua-
ren_marka_osaturiko
konpletiboak

Menpeko perpaus konpletiboaren aditz ez-jokatuak maiz hartzen du instrumentalaren kasu marka perpaus nagusiaren adizkia lotsatu, oroitu, ahaztu edo horien antzeko bat denean.

Hona hemen Otaeguik darabiltzan batzuk:

"Eta zure bicitza pasatu gucian ezpadezu arguitzen certzaz lotsatu ta camu izan, ezdezu orregatic Jaincoaren aurrean umillatzeaz aztu bear," (I, 20.orr.).

"Oraindañocoan beti au ez equiñaz degu damu, ta benetan ala ere;" (VI, 127.orr.).

4.2.4.2) Erlatibozko berpausak

Atal honetara iristean, galdera batzuk aidean geratzen zaizkigula aitortu beharrean gaude.

Otaeguiaren sermoietan atentzioa ematen duen zerbaitez ari gara: berez galdetzaileak direnak atono bilakaturik lortzen dituen erlatibozko izenordainez. Harrigarriena, idazlea izenordain horietaz hain maiz baliatzea da, sarri eratzen bait ditu nonelako erlatibozko esaldiak:

"Azqueñic, guc lurretic esanaz ceruetan zaucena, aitortzen degu ceruco erri dichosotic, noraco equiñac izan guiñan, cesterratuac bici guerala..." (VI, 9.orr.).

"... ipiniaz beren mirarizco alabari mirarizco icen Maria, ceñec esan nai cuau andre goienecoa ta portura se guru caraman izarra." (I, 62.orr.).

"San Pabloc, norc aditzera ematen cituan obligacio oriec guztiac..." (I, 81.orr.).

Gaur ere ez da Gipuzkoako elizetan horrela mintzo den apaizik. Eguneroko hizkeratik horrenbeste aldentzen zen euskara erabiltzen ote zuen Otaegui ikandeko sermoietan Beizamako elizan?

Pentsa dezakegu liburuetatik ikasia zuen euskara zera bilela eta argitaratzeko asmoarekin saiatzen zela hizkuntza literarioagoa erabiltzen.

Baina hizkera literario hau sintaxiara bakarrik mugatu al zuen? Izan ere, deklinabidean eta aditzean ez du liburuetatik ikasitako formarik ipintzen, gipuzkeraz herriak esaten dituenak baizik (gizonak ekarri zuen: sujeta ergatibo plurala duela; guñaguicun eta antzeko aditz formak...).

Gainera, bere aurreko idazle gipuzkoar batzuek ere eratzen dituzte modu horretako erlatibozko perpausak

Ochoa de Arin-ek, esate baterako; honek, gainera, espreki adierazten du herri xehearentzat idatzi duela bere iana; hortaz, herriak ulertzeko moduko euskaraz baliatuz).

Ondorioz, hau al da Beizamako herritarrek garai hartan zerabilten euskara?

Beizamarra izanik ezin zezakeen idatz gipuzkeraz baizik; baina zer da gipuzkera? Ez dugu uste gipuzkeraren deskribapen zehatzik eginik dagoenik; are gutxiago Beizamako azpieuskalkiarenik.

Galdera hauentzat erantzun ziurrik ez badaukagu ere, gutxienez gure kezka ager arazi nahi izan dugu.

Ikus ditzagun adibide batzuk:

ZEIN (deklinatua)..... -(e)N

"Lenengo, gaitz espiritucoac dira animaren gaitzac, ceñec padecitzen cituan milla argaldade bere almen gucie tan." (VI, 31.orr.).

"Elizac icusi ditu batzuec, ceinzuec izan diran perse guituac, burlaz beteac ta desonratuac Jesu Cristogatic, ..." (V, 19.orr.).

"... orobat Jaincoac guri eman nairic sari ançi bat, ceña can betico bicitza ta cerua, ez ca izango arrazoi lenago beguiratzea cure penitencia bear becelacoa can eco ez?" (I, 45.orr.).

"Gauza ciertoa da sartu bear degula urte batean, ceñe-
tatic irtengo ez gueran." (I, 70.orr.).

"Oetatic lenen edo principalenac izan ciran amabi, ceñai deitu cien apostoluen icenarequin,..." (VI, 55.orr.).

"O ventaja ederrac, ceñen precioa ezagutzen duen zori onecoac!" (VI, 109.orr.).

"Ay pensamentu madaricatuac, ceñaquin deabruari ta pe catuari nere biotzean ostatu eman-nien!" (VI, 68.orr.).

"Ceruco gloria da convite bat, ceñera guztiac deituac diran;" (VI, 111.orr.).

"Orobat anima ascoc, pecatu mortal edo larria animaren illtzallea dalaco igues equiten badue ere, venial edo chiquiaz guchi bildurtzen dira; ala, animaco eriotza, ceñean pauso batean edo beingoan erortea chit bildur diran, guchi bana edo pausoric pauso vorondatez artu edo errecibitzera dato." (I, 109.orr.).

NOR (deklinatua).....-(e)N

"Contrara, chit bildur izateco da ceñ Jaincoac, norc equin guinduan bera amatzeco ta servitzeco,..." (VI, 26.orr.).

"Gaitz genero asco dira gu mundu onetan bucatu ta gal tzeco perillean ipintzen gaituenac. Lenengo demonioa, nori deitzen zaion gaiztoa,..." (VI, 30.orr.).

"Ez da erraz adierazotzea nola, izanic Aita benetacoa, norgandic datorren Seme benetacoa, Seme au izan litequean aiñ anchiñaco, cein da Aita;" (VI, 41.orr.).

"... bada izanic memoria igaroco gauzaz acordatzeco, ezdu bear Jaincoac, norentzat ezdagoan igaroco edo etorteco dan gauzaric,..." (VI, 48.orr.).

"... baña ezconzaco sacramentuaren gaia da gai bici bat, au da, guizonaren ta emacumearen gorputzac, norzuec obligatzen diran bata bestearen baiben ta onzat emateare quin;" (I, 81.orr.).

"Jaincoari escatzen cioguna da, bada, eman deigula graciaco erreinua, norequin, San Iucasec cion becela, erreinatzen duan Jaincoac anima justuetan.." (VI, 11.orr.).

NON.....-(e)N

NONDI.....-(e)N

NORAKO.....-(e)N

"... eta igaro zan Nazaretco errira, non bici izan zan Jesu Cristo amabigarren urtera eldu artean." (VI, 54.orr.).

"... eracusten cizuet arotz baten cencan, non nere bi citzaren gueiena igarotzen dedan;" (I, 16.orr.).

"... gure egunac igaro citzagun alaco eran, non ezgue ran bein ere aztutzen lurraren gañean gauden artean des- tierroan gudela ta gure deseoac joan bear duela ceru- ronz, noraco equinac cueran." (VI, 63.orr.).

"... bada jaquintsu guciac esaten due Jaincoac pecatu chiquien alderaco edo pecatu chiquiai beguiratzeco zabar tasun edo descuidoa castigatzen duala onelaco oztasunare quin obratzen duan cristaua larga ta desamparatuaz, nondic datorren pecatu pisu ta larrietan erortera." (I, 111.orr.).

.....

-(E)N atzizkiaz eratuak

Jakina denez, erlatibozko perpaus konposatua sortzeko bi perpaus behar dira, bietan izen sintagma bera errepi- katzen delarik. Perpaus bat bestean txertatzen denean, bi izen sintagma horietatik bakarra jartzen dugu:

1. "GIZONA erori da".
2. "GIZONA zure lehengusua da".
3. "Erori den GIZONA zure lehengusua da".

Bi izen sintagma horiek kasu berean daudenean ez dago arazorik; ez daudenean, baldin erlatibo bilakatu nahi du gun esaldiko izen sintagma, NOR, NORK edo NORI kasua ba- da ere ez. Ikus Otaeguiaren hauek:

"Confesatu ondoan bereala pecatuac seguitzen dion pe- nitencia da alperra ta probechu gabea." (I, 156.orr.).
(Hau da, penitentziari segitzen dio bekatuak).

"... consideratu bear degu Magencio cristauen perse-
guitzalleac, oriei Jesu Cristo ucatu-erazotzeagatic,
oriec luzaroago ta gaizquiago oñacez betetzeco asmatu zu
an tormentua. Guizon gogor onec aguindu zuan, martirioa
eman nai cion persona arpeguiz arpegui beste persona ill
baten gañean lotutzeco;" (VI, 104.orr.). (Hots, Magencio-k
persona bati eman nahi zion martirioa, ez norbaitek bera
ri).

Baina kasu ezberdinak izanik erlatibo bihurtua aditz-
lagun denean, gogorra egiten zaigu taxuzko perpausak mol-
datzea. Ez haatik icazle klasikoei. Haiek poliki asko
moldatuek cure beiarri sor eta gorrei ia min ematen die-
te, euskara ez balitz bezala.

Hara idazle beizamarrak idatzitako bizpahiru adibide:

"Pecatariac penitencia eguiten badu, -dio Ezequiel
profetac- bicitza izango du ta ezda illico. (...). Erreme
dio santu onez baliatu dira dicha andiarequin aimbeste
santu beren pecatuac borratzeco. (...). Manaseo , gauzac
bere gustora cetozquionean, pecatariac, Jaincoac ipini
zuan grilloetan topatzen du Bera bigundu ta bere alde
ipintzeco secretoa bere penitenciaco negarretan." (I,
43.orr.). (Hura ipini zuen, alegia, eta ez grilloak).

"Jesu Cristo da sacramentu orren autorea ta consagra-
dorea, ta nola santificatu dituan bataiatua izan zan
urac, orobat nai izan cituan santificatu deitua izan
zan eztaiac, orietan eguiten zuala bere lenengo milagrea."
(I, 80.orr.). (Hots, urak santifikatu zituen eta haietan
izan zen bataiatua, eta eztaietara deitua).

.....

Zuzen-zuzenean aurreko kasuei lotzen ez bazaie ere,
erlatibozko perpausa tartean dagoelako hemen aipatzea me
rezi du beste honek ere. Honela dio Otaeguik:

"Cer eguingo due seme-alabac -dio San Agustinec- gura
soac eguiten icusten duena baicic?" (I, 75.orr.).

Hori da egun ere Hegoaldeko euskaldun helduek esango
genukeena. Aldera bedi, ordea, Patxi Altunak Haranederren
gandik harturik aipatzen dituen hauekin:

"... ez du eguiten Aitari eguiten icusten dioena bai-
cen." (Jesu Christoren Evangelio Saindua, Jo. V, 19).

"... esperantça baitçuen icussico cioela cembait mi-
racuillu eguiten." (J.C.E.S., Lk. XXIII, 8).

"... norc sinhetxi içan du guri erraten aditu darocu-
tena?" (J.C.E.S., Jo. XII, 38).

Baina Otaeguiaren perpausak beste arazo bat ere mahai gaineratzen du. Haren hitzak parafraseatuz esango genuke "seme-alabek egingo dutela gurasoek egiten ikusten dutena". Hots, gurasoek gauza bat egiten dutela ikusten dute seme alabek eta hura egiten berek. Ez dituzte, beraz, gurasoak ikusten zerbait egiten, baizik haiek zerbait egiten dutela ikusten dute eta hura egiten, noski. Hortaz, irakurketa hau zuzena bada, horko gurasoak hori gurasoek litzateke euskara batuan, eta ez gurasoak. Hala al da? Eta gaur ez al genuke esango: "gurasoak egiten ikusten dituztena egingo cute seme-alabek"?

4.2.4.3) -(E)LAKO eta -(E)N -en bidez
lorturiko izenlagunak

-(E)LAKO atzizkiak bi funtzio bete ohi ditu sintaxian: aditzlagun eta izenlagun funtzioak, hain zuzen.

Aditzlagun funtzioa betetzean, kausazko esanahia duten perpausak ditugu. Perpaus hauek Otaeguigan ugariegiak ez badira ere, batzuk agertzen dira, eta ezagunak diren neurrian, ez ditugu aztertuko.

Alabaina, izenlagunaren funtzioa betetzen dutenak gaur egun ez dira hain arruntak, gipuzkeraz behintzat. Ez da batere ohizkoa gaurko gazteen ahotan honelako perpausak entzutea:

"Bihar azterketa izango delako kontua aditu dut"

Badirudi Otaeguiaren garaian maizago baliatzen zirela era honetako esaldiez. Hara esenplu batzuk:

"Biotzac -dio santuac- urtu bear du arguizaguiac bece la bere etsa'ac menderatu dualaco damu ta sentimentuarequin;" (T, 37.orr.).

"Non dira gure demboran Esdrasen demboran becela Jain coaren itza aditu, eta orren Aita ona ofenditu duelaco damu ta sentimentuz negar eguiten duenac?" (I, 123.orr.).

"Gauza oec guztiac ezaguturic, ipintzen du bere confi
anza guztia Jaincoagan, munduan cerequin pasatu ta guero
cerua emango diclaco esperanza osoarequin;" (VI, 33.orr.).

"Norc esan iitzaquean oriec bere biotzean Jesusec baño
asaldacio gueiago ezduala, ta bere anima Aita Jaincoaren
escuetan guelditu dalaco edo Jaunaren graciarequin illon
doan arcuituco dalaco uste osoarequin!" (I, 189.orr.).

Gaur egun hirtun batzuek honelako esaldiak osatu ohi
dituzte:

"Diru asko irabaziko zualaren esperantzarekin iharcun
zuen lanean"

Klasikoek, ordea, ez zuten genitibo honen beharrik
izenlagun funtzioa betetzen duen perpausa eratzeko, goiko
-lako horren pareko den -(E)N -ez baliatzen ziren. Ikus
dezaçun nola erabiltzen duen Otaeguik:

"Eguia au consideratu baguez erori ciran pecatuan Su-
sanaren castidadea manchatu nai zuen zarrac, ta Susana
apartatu zan pecatutic Jaincoaren aurrean cegoan oroipen
arequin, baca erabaçui zuan lenago bicitza galtzea Jainco
aren aurrean pecatu eguin baño." (VI, 9.orr.).

"Esan dedan gucitic ezagutu dezagun, pecatariari aranza, quezca ta arrac guelditzen zaizcan artean dala orren conciencia oraiñdic pecatuan gogorturic ezdagoan siñalea;" (I, 29.orr.).

"... etorri zaitetz zure animaren eritasun ta gaitzac sendatzeco laguntasun ta erremedio onac arqitu ta eido-co dituzun siniste oso ta fede bici batequin; Jaincoac berac sermoietan itzeguiten balizu becela;" (I, 124.orr.).

"Icusiric au gucia judu gogorrac, ta mendira baño len Jesus necatua illico zaien bildurrarequin, billatzen dioe norc lagundu gurutzea eramaten." (I, 180.orr.).

4.2.4.4) Baldintzazko perpausak

Baldintzazko perpausetan ez dugu gauza berezirik aurkitu, bat izan ezik. Gazteleraren kutsua ageri du ("... a no decírmelo tú"), baina hori ez zaigu axola. Izan ere, aditz izenari adlatibo atzizkia erantsirik adierazten du txitian-pitian baldintza. Ez da hori horrela egiten duen lehen idazlea. Ikus Mendibururen hau:

"Jangoicoaren lequeac escatzen duen guisan zuc au ez equitera, ez da zuretzat ceruric."

(Mendibururen idazlan arcitara ca-beak. I Tomoa, 71.orrialdea.)

Otaeguiaren esku izkribuetan hauek aurkitu ditugu, beste askoren artean:

"... guizonac beguiratzen dio bere buruari becela lenago beretzat arrotza zan emacumeari, ta emacumeac arturic senarzat lenago beretzat atzea zana, ematen dio bere gorputzean escubide bat izango etzuan ta cillegui dan bidez izan ecin cezaqueana, batac besteari era orretan ez ematera." (I, 81.orr.).

"... bada ecin iñorc gauza aec equin citzaquean, Jauna berarequin ezegotera." (VI, 56.orr.)

"... ta ecin niri iñorc quencuco dit dan zatiric chiquienic ere nere Jainco berac artaraco escuric ematen ez diola edo ari ori eguiten ez uztera." (VI, 159.orr.).

"Ezninduzuen orduan artu, ez zuec nai etzenduelaco, baicic ceren nic uzten eznizuen, ta gaur ere ni gabe itzulo lico ciñazquee ceren echeetara, nic neronec zuei nerau ar tzen ta lotzen ez uztera." (I, 172.orr.).

"Nere odol onequin ta zuen damuzco negarraquin zuen animac ez garbitzera, guztiz andiac dira zuen gañera eto rri bear duen gaitzac." (I, 181.orr.).

Baina ez pentsa aditz izena - adlatiboaren kasu marka baldintzazko perpausa ezezkoa denean soilik erabiltzen duenik. Baiezkoetan ere eskuarki agertzen da:

"... esan cioen: "ori biciric uztera, ezdiozu ongui nai Erromaco Emperadore zure nagusiari,.." (I, 178.orr.).

"... bacituquean alabaña Jesus maitagarriac, nai izatera, nai adiña ondasun ta gauza, ta guciac nai becelaco ac;" (VI, 120.orr.).

"... bada zuc au lenagotic ongui jaquitera, eguin izandu dezunetic beste bicitzaric eguingo cenduan, bai;" (VI, 137.orr.).

4.2.4.5) Kausazko berpausak

Arestian, 4.2.2) puntuan hain zuzen, kausazko lokailuak eta beren erabilera landu ditugu.

Ikus ditzagun orain menpeko perpaus kausalak.

Otaeguigan era askotako perpaus kausalak aurki ditza-kegu, gehienak oso ezagunak. Interesgarrienak bi eskema hauek jarraitzen dituztenak iruditzen zaizkigu:

A) ZER(R)EN..... -(e)N

B) ZERGATIK..... -(e)N

Lokailu kausalez mintzatzean esan dugu bakanak zirela adizkia -(e)ngabe zuten exenpluak eta ia beti horrenbeste lokailu ez baina menderagailuak zirela zeren eta zergatik Otaeguigan. Ez da esan beharrik adizkiak ez duela behin ere bait- hartzen, hori Hegoaldean ez bait zen era biltzen, -(e)n baizik. Hona adibide batzuk:

A) ZER(R)EN..... -(e)N

"... pobrezaric andienezan ezdu animoric galtzen, cerren mundu onetaco gauzai beguiratzen dien ezari bece la;" (I, 17.orr.).

"Lotsatu zaitez zure oraindañoco soberbiaz, cerren orrembeste gauza ta bidec umilla izatera obligatzen zaituen." (I, 21.orr.).

"Gañera esan diteque Ama Virgiña seme ascoren Ama da la, ceren cristau on guciac diran Jesu Cristoren anaiac;" (VI, 37.orr.).

"... eta cergatic ori? Cerren pecatu mortalean nagoan, ..." (VI, 92.orr.).

"Au fedeco eguia ca, eta ala ere badira cristau batzu ec ain itsuac, non demonioac engañaturic urte ascoan con fesio gaiztoac eguiten dituen, cerren confesoreari concienciaren bazter guciac eracusten ta pecatu guztiac oso orri esaten lotsatzen diran." (VI, 99.orr.).

"Argatic pena au gucien andiena da; onec neurriric ta caburic ezdu, ceren Jainco beti betico an galtzen danac ezduan. " (VI, 115.orr.).

"Bai, nere seme maitea, bai, bi gauza oriec zucen eguitera beartua zaude, ceren ceran gure semea ta ceren ceran Jainco amoriotsuaren legue zucenean ongui acia." (VI, 140.orr.).

"Cergatic abereai, soroai ta campoco gauzai botatzen diegu ur bedeincatua? Lenengo, ceren ur bedeincatuaren bitartez sendatzen diran personen, aberen ta beste edo-
cein gauzaren soiltasuna, ta ematen dien gauza guztiai ugaritasuna." (VI, 164.orr.).

B) ZERGATIK..... -(e)N

"Eguin dezagun, bada, penitencia, cergatic penitencia cabe ezdagoan barcacioric, ezda ere salvacioric." (I, 45.orr.).

"Bicitza onetan ezda eta ecin izan diteque pecatu mor
taleco estaduan dagoanarena baño dichagabetasun andiagor-
ric, cergatic cerutarren aurrean ecin da gueiago gaizqui
icusia dagoan;" (I, 93-94.orr.).

"Bai, nere Jaincoa, nere pecatuac ichasoco area baño
gueiago balira ere, zugaran bacarric esperanza iduquico nu
que, cergatic zu ceran nere arrimoa, nere amparoa ta ne-
re Jauna ta Jabea." (I, 115.orr.).

"Baña onela eguiten da egun oro cristauen artean ere,
cergatic ezduen consideratzen Jaincoac icusten cituana ta
presente dagoana." (VI, 9.orr.).

4.2.4.6) Perpaus kontsekutiboak

Bi moldetako kontsekutiboak aurkitu ditugu Otaeguirengan hemen aipatzea merezi dutenak, gure ustez. Moldea desberdina izatea honetan datza: biek dutelarik ezinbestean graduatzailea, gero mendeko perpausari abiada batean ece-k ematen dio eta bestean non-ek (diogun bidenabar Axularrek ere ecen eta non, biak da rabiltzala kontsekutiboak gauzatzeko). Badute, ordea, beste ezberdintasun txiki bat bi moldeek: ece-ren bidez oratzen direnek mendeko adizkia biluzik daramate eta non-en bidez oratzen dutenek -(e)n eransten diote mendeko adizkiari. Hau agian ez da beti horrela gertatzen, baina ia beti bai. Ikus ditzagun esenplu batzuk:

ECE-ren bidez osatuak:

"... eta alaco modutan argaldu ta indar bague uzten ditu oroipen onec, ece bertatic igues eguiten due, aiñ neque andia eman dien gurutzeta ez icusteagatic." (VI, 4.orr.).

"... eta alaco moduz lotsatzen du acordatze onec, aiñ argal uzten du, aiñ erquin, ece guelditzen da indar bague..." (VI, 5.orr.).

"Ezdago bacarric zurequin Seme Jaincoa, nor jancitzen dezun zure araguiarequin, baicic baita ere Espiritu Santua, noren eguitez dezun Seme ori, eta Jaincoa, norc sortu zuan Seme ori, alaco moduz, -dio santuac- ece Aita da go zurequin, bere Semea zure Seme eguiten duala." (VI, 37.orr.).

"... alaco virtute ta edertasunecoa da icen santu au, ece icendatzen dan gucian ceruac arguitzen dira, lurra alegueratzen da ta aingueruac gozodasunez betetzen dira." (I, 62.orr.).

"Pecatu mortalaren ichustasuna aiñ da ancia, ece ozta sinislezaque eguillea dala eguin baño len zan persona." (I, 145.orr.).

NON-en bidez osatuak:

"Ondo gogoan artuzazu sermoi onetan esan dizudana, ez dala umiltasuna baño gauza bearragoric; aiñ bearra, non orren falta ecin ecerc bete lezaquean; aiñ bearra, non orrec bacarric beste virtute guztien falta estali deza quean." (I, 21.orr.).

"Gure naiarequin batean, gure gogoac aiñ seguranza an diac ematen dizquigu, non zartu utsezco punturaño ezguelara illico iduritzen zagun." (I, 138.orr.).

"Maria chit santac munduan eguin dituan obrac izan di
ra aiñ merecimentu andicoac ta aiñ ederrac Jaincoaren au
rrean, non irichi duan anima ta gorputz aingueru guztiac
baño altuago ceruan jartzea." (VI, 36-37.orr.).

"Eta cembat demboran iraungo du zure iduri orrec? Zu
ispillu orren aurrean zauden guztia; alaco moduz, non
baceunde mundua asi zanetic eta bera acabatu arte guzti
an, anche egongo litzaque* zure iduria." (VI, 42.orr.).

"... gure egunac igaro ditzagun alaco eran, non ez-
gueran beñ ere aztutzen lurraren gañean gauden artean
destierroan gaudela,..." (VI, 63.orr.).

"... bera da guc ain obligacio andiac diozcaguna, non
bein ere ecin pagatuco diozcagun;" (VI, 98.orr.).

.....

(*) alaco moduz, non..... egongo litzaque: hemen litzaque-k
ez du -(e)n hartu, agian non-en ondoan baldintzazko
perpaua txertatua dagoelarik, juntagailutik urrun
gelditu delako.

Honako beste esaldi honek ez dauka bere baitan rigo-
roski kontsekutiboa dei dezakegun perpausa, moldea ere
lehengoena ez bezalakoa da: aiñ... ta... A partizipioa.
Halaz ere, formalki kontsekutiboa ez izanik, balioz oso
hurbil dagokio:

"Bialdu nic, ta ez guchiago ta ez besteric, ezpada ne
re seme bacar maitea (...), ta mundua aiñ zoroa, aiñ jui
cio gabea, ta ari pagu ori eman?" (VI, 72.orr.).

4.2.4.7) NOLA..... -(e)N

HAIN..... ZFIN DA X

Euskalki guztietan eta garai guzti etan ezagunak dira hain literaturan nola herriko hizkeran batzutan kausal balioa eta bestetan moduzko soila, eta inoiz konparaziozkoa duten molde honetako perpausak:

NOLA..... -(e)N, HORREGATIK....

NOLA..... -(e)N, OROBAT....

NOLA..... -(e)N, HALA.....

Otaegui bere baditu horrelakoak. Hemen ez ditugu bizpahiru baizik ipiniko:

"Baña nola beti gure pretensio guztietan Jaincoaren onra ta servicioari dagozcan gauzac escatu bear ditugun gure probechuraco dirac* baño lenago, orregatic lenengo iru escariac dagozca Jaincoaren onrari ta ondorengo laurac gure ta gure lagun progimoaren onari;" (VI, 10.orr.).

"Icen ori da salvacioco icena ematen digun confianza-gatic; nola bicitzan dan gure esperanza, orobat gure eri otzaco trancean izango da gure confianza." (VI, 44.orr.).

*Sic.

"Bada nola bataioa bearra dan pecatu jatorrizcoa ta bataiatu baño lenago eguindaco pecatuac barcatzeco, ala penitencia da bataio bat uso arrazoizcora allegatu ezquero eguindaco pecatuac barcatzeco..." (I, 42.orr.).

.....

Bada, ordea, horien ondoan beste molde bat, ezein gramatikatan aipaturik aurkitu ez duguna. Konparaziozko per pausa adierazten du, dudarik gabe; hala erakusten digu geure euskal senak, baina moldea ez genuen orain arte beste inon irakurria.

Sei exenplu bakarrik aurkitu ditugu. Horietako bosten eskema honelakoa da:

HAIN....., ZEIN DA X

Ez pentsa, haatik, da hori adizkia denik. Izan ere, seigarren adibidean X horren lekuan adizki bat dugu: diran. Beraz, da ezin izan daiteke aditza. Zer da hortaz? Ikus sei pasarteak:

"Seme au aiñ da andi, aiñ Jainco, aiñ anchiñaco ta be ticoa, cein da Aita bera." (VI, 41.orr.).

"Ez da erraz adierazotzea nola izanic Aita benetacoa, norgandic datorren Seme benetacoa, Seme au izan litequean aiñ anchiñaco, cein da Aita;" (VI, 41.orr.).

"Orregatic, izanic Aita beticoa, beti Aita izateco, beti iduqui bear zuan Semea; eta orra cergatic dan Semea aiñ anchiñaco, cein da Aita." (VI, 41.orr.).

"... bada ceru lurren Jauna beti beti izan da; ecin iñorgandic ecer artu lezaque; aiñ andi, aiñ aberats, aiñ guztiz altsu edo poderoso izan zan guizona eguin baño lenago, cein da guizona eguin ezquero;" (VI, 48.orr.).

"Etzituan urratu, ezta idiqui ere, Amaren erraiac, eretatic mundu onetara irteteco. Aiñ osoric gueratu ciran jaiotzen zanean eta jaio ezquero, cein da jaio eta sortu baño lenago,..." (VI, 50.orr.).

"Izanic, bada, Espiritu Santua Aitac eta Semeac alcarri dioen amorioa, ain anchiñaco izan bear du amorio onec, edo Espiritu Santuac, cein da diran Aita eta Semea." (VI, 83.orr.).

Zer da sei pasarte horietako da, cein-en ondoan seietan kokatua? Egingo genuke (e)ta > da dela, oroiturik eta maiz hurbiltzen zaiela beste juntagailuei (non eta, noiz eta...) haien funtzioa sendotzeko.

Cein bestalde, ez da esan beharrik ez dela bildur izan-en zenbait konpletibotan aurkitu dugun (gure ustez) ceren-etik sorturiko juntagailua. Hemen aurreko ain-ek erakusten du konparaziozko ezaguna dela.

4.2.4.8) Partizipio perfektoaz baliatuz lor
daitezkeen txertakuntzak

Partizipio perfektoa erabiltzen du
gu, Patxi Goenagak dioen bezala (1), zehargalderetan.

Esate baterako:

"Badakit nori esan"

Sarritan honelako perpausak mugatzaile eta guzti ager
daitezke:

"Badut nora joana"

Baina perpaus nagusia ezezkoa denean, perpaus txerta-
tua partitiboan ager daiteke, kontutan izanik perpaus
txertatu hauek perpaus nagusian UKAN aditza eskatzen du-
tela:

"Badut zer ikusia" --- "Ez dut zer ikusirik"

Hauetan ukan aditzaren osagarri zuzena da perpaus txer-
tatu, "Badut etxea" eta "Ez dut etxerik" bezala. Baina
beste honako hauek ez dira juxtuki halakoak. Ikus Mendi-
bururen hau:

"Ez da zuc cer erantzun; ecusten degun gauza da"

(M.I.A.G. I. Tomoa, 7-3)

Gaur guk ditugun ikasleen artean maizago aditzen ditu gu, zoritxarrez, beste era honetako esaldiak:

"Ez dugu zertan pentsatu beharrik"

"Ez dugu zertan pentsatu behar"

Ikus dezagun Otaeguiaren eskuzkribuetan nola agertzen zaigun:

"Ea, gure dolore ta damuaren siñaleac izan bitez gure lantu ta suspirioac; negar eguin dezagun gogotic, bada badegu cercatic negar eguin;" (I, 41.orr.).

"... nola ezninduzuen artu ta loturic eraman, ceren gogoac ematen cizuen, presondeguira? Orduan au eguitera, etzenduen cer ibilli zabiltzaten becela gau illun onela-coan." (I, 172.orr.).

"Ezda cer zu aserratu zure etsaiac,edo pareteac urratu ta besteren ganaduac zure sor oan, zure labaquian edo zure barrutian sartzen diranean;" (VI, 158.orr.).

"... baldin Mariac laguntzen badigu, ezdegu cer bildur izan;" (VI, 168.orr.).

4.3) HIZTEGIA

Guk dakigunez, Felipe Agustín Otaeguiaren obra guztiz ezezaguna da. Hein berean, haren hizkera eta hiztegia ezezagunak izango direla ondorioztatu dugu.

Tesilanean zehar adierazi dugun bezala, gure iritziz, Otaeguiaren hizkera beizamarren hizkera izango zen, neurri handi batean behintzat. Horrela bada, dialektologia mailan izan dezake zer esanik beharbada aurrerantzean.

Otaeguik darabilen hiztegia hiru zatitan banatu dugu:

- 1- Hitz zerrenda.
- 2- Hitz konposatu eta eratorriak.
- 3- Esapideak:
 - A) Aditza dutelarik ardatza.
 - B) Bestelako esamoldeak.

Horretaz gainera, eta eta edo junteagailuez elkaturik agertzen diren hitz bikoteak ere gehitu nahi izan dizkiegu goiko zerrendei.

Hiztegiari dagokionez, esan dezagun jaso ditugun hitzen artean batzuk ez direla hain ezezagunak, baina aldi berean ez direla gaur eguneroko hizkeran erabiltzen ditugunak. Adibidez: oñazcar, eido, iracecui, orchicatu, somin, labaqui, lacin, e.a.

Hitz zerrenda honetan neologismo edo hitz berri batzuk ere jaso ditugu; hauek ezagunak dira, Larramendiren hiztegian agertzen baitira. Hortaz, norbaitek esan dezake ez direla beizamarrek erabiltzen zituzten haiek berak.

Hori horrela izanik ere, arazo hau ez agertzea edo izku-
tatzea, Otaeguiaren garaian zegoen kezka linguistiko bati
uko egitea izango zela iruditu zaigu.

Badakigu Larramendiren ondorengo idazle guztiek hartu
zutela jarrera bat edo beste etimologismoari zegokion bu-
ruhaustean, edota guztiek bederen bereganatu zituztela
Larramendik asmatutako hitz batzuk.

Otaeguiak haren hiztegitik hartu zituen berrikeriak
oso gutxi dira, egia esan, geroko gehienek hartu zituzten
ak bezalaxe. Esango nuke ez zirela bi dozenatara iristen.
Areago, Larramendik berak ere ez zituen bere hiztegitik
bi dozena baino hitz berri gehiago erabiltzen. Asko izan
edo gutxi izan, halere, aski dira hitz berriak Larramen-
diren iturrian xurgatuak zituztela erakusteko, hala nola:
almen, beticotasun, doaiquesneñi, e.a.

Ezin esan Otaegui horrelakoetan gehiegi nabarmendu
denik; maiteago ditu hitz konposatu eta eratorriak eta
hauek darabiltza erruz.

Hori dela eta, Otaeguiak garaiko joera eta modu berri-
ak hitz konposatu eta eratorrietan nola erabiltzen ditu-
en adierazteari aberasgarria deritzogu. Esate baterako:
escuarma, echeleor, aurquite, asmolari, ibilquizon, e.a.

Euskal esapideak sailkatzea ez da batere lan erraza;
sistema bat aukeratu beharrean aurkitu garenez gero,
aditzaren arabera banatzea erabaki dugu, goraxeago aipa-
tu bi sailak bereiziz.

Juntagailuez loturiko hitz bikoteei begira, badirudi eta-ren bidez lotzen dituela sinonimoak diren hitzak.

Adibidez: trucada ta suertea, iraupen ta sobortu, e.a.

Hitz berri bat aditzera eman nahi duenean, Otaeguik ez du zuzenean adierazten, aldamenen hitz ezagun bat ipiniz baizik. Halako kasuetan edo-ren bidez elkartzten ditu hitz ezaguna eta berria: escucotasuna edo liberta-dea, estomagoan edo egostoguan, e.a.

Zailago baitzen aukera egitea ia guztiak hartzea baino, eta aukera egiten hasiz gero baztertuko bait genuen ez baztertzekoren bat, etsi-etsian hezeak eta iharrak hartzea erabaki dugu, egon behar ez luketenek inori kalte egiten ez diotelakoan.

Gure korpusa bi ale edo tomok osatzen dutenez gero, bien zenbakiak (I eta VI) behin eta berriz hitz zerrence tan ez errepikatzearren, honela adieraztea erabaki dugu: I tomoko hitz bat agertzean, hitza, orrialdearen zenbakia eta gidoi txiki bat azalduko dira; esate baterako:

atze 81-

Hitza seigarren alekoa denean berriz ez dugu zeinu be rezirik jarriko:

aditu 83

H I T Z Z E R R E N D A

-A-

acabilla 75
 ac(i) 34
 achi(tu) 31
 adia 6-
 adi(tu) 83
 adreza(tu) 63
 aguinte: 1. burupe 101-
 2. agintza 117-
 aguitz 165-
 aiena(tu) 85
 aingura 142-
 ai(tu) 79-
 alaja 69
 albiñ 182-
 aldarte: 1. barnegiro 124
 2. egokiera 124
 aldiac 142
 aleguere 31
 ansiatu 63-
 aol 51
 aol(du) 16
 araco 47
 arazo 6
 arica(tu) 9
 arraio 108-
 arras 117-
 asnase 135
 ats 74
 atsedete 61
 atze 81-
 aurreracoan 37-
 ausardia 10
 ause 19
 autu 2-
 auzi 63
 ayaeraco 189-
 aydeac 31
 azar(tu) 12-
 azau 103-
 azkar(tu) 11-

-B-

baga 142-
 bao 108-
 barrumbe 15, 95
 barruti 159
 bart(anic) 188-
 bat(u) 51
 bear 14, 92-
 beazun 126-
 bederic 67-
 beguiratze 156-
 ben 83-
 beraa 182-
 berach 182-
 berariaz 16
 berretan 65, 71
 bertatic 41-
 bestera 3-
 beta 133-
 bideco 118
 billau 43
 biribilla(tu): 1. bildu
 165
 2. erakarri
 32
 3. eskuratu
 82-

-C-

caco 5
 canibit 135
 cascarabar 165
 cea(tu) 136-
 cerraldo 68-
 chincharri 166
 chingar 108-
 chingura 135-
 ciega 113
 contuzco 62-
 cuticia 101-

-D-

damuric 184-
 demboral 74
 diosala 9
 doay 69
 dollor 156

-E-

echeden 99, 115-
 echola 16-
 echon 26, 63, 8-
 eido 10-, 122-, 60
 embarazo 45, 84-
 emendic 103-, 144-
 eracuste 186-
 erdoi 63
 eremu 55
 eri 31
 ermu 8-
 erquin 5
 erqui(tu) 44
 errai 47
 errebes 149
 errierta 152
 escu izan 36
 esnai 90-, 26
 espacioz 6
 etzin 10-, 16-
 eza(tu) 67-
 ezcutu 49
 ezquilla 166

-F-

fiel 44-

-G-

gabe 141
 gainez(tu) 62
 gaizqui 149
 gallen(du) 26, 45
 gaurguero 149
 gaztetanic 65
 guchiasco 109-
 guchibana 108-
 gucial 101
 guicen 39-
 gurari 74

-I-

icharon 12-
 icheden 12-
 ichedon 100
 intziri 75
 iracequi 46, 60, 112
 irazo 142-
 irich(i) 7
 irints(i) 67-
 irita 103-
 iscur(tu) 89
 isequi 128-
 ista 167-
 itsats(i) 67-
 itute 112-
 izardi 14
 izurri 124

-J-

jach(i) 51
 janci 15
 jardun 26
 jarduqui 159
 jarraio 17-
 jostatze 129

-L-

labaqui 159
 larga 31
 lazo 69
 leguen 92-
 len 120-
 len(uo) 58-
 letradu 35
 lisiba 199-
 locatz 85
 lollo 102-
 lurrin(du) 39-

-M-

macur(tu) 32
 mastrica(tu) 61, 83-
 matralleco 126-
 mataza 123-
 meneno 109-
 mii 185-
 miñ 40-
 mirabe 58-
 mirari 73-

-O-

oar(tu) 40-
 ongui 172-
 onore 160
 ontarte 147, 64-
 oraindic 29
 oraingotz 16-
 ordi 83-
 orroa 75
 osotoro 109
 ozpin 126-

-P-

para(tu) 96
 perellezco 62-
 perill 10-
 perrara 79-
 piztia 114
 portitz 75
 premia 94
 prest 143-
 prest(egui) 160
 progu 165
 pueblo 47-
 puzunia 103

-Q-

quera 69-
 quirets 6-

-S-

sandia 57-
 sarritaco 62-
 soladu 101
 somin 51
 sorayo 92-
 sumindu 75

-U-

ubelde 124
 ucui(tu) 101-
 ugui(tu) 91-
 urcabi 98
 urcobi 24-
 urlia 57-, 66
 ur(tu) 80-
 utseguin 56-
 utseguite 149-

-V-

vidrigu 50

-Z-

zumu 92
 zurrupa(tu) 83-

H I T Z K O N P O S A T U A KE T AE R A T O R R I A K

-A-

abereche 53
 adarpe 108-
 alcardasun 82-
 aldera(tu) 171-
 alderri 36-, 42-
 aldun 8
 alequeratasun 51
 almen 31
 amilca 136-
 amoriotsu 56
 amparatzall: 45
 andientza 8
 andinai 110-
 andizqui 8
 aoldade 101-
 ara(tu) 125
 arazo(tu) 75
 argaldade 31
 argaldasun 7
 argui-ezquilia 39, 167
 arintza 162-
 arrastaca 58-
 arriesca(tu) 4-
 artara(tu) 81-
 asaldacio 189-
 aserretasun 62-
 asipen 104
 asmolari 4
 astasun 63-
 atseguintasun 110
 atsqueria 57
 atzeracuntza 127-
 aurquite 51
 ausapai 67-
 ausicor 137-
 auspe 86-
 auzilari 68
 azgarri 6

-B-

baiben 81-
 bakantasun 15-
 baliamentu 36
 barau(tu) 39-
 barren(du) 115
 barrun(du) 6-
 bearsari 196-
 beartasun 120
 beeratzepen 59
 beetitasun 60
 beguibacoitz 103
 beraatasun 70
 bere(tu) 87-
 berezca(tu) 84
 berri ecarle 87-
 berrizcatura 136-
 berrizcotu 156
 bestera(tu) 87-
 betedasun 36
 betegai 125
 beticotasun 105
 bicilecu 14
 bidebague 45-
 bidegabe 125
 billagarri 133-
 biotz jotze 27-
 biotz mucuitze 105-
 birauguille 135-
 bizitza modu 133
 bostoñaza 108-
 bostortz 196-
 buru-jauci 75
 burutacio 83-

-C-

campoalde 38-
 cargape 131
 cargudun 179-
 carrascadaca 130
 carrascaraco 92-
 catamotz 135-
 chocarrerria 111-
 comparacio 83-
 costutsu 45-
 culpagabe 167-

-D-

danuguille 164
 demonioca 76-
 desalai(tu) 39-
 desleialtasun 77-
 dichagabetasun 146-
 difuntutasun 146-
 diñatasun 45
 distiacio 62-
 doacabe 124
 doaiesqueñi 93-, 9
 doatasun 146
 doatsutasun 147
 dollorqueria 3-
 doncellatasun 37

-E-

ecerezqueria 68-
 echelegor 15
 egarriti 134
 egon modu 56
 egontegui 12, 82-
 egostogui 91, 121-
 emalle 38
 emanaitasun 108
 eralle 25-, 97
 eramanquizun 2-, 80-
 erbestetasun 63
 erbeste(tu) 51
 eriotzaguille 177-
 eriotzaguite 29-
 eritasun 13
 erlijogabetasun 117-
 erortoqui 113-
 erospen 3, 39
 erregarri 198-
 erreguina gai 74
 erruquitasun 139
 ersugue 146-
 esan-ezgarri 4, 87-
 esanbide 153-
 escargatasun 127-
 escucotasun 13
 escupe 54
 esquergabetasun 7-
 estura 13-
 etorqui: 1. jatorri 142
 2. arraza, leinu 36

etsai aldi 152
 etsai-era 152
 etsai-pelea 154
 ezaldi 64-
 ezdiña 14-
 ezdun 141
 ezetasun 92
 eziñeguiñ 31
 ezquilla-soñu 166

-F-

firmetasun 48-

-G-

gaitzets(i) 37-
 gaitzguille 176-
 galbide 163-
 galerazo 58-, 63-
 gambianza 39-
 garagar ogui 120
 garaitondo 61
 garbidun 148
 garbitegui 11-
 gogoracio 85
 goititasun 146-
 goiti(tu) 64
 gorde gay 146-
 gordegarri 4
 goseti 134
 gozodasun 5-
 guere(tu) 200-
 guerralari 91
 guiza-aldi 141, 151

-I-

ibilquizun 192-
 icaracor 104-
 icastegui 95
 ichascor 27
 ichaspen 84-
 ichi-idiqui 109
 icuscari 60
 icustegui 177-
 iduripen 114
 iguestegui 37-, 50-
 ildura(tu) 99-
 illcor 31
 illezquizun 60, 112

illgai 176-
 illjanci 68-
 illtzalle 177-
 illuntasun 63-
 ioratzalle 115-
 irabazbide 85, 161
 iritari 103-
 isilera 176
 itzaste 9
 itzgai 87-
 itztun 88-
 izandun 142
 izupen 63-

-J-

jabegai 98-
 jabetasun 147-
 jainco-guizon 162-
 janari (tu) 16
 jaquiunde 177-
 jarlecu 168
 jarquitasun 61-
 jayeterri 112, 110
 jayotegui 120
 jazcai 49
 jazcai 199-
 joan-orcu 58-
 jcstacueta 39-
 juntaera 104

-I-

laburtasun 141
 laceria 96-
 lan modu 154
 larre abere 75
 logreria 117-
 loi-pitsac 161
 lotsaguera 84-
 lotsaqueria 24-

-M-

macurera 85
 macurtasun 27
 maiservitzari 79-
 maitagarritasun 147
 maitatzalle 147

marmario 183-
 merecimendu 35, 127-
 mingoitztasun 10-
 mintasun 138
 mirets(i) 97
 mugaarri 108

-N-

naguitasun 21-
 necacor 167-
 necadi 8-
 necoso 42-, 135
 negar-dembora 130
 negar-ondasun 130
 neque-eramalle 161
 nequepe 121
 noralce 7-

-O-

odolicerdi 166-
 ondonai 37, 51
 onesgarri 145
 onguille 12-
 onguinai 12-
 onguite 68
 ontasun 70
 oñazcar 81
 oñazpico 61
 oñaztarri 75
 orchica(tu) 116
 ordiqueria 26-
 orretara(tu) 120
 osasuna 21-
 osotasun 51
 ostalari 199-

-P-

palaga(tu) 154
 pecatupe 154
 peleatuquizun 28
 piztu ordu 104
 pranquea(tu) 39

-S-

salbide 163
 salduqueria 43

salequeria 11-
 sarnati 8-
 sarnatsu 55
 seme-alabac 75-
 semetasun 49
 sendagarri 6
 seniparte 68-
 sermonari 15
 sinisezgarri 128-
 soberbioso 40-
 socorri(tu) 33
 soiltasun 164
 sufriquin 47-
 sufriquizun 32

-T-

tolesgabe 83
 tolestura 147
 tropelca 87-
 trucada 72

-U-

urraezgarri 81, 6-
 urrera(tu) 187-
 urtesari 196-
 ustelcor 105-
 usteldasun 22-
 ustudasun 7-

-Z-

zabalidasun 25-
 zardasun 115-
 zoragarri 103-
 zorigaizto 108
 zucentasun 2-

E S A P I D E A KADITZA DUTELARIK ARDATZA

-A-

(abiatu) -- erausian abiatu 176-
 (alderatu) -- gogoa alderatu 57-
 (aurkitu) -- goseac, egarriac arqutu 141
 (harritu) -- zure artean arritu 63-
 (hartu) -- aotan artu 89-
 -- beguitan artu 121
 -- utsean artu 108-
 (haserretu) -- ez da cer aserretu 158
 (atera) -- guezurti atera 153-

-B-

(baldatu) -- perlesiac baldatu 92
 (begiratu) -- gogo gaiztotic beguiratu 27-
 (bidaldu) -- Jaincoagana bialdu 20-
 (bilcu) -- etzuan nora bildu 120
 (bihurtu) -- ecera biurtu 106-
 (burutu) -- garia burutu 103-

-E-

(eduki) -- alcarrequin ondo iduqui 84-
 -- ecer ez batean iduqui 182-
 -- ecertan ez iduqui 28-
 (egin) -- agur andi bat eguin 122
 -- bearra eguin 14
 -- apa ta muñ eguin 119
 -- iñori escumuñ bear becelacoac eguin 132
 (egon) -- beti batean egon 113
 -- bildurrac egon 47-
 -- egarriac egon 3
 -- icara egon 88-
 -- otzez icara egon 166-
 (eman) -- aicen contra eman 62-
 -- aiceac uts eman 197-
 -- ansiac eman 67
 -- balioa baño gueiagoan gauza eman 4
 -- batalla eman 93

(eman) -- buca eman 16-
 -- larriac eman 67
 -- ondonaez eman 120
 -- sarlecuric eman 9-
 (eraman) -- amilca eraman 136-
 -- gogo onetic eraman 106
 (erasan) -- charqueriac, lan gaiztoac... erasan 123
 (eskuratu) -- berotasunac escuratu 15
 -- griñac escuratu 100-
 -- -ren gaiztaqueriac escuratu 144
 (etorri) -- gauzac bere gustora etorri 43-
 -- alcarrequin ondo etorri 26-
 (etxeratu) -- laboreac ondo echeratu 93

-G-

(galdu) -- iñori beguitarte ona galdu 186-
 (gelditu) -- amatzetic guelditu 133
 -- caltear guelditu 141
 (gozatu) -- asarretasuna gozatu 150-

-I-

(ibili) -- eranzuquetan ibilli 123-
 -- erorca ibilli 118
 -- galduaren eran ibilli 135
 -- ortza ibilli 161
 (iraun) -- beti batean iraun 15-
 (izan) -- ez degu cer bildur izan 168
 -- escu izan 36
 (izarditu) -- odola izarditu 106-

-J-

(jo) -- queda jo 168

-L-

(libratu) -- indulgenciac libratu 166

-O-

(ohitu) -- uztarrira oitu 84-

-S-

(sartu) -- icara sartu 161

(sartu) -- matazac lisiban sartu 199
 -- sasi gaiztoan sartu 175-

-U-

(ustu) -- -tatic gabetu ta ustu
 (hutsegin) -- burua utsegin 171-
 -- bidea utsegin 62-
 (utzi) -- arri bat arri gain ez utzi 132
 -- icara utzi 161
 -- iñor bague utzi 140
 (zuritu) -- ariac zuritu 199-

BESTELAKO ESAMOLDEAK

-A-

aguitz minduric 161
 aguitz illundu 165-
 aita ustecoa 73
 alcarren on iritziz 81-
 alic ondoen ondoena 143
 amatze utsaren toquiria 132
 ambat lasterren 10-
 araco santu andi aetatic 18-
 araguiaren gutiziac 80-
 arintasuneco doayez betea 59
 arquitu zertan pentsaturic asco 4
 arriescatu estutasunera 4
 atsegin dugu zu icusteaz 132
 aur-aurretanic 75-
 aurrera bialdua 14-
 aurrez aurre 104

-B-

baña nola asco ez dan 7
 barrera orchicatu 116
 bat bateco eriotza 32
 batera nai ezic bague 13
 bearzunic bearrena baño aguitz bearrago 120
 bein ere gueiago 48-
 bein edo bein 76

beingoan esateco 127
 beiñic bein 152
 berandutic beranduraco...confesioac 171-
 berariazco ibillera 176-
 berealaco batean 61
 bere par guchi duan andreac 83-
 berebat iritzi 177-
 berenez eta izatez erreguca dagoquoio 184-
 beroac erreric 56
 bertan gaurdanic 144
 betazal bat cimurtu gabe 122
 bide gaiztoz biribillatuac 15
 bide onezco nequetan 159
 bidea danean 76-

-C-

cein atzera! 57
 cembat bacoch aterata 167-
 cerc edo cerc 164-
 chit nequez baño ecin
 conturic andienac 27
 costa dediña costa dedilla 111
 cumplitu gabe 3-

-D-

damuaren damuz 94-

-E-

ecin gogorquiago 126
 egoquiro itzeguin 60
 eguin dezunaz beste 137
 eguin dezunetic beste 147
 egun iguzu eguneroco oguia 14
 eragotzitaco frutua 43
 eraso portitzac 33
 erruquitasuneco negarrac 132
 erruquizco negarrac 13
 escuca loiac 28-
 esqueca egon 159
 esquergabeco eran 124
 etzitzaiion asco izan 4
 ez da asco 110
 ez da ondo 83-
 ez egunez ta ez gabez dauca atseguñic 10-
 ez guchiago ta ez beneric 72
 ezconzaren ipiñera 80-

-G-

gabe gucia 119
 gaitzeraco macurtasura 148
 gaizquiz gaizqui 144
 galda beticoaquin 114
 garrochaz minduricaco cecena 124
 gau logalduen artean 57
 gaurguero 149
 gueiagoco gabe 101
 gueiagoren gueiago 5-, 98-
 guerotic guerora gueiago 136-
 gogo gaiztotic 93-
 gogo onetic 117-
 gogoracio uts 124
 goitutzen oroipena 6
 goizagoago 58-
 gorde gabez 4-
 gose banaiz 46
 goseac illic badaude 55
 guchibanaco ostutze 164-
 guchica guchica 163-
 gure alac 111
 gure gabea 119
 gure onorean degu orobat cer sufritu asco 32
 gure palaguz 153

-I-

idiac idiari uztarran 136
 irabaci andico nequeac 162
 iritaco demboran 103-
 iritsi eciñic 7
 irmo peleatzeco 3
 itz guchian 105-

-J-

jaio ta bertatic 10-
 juicioco autu 2

-L-

larreabere suminduac 75
 lau etsai aidi 152
 leice zulo cabu gabea 69
 loac garaituac 171-
 logreriaco cuticia 26-
 lotsa baguera 10
 lotsaren lotsaz 166-

-M-

mastico chochaca igarra becela 147-
milla balio ditu 26-

-N-

nai adimbat 42-
naiz dala dan gogorrena 137
noiz edo noiz 58-
noiztic noicera 85-

-O-

obeto baño obeto 45-
ofrendaren guizena 39-
oñacez erdibi eguiña 181-
ondo gabeco cueba 2-
ondo izango litzaque 16
oneco....au 15-
onezco neque 158
onguien dagoquit 159
oniritzi araguzcoa 197
orratzean eguiña 181-
ostera edo ortic bera 64-
otzac illic 56

-P-

pauso oro 62-
penitencia beste bideric 40-
penitenciariac asco 40-
pozaren pozac 111

-S-

saiatzen ditu bere indar guztiac 11-
sarritacoac 62-
sasi gaiztcen sartu 175-
sentencia urraezgarri onen oñazcarrac 6-
sosegu seguitu bat 84-

-T-

tentacio seguitu bat 28

-U-

uste guenduan paquea 26-

-Z-

zuen biotzen zoragarri 75
zure gogoracoa 141

H I T Z B I K O T E A K"ETA" JUNTAGAILUAZ LOTUAK

-A-

aldatze ta gambianza 39-
 aranza ta quezcaquin 26-
 argaloc ta erquiñoc 10-
 arin ta aisa 118
 asaldatuac ta arazotuac 122-
 asiera ta diosala 9
 atseguin ta poz garbia 44

-E-

berenez ta izatez 184-
 bildurrac ta icaraz 9
 bildurrac ta negarrez 31
 billau eta mendeco 43, 44
 biotz beracha ta beraa 165-

-C-

cabu ta buca 75
 cristau fede gabe eta legue gabecoa 68

-D-

doaesqueña ta erreberencia 9

-E-

erdoiac ta sitsac 114
 esnai ta contuz 165-
 espiritu ta biotz 38-

-G-

gai eta diño 146-
 gaitzetsi ta gorroto 145-
 gauza bearrac ta premiazcoac 14
 gortu ta sortu 67
 gozodasuna ta atseguña 44

-I-

ichuli ta iraultzen 31
 igartu ta legortu 10
 iraupen ta soportu 137-
 itz ta egemplo 19-
 itzastea ta prestaera 9

-J-

justudasun ta zucentasun 2-

-M-

mansoa ta umilla 15-
 mañaz ta trazaz 138-
 mella ta acatsic 120-
 milagro ta miseriac 44-

-N-

neque ta icerci bicitu 135

-P-

pasatuac ta igaroac 31

-S-

soldadu ta guizonetara 171-
 sorrac ta gorrac 29-
 sutsuagoa ta iracequiagoa 56

-T-

tolesgabea ta bena 83-
 tristura ta neque 44
 trucada ta suertea 72

-U-

umillaturic ta barrunduric 116-
 utsera ta ecera 15-
 utsic ta gaberic 91

-Z-

zure gose ta bear (naiz) 200-
 zure indar ta aleguiña guciaquin 68

"EDO" JUNTAGAILUAZ LOTUAK

-A-

abereche edo portale 53
 alcandora ordea edo barreneco tunica 181-
 antzemate edo comparacio 83-
 araguitze edo encarnacioarequin 64
 arguiezquilla edo matutia 39
 aricatzen edo cansatzen 9-
 arintasun edo alivio 148-
 arqitu edo eidoco dira 19-
 arraza edo etorquia 48
 aztertu edo ceatzen 189-

-B-

baia edo consentimendua 9-
 berezco edo bana 3
 buelta edo biurrera 117-

-C-

centzun edo entendimentu 50
 centzun edo memoria 47-
 cillegui edo licito 176-
 cueba edo leice 2-

-D-

diferenteac edo banacoac 83-

-E-

erospeneco edo erredencioco 4
 errebesatzen edo vomitatzen 130-

escu edo baliamendu 36-
 escucotasuna edo libertadea 13
